“Ellos achacan a los nuevos patriotas de estar abandonando los principios humanos que siempre fueron divisa primordial dentro de la filosofía nacionalista vasca, para lanzarse por el camino de la violencia (...) Pero estos patriotas ignoran sin duda, que la juventud vasca, harta ya de promesas y de expectativas interminables e inactivas, no ha podido menos que preguntarse: ¿dónde está la capitulación de los vascos en la última guerra?⁵⁴”.

Denborarekin harremanak are gehiago okertzen joan ziren. Presoen aferak ez zuen lagundu harremanak hobetzen. Izan ere, garai horretan euskal preso politiko gehienak ETakoak izanda, EAJren elkartasuna ez zen oso handia izan (Ibid: 123). EAJren jarrera hori Bizkai Buru Batzarreko burua zen Ajuriagerrak aditzera eman zuen⁵⁵:

“Nos hablan de que los de ETA han mandado un emisario para pedir una entrevista con el PNV. El PNV no puede recibir a los de ETA, ni en conversación por razones de: Dignidad: Son unos calumniadores (...) Disciplina: Su directiva está formada por una persona expulsada de EGI⁵⁶”.

Halaber, 1963an Itsason ospatutako Aberri Egunean orduko Lehendakariak, Jesús María Leizaolak, ETaren eta biolentziaren aurkako mezua luzatu bazuen ere, urte berean Euzko Gaztedik argitaratutako *Gudari* aldizkariko artikulu

⁵³ Gogoratu behar da José Antonio Agirre Lehendakaria 1960an hil zela. Agirre izan zen Ekinen garaian EAJ eta Ekinen arteko akordio bat osatzearen aldekoena EAJkoen artean. ETAk 1961eko apirilean argitaratutako *Zutiken* lehendakariaren izaera goraiatzeko zuen (Ikusi *Zutik* 196; in Hordago, 1979 (1): 383-386).

⁵⁴ “¿Cuándo hemos capitulado?” *Zutik* 8; in Hordago, 1979 (2): 302.

⁵⁵ Txillardegiren iritziz, Ajuriagerrak Ekinekin egin bezala, ETaren desagertzea bilatzen zuen (Txillardegi, 1997; in Lorenzo Espinosa, 2018: 376).

⁵⁶ Juan de Ajuriagerraren adierazpenak; in Núñez et al., 1993 (1): 69.

ezberdinetan biolentziaren erabileraren aukera defendatzen zen⁵⁷. Hurrengo urtean, ETAk bere III. Biltzarrean “askapen nazionalako interesen aurkako elementu” bezala definitu zuen EAJren jarduna⁵⁸. Hala ere, Txillardegiren arabera, 1964an EAJko kide batek batzar bat egitea proposatu zion ETARI liskarrak konpontzen saiatzeko, baina batzar hori ez zen azkenean burutu alderdiaren aurkakotasunagatik:

“En una ocasión, a principio de 1964, Julio Jauregi (PNV) nos hizo una proposición para iniciar el camino de la reconciliación, celebrar una cena en Biarritz (...) Estuvimos esperando en un restaurante sobre la playa de Biarritz, pero Jauregi no aparecía. Entonces Isidro Monzón le llamó por teléfono (...) Y volvió muy extrañado: << según me ha dicho Julio, que él no vendrá, que los de Beyris le han prohibido cenar con nosotros>>. En aquel tiempo la secretaria del PNV estaba en la villa de Beyris. En 1964, mucho antes de que comenzaran las acciones armadas, los dirigentes del PNV tenían prohibido hablar con nosotros, prohibido incluso celebrar una pequeña cena con nosotros en Biarritz” (Txillardegi, 1997, in Lorenzo Espinosa, 2018: 377).

Ikusten denez, ETAREN eta EAJREN arteko harremanak ez ziren oso onak izan erakundearen lehenengo urteetan, beste arrazoi batzuen artean, ETA borroka armatua bateratzen zuen bide iraultzaile bat diseinatzen ari zelako.

III.2.1 The theorisation of the revolutionary war.

ETA was not born as an armed organization, not even intending to implement an armed strategy. Although one of the main reasons for its creation was the critics of traditional nationalism about its lack of activism, that criticism did not include the need to implement an armed strategy in the first instance. Indeed, ETA was almost entirely devoted to its members' recruitment, training, and propaganda activities (Jauregui, 1981: 273). Thus, the organization spent much of the first decade of its history theorizing and debating which would be the most effective means to achieve its political objectives. That reflective process continued over the years and was not free of tensions, expulsions, and splits within ETA.

⁵⁷ Ikusi *Gudari* 15 eta 20; in Hordago, 1979 (2): 415 eta 417.

⁵⁸ Ikusi “*Actas de la II parte de la III asamblea*”; in Hordago, 1979 (3): 125-126).

Indeed, ETA's first armed actions and the subsequent police repression brought to light the different opinions among the ETA militants about the use of violence.

Some showed their favourable stance towards the use of political violence:

"Varios jóvenes vascos acaban de ser condenados a largas penas. Se les acusa de haber recurrido a la violencia, para expresar su oposición al régimen. (...) Pues bien, la violencia engendra violencia. Los jóvenes vascos no quieren vivir como esclavos. Son los nuevos gudarís de la nueva resistencia⁵⁹".

Others, however, showed their discrepancies towards violent strategy:

"La dictadura de Franco y en general la dominación de Euskadi por España, se basa en la fuerza. Atacarla con medios violentos es llevar la lucha a su terreno. (...) Existe un fondo de valores cristianos indudable en Euskadi, que favorece ese tipo de actuación. (...) La no-violencia, permitiría usar el gran número de abertzales tocados que existe en nuestra Patria⁶⁰".

Those divergent views on the use of violence were formulated at a stage in which ETA had not yet discussed in depth what would be the organization's official position in that regard. Nevertheless, after self-defining as the *Basque Revolutionary Movement of National Liberation* after its first assembly (1962)⁶¹, ETA proposed a way of action based on mass and violent struggle after the workers' strikes shook the Southern Basque Country during the first half of 1962⁶².

The experiences of national liberation movements such as those in Algeria, Tunisia, Israel, Cyprus, Cuba, and China significantly influenced ETA's II Assembly (1963). Even though a specific strategy for the development of the armed struggle did not materialize within the debate of that assembly, the organisation's tendency to incorporate those insurrectionary models to the Basque Country (called *anticolonialista*, *tercermundista* or *guevarista*) became more robust. Moreover, that debate was directly related to ETA's reflection on the characterization given to the national question during its first years. Thus, the

⁵⁹ "Cuando los violentos condenan la violencia", *Zutik diciembre-enero 1961-62*; in Hordago, 1979 (1): 405-406.

⁶⁰ "En torno a la no violencia", *Zutik*, 6; in Hordago, 1979 (1): 295.

⁶¹ View document in Hordago, 1979 (1): 526-533.

⁶² View "Los obreros hemos comenzado la lucha", *Zutik* 4 (1962); in Hordago, 1979 (2): 260-261. Over the next few years, the workers' movement will become one of the main social sectors in which the organization will find new militants and collaborators (Laitin, 1996: 210).

work of authors such as Frantz Fanon (2006) or Federico Krutwig (2006)⁶³ significantly influenced the organization's ideological development since it began to understand the Basque national question in anti-colonial terms⁶⁴. Indeed, this reinterpretation of the national question in anti-colonialist terms by ETA took place at a historical moment in which the wars of national independence were taking place under those ideological parameters and, for the most part, using armed struggle (Larson, 1977: 95).

III.2.1.1 *Guerra revolucionaria. La insurrección en Euzkadi.*

Although the revolutionary anti-colonialist theories were gaining strength among its militants, it was not until its III assembly (1964) that ETA officially approved a document that proposed the use of political violence within a revolutionary strategy. That document, entitled *Guerra revolucionaria. La insurrección en Euzkadi*⁶⁵ (Revolutionary War. The insurrection in the Basque

⁶³ The book *Vasconia*, published by Federico Krutwig in 1963 under the pseudonym of Fernando Sarrailh de Ihartza was a source of great interest for ETA since its publication. In the author's opinion, any national liberation movement must be revolutionary (Krutwig, 2006: 393). In his opinion, national liberation and political violence are two indivisible concepts. Krutwig argues that a country that seeks its independence must inexorably use illegal methods, given the mere declaration of independence is considered an illegal act in the international order (Ibid: 394). Moreover, in Krutwig's opinion, the use of political violence is essential not only in the national liberation phase but also once the national independence has been obtained, to defend the rights acquired against the State (Ibid: 395). Krutwig makes direct references to the national liberation movements in Africa and Asia, especially those of Algeria and Vietnam by arguing that they can be exemplary for the Basque case.

⁶⁴ Probably, the revolutionary experiences that had a bigger impact on ETA's ideological development were the Cuban revolution and the Algerian independence war. On the one hand, those experiences proved that the revolutionary war could be an effective model in the practical field, and, on the other hand, they combined the national problem, a revolutionary point of view and the use of political violence in their ideological approach (Saratxo, 2013: 94-95).

⁶⁵ ETA had published several political notebooks among which there was one entitled *Guerra revolucionaria* (Revolutionary War), which was later reworked and renamed *La insurrección en Euzkadi* (The insurrection in Euzkadi). The text accepted in the III assembly, *Guerra revolucionaria. La insurrección en Euzkadi*, was a version that joined the two previous documents. The authors mentioned in the text's bibliography were Federico Krutwig (2006), Ernesto Guevara (1960), Mao Zedong and Claude Delmas (1963), among others. We could say that this text was a synthesis of the ideological and strategic contributions made by the national liberation movements of that time throughout the world (Saratxo, 2013: 96).

Country) came to represent decolonisation processes' influence (especially the Cuban revolution, the war of independence of Algeria, and the Vietnam War) on the organization's ideological development. In this document, the revolutionary war was defined as follows⁶⁶:

“La guerra revolucionaria es un conjunto de acciones de toda naturaleza (políticas, sociales, económicas, psicológicas, armadas, etc.) que tiende al derrocamiento del poder establecido en un país y su reemplazamiento por otro régimen, orden o sistema. (...) En una ecuación se podría resumir así: Guerra psicológica + Guerrilla (urbana o de monte) + Revolución = Guerra Revolucionaria⁶⁷”.

At the same time, based on what Krutwig (2006: 394) stated about the necessity of practising revolutionary political violence, ETA established the revolutionary war as its new strategic approach:

“La guerrilla no es más que una táctica, una de tantas de la G.R. (...) La guerrilla clásica se dirigía contra un enemigo y este enemigo era un ejército. En la G.R. por el contrario, el enemigo es un régimen político de opresión. (...) Para destruir a este enemigo la G.R. se hace con un arma terrible, indestructible, un ideal, una ideología. (...) Tenemos que hacerle comprender (al pueblo), así mismo, que la severidad de las medidas tomadas por ETA son absolutamente necesarias para conseguir rápidamente la destrucción total del colonialismo extranjero⁶⁸”.

III.2.1.2 Carta a los intelectuales.

One of ETA's main objectives at that stage was to gain the support of the people in the revolutionary war. Thus, in its IV Assembly (1965), the organization accepted a document entitled *Carta a los intelectuales* (Letter to the Intellectuals). With that document, ETA aimed to get the involvement of the intellectual sector as well as of the small and medium Basque bourgeoisie in their proposal for a revolutionary war⁶⁹, following what Fanon (1961: 33-35) states on the different stages of the revolutionary war (Bruni, 1988: 59). Likewise, in that document,

⁶⁶ The definition given in the document of the revolutionary war is not what Krutwig proposed in Vasconia, i.e., the last revolutionary step of the war (2006: 396). Furthermore, the definition mentioned in the document goes beyond the concepts of war and classical revolution (Saratxo, 2013: 96).

⁶⁷ *La insurrección en Euskadi*; in Núñez et al., 1993 (1): 273.

⁶⁸ Ibid: 275-277.

⁶⁹ In Letamendia's opinion (1994 (1): 293), that letter was ETA's first attempt to implement the logic of the parallel structures (the political structures of a Basque State) adopted in its III assembly.

ETA asks for the participation of the entire working class, including immigrant workers, in what the organization calls "integral Basque revolution":

"Para ETA es claro que el trabajador inmigrado está cuando menos tan explotado como el oriundo del país. Por eso en nuestra lucha revolucionaria pedimos la participación de todos los trabajadores que hoy viven en nuestro suelo, sin distinción de origen. (...) Ahora bien, el cambio de estructuras vamos a hacerlo en Euskadi, va a ser una revolución vasca⁷⁰".

III.2.1.3 Bases teóricas de la guerra revolucionaria.

At this point, ETA needed to propose a model of action that would include the use of political violence under the principles of the revolutionary war but within the objective conditions of the Basque Country, and it had to be compatible with its proposal for an integral revolution. To that end, ETA produced a document entitled *Bases teóricas de la guerra revolucionaria* (The Theoretical Bases of the Revolutionary War). In that document, ETA established the parameters its revolutionary strategy should follow. The organization proposed a strategical approach based on the logic of action-repression-action, an approach by which ETA intended to convert Franco's repression in support of the revolutionary war:

"Llamamos guerra revolucionaria vasca al proceso político-militar que tiene por meta la autodeterminación del pueblo vasco; haciendo evidente la calidad ocupante del sistema actual y que con este fin usa el mecanismo acción-represión repetido en espiral ascendente. (...) en el momento que la represión se hace lógica con sus propios fines, da al pueblo oprimido su carta de naturaleza como Nación⁷¹".

Furthermore, that document raised specific guidelines to be followed by the organization. It was divided into several sections to deal with the repression (what years later would be the fronts of ETA). It also developed an ideology intended to respond to people's problems (the one that later would pose in the form of revolutionary nationalism). Finally, it created internal groups destined for the accomplishment of armed actions. That document and the logic of action-repression-action were accepted at ETA's IV assembly (1965).

⁷⁰ *Carta a los intelectuales*; in Núñez et al., 1993 (1): 295.

⁷¹ *Bases teóricas de la guerra revolucionaria*; in Hordago, 1979 (3): 514-515.

However, after ETA's IV assembly, the internal tensions increased, resulting in clashes between different sectors within the organization. As we will discuss later, those clashes peaked in ETA's V Assembly (1966-67), after which the anti-colonialist sector took control of the organization.

III.2.1.4 *Hacia una estrategia revolucionaria vasca.*

1968an José Luis Zalbidek K de Zunbeltz izengoitiarekin *Iraultza* aldizkarian argitaratutako artikuluak zeresan handia sortu zuen ETako militante zein ingurukoaren artean. Testuan zuzenki aipatu ez arren, kolonialismoaren kontrako planteamenduetatik inperialismoaren kontrako planteamendu teorikoetarako jauzi ideologiko bat topa zitekeen bertan (Jáuregui, 1981: 417). Izan ere, nazio arazoaren inguruko garapen ideologiko horrek kritika zorrotzak jaso zituen ETako tesi kolonialisten defendatzaileen aldetik, batez ere, Beltzaren eta Krutwigen aldetik (Núñez et al., 1993 (2): 303). Horregatik, jasotako kritikak aintzat hartuta, Zalbidek testuaren bigarren edizio bat idatzi zuen, *Fines y medios en la lucha de liberación nacional*⁷² izeneko.

Testuaren lehenengo bertsioan zentratuz, hurrengo urteetan ETaren barneko eztabaida sutsuak sortu zituen masa-borroka eta borroka armatuaren arteko harreman dialektikoaz, Zalbideren ustez, masa mugimenduak mugimendu armatuarekiko menpekotasuna onartu behar zuen, hots, herriak erakunde armatuan delegatu behar zuen abangoardia iraultzailearen funtzioa (Letamendia, 1994 (1): 344-345). Haatik, autoreak gerrillaren aspektu taktikoa onartzen zuen, hau da, Krutwigek *Vasconian* aitortu bezala, garaipen militarren aukera alboratuta. Era berean, behar politiko eta ideologikoak lehenesten

⁷² Ikusi dokumentua: <http://www.abertzalekomunista.net/es/relato-historico/historia-del-mlnv/vi-asamblea/documentos-vi-asamblea/621-fines-y-medios-en-la-lucha-de-liberacion-nacional-1974> [Kontsulta: 2019-1-30].

zitzaizkien behar militarrei, borroka-eredu eta borrokaren eduki politikoaren arteko lotura azalduz.⁷³ Bestalde, 1968an bertan ETAk Melitón Manzanos polizia espainiarraren kontra egindako ekintzak euskal prozesu iraultzailearen aro berri bat zabaldu zuela zioen Zalbidek; euskal mugimendu iraultzaileak defentsa estrategikotik ofentsibara igaro behar zueneko, alegia. Hala ere, Zalbidek, ETAREN gaitasun militarraz jabetuta, argitasunez adierazi zuen defentsa estrategikoa eta ofentsibaren arteko dialektika:

“Una defensiva estratégica no es incompatible con ofensivas de tipo táctico Si la desproporción de fuerzas en favour del opresor impone al pueblo vasco una defensiva estratégica, la táctica ofensiva tiene por finalidad precisamente el ir superando paulatinamente esa desproporción (...) En el aspecto puramente militar, la combinación de defensiva estratégica y táctica ofensiva es conocida como lucha de guerrillas⁷⁴”.

Aurrekoarekin lotuta, dokumentuan esandakoaren arabera, errepresioaren maila igo ahala geroz eta zailagoa izango zen masen ekintzak burutzea, eta, hortaz, masen eta *erakunde iraultzailearen* arteko lotura ezinbestekoa zen, hots, masen borroka borroka armatuaren ekinbidera moldatu behar zela (Letamendia, 1994 (1): 344).

“en la medida en que la represión aumenta, las acciones de masas se hacen más difíciles y pasan a segundo término, al tiempo que cobra una importancia mayor la actividad de las masas de carácter indirecto en íntima colaboración con la organización revolucionaria”

Halaber, ETAk ordura arte biolentziari buruz egindako teorizazioaren eta praktikaren arteko distantziaz ohartzen da testuan, ordutik aurrea biolentzia iraultzailearen inguruko teoria eta praktika maila berean kokatu behar zirela adierazita:

“Queda superada la contraposición arrastrada durante años entre la teoría y la práctica revolucionaria. Se justificaba en teoría una violencia revolucionaria que no existía más allá del papel (...) La nueva ofensiva restituye- por el momento al menos- la unidad entre la teoría y la práctica revolucionaria⁷⁵”.

Aurretik aipatu ditugun Krutwigen eta Beltzaren kritikak bi eremutatik zihoazen: alde batetik, nazio arazoaren oinarri koloniala alboratu izana eta,

⁷³ *Hacia una estrategia revolucionaria vasca*, in Núñez et al., 1993 (2): 323.

⁷⁴ *Ibid*: 324.

⁷⁵ *Ibid*.

bestalde, kontraesan nazionalaren aspektu iraultzailea gutxietsi izana (Letamendia, 1994 (1): 344). Krutwigek berak kontraesan nazionalaren ezaugarrien berri eman zuen 1966an idatzitako testu batean. Bertan, euskal prozesu iraultzailearen eremu nazionala eta sozialaren arteko lotura ideologikoa ezarri nahi zuen. Testu hori *Nacionalismo revolucionario* izan zen, eta V. Biltzarrean ETAk bere egin zuen. Hurrengo atalean V. Biltzar horretan izandako eztabaidetan zentratuko gara, biolentziaren erabilpenaren ingurukoan arreta berezia jarriz.

III.2.2 Nazionalismo iraultzailea.

Lehen esan moduan, ETA kolonialismoaren aurkako teoriez baliatu zen gerra iraultzailearen eskema estrategikoa diseinatzeko. Horrek nazio arazoa eta biolentzia politikoaren erabilpena eskema ideologiko berean kokatzea ahalbidetu zion erakundeari. Hala ere, ETAREN ekuazio ideologikoan arazo sozialaren aldagaia ez zegoen oraindik guztiz argituta. Gerra iraultzailearen hausnarketarekin gertatu bezala, Krutwigen idazki batean oinarritu zen ETA nazio arazoa eta arazo soziala ekuazio ideologiko berean sartzeko. Idazki hori *Nacionalismo revolucionario* izenekoa izan zen.

III.2.2.1 *Nacionalismo revolucionario.*

1966an *Branka* aldizkarian argitaratu zen artikulu honek ETAREN V. Biltzarrean adosturiko oinarri ideologikoen muina ezarri zuen. Testuaren hasieran bertan, nazionalismo iraultzailearen kontzeptua definitzen da:

“En los últimos años se ha visto nacer una nueva forma de lucha del hombre por su libertad y, muy en especial, de las clases trabajadoras por su liberación social. Esta nueva forma de combate es la llamada nacionalismo revolucionario (Krutwig, 1966a: 7).

Testuan zehar asko dira Lenin, Bakunin, Trotsky Mao edota Truong Chinen teoriei⁷⁶ egindako goraipamenak. Ez da gauza bera gertatzen Engels eta komunismo klasikoaz aritzen denean:

“En ese sentido se mostró (Engels) injustamente enemigo del nacionalismo checo y de otros pueblos (...) La teoría leninista (...) ha dado nacimiento al llamado nacionalismo revolucionario que es la forma de lucha que después de la guerra mundial han adoptado los pueblos sometidos al imperialismo para la obtención de su liberación nacional y su liberación social” (Krutwig, 1966a: 7-8).

Zentzu horretan, Krutwigek komunismo klasikoa eta nazionalismo iraultzailea ezberdintzen ditu nazio arazoari dagokionez. Bere ustez, komunismo klasikoak ez bezala, nazionalismo iraultzaileak herri zapalduen aspirazio nazionalak bere gain hartzen ditu, helburu nazionalistak eta iraultzaileak logika berean sartuz. Halaber, nazionalismo burgesarekiko alde ideologikoa ere nabarmentzen du, bakoitzak idiosinkrasia ezberdina duela argudiatuz (Ibid: 9). Nazionalismo iraultzailearen aplikazio praktikoaz, Krutwigek dio kasu bakoitzeko baldintzek ezarri behar dituela jarraitu beharreko irizpideak. Hortaz, 60 hamarkadako Euskal Herriko baldintzetan, bere ustez, hirugarren munduko eredia zen jarraitu behar zena. Horren harira, eta Txinako adibidea erabiliz, posiblea deritzo euskal nazionalismo iraultzailean burgesia txikia eta ertainaren parte hartzeari (Ibid: 10). Aldiz, Espainia edo Frantziako ezkerreko aliantzarik sortzea ez du aintzat hartzen:

“El enemigo del pueblo vasco en esta lucha lleva un nombre simple se llama España (y en su caso Francia) (...) por España hemos de entender, en su caso, igualmente a la izquierda española (...) Poco importará que encubra su malintencionado y oculto designo bajo el manto de un pseudo-internacionalismo (...) que, de hecho, representa una forma de colonialismo bajo el manto de izquierdismo” (Ibid: 11).

Izan ere, Krutwigek analisiaren arabera, euskal klase borrokaren kontraesanak eta Espainiakoak antagonikoak dira. Krutwigek ustez, beraz, eta Maok horretaz esandakoari jarraituz, kolonizatutako herriek aurre egin behar dien kontraesanik

⁷⁶ Leninen eragin ideologikoa oso nabaria da testuan zehar. Leninek nazio arazoari buruz egindako ekarpenak jasotzeko, ikusi adibidez (Lenin, 1914; 1920). Ikusi ere Bakunin, 1867; Trotsky, 2001; Zedong, 1938a; Chinh, 1967.

handiena kontraesan nazionala da, eta horregatik, kontrairaultzailetzat hartzen ditu nazionalismoaz arnegatzen duten euskal mugimendu ezkertiarak :

“Un pseudo-revolucionario vasco, creyendo ser más revolucionario, en tal sentido se olvidare la condición primordial de un movimiento progresista revolucionario en Vasconia consiste en ser nacionalista, dejaría de ser revolucionario en la misma medida en que deja de ser nacionalista.” (Ibid: 19).

Kontraesan nazionalaren harira, berriro ere Maok esandakoa aintzat hartuta, Krutwigek dio nazionalismo iraultzailearen garaipenerako bidean, herri zapaldu batek afera kulturalari funtsezko garrantzia eman behar diola; bere iritziz, aldagai kulturala *gerrillaren Estatu Gorena* da eta (Ibid: 13).

Laburbilduz, Krutwigek nazionalismo iraultzailearen formularekin batu nahi zituen hiru elementu: nazionalismoa, iraultza eta auzi soziala. ETA nazionalismo iraultzailearen kontzeptuaz baliatu zen bere V. Biltzarraren aurretik sortuak ziren hika-mika ideologikoei irtenbidea emateko, orain ikusiko dugunez.

III.2.3 ETAREN V. BILTZARRA.

1965ean ETAREN IV. Biltzarrean *Bases teóricas de la guerra revolucionaria* txostena onartu zenetik 1966ko V. Biltzarreko I. zatia burutu arteko denboraldia oso liskartsua izan zen erakundearen baitan. Zenbait atxiloketaren eta ihesaldiren ondorioz sortutako ETAREN Bulego Politiko berriak IV. Biltzarrean onartutako gerra iraultzailearen inguruko oinarri ideologiko eta estrategikoak kolokan jarri zituen. Konkretuki, nazio arazoa azaltzeko ikuspegi kolonialista eta ekintza-errepresio-ekintza aukera estrategikoa alboratuak izan ziren ETAREN diskurtso ofizialetik. Haien orde, André Gorzen eta Europako ezker berriaren teorietan oinarritutako “erreforma ez erreformistak” kontzeptuan oinarrituta zegoen aukera estrategikoa bultzatu nahi zuten (Bilbao, 1996). Aukera berri hori, “boterearen mailakako erdiespenean” oinarritzen zen, IV. Biltzarrak bultzaturiko bide iraultzailea baztertuz. Jokin Apalategik (2006: 159) hiru puntu nagusitan laburbiltzen ditu aukera horren nondik norakoak: 1) klase borroka

Estatu mailan antolatu nahi zuten, ETA erakunde autonomo gisa desagerraraziz; 2) Europa mailako mugimendu sindikala eratu nahi zuten; 3) borroka armatua alboratu nahi zuten, errepresioaren sorburutzat hartzen zuten eta.

Bulego Politikoaren jarrera hori espainolizatzen hartu zen IV Biltzarreko tesien defendatzaileen aldetik. Hori dela eta, erakundearen estrategia gerra iraultzailearen parametroetara itzultzeko eta euskal nazio arazoa eta arazo soziala formula ideologiko bakar baten bidez azaltzeko helburuarekin, 1966an ETAREN V. Biltzarra antolatu zen.

III.2.3.1 V. Biltzarreko I zatia: *Posiciones ideológicas aprobadas por la V Asamblea.*

1966ko udan ETAKO zenbait militantek Bulego Politikoaren norabide ideologikoaren aurkako txosten bat idatzi zuten. Txosten hori *Informe verde* gisa ezagutu zen (inprimatu ziren orriak berdeak ziren eta). Idatzitako testuari beste militante batzuek eginiko emendakinak jaso eta gero, txostena berridatzi zen. Azken bertsio hori izan zen *Informe verde revisado*⁷⁷ izenaz ezagutu zena (Hordago, 1979, (7): 56). 1966ko abenduan burutu zen V. Biltzarreko I. zatian, aurrekoaz gain, beste lau txosten aurkeztu ziren, haien artean J. A. Etxebarrietak idatzitako *Análisis y crítica del españolismo social-chauvinista*⁷⁸, Bulego Politikoaren norabidea salatzea helburu zuena. Horretaz gain, eztabaidatuak izan ez ziren beste hiru txosten aurkeztu ziren, haien artean Bulego Politikoak aurkeztutako *Por una izquierda socialista revolucionaria vasca*, zeinetan, beste gauza batzuen artean, ETAREN adar militarren desagertzea bultzatzen baitzen (Ibid. 67).

Informe verde revisado dokumentua ez zen onartua izan, biltzarraren aurretik

⁷⁷ Ikusi dokumentua: <http://www.ehk.eus/es/v-asamblea-cast/documentos-v-asamblea/4275-informe-verde-revisado-onartutako-ponentzia-1966-cast>.

⁷⁸ "Informe Txatarra" bezala ezagutu egin zen dokumentu hori. Ikusi dokumentua: <http://www.ehk.eus/es/v-asamblea-cast/documentos-v-asamblea/4274-informe-txatarra-onartutako-ponentzia-cast>.

aurkeztu ez baitzen. Hala ere, biltzarraren amaieran idatzi zen *Posiciones ideológicas adoptadas por la V. Asamblea*⁷⁹ testuan, aipatu txostenean emandako definizio ideologikoak aintzat hartu ziren (Ibid: 56). Halaber, ETAk burgesia nazionalaren izaera iraultzailea onartzen zuen prozesu iraultzailearen fase nazionalak iraun bitartean (Ibid: 174). Haatik, ETAk garbi utzi zuen herri langilea zela *iraultza integrala* garaipenera eramanezakeen subjektu bakarra (Ibid. 175). Horrekin lotuta, testuaren arabera, ETAREN zereginak hurrengoak ziren: 1) herriari nazio-klase kontzientzia zabaltzea; 2) euskal teoria iraultzailea sortzea; 3) teoria iraultzailea praktikara eramatea Euskal Herriko baldintza objektiboetan oinarritutako estrategia baten bidez (Ibid. 176).

V. Biltzarreko I. zati horretatik bi elementu nagusi nabarmen ditzakegu: alde batetik, Bulego Politikoaren inguruko militanteen kanporatzea (haiek izan ziren ondoren ETA-berri sortu zutenak), eta bestetik, nazio arazoa eta arazo soziala kontzepzio ideologiko berean azaltzeko lehen saiakera sendoa ETAREN aldetik. Hurrengo urtean ospatu zen V. Biltzarreko II. zatian, erakundeak urrats sendoagoak eman zituen zeregin horretan, orain ikusiko dugunez.

III.2.3.2 V. Biltzarreko II. zatia: *Ideología oficial de Y.*

1967ko martxoan burutu zen ETAREN V. Biltzarreko II. zatia. Bertan txosten ezberdinak aurkeztu ziren eztabaida politikorako: I. zatian irakurritako *Informe verde revisado* dokumentuaz gain, Txillardegik gidatutako joerak⁸⁰ aurkeztutako *Ponencia ideológica* eta *Ponencia sobre el Frente Nacional* ere irakurri ziren (Núñez et al., 1993 (2): 86). Joera horren arabera, ETA Euskal nazio fronte bihurtu behar zen masa-ekimenak bideratzeko, sistemak sortutako aukera legalez baliatzeko eta, batez ere, esparru kulturean eragina izateko (Ibid. 87). Txostenak irakurri

⁷⁹ Ikusi dokumentua in Hordago, 1979 (1): 173-180.

⁸⁰ Letamendiak (1994) kulturalista deitzen dio joera honi; Jauregik (1981) etnizista edo sozialista humanista; beraiek "grupo socialista" bezala sinatzen zuten 1967ko idatzietan. Ikusi Hordago, 1979 (7): 25-54)

ostean, eztabaidarako lau lantalde eratu ziren: 1) aktibismoa; 2) estrategia; 3) ideologia; eta 4) estruktura (Hordago, 1979 (7): 79). Bigarren lantaldean hartutako erabakiak biltzarraren I. zatian eztabaidatutakoaren ildotik joan ziren, hots, erakundea lau frontetan banatzea: kulturala, sozio-ekonomikoa (Langile Frontea), politikoa eta militarra⁸¹. Ereku ideologikoari dagokionez, *Informe verde revisado* eta Krutwigek idatzitako *Nacionalismo revolucionario* testuetan azaldutakoaren sintesi bat aurkeztu zen *Ideología oficial de Y*⁸² izena hartu zuen behin betiko txostenean, zeinetan, ETAk “euskal nazio askapeneko mugimendu sozialista” bezala definitu zuen bere burua. Aipatu txostenean, ETAk nazionalismo iraultzailea hartu zuen erakundearen ideologia ofizialtzat, hura horrela definituz:

“El nacionalismo revolucionario tiene por fin el desarrollo pleno del pueblo y del hombre vasco, eliminando por tanto todas las alienaciones que padece el Pueblo Vasco (...) En nuestro caso concreto, el Nacionalismo Vasco es subjetivamente revolucionario y su lucha es una aportación y una lucha del internacionalismo proletario⁸³”.

Estrategiari buruz ez zen aldaera handirik egon IV. Biltzarrean onartutakoarekin alderatuta, ekintza-errepresio-ekintzak jarraitu baitzuen ETAREN oinarritzko metodo estrategikoa izaten. Esan daiteke ETAK biolentziaren erabileraren inguruko eztabaida garatutako prozesu ideologikoaren ondorioz itxi zuela, borroka armatua aukera estrategikotzat ez ezik, nazionalismo iraultzailearen formulapean hura elementu ideologikotzat ere hartuz. Hala ere, V. Biltzarraren garaiko ETAREN barruko hiru joerek gogoeta ezberdinak egin zituzten auzi nazionalaren, auzi sozialaren eta biolentziaren erabilpenaren inguruan, ondoren ikusiko dugunez.

⁸¹ Ikusi *Asamblea Nacional de ETA 2ª Sesión (Actas)*; in Hordago, 1979 (7): 93-94.

⁸² Ikusi Núñez et al., 1993 (1): 249-250. Ikusi dokumentua; <http://www.ehk.eus/es/v-asamblea-cast/documentos-v-asamblea/4313-la-ideologia-oficial-y>.

⁸³ *Ideología oficial de Y*; in Hordago, 1979 (7): 98.

III.2.4 Marxismoari, nazio auziari eta biolentziari buruzko eztabaidak eta jarrerak ETAREN V. Biltzarraren garaian.

III.2.4.1 “Joera obrerista” (ETA-berri).

V. Biltzarrean kanporatutakoek ETA-Berri sortu zuten. Beraiek izan ziren IV. Biltzarretik V. Biltzarrera erakundearen Bulego Politikoa kontrolatu eta klase borroka nazio auziaren aurrean lehenesten zutenak. Nahiz eta behin baino gehiagotan ETA-Berri marxismo-leninismo klasikoarekin lotu izan den, bere erreferentzia ideologiko nagusiak troskismoaren eremuan sar daitekeen “Europako ezker berria” bezala ezagutu zen mugimendu intelektualean aurkitzen ziren; Bruno Trentin, Lelio Basso, Ernest Mandel eta Michel Bosquet (André Gorz) autoreen teoriak oso garrantzitsuak izan baitziren erakunde berriarentzat.

50 hamarkadaz geroztik Europan zehar hedatuz joan zen ongizate estatuaren aurrean hausnarketa berriak egin zituzten lehen aipatutako ezkerreko intelektual horiek, eta sozialdemokraziaren eta stalinismoaren arteko hirugarren bide bat proposatzen saiatu ziren. ETA-Berri hausnarketa haietara hurbildu zen, eta hortik abiatuta, euskal kasuan aplikatu beharreko eredu teoriko eta estrategiko bat proposatu zuen: “erreforma ez erreformistak” eta “boterearen eskuratzeko progresiboa”.

Proposamen horren zehaztapenak *Por una izquierda socialista revolucionaria vasca*⁸⁴ dokumentuan bildu zituen. Testuan azpimarratzen zen prozesu iraultzailea helmugara eraman ahal izateko hainbat “erreforma iraultzaile” inplementatu behar zirela sistema kapitalistaren barruan. Hala ere, eremu teorikoan bada ere, ETA-Berriek ez zuten insurrekzio iraultzailearen aukera guztiz baztertu, baina

⁸⁴ Dokumentu hori izan zen joera obreristak (gerora ETA-Berri sortuko zuena) V. Biltzarrera eraman zuen eztabaidarako txostena. Hala ere, V. Biltzarreko lehen zatian joera hau erakundetik kanporatuta izanenez, txosten hori ez zen eztabaidatua izan. Geroago, *Zutik* 52an argitaratu zen. Ikusi Hordago, 1979 (5): 134-165.

horretarako langile klasearen heldutasun nahikoa beharrezkoa zela argudiatzen zuen⁸⁵. Izan ere, ETA-Berrik ez zuen lehenengo momentuan biolentziaren erabilpenaren aukera alboratu, baina baldintza batzuk jartzen zituen hura erabiltzeko: biolentzia hori mugatua⁸⁶ izatea, izaera popularra edukitzea, hots, erakundeak biolentzia hori ez kapitalizatzea, eta borroka armatuaren erabilpena ez bihurtzea erakundearen funtzio bakarra.

Antolaketa ereduari helduta, ETA-Berrik Espainiako eta Frantziako Estatuetakoa indar progresistekiko aliantza sortzea defendatzen zuen. Horretarako, sozialdemokraziatik eta stalinismotik aldentzea eta langile klasea oinarritzat hartuko zuen mugimendu bat sortzea proposatzen zuen⁸⁷.

Nazio auziari dagokionez, ETA-Berrik oinarri etnikoa alboratu egin zuen, hizkuntza barne, eta klasea jarri zuen aldarrikapen nazionalaren erdian. Nazionalismo burgesa eta nazionalismo popularra ezberdindu egin zituen, Leninek menderatutako nazioen nazionalismoaren eta nazio zapaltzaileen nazionalismoaren artean egin zuen bezala⁸⁸. Horregatik, euskal burgesiarekin batera nazio fronte bat osatzearen aurkakotasuna adierazten zuen, eta garbi utzi zuen *Zutik* 41eko *Unidad sí, pero, ¿qué unidad?*⁸⁹ artikuluan. Era berean, nazionalismoak bultzatzen ei duen nazioen arteko berdintasunaren printzipioa abstraktutzat jotzen zuen ETA-Berrik, eta horren aurrean menderatutako klaseen arteko parekidetasuna aldarrikatzen zuen⁹⁰. Orduan, euskal nazioaren

⁸⁵ Ikusi "Acción sindical"; Ibid: 89.

⁸⁶ Testuan biolentzia mugatutzat hartzen dira emisio piratak, sabotajeak, miaketak edota manifestazioak. Aldiz, biolentzia mugagabetzat hartzen da pertsonen zuzendua dena. Azken hau bakarrik egongo litzateke justifikatuta insurrekzioaren lehenengo fase batean, baldin eta amaieraraino eramango dela ziurtatu ahal bada.

⁸⁷1969an ETA-Berri *Komunistak-Movimiento Comunista Vasco* izendatzera pasatu zen, eta 1972an Espainiako *Movimiento Comunista* sartu zen, *Euskadiko Mugimendu Komunista* sortuz MCren barnean.

⁸⁸ Ikusi Lenin, 1914.

⁸⁹ Ikusi dokumentua in Hordago, 1979 (5): 23-35.

⁹⁰ Ikusi "Los tres pilares del internacionalismo obrero", *Zutik* 41.

existentzia aldarrikatzen zuen, baina ez ikuspuntu etnizista edo nazionalista batetatik, langile klaseen arteko lankidetzaren internazionalista bultzatzeko baizik.

III.2.4.2 “Joera kulturalista” (Branka).

V. Biltzarrean eredu anticolonialistaren aldeko joera gailendu zela ikusita, ETAREN buruzagitzari gutuna⁹¹ bidali eta erakundea uztea erabaki zuten joera sozialistako kide batzuek (Txillardegik, Benito del Valle eta Xabier Imazek). *Branka* aldizkariaren inguruan bildu ziren orduan eta bertan argitaratu zituzten haien tesiak. Brankak marxismoari kritika egiten zion nazio auziarekiko izandako jarreragatik eta, hortaz, sozialismo humanista defendatzen zuen⁹².

Nazio auziari dagokionez, ikuspegi estrukturalista bere eginda, Brankak euskal nazioaren oinarrian hizkuntza eta kultura jarri zituen, hizkuntza, etnia eta nazioa erabat lotuz. Izan ere, Brankaren ustez euskal nazioa komunitate etniko bat da, eta nazio batasuna lortzeko ezinbestekotzat jotzen zuen hizkuntza batasuna lortzea. Hortaz, Brankaren ustez Euskal Herriaren kasuan nazio borrokaren motorra hizkuntza borroka eta identitate borroka zen, eta ez klase borroka⁹³. Horrela, ETA-Berriri leporatzen zion nazio ikuskera galdu izana, eta Euskal Herriaren zapalketa nagusiaz (zapalketa kulturala eta nazionala) ez konturatzea. Hain zuzen ere, Brankakoentzat alienazio linguistiko eta kulturala zen herri baten zapalketa neurtzeko neurgailu nagusia (Jauregi, 1981: 359-367).

Estrategia politikoari dagokionez, Brankak euskal nazio fronte bat osatzea proposatzen zuen soberania politikoa eskuratzeko, Hirugarren Munduko hainbat herrietan bultzatutako nazio askapenerako frontearen eredua bere eginez. Horretarako, Euskal Herriko klaseen arteko elkarlana proposatzen zuen,

⁹¹ ikusi Hordago, 1979 (7): 101-107.

⁹² Ikusi “Por un socialismo vasco”, *Branka*, 5 (1967): 44- 52.

⁹³ Txillardegik gaiak teorizatu zuen Brankako hainbat artikulutan eta *Hizkuntza eta pentsakera* liburuan (Txillardegik, 1972).

burgesia txikiaren koordinaziopean. Izan ere, Brankaren ustez, oroz gain, Euskal Herriak nazio identitatea berreskuratu ahal izateko ezinbesteko zitzaion Euskal Estatua eskuratzea (Ibid: 379-394).

Biolentziaren erabilpenari dagokionez, Brankak, talde moduan, ez zuen hausnarketa handirik egin. Hala ere, Krutwigek (1966b; 1967) *Branka* aldizkarian idatzitako “Estrategia guerrillera” artikuluan gerra iraultzailearen eta gerrilla-gerraren printzipioak azaldu eta Euskal Herrian aplikatzeko proposamena luzatu zuela kontuan hartuta, pentsa liteke Brankak bat egiten zuela, edo ez zuela kontraesan handirik behinik behin, gerra iraultzailearen proposamenarekin.

III.2.4.3 “Joera antikolonialista” (ETA-V).

V. Biltzarrean erakundearen kontrola hartu zuen joera antikolonialista gerora ETA-V bezala ezagutu zen. Oinarri ideologikoei dagokienez, IV. Biltzarrean onartutako tesi antikolonialista berretsi eta gehiago zehaztu zuen Euskal Herriaren askapen sozialari zegokion gaia. Horretarako, Leninen oinarri teorikoekin batera, Mao Zedongen Txinako eredu iraultzailea aukeratu zuen Europako marxisten eskema klasikoa hartu beharrean. Izan ere, gogo beroz hartu zituen tesi maoistak. Maoren teoria iraultzailean euskal iraultza ikuspegi teoriko egokitik interpretatzeko aukera ikusi zuen, Maok bere teoria iraultzailean nazio borroka eta borroka soziala lotu baitzituen⁹⁴. Garaiko marxismoarentzat, oro har, atzerakoiak ziren Mendebaldeko Europako aldarrikapen nazionalak, iraultza burgesaren hondakintzat jotzen baitzituen. ETA-Vek, bere aldetik, marxismora hurbiltzearekin batera, euskal nazio askapenaren aldarrikapenari eutsi zion (Jauregi, 1981: 437-447; Apalategi, 1985: 279-282).

⁹⁴ Ikusi adibidez Zedong, 1935; 1938a; 1938b.

Estrategiari eta zehazki biolentzia politikoa erabiltzeari dagokionez, Mao Zedongen iraultza-gerra (1936) (edo Euskal Herrira ekarrita, euskal iraultza) praktikan jartzea erabaki zuen, hots, bere helburuak lortzeko borroka armatuari eustea⁹⁵. Maoz eta Leninez gain, honako erreferentzia ideologikoak izan zituen gidalerro: Israelgo Menaghen Begin buruzagiaren *Revuelta en Tierra Santa*, Aljeriako iraultzari buruzko lanak, tartean, Claude Delmas frantziar armadako koronelarena, Kubako iraultzari buruzko lanak, eta Krutwigen obra (Hordago, 1979 (7): 77; Jauregi, 1981: 443).

Nazio askapenaren arloan, naziotasunaren oinarrian euskara eta euskal etnia jartzen zituen ETA-Vek. Halaber, euskararen alboan euskal langileak jarri zituen nazioaren oinarrian, Euskal Langile Herria definitu baitzuen nazioaren subjektu gisa. Krutwigek teorizatu bezala, ETA-Vek ere askapenerako nazio fronte bat antolatzearen alde egin zuen.

Hurrengo taulan ETAREN V. Biltzarraren garaiko hiru joeren oinarri ideologikoak eta estrategikoak:

⁹⁵ Ikusi Hordago, 1979 (7): 257-262.

	ETA-Berri	Branka	ETA V
Marxismoaren erreferentziak	Europako ezker berria (Basso, Mandel, Gorz...). Troskismoa	Sozialismo humanista autogestionarioa.	Hirugarren munduko iraultzaileak (Mao Zedong, Frantz Fanon...). Nazionalismo iraultzailea.
Nazio auzia	Autodeterminazioa eta internazionalismoa. Nazionalismoaren aurka.	Hizkuntza eta kultura nazioaren oinarrian. Euskal estatu librea.	Euskal Herria = kolonia. Nazionalismo iraultzailea.
Biolentziarekiko jarrera	Biolentzia "mugatuaren" alde.	Hausnarketa sakonik ez.	Aldeko jarrera.
Estrategia	"Erreforma ez erreformistak". Aliantza langile mugimenduekin.	Ez du gerra iraultzailea baztertzen.	Eredu insurrekzionala. Gerra iraultzailea / Ekintza-errepresio-ekintza
Nazio fronteari buruzko iritzia	Nazio frontearen kontra	Nazio frontea: ezinbesteko tresna	Nazio frontearen alde.

Iturria: Odriozola & Saratxo, 2018.

Orain arte ikusi dugunez, ETAk auzi nazionala eta auzi soziala bateratu zituen bere V. Biltzarrean nazionalismo iraultzailearen aukera ideologikoarekin. Halaber, biolentziaren erabilpena teorizatua zuen gerra iraultzailearen logikarekin. Teoriatik praktikara, baina, alde handia egoten da, eta badaude faktore ezberdinak, bai barne mailakoak eta baita kanpo mailakoak ere, estrategia baten aukeraketan eta garapenean eragiten dutenak. Hurrengo atalean ETAk 1967an estrategia insurrekzionala aukeratzeko eragina izan zuten faktoreak aztertuko dugu AMIA matrizearekin.

III.3 ETAre lehenengo etapa estrategikoa. Estrategia insurrekzionala: gerra iraultzailea / ekintza-errepresio-ekintza.

III.3.1 Estrategia eraketarako faktoreen analisisa: AMIA analisisa 1967an.

Lehen esan dugun moduan, ETA ez zen jaio estrategia armatu bat aurrera eramateko intentzio argiarekin. Nahiz eta lehergailuz egindako lehen ekintzak 1959an burutu eta bere I. Biltzarraren (1962) ostean biolentziaren erabilpenaren inguruko eztabaidak eta teorizazioak ugaltu egin ziren bere militanteen artean, esan liteke bere V. Biltzarraren amaierak (1967) markatzen duela ETAre estrategia armatuaren hasiera ekintza-errepresio-ekintza espiralaren forman gerra iraultzailearen logikapean. Estrategia hori eta ez beste bat aukeratzeko eta diseinatzeko orduan arrazoi asko egon liteke. Arrazoi horiek sailkatzea, ordea, ez da erraza, eta horiek ahalik eta modurik argienean aurkezteko, zientzian eta, batez ere, enpresa munduan oso erabilia den AMIA (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahulguneak) izeneko matrizea erabiliko dugu.

Indarguneak	Ahulguneak
<p><u>JUSTIFIKAZIO IDEOLOGIKOAN:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Gerra iraultzailearen inguruko oinarri teorikoa eratuta zuen ETAK. - Nazionalismo iraultzailea eta euskal langile herria: integrazioarako aukerak. <p><u>BITARTEKOETAN:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Fronteen egitura eta <i>hirurkoak</i>. <p><u>EMAITZETAN:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - ETak ekimen eta ekintza sinbolikoak burutu ditu. 	<p><u>JUSTIFIKAZIO IDEOLOGIKOAN:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Barne disonantziak ETaren baitan biolentziaren erabilpenaren inguruan. <p><u>BITARTEKOETAN:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Iraultza klasiko bat aurrera eramateko zailtasun objektiboak. <p><u>EMAITZETAN:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Ordura arteko ekinbidea mugatua izan da.
<p><u>NAZIOARTETIK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> -Esperientzia iraultzaile garaileak (Kuba, Arjelia). <p><u>ESPAINIATIK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Frankismoaren aurkako ekimenak begi onez ikusten dira. <p><u>EUSKAL HERRITIK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Loraldi kultural berria. 	<p><u>NAZIOARTETIK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> -Frankismoaren aurkako kanpo interbentzionik ez. - NBek Espainia onartu zuen 1955ean. -Gerra hotzaren testuingurua. <p><u>ESPAINIATIK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Erregimen frankistaren jazarpena - Ekimen politikorako itxiera osoa. <p><u>EUSKAL HERRITIK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> -EAJ da euskal nazionalismoaren erreferente nagusia - EAJk ez du bat egingo ETarekin.
Aukerak	Mehatzuak

Iturria: Autoreak eginda.

III.3.1.1 Estrategia eraketarako kanpoko faktoreak.

Eragile baten jarduera ez da nahikoa eragile horren arrakastaz edo aurrera egiteko aukeraz balorazioa egiteko. Aitzitik, posible liteke eragile horrek oso jarduera egoki eta arduratsua garatzea, baina berak kontrolatu ezin dituen arrazoiek bertan behera uztea bere ahalegin guztia, eta alderantziz. Izan ere, etengabe agertzen ari dira faktore berriak, norberaren esku ez daudenak, eta horiek ulertzea, eta ahal den moduan egokitzea, izaten da erronka. Horiek dira aipatuko ditugun kanpoko arrazoiak. Gustatu edo ez, kanpoko arrazoiek eragin egiten dute eguneroko jardueran, batzuetan laguntzeko, eta besteetan traba

egiteko. Izaera negatiboa dutenak mehatxu bihurtzen dira gure zereginerako, eta izaera positiboa dutenak aukera aurrera egiteko. Aurrean ditugu 1967an ETAREN estrategia-eraketarako eragina izan zuten kanpoko arrazoi nagusienak.

III.3.1.1.1 Aukerak.

II. Mundu Gerraren osteko garaiak aldaketa sakonak ekarri zituen. Nazien kontrako aliantza izandakoa laster eredu ekonomiko kapitalistaren eta komunistaren defendatzaileen arteko konfrontazio bihurtu zen. Bloke komunistaren erreferentzia nagusia Sobietar Batasuna bazen ere, bazeuden stalinismoaren eremu teorikotik aldentzen ziren bestelako mugimendu iraultzaileak ere. Alde batetik, Mao Zedongek gidatutako Txinako iraultzak, Japoniako indar inperialistak kanporatu ostean, erakutsi zuen eredu komunista herrialde ez garatuetan ere ezartzea posiblea zela. Halaber, Kubako iraultzak armada txiki batek gerrilla-gerraren bidez erregimen bat boteretik kentzea posiblea zela demostratu zuen. Kolonialismoaren kontrako mugimenduei dagokienez, kolonizatutako herriek borroka armatuaren bidez askapen nazionala eskuratu zezaketela agerian geratu zen Aljeriako Independentzia Gerran, Fanonen teoria errealitate bihurtuz. Azken bi esperientzia horiek, beharbada, eragingarrienak izan ziren ETAREN kasuan; alde batetik, eremu praktikoan eredu eraginkorrek zirela demostratu zutelako, eta bestalde, nazio auzia, iraultza eta biolentzia aldagaiak ideologikoki bateratu zituztelako kolonialismoaren kontrako aukera ideologikoarekin. Izan ere, Francoren kontrako Espainiatik begi onez ikusten hasi zen ETAREN jarduna, erregimenaren kontrako borroka bezala ulertzen baitzen. Zentzu horretan, esan daiteke Espainiako antifrakistentzat erregimenaren kontrako borrokaren ikur bilakatzen ari zela ETA.

Bestalde, 60 hamarkadan euskal kulturaren berpizkundea bizi izan zen Euskal

Herrian. Bazegoen euskal kultura indartzeko gogo eta nahi bat. 50 hamarkadaren amaieran eta 60 hamarkadaren hasieran lehen ikastolak ireki ziren. 1963an Jorge Oteizak euskal kultura astindu zuen *Quosque tandem* saiakerarekin. Oteiza izan zen, gainera, 1966an sortu eta euskal kantagintza berriaren ikurra izan zen *Ez Dok Aamairu* mugimendu kulturalari izena jarri ziona. Euskal kantagintza berria errebindikazioarekin lotuta zegoen, eta gogotik lortu zuen herria bereganatzea, publiko gaztea bereziki. Kultur mugimenduaren transmisiorik zuzenena izan baitzen kanta; eta horri esker lortu zuen, hein batetan, euskal kultura herritartzea (Artze et al., 1977; in Odriozola, 2016: 286). Horrez gain, Oteizak Oñatiko Arantzazuko santutegirako eginiko eskultura Txabi Etxebarrietari dedikatu zion haren heriotzaren ostean⁹⁶. Bestalde, 1966an, Espainiako 14/1966 prentsa lege berriak argitalpenen bahitze administratiboa aurreikusten bazuen ere, euskaraz argitaratzeko bide berriak ireki ziren, baina oso estuak oraindik. Horrela, Durangoko Euskal Liburuaren Azoka jaio zen 1965ean. Hamarkadaren amaiera aldera, berriz, euskararen zabalkunderako funtsezkoak izango ziren zenbait aldizkari sortu ziren: *Zeruko Argia* eta *Goiz Argi* Gipuzkoan, *Principe de Viana* Nafarroan, *Herria* Lapurdin eta *Anaitasuna* Bizkaian. (Olariaga & Egaña, 2018: 31).

III.3.1.1.2 Mehatxuak.

Bigarren Mundu Gerraren amaieraren ostean, euskal nazionalismoaren esperantzak Espainiako Bigarren Errepublikara garaiko erregimen politikoa berreskuratzeko zuen eta Frankismoa boteretik kenduko zuen balizko kanpo interbentzio militar batean oinarritzen ziren. Izan ere, Bigarren Mundu Gerran

⁹⁶ Oteizak hurrengo hitzekin omendu nahi izan zuen Txabi Etxebarrieta: “7 de Junio, sacrificado en Benta-Aundi, el primero de nuestra Resistencia última, cuando subo el 1 de noviembre ya he decidido que pondré en lo alto del Muro. El Hijo muerto, a los pies de la madre, que estará mirando, clamando al cielo, hablando, no sé”. Orduko euskal kulturako mugimenduaren eta ETAREN arteko harremanaz gehiago jakiteko ikusi Odriozola, 2016: 279-300.

zabaldu zen faxismoaren kontrako pentsaerak eta borrokak kanpo interbentzio hori ahalbidetuko zuelakoan zegoen orduko EAJ eta erbestean aurkitzen zen Eusko Jaurlaritza. Aitzitik, Gerra Hotzaren testuinguruan komunismoaren kontrako borroka lehentasuna bilakatu zen bloke kapitalistako Gobernuentzat, eta zeregin horretan aliatu ona topatu zuten erregimen frankistan. Hortaz, Bigarren Mundu Gerran faxismoaren aurkako aliatuak izandakoen kanpo interbentzio militarra ez burutzeaz gain, 1953an sinatu ziren *Madrilgo Paktuek* eta *Espainiar Estatuaren eta Vatikanoren arteko Konkordatuak* deuseztatu zituen euskal nazionalismoaren aipatu esperantzak. Horrez gain, 1955an NBEk Espainiar Estatua onartu zuen, eta horrek frankismoarentzat Nazioarteko Komunitatearen onarpena ez ezik, erregimena boteretik kenduko zuen kanpo interbentzioaren aukeraren alboratzea ere ekarri zuen.

Nahiz eta Nazioarteko Komunitateak Erregimen Frankista onartu 50 hamarkadan, horrek ez zuen ekarri Erregimenaren irekiera politikoa edo errepresioaren jaitsiera. 1959an ordena publikoaren 45/1959 Legea sinatu zen Espainian, eta 1963ko abenduan Ordena Publikoaren Auzitegia sortu zuten. Aipatu legearekin batera *Ley del bandidaje y el terrorismo* indartu zuen erregimenak 1960an sinatutako lege-dekretu batekin zein 1963an sinatutako kode penal berriarekin. Bitartean, 1962an Asturiaseko meatzarien grebaren aurka gogor oldartu zen erregimen frankista. Bestalde, 1965etik aurrera protestak areagotu ziren unibertsitate mailan, Bartzelonako Unibertsitatekoak bereziki erreprimituak izanik (Gómez Oliver, 2008). Gainera, sindikatu guztiak legez kanpo zeuden (OSE izan ezik) eta berdina gertatzen zen alderdi politikoekin.

60 hamarkadan loratu zen euskal esparru kultural berriak ere frankismoaren errepresioaren jomuga izan zen. Adibidez, 1965ean Deban antolatutako euskal jaia debekatu zuen gobernadore zibilak, liskarrak eta atxiloketak egon zirelarik (Odriozola, 2016: 289). Antzeko jazarpena jaso zuen euskal kantagintza berriak; hamaika kantaldi debekatu baitzituen espainiar gobernuak eta beste hainbeste

abesti zentsuratu.

ETAren kontrako jazarpena ere oso handia izan zen erakundearen sorreratik bertatik. 1960an lehenengo atxilotuak izan zituen erakundeak. Juan José Etxabe eta Jon Ozaeta ETAkideak atxilotuak izan ziren Donostian Guardia Zibilaren kuartel batean pintadak egiten ari zirelarik⁹⁷. Hurrengo urtean⁹⁸ soldadu ohien trenaren aurka buruturiko ekintzak errepresio handia ekarri zuen; 200 bat pertsona atxilotuak, torturatuak eta espetxeratuak izan ziren. Atxilotu gehienak Madrilera eraman zituzten eta gehien-gehienek tortura salatu zuten. Auzipetutako zazpi pertsonak ETAren kontrako lehen gerra-kontseilua pairatu zuten eta kondena luzeko lehen zigorrak izan ziren ETarentzat (Odriozola, 2016: 324); 20 urtera arteko kartzela zigorrera kondenatuak izan ziren (Bruni, 1988: 40; Jáuregui, 1981: 137). 1964an ETako hainbat militanteren kontrako epaiketak hasi ziren. Horren harira, ETako presoek kartzelan barneko estatus politikoaren aldeko kanpaina bat abiatu zuten. Halaber, presoek ekimenaren aldeko mobilizazioetan parte hartzea leporatuta, hamarnaka pertsona atxilotuak izan ziren⁹⁹. Orotara, 1961-1965 tartean 145 pertsona izan ziren kartzelaratuak ETAkideak izatearen akusaziopean, atxilotuak izandakoak ehunka izan zirelarik (Zabalza, 2015: 76).

Euskal Herrian, eta konkretuago, euskal nazionalismoari dagokionez, nahiz eta ETAren erreferentzialtasuna igotzen joan zen urteak pasa ahala, esan liteke 1967an EAJk euskal nazionalismoaren hegemonia sinbolikoa mantentzen zuela;

⁹⁷ ETako bi militante haiek aurrerago aitortu zutenek, ekintzaren objektiboa ez zen kuartelean pintadak egitea, baina Donostiako hiria ez ezagutzeak kuarteleko horma batean pintadak egitea eraman zituen, kuartel baten aurrean zeudela jakin gabe. (Núñez et al., 1993 (1): 49)

⁹⁸ 1961eko martxoaren 27an poliziak kotxe baten barruan zeuden bi pertsonak tirokatu zituen, ETako militante batzuk zihoazen kotxea zelakoan. Poliziaren erratzearen ondorioz Javier Batarrita hil zen 49 tiro jaso ostean. Kotxean berarekin zihoana elbarri geratu zen (Zabalza, 2015: 43).

⁹⁹ ETak 1962an kartzeletako egoeraren inguruan egindako balantze batean esaten zuen erakundeko 28 militante zeudela kartzelan, eta haietatik zortzik kondena irmoa zuten. 1969an 862 euskal preso politiko zeuden (ez soilik ETakoak) (Egaña, 2017: 135-136).

alde batetik, erbestean zegoen eta EAJ buru zuen Eusko Jaurlaritzak jarraitzen zuen izaten hauteskunde batzuen bidez aukeratutako azken euskal instituzioa, eta horrek zilegitasun sinboliko handia ematen zion. Bestetik, ETAREN ordura arteko jarduera mugatua izanik, erakundeak ez zuen hegemonia sinboliko hori EAJri lehiatzea lortu. Halaber, alderdiaren eta erakundearen arteko balizko aliantza bat egotea urrun ikusten zen. Hortaz, nahiz eta ETAK bere V. Biltzarrean “burgesia nazionalistarekiko” aliantzaren eta nazio frontearen aldeko aldarria egin, 1967an ETAREN eta EAJren arteko aliantza bat ez ezik, Nazio Fronte bat eratzeko aukera ere urrun aurkitzen zen.

III.3.1.2 Estrategia eraketarako barruko faktoreak.

Aipatu ditugun kanpoko faktoreen kasuan, euren eragina baliatzean (aukerak) edo, bestela, saihestean (mehatxuak) dago gakoa. Hau da, norberaren eragin-gaitasunetik at gertatzen dira, eta horien aurrean jarrera bat hartzen da, batzuetan nahita, baina zenbaitetan nahi izan gabe ere bai. Orain agertuko ditugun barruko faktoreak, aldiz, eragilearen beraren jardunak sortzen ditu, eta jardun horrek ondorio positibo edo negatiboak ekar ditzakete.

III.3.1.2.1 Indarguneak.

Bere lehenengo urteetan ETA barne formaziora eta teorizaziora dedikatu zen gehien bat. Izan ere, euskal nazionalismoak historikoki nazio auziari emandako interpretazio biologikoa alboratzearekin batera, ETAK kolonialismoaren kontrako logikan oinarritu zuen euskal nazio auziaz egindako teorizazioa. Horrela, Euskal Herria kolonizatutako herri bat zela ulertuta, kolonialismoaren kontrako garaiko mugimendu askok hartutako bide estrategikoaren inguruan ere, hots, gerra iraultzailearen inguruan, teorizatzen eta eztabaidatzen hasi zen ETA. V. Biltzarrean eztabaida horiek goia jo zuten, barne zatiketak eraginez

erakundearen baitan. Hala ere, ETAk V. Biltzarrean tesi antikolonialistak berrestez gain, nazio auzia eta auzi soziala ideologikoki bateratzeko formula bat aurkitu zuen nazionalismo iraultzailearen aukera ideologikoan. Horrez gain, *euskal langile herria* euskal nazioaren subjektu politikotzat hartuz, euskal jatorria ez zuten pertsonen parte-hartzea *euskal iraultza integralean* ahalbidetzen zen, eta horrela, gutxika, parametro nazionalistetatik at kokatzen ziren bestelako gizarte sektore batzuk ETAREN planteamenduetara hurbiltzen hasi ziren.

Eremu teorikoaz gain, 1967an ETAk gerra iraultzailearen balizko aplikaziorako antolaketa-eredua eratuta zeukan. Alde batetik, Maok Txinako iraultzarako eta, batez ere Truong Chinek (1967) Vietnameko gerrarako diseinatutako fronteen egitura (fronte kulturala, fronte sozioekonomikoa, fronte politikoa eta fronte militarra¹⁰⁰) beretzat hartua zuen ETAk, masa borroka erakundearen jardunera erakartzeko asmoz. Horrez gain, frankismoaren errepresioa ekiditeko helburuarekin, Krutwigek (2006: 401-404) *Vasconia* liburuan aipatutako *hirurkoen*¹⁰¹ antolaketa-unitatea bere egina zuen ETAk.

Ordura arteko emaitza praktikoei dagokienez, ETAREN jarduna ekintza sinbolikoetara mugatua zegoen gehien bat. Alde batetik, erakundearen gaitasun armatua oso mugatua zelako garai horretan, baina, bestetik, gerra psikologikoaren printzipioak praktikara eramanez nahi zituelako. Jardun mugatu horrek, baina, neurri bateko balio sinbolikoa eman zion ETARI bere lehenengo urteetan frankismoaren kontrako borrokan.

¹⁰⁰ Fronte militarra indartu bazen ere, ez zen frontierik garrantzitsuena; bere helburua beste hiru fronteak laguntzea zen (Núñez et al., 1993 (2): 301; Odriozola, 2016: 207-208).

¹⁰¹ Hirurkoak hiru militantek osatutako oinarrizko zelulak dira.

III.3.1.2.2 Ahulguneak.

Ohikoa izaten da barne eztabaidak, disonantziak edota zatiketak egotea edozein mugimendu politikotan, are gehiago hasierako momentuetan, alegia, mugimendu hori bere oinarri ideologikoa eta bere estrategia politikoa diseinatzen ari denean. ETAren kasua haietako bat izan zen. Erakundearen sorreratik bertatik nazio auziaren inguruan, nazio auzia auzi sozialarekiko uztarketaren inguruan eta biolentziaren erabilpenaren inguruan sortutako eztabaidek barne zatiketak eragin zituzten, erakundearen jarduteko gaitasuna mugatuz. Horrek adierazten zuen balizko estrategia armatu bat aukeratzeak ondorio negatiboak ekar diezazkiokeela ETARI bere militante kopurua handitzeari begira, eta, hortaz, erakundearen jarduteko gaitasunari ere bai, barne sektore batzuek bere bidea bilatu ahal baitzuten ETAtik kanpo (urte batzuk geroago gertatu bezala). Hala ere, egia da gauza bera gertatu ahal zitzaiola kontrako erabakia hartzen bazuen, hots, biolentziarik gabeko estrategia bat aukeratu izan balu. Edozein kasutan ere, argi dago 1967an biolentziazko estrategia baten hautua hartzea aldagai arriskutsua izan zitekeela ETAren barne kohesiorako.

Bestalde, 1967ra arteko esparru teorikotik kanpoko ETAren jarduna nahiko mugatua izan zen, batez ere bere jardun armatua. Horrek, neurri handi batean, insurrekziozko bide zuzena, hain zuzen ere, *La insurrección en Euzkadi* dokumentuan proposatzen zena, alboratzera eramane zuen ETA, Euskal Herriko baldintza objektiboetan eraginkorra izango ez zelakoan. Horregatik, bere IV. eta, batez ere, V. Biltzarrean prozesu iraultzaile klasiko bat planteatu beharrean, ETAK herriaren sostengua izango zuen eta gradualki aurrera eramango zuen *iraultza integral* baterako oinarri teorikoa diseinatu zuen, baina momentuz teoriatik praktikara igarotzeko ezinean aurkitzen zen, eraginkortasun estrategikorik gabeko egoera batean, alegia.

III.3.1.3 AMIA analisiaren ondorioak.

Aurreko atalean ETak 1967an bere estrategia aukeratzeko izandako barne eta kanpo faktore edo arrazoi nagusiak aipatu ditugu. Ikusi dugunez, estrategia eraketarako kanpo faktoreen artean, positiboak edo *aukerak* nazioartetik ez ezik, Espainiatik eta Euskal Herritik ere datoz. Izan ere, garai hartan irabazle suertatu ziren nazioarteko mugimendu iraultzaileek gerra iraultzailearen aukera estrategikoak arrakastatsua izan zitekeenaren ebidentzia eman zien ETari. Bestalde, 60 hamarkadan Euskal Herrian sortu eta indartu zen mugimendu kultural berriak herri mobilizaziorako aukerak indartu zituen, hura ETaren planteamendu iraultzailerako faktore garrantzitsua izanik. Espainiari dagokionez, erregimen frankistaren izaera errepresiboak ahalbidetzen zuen ETaren jarduna begi onez ikustea erregimenaren kontrakoan aldetik. Aldiz, arrazoi negatiboen edo *mehatxuei* dagokienez, Gerra Hotzaren testuinguruak erraztu zuen Nazioarteko Komunitateak erregimen frankista onartzea, Espainia NBEan sartuz eta frankismoaren kontrako kanpo interbentziorako aukera alboratuz.

Bestetik, barne faktoreen artean, negatiboak edo *ahulguneak* ETaren ordura arteko jardunaren aldetik datoz gehien bat. Izan ere, erakundearen jardun armatua oso mugatua izan zen 1967ra arte, eta horrek, neurri handi batean, prozesu iraultzaile klasiko bat aurrera eramateko ezintasuna demostratu zion ETari. Era berean, erakundearen baitan izandako eztabaidek eta zatiketek erakusten zuten estrategia biolento bat aukeratzeak barne disonantziak sor zizkiokeela ETari. Aldiz, bazeuden ere barne faktore positiboak edo *indarguneak*: alde batetik, 1967an ETak bazuen gerra iraultzailearen inguruko oinarri teorikoa eratuta, eta horrek haren aplikazio praktikoa errazten zuen. Halaber, nazionalismo iraultzailea erakundearen ideologia ofiziala izanik, eta euskal langile herria euskal nazioaren subjektutzat hartuta, bestelako gizarte sektore

batzuen sostengua edota partaidetza (batez ere langile sektorearena) lortzeko aukera handiagoak zituen erakundeak.

Aurretik esandakoa kontuan hartuta, esan liteke 1967an gerra iraultzailearen estrategia aukeratzeko aldeko faktore nagusienak ETArenezat kanpoko mugimendu iraultzaileen esperientzien eraginetik eta erakundeak egindako lan ideologikoetatik zetozela. Aldiz, kontrako faktoreei dagokienez, Nazioarteko Komunitateak erregimen frankista onartzean, ETArenez planteamendu iraultzailea zilegitasun-maila txikiagoa lor zezakeen nazioarteari begira. Halaber, nazio auzia kolonialismoaren kontrako ikuspegian planteatzean eta biolentzia politikoaren erabilpena strategiaren oinarrian jarritz, ETAk barne-zatiketa berriak pairatzeko arriskua ez ezik, EAJrekiko balizko aliantza bat, Nazio Fronte gisa, eratzeko aukera urrunago izango zuen.

Aldeko eta kontrako faktoreen analisisian oinarrituz, esan liteke ETAk IM (indargune-mehatxu) estrategia bat (*The ST Strategy, maxi-mini*, Weihrich, 1982: 60) aukeratu zuela gerra iraultzailea praktikara eramatea erabaki zuenean ekintza-errepresio-ekintza formulapean. Izan ere, erabaki horrekin ETAk eremu ideologikoan zuen indargune nagusia maximizatzea bilatzen zuen agerian zituen ahulguneen ginetik, eta, aldi berean, erregimen frankistaren errepresioa saihesten saiatzeko antolaketa-eredu bat planteatzen zuen fronteen egiturarekin.

Aurretik esandakoan oinarrituz, esan liteke ETAk nazio auziari emandako kolonialismoaren kontrako ikuspegian oinarritutako balio ideologikoa eman ziola biolentzia politikoaren erabilpen estrategikoari gerra iraultzailea praktikara eramatea erabaki zuenean ekintza-errepresio-ekintza espiralaren aplikazioarekin. Halaber, erregimen frankistaren errepresioa eta itxiera politiko hertsia zein mundu mailan ziharduten mugimendu iraultzaileen esperientziak erabaki horren faktore pizgarriak izan ziren. Hain zuzen ere, ETAk 1967an nazio

auziaren eta biolentziaren inguruan egindako hausnarketen arteko harremana hurrengo formularen bidez irudika daiteke:

<p>X = Nazio auziaren interpretazio ideologikoa. (ETAren kasuan kolonialismoaren aurkako ikuspegia).</p> <p>Y = Biolentziaren inguruko hausnarketa teorikoa. (ETAren kasuan kolonialismoaren aurkako gerra iraultzailearen ondorio praktikoa.)</p> <p>b = Kanpo eraginak. (nazioarteko esperientzien eraginak: ETAren kasuan hirugarren mundukoak.)</p> <p>Z = Biolentziaren erabilpen estrategikoa. (Gerra iraultzailea/Ekintza-errepresio-ekintza)</p> <p>c = Euskal Herriko baldintza objektiboak. (Garai horretan: erregimen frankista Estatu espainiarrean.)</p>	<p>Y=bX</p> <p>Z=cY</p> <p>Z=cbX</p>
--	---

Iturria: Saratxo, 2013: 108

Eremu teorikoan eztabaidatua izan ostean eta estrategikoki biolentzia erabiltzea erabaki ondoren, ETA ekintza-errepresio-ekintza praktikara eramaten saiatu zen. Hurrengo atalean 1967an hartutako estrategia zertan gauzatu zen ikusiko dugu.

Aurretik aipatu bezala, 1959ko abenduan egin zituen ETAk lehergailuz bere lehenengo ekintzak. 1961eko uztailean jauzi kualitatibo bat eman nahi izan zuen Donostiara zihoan falangistez beteriko trena errailetik ateratzen saiatu zenean. Edonola ere, bere lehenengo urtetan ETA militante berrien kaptaziora eta formaziora zein propaganda ekimenak burutzera dedikatu zela azpimarratu behar da, hura izanik 1964ra arteko bere ekinbide nagusia (Jáuregui, 1981: 273). Izan ere, 1964an antolatutako III. Biltzarrean ETAk prozesu iraultzaile bat aurrera eramateko erabakia ofizialki onartu zuen. Beste gauza batzuen artean, euskal *hierarkia paraleloak* (OPA) martxan jartzea proposatzen zuen. Hierarkia paralelo horien funtzioa etorkizuneko Euskal Estatuaren instituzioak eraikitzea eta frankismoari zilegitasuna eta eraginkortasuna kentzea zen (Krutwig, 2006: 410). ETAren teorizazioaren arabera, hierarkia paraleloen ezarpena prozesu

iraultzaileak iraun artean aurrera eraman behar da, ez da garaipenera itxaron behar¹⁰²:

“Conforme a lo dicho sobre las jerarquías paralelas, iremos creando en cada pueblo de Euskadi un ayuntamiento clandestino con su alcalde y concejales (...) Así, el día de la independencia tendremos prácticamente en pie y funcionando todos los servicios¹⁰³.”

IV. Biltzarrean (1965) ETAk lau sailetan banatu zituen bere barne-antolamendua: informazio saila, bulego politikoa, OPA eta sail militarra. Azken sail horren egoera ETAk garai horretan teoriaren eta praktikaren artean zuen distantziaren adierazlea zen; gerra iraultzaileaz, borroka armatuaz edota iraultza integrazleaz hitz egiten zen bitartean, sail horretako egoerak ez zuen aukera handirik ahalbidetzen: sei pertsona, pistola bat eta sei metrailera ziren ETAREN garaiko baliabide militar guztiak (Núñez et al., 1993 (1): 163). Hala ere, V. Biltzarraren bigarren zatiaren ostean, ETA ekintza-errepresio-ekintza espirala martxan jartzeari ekin zion.

Estrategia horren garapena bi fasetan bana daiteke: lehenengoa 1967-1970 tarteari dagokio¹⁰⁴ eta bigarrena 1971-1974 tarteari. Izan ere, Ibarrek (1987: 67-68) aipatu bi faseak ezberdintzen ditu, bakoitzari logika eta ezaugarri propioak emanez. Lehenengo etapari dagokionez, Ibarren ustez ekintza-errepresio-ekintza espirala zerotik hasten da, herri mobilizazio urriko egoera batetik, eta estrategiaren jomuga insurrekzio orokor batera ailegatzea da akzio-errepresio prozesu baten ondorioz¹⁰⁵, zeinetan, ETAREN planteamenduen arabera, Estatuaren errepresioa elementu gakoa da insurrekzioaren fasera ailegatzeko.

¹⁰² Letamendiaren arabera (1994 (1): 293) IV. biltzarrean onartutako *Carta a los intelectuales* dokumentua izan zen ETAk hierarkia paraleloak sortzen hasteko lehenengo deia.

¹⁰³ *Guerra revolucionaria. La insurrección en Euzkadi*; in Núñez et al., 1993: 281.

¹⁰⁴ Ekintza-errepresio-ekintzaren strategiaren hastapena 1965ean koka daiteke ere, hots, ETAREN IV. Biltzarra burutzen denean. Hala ere, strategiaren inplementazio praktikoari dagokionez, zuzenago iruditzen zaigu 1967 urtea ezartzea hastapen gisa, hots, behin ETAREN V. Biltzarraren bigarren zatia burutu eta gero.

¹⁰⁵ 1968ko uztailean idatzitako *“La acción-represión en Euzkadi”* dokumentuan ETAk ekintza-errepresio-ekintza espiralaren logika eta ordura arte izandako garapena azaldu zuen. Ikusi dokumentua in Garmendia, 1979 (2): 193-200 eta Hordago, 1979 (7): 518-523.

Bigarren fasea, aldiz, espirala indarrean dagoen puntu batetik hasten da; herri mobilizazioaren maila altuagoa da aurreko fasean baino, espiralaren lehenengo urratsak bete baitira dagoeneko (Ibid). Bigarren fase honetan, ETAREN helburua herri mobilizazioa praktika armatuarekin lotzea izango da espiralaren azken fasera igarotzeko, hots, herri insurrekzio armatua inplementatzeko. Izan ere, Ibarraren ustetan bigarren fase horretan Estatuaren errepresioa ez da elementu gakoa ETAREN estrategiaren inplementaziorako, erakundeak konfiantza handiagoa baitu herri mobilizazioaren garapenean aurreko etapan baino (Ibid).

III.3.2 Ekintza-errepresio-ekintza estrategiaren lehen fasea: 1967-1970.

V. Biltzarraren bigarren zatiaren ostean (1967) ETAK teoriatik praktikarako jauzia eman nahi zuen ekintza-errepresio-ekintza espiralarekin. Izan ere, nahiz eta bere IV. Biltzarrean (1965) ekintza-errepresio-ekintza espirala martxan jartzea adostu, 1965ean eta 1966an ETAK ez zuen ekintza garrantzitsurik egin, eta, hortaz, espirala ez zen martxan jarri 1967ra arte. Izan ere, ekintza-errepresio-ekintza espiralaren adibiderik argiena 1968an gertatu zen. Urte horren ekainaren 7an ETAREN V. Biltzarra zuzendaria eta erakundearen ideologoetako bat izan zen Xabier (Txabi) Etxebarrietak¹⁰⁶ José Pardines guardia zibila hil zuen Billabonan, azken honek Etxebarrieta Iñaki Sarasketarekin batera zihoan kotxea kontrol batean gelditu eta gero. Ordu batzuk geroago, Guardia Zibilak Etxebarrieta tiroz hil zuen Tolosako Benta Haundiko bidegurutzean. Egun berean, Txabi Etxebarrieta biolentzia hilgarria erabiltzen eta bere kontra jasotzen zuen ETAKO lehen militantea bilakatu zen. Herri-mobilizazio handiak eta erregimen frankistaren errepresio handia eragin zituen gertaera horrek.

¹⁰⁶ Etxebarrietak idatzi zuen urte horretako Aberri Egunerako ETAK prestatutako agiria (Ikusi Hordago, 1979 (6): 523). Agirian nazio frontearen aldeko aldarria egiten zen; fronte horrek programa minimo baten inguruan herriko maila popularrak bildu behar zituela esanez (Odriozola, 2016: 216).

Bi hilabete geroago, abuztuaren 2an, ETAk Espainiako Poliziaren Brigada Politiko Sozialaren burua eta torturatzaile ezaguna zen Melitón Manzanás hil zuen. Etxebarrietaren eta Manzanásen heriotzak hain denbora laburrean burutu izanak bigarrena lehenaren erantzun gisa ulertzera eramán lezake. Hala ere, ETAk bere azkenengo *Zutabea* (2018) Manzanásen kontrako ekintza *frankismoaren terrorearen erantzun orokor gisa* eta Etxebarrietaren heriotza burutu baino lehenago erabaki zuela adierazi zuen. Halaber, dokumentu horretan ETAk Manzanásen kontrako ekintza inflexio puntu bat izan zela bere ekinbide armatuan adierazi zuen:

Erakundeak pertsona bat hiltzeko prestatuturiko lehen ekintza izan zen eta, propaganda armatuaren ildoak gaindituz, jarduera armatu erasokorrako baterako urratsa iragarri zuen, ondoren etenik izan ez zuena ETAk borroka armatua utzi arte. Inflexio puntu horretatik aurrera enfrentamendua areagotu eta ETArek ekintza armatuen kopurua emendatu egin zen (ETA, 2018: 19-20).

Halaber, ekintza hura aldarrikatu zuen agirian¹⁰⁷, ETAk martxan jarritako iraultza integraleko prozesuaren baitan kokatu zuen Manzanásen heriotza, herriaren sostenguaren beharra azpimarratzen zuelarik:

Pero no queremos que la ejecución sea considerada como un hecho aislado, como una venganza privada de poca importancia. La ejecución del policía Manzanás es un importante paso adelante en nuestra lucha revolucionaria y adquiere su verdadero valor al situarlo dentro de esta lucha (...) seguiremos adelante mientras el pueblo nos ayude, nos apoye y quiera que sigamos, mientras nuestro pueblo siga comprendiendo que ser vasco y ser pueblo, hoy, significa lucha.

Ibarraren arabera (1987: 74) Manzanásen kontrako ekintzak lagundu zuen ETAk ekintza-errepresio-ekintza espiralarekin lortu nahi zituen erregimen frankistaren deslegitimaziozko efektua zein erakundearen biolentziaren legitimaziozkoa indartzen. Izan ere, Estatuaren biolentziaren monopolioa kolokan jartzen hasi zen ETA bere jardunarekin. Halaber, Manzanásen kontrako ekintzak frankismoaren errepresio latza ekarri zuen: 1968an ETArekin lotutako 434 atxilotu, 189 kartzelaratu, 75 deportatu eta 38 exiliatu egon ziren (Bilbao, 2006), eta 1969an 1953 atxilotu egon zen Euskal Herrian (Garmendia, 2000: 146), haien artean ETArek orduko zuzendaritza ia osoa atxilotua izan zen Bilbon eta

¹⁰⁷ Melitón Manzanás, *ejecutado*; in Hordago, 1979 (7): 531-533.

Kantabrian izandako operazio polizialen ondorioz. 1969ko amaieran 300 euskal militante inguru (ez solik ETakoak) zeuden espetxeratuta, eta hiru pertsona hilda suertatu ziren indar polizialek tirokatuak (Zabalza, 2015: 111). Horrek, espiralaren indartzea ekarri zuen, neurri batean bada ere. Izan ere, ETaren ekintza-errepresio-ekintza espirala martxan jartzeko funtsezkoa izan zen erregimen frankistaren papera; alde batetik, bere jarrera errepresiboarekin espiralaren ziklo osoa betetzen baitzuen, eta, bestetik, ETaren estrategia bera errepresio harekin koherentea zelako (Jáuregui, 1981; Jeram & Conversi, 2014; in Odriozola, 2016: 254 eta 341).

Frankismoaren errepresioak goia jo zuen 1970ean Burgosko prozesuarekin, zeinetan ETako 16 militante epaituak izan baitziren terrorismoa leporatuta, haietako sei Manzanas hil izanaren akusazioa jasoz. Epaketak 25 egun iraun zituen, eta abenduaren 28an Burgosko Epategi Militarrak epaia publiko egin zuen: 9 heriotza-zigor sei akusaturentzat (Manzanasenaz gain, Fermín Monasterio taxilariaren heriotza leporatu zitzaien haietako batzuei) eta 519 urteko kartzela-zigorra orotara. Hala ere, Euskal Herrian eta nazioartean epaketak sorturiko oihartzun soziala bide, Francok auzipetuen heriotza-zigorrak bertan behera utzi eta 30 urtetako kartzela-zigorrak ezarri zizkien kondenatuei. Gogoratu behar da 1970eko abenduaren 1ean ETak (ETA-Vak)¹⁰⁸ Donostian Alemaniako kontsula zen Eugen Beihl Schaeffer bahitu zuela. Burgosko prozesuaren epaiak kontsularen etorkizuna erabakiko zuela adierazi zuen ETak (Bruni, 1988: 125). Hala ere, abenduaren 25ean, epaia atera baino hiru egun lehenago, Beihl askatua izan zen. Geroago jakin zenez, Telesforo Monzón buru zuen Anai Artea elkartearen bitartekaritzaren bidez, Alemaniako Gobernuak Francorekin hitzartu zuen Burgosko epaituak ez zirela heriotza-zigorrera kondenatuak izango, eta horren ondorioz Beihl askatua izango zela.

¹⁰⁸ ETA Viek agiri bat atera zuen bahiketarekin zerikusia ez zeukala esanez. Ikusi *Comunicado de la dirección nacional de ETA*; in Hordago, 1979 (10): 117.

Horrela izan ezean, Alemaniak Espainiarekiko harreman ekonomikoak moztuko zituen (El País, 1981). Bahituta egonda, Beihlek ihes egitea lortu zuen, baina herritar batzuegana laguntza eske jo zuenean, herritar horiek Beihl bueltatu zioten ETari (Ibid). Bere azken *Zutabean*, ETAk ekintza hori euskal gatazka politikoa nazioartean ezaguna izateko burutu zuela adierazi zuen:

ETAk, herri erantzun irmoa antolatzearekin batera, Euskal Herriaren askatasun nazionalaren aldeko borroka nazioartean entzunarazteko ekintza burutu zuen, Alemaniako Kontsula bahituz. ETAk burutu molde horretako lehen ekintza izan zen eta 24 egun iraun zituen (ETA, 2018: 20).

Burgosko epaiketaren prozesuak ekintza-errepresio-ekintza espirala bere unerik gorenera eramanean zuen. Urte bat lehenago, 1969an, ETA oso ahulduta zegoen erregimenaren errepresioaren ondorioz, baina prozesuaren oihartzunak eragin zuen ETako militanteak erregimen frankistaren kontrako abangoardia bilakatzea Euskal Herrian, Espainian eta nazioartean (Muro, 2008: 106). Zentzu horretan, ekintza-errepresio-ekintzaren logikak inork gutxik espero ahal zuen eraginkortasuna lortu zuen (Whitfield, 2014: 43).

Hala ere, espiralak ez zuen eraginkortasun maila bera lortu langile mugimenduaren atxikipenari zegokionez. ETA langile mugimenduaren erreferente nagusi bilakatzen saiatu zen garai horretan bere Langile Frontearen bidez. Horretarako, ETA langile mugimenduan sartu zen era aktibo batean, batez ere, enpresa gako batzuetan zituen militante batzuei esker (Ibarra, 1984: 186). Horrek eta 1967an CC.OOen kontrako ilegalizazioak ETA Euskal Herriko langile mugimenduaren erreferente berria izatea ahalbidetu zuten (Ibid, 1987: 75). Hala ere, orduko euskal langile mugimenduak ez zuen bat egiten ETaren helburu nazionalistekin, eta nahiz eta erakundearen ekinbideari esker identifikazio-prozesu bat sortu zen ETaren eta langile mugimenduaren artean, langile mugimendua ez zen ETaren strategiaren aktibo garrantzitsu bilakatu, identifikazio hori ez baitzen ETAk espero zuen mailara heldu. ETA euskal langile mugimenduaren ikurra bilakatzen ari zen bere borroka antifrankistagatik baina

ez langile klase horrek bat egiten zuelako ETAREN aldarrikapen nazionalekin¹⁰⁹ (Ibarra, 1987: 78). Horrez gain, garai horretan ETAK ez zuen langile mugimenduarekin zuzenki lotutako ekintza armaturik burutu, eta ETAKoak ez ziren langileen kontrako errepresioa ez zen izan ETAREN kontrakoa bezain latza, hori izanda langile mugimendua espiralaren logikan ez sartzeko beste faktore garrantzitsu bat (Ibid).

Izan ere, Burgosko prozesuaren ostean langile mugimenduaren eta ETAREN arteko identifikazio hori gutxitzen joan zen. Esan daiteke, beraz, ETAK planteatutako ekintza-errepresio-ekintza espiralak porrot egin zuela langile mugimenduaren inplikazioari dagokionez. Alde batetik, langile mugimenduak, momentu puntualetan salbu, biolentziarik gabeko borroka bat aurrera eraman zuelako, eta, bestetik, langile mugimenduak ez zuelako bat egin ETAREN estrategia insurrekzionalarekin (Ibid).

Hain zuzen ere, langile mugimenduarekiko harremanak, antolaketa-ereduak, marxismoaren eta nazionalismoaren arteko dialektikak eta biolentziaren erabilpenaren inguruko iritzi ezberdinek barne zatiketa berriak eragin zituzten ETAREN baitan, ondoren ikusiko dugunez.

III.3.3 Marxismoa, nazionalismoa eta biolentzia politikoa. 1970eko zatiketak.

V. Biltzarraren osteko urteetan hiru joera egon ziren ETAREN baitan. 1966an ETABerriren zatiketa burutu zen moduan, 1970ean ere aipatu joeren arteko ika-mikek zatiketa berriak ekarri zituzten. Alde batetik, ETAREN V. Biltzarrean adostutako oinarri ideologiko eta estrategikoak indarrean mantentzen zituen joera zegoen, ETA-V bezala ezagutu zena (gerora, ETAREN siglak bere gain mantendu zituen

¹⁰⁹ 1967an sorturiko *Comisión Obrera Provisional de Gipuzkoak* (zeinetan ETAREN Langile Fronteak parte hartzen baitzuen) bere gain hartu zuen euskal auzi nazionala (CC.OO de Euzkadi, 2001: 9). Hala ere, oro har, auzi nazionala ez zen orduko euskal langile mugimenduaren lehentasuna.

bakarra). Bigarrena, borroka armatuaren estrategia kolokan jartzeaz gain, ETA Espainia mailako alderdi marxista-leninista sortzeko helburua zuena eta (*Células Rojas* izenarekin ezagutu zena izan zen. Eta hirugarrena, 1970eko Biltzarra¹¹⁰ deitu zuena izan zen, ETA euskal langileen alderdi bihurtu nahi zuena, eta urte batzuk geroago, *Células Rojas* taldeak egin bezala, nazionalismoaz arnegatu zuena: ETA-VI. Aipatu hiru joeren arteko ika-mikez zentratuko gara hurrengo lerroetan.

III.3.3.1 Células Rojas.

*Células Rojas*¹¹¹ taldeak ETAREN V. Biltzarrean adostutako oinarri ideologikoei eta estrategikoei egindako kritika handienak hiru eremutan bana daitezke: nazio arazoaren interpretazio ideologikoa, borroka armatuaren erabilpena eta mugimendu iraultzailearen antolamendu-eredua (Núñez et al., 1993 (3): 39). Kritika horiek euskal nazio arazoari marxismo klasikoaren eta Stalinen Estatu multinazionalen inguruko teorien¹¹² aplikatze zorrotzaren ondorioz zetozen (Iztueta & Apalategi, 1977: 83). Letamendiak (1980: 11). hiru puntu nagusitan ikusten du talde horren berezitasuna orduko ETAREKIN alderatuz: 1) borroka armatua errefusatzeko zuten; 2) nazionalismoa (euskal nazionalismoa barne) ideologia burgestzat hartzen zuten; 3) klase borroka Estatu espainiar mailan kokatzen zuten. Nahiz eta talde horrek ekintza armatu batzuk burutu zituen

¹¹⁰ Biltzar hori 1970eko abuztuaren 31n burutu zen Itxason. Biltzarra antolatu zuen barneko zuzendaritzak eztabaidatzeko txostenak bildu zituen *Kemen* 3an. Txosten gehienek kolonialismoaren kontrako ikuspegia alboratu eta marxismo-leninismoa, eta neurri txikiagoan maoismoa, hartzen zuten oinarri gisa. Txosten haietatik, soilik "Paten Kutzat" izenekoak defendatzen zuten nazio frontearen eraketa zein ETAREN parte-hartzea bertan. Barneko zuzendaritzak "Proposiciones generales" izeneko dokumentua aurkeztu zuen biltzarraren gidoi moduan. Dokumentu horretan "independentzia" eta "Euskal Estatua" kontzeptuak kendu eta "autodeterminazio eskubideaz" hitz egiteaz gain, borroka armatuaren erabilpena guztiz alboratzen ez bazen ere, hura "kritikotasunez" aztertu behar zela esaten zen (Letamendia, 1994: 346-347).

¹¹¹ Ikusi talde horrek sortutako dokumentuak in Hordago, 1979 (11). Ikusi ere Iztueta & Apalategi, 1974: 83-97.

¹¹² Ikusi Stalin, 1913.

1970eko udaberritik aurrera, batez ere bankuen lapurretak (Jauregui, 1981: 469), 1972an argitaratutako *Saioak* aldizkariaren 2. alean gerra iraultzailearen eta borroka armatuaren kontrako jarrera adierazi zuen:

“La estrategia de guerrilla aplicada hoy a Euskadi está determinada por el contenido de la lucha burguesa de la historia de ETA (...) Creemos que únicamente la lucha de masas dirigida y orientada por el proletariado podrá resolver el problema social, fundamento de la inadaptación nacional de Euskadi¹¹³”.

Era berean, nahiz eta nazionalismo mota ororen kontra agertu, internazionalismoaren argudiopean euskal langileek Estatu espainiarraren batasuna defendatu behar zutela aldarrikatzen zuen (Iztueta & Apalategi, 1977: 95). Hara, *Células Rojas* taldeak hartutako bide ideologikoa ETAREN V. Biltzarrean adostutako oinarrietatik erabat urruntzen zen. Are gehiago, V. Biltzarrean euskal nazioaren oinarritzko elementutzat hartu zen etnia kontzeptuaren aurkakotasuna adierazi zuen, kontzeptu metafisiko eta existentzialista zela argudiatuz (Núñez et al., 1993 (3): 40). Horrez gain, fronte nazionalaren eraketa proposatzea irrigarria zela esan zuen talde honek *Saioak*¹¹⁴ aldizkariaren 3. zenbakian (Letamendia, 1994 (1): 346). Halaber, euskal langileen alderdia sortzearen aurka azaldu ez arren, formazio politikoan sakontzeko etapa ezberdinak igarotzea beharrekotzat hartzen zuen urrats hori eman aurretik. Hori izan zen, hain zuzen ere, 1970eko Biltzarrearen talde bultzatzailearekiko (ETA-VI) ezadostasun nabariena. Izan ere, aipatu *Saioak* 3an, *Células Rojas* taldeak 1970eko biltzarra “*una lucha a muerte entre lo pequeño burgués y lo proletario*” bezala interpretatu zuen. Aldizkari hura argitaratu eta gutxira, *Células Rojas* talde gisa disolbatu zen (Ibid: 348).

¹¹³ *Saioak* 2; in Apalategi, 2006: 166.

¹¹⁴ Ikusi aldizkari hori in Hordago, 1979 (11): 459-526.

III.3.3.2 ETA-VI.

V. Biltzarrean adostutako oinarriak kolokan jarri eta gero 1970eko Biltzarra deitu eta bere zilegitasuna onartu zuen joera bakarra izan zen ETA-VI¹¹⁵ bezala ezagutu zen taldea. Talde horrek egindako kritika nagusiak V. Biltzarreko erabakiei hurrengo puntuetan zentratu ziren: 1) lau fronteen eskema; 2) ekintza-errepresio-ekintza espiralaren eraginkortasuna; 3) ETAREN antolaketa eredua; 4) Euskal Herriaren zapalkuntzaren jatorria; 5) nazio frontea eta euskal burgesiarekiko aliantzak (Iriarte, 1980: 25). Borroka armatuari zegokionez, nahiz eta 1970ean horren beharra ez ukatu, nazionalismoarekiko lotura zuenekoaren aurkakotasuna agertzen zuen dagoeneko 52. *Zutiken*: “*lo que tiene de progresista la afirmación sin equívocos de la necesidad de la violencia revolucionaria es anulado por el hecho de afirmarlo a partir de una concepción estrechamente chauvinista (nacionalismo burgués)*” (Apalategi, 2006: 166). Hain zuzen ere, 53. *Zutiken* (1971), ETA-VIek nazionalismoarekiko apurketa ideologikoa adierazi zuen: “*en ETA se ha producido en los últimos tiempos una ruptura, un corte: el corte con la ideología nacionalista y con manifestaciones de dicha ideología en la práctica política*”.

Horrekin lotuta, euskal nazio askapena kontzeptu burgestzat hartu zuen, eta Estatu espainiarraren barneko Euskal Herri libre bat aldarrikatzen zuen internazionalismoaren argudioa erabiliz (Iztueta & Apalategi, 1977: 103). Izan ere, ez zuen argitasunez azaltzen Euskal Herriko independentziaren inguruko bere jarrera; autodeterminazio eskubidea defendatzera mugatzen zen. Halaber, aipatu *Zutik* 52an ETAREN ordura arteko izaera gogor kritikatu zuen: “*ETA era una organización populista, marginada del movimiento de masas y movilizada por inquietudes individualistas*”. 1972ko uztailean eginiko Biltzar Ttipiaren ostean bitan banatu zen ETA-VI erakundea: *mayos* (mayoritarios) eta *minos*

¹¹⁵ Ikusi talde horrek (kasu batzuetan ETA – *Iraultza ala Hil* bezala sinatuta) sortutako dokumentuak in Hordago, 1979 (11). Ikusi ere Iztueta & Apalategi, 1977: 99-115.

(minoritarios). Lehenak troskismoaren aldekoak ziren eta alderdi iraultzailea bihurtu nahi zuten ETA-VI. Erbestean zegoen ETA VIren zuzendaritza aukera honen aldekoa zen. Bigarrenek, aldiz, ez zuten troskismoaren aukera defendatzen, eta alderdi komunista bat eratzearen alde egon arren, troskismoa ez zen beste aukera batzuen aldeko jarrera adierazten zuten. Azkenenean, bozketen ostean *mayoen* aukera gailendu zen bozka batengatik, eta orduan burutu zen barne zatiketa. Mayoek LCR (Liga Comunista Revolucionaria) mugimenduan sartzea erabaki zuten 1973an (hasieran ETA VI-LCR bezala sinatzen zituzten agiriak). 1976an LCR LKI (Liga Komunista Iraultzailea) izendatzera pasatu zen Hego Euskal Herrian. Minoei dagokienez, batzuk PCerekin hizketan hasi ziren, eta 1974an ehun bat militante sartu ziren Espainiako alderdi komunistan. Beste batzuk ORT (Organización Revolucionaria de Trabajadores) alderdi maoistara edo ETA-Berrik sustatutako MCE-EMK erakundean (Movimiento Comunista de Euskadi-Euskadiko Mugimendu Komunista) sartu ziren. Beste batzuek, bai mayoak bai minoak, ETAREN siglak bere gain hartu zituen ETA-Vera sartzea erabaki zuten. Ikusi Letamendia, 1994: 361-365.

III.3.3.3 ETA-V.

V. Biltzarreko tesien defendatzaileen aburuz, *Células Rojas-Saioak* zein ETA-VI taldeak ETAREN barneko desbideratze espainolistak ziren, eta haien aurrean V. Biltzarrean onartutako ETAREN definizioa, hots, *euskal nazio askapeneko mugimendu sozialista* mantendu zuten. Izan ere, aurreko bi taldeen aldarrikapenen aurrean, ETA-Vek¹¹⁶ burgesia nazionalarekiko aliantza estrategikoa defendatzen zuen, nazio frontearen aldeko logikapean. Halaber,

¹¹⁶ Ikusi talde horrek (kasu batzuetan ETA – *Askatasuna ala Hil* bezala sinatuta) sortutako dokumentuak in Hordago, 1979 (12). ETA Vek ETA VIren inguruan egindako kritikak ezagutzeko ikusi “Política del grupo llamado “ETA VI Asamblea”, *Zutik* 60, in Hordago, 1979 (12): 257-260.

Estatu espainiar mailako langile-frontea sortzearen aurkakotasuna adierazten zuen:

“Es una necesidad aliarse con las clases burguesas y pequeño-burguesas en un Frente Nacional (...) comprometerse con los trabajadores de dos naciones opresoras obliga a una seria problemática de explicación de nuestro problema nacional para evitar que la ideología dominante aliene estas alianzas y las convierta en una negación de nuestra lucha por la independencia¹¹⁷”.

Era berean, borroka armatuaren eta masa borrokaren arteko harreman dialektikoa defendatzen zuen beste bi taldeen bateraezintasun-argudioen aurrean.

“Lo que es completamente metafísico es oponer “las acciones militares” a “las acciones de masas”; las dos se complementan, el salto dialéctico importante es el momento en el que se pasa de las acciones de grupos de vanguardia a las acciones armadas populares¹¹⁸”.

Izan ere, ETA-Veko bost kidek¹¹⁹, guztiak V. biltzarrean hautatutako ETArekin Biltzar Tipiko kideak izanda, testu bat sinatu zuten 1970eko Biltzarrerako deia indargabetuz. Sinatzaileen arabera, biltzar hori deitu zuen Komite Exekutiboak ez zuen hura deitzeko zilegitasunik. Era berean, nazio frontearen aldeko aldarria berresten zuten.

“Berriz ere, talde arrotz batzuk, batez ere espainolak saiatu eta saiatzen dira euskal politika egileen artean nahaspila pizten. Badira ere haien burua abertzale daukatenak eta gazteria bide galgarri batera bildu nahi dutenak, espainol edo frantses asuntoak konpontzeko¹²⁰”.

Hurrengo taulan hiru taldeen arteko alde ideologiko eta estrategiko nagusiak islatzen dira.

¹¹⁷ Zutik 59; in Apalategi, 2006: 168.

¹¹⁸ Ibid.

¹¹⁹ Edur Arregi, Juan José Etxabe, Emilio Lopez Aadan (Beltza), Julen Madariaga, Federico Krutwig.

¹²⁰ Seigarren Biltzarraren kontrako agiria (Núñez et al., 1993 (3): 247)

	<i>Células Rojas</i>	ETA-VI	ETA-V
Biolentzia politikoaz	Kontra	Zalantzan	Alde
Euskal Estatuaz	Kontra. Espainiaren barneko autonomiaren alde	Zalantzan. Autodeterminazio eskubidearen alde (maila teorikoan)	Alde
Proposatutako antolaketa-eredua	Estatu mailako mugimendua ETA: erakunde gisa desagertu	Estatu mailako mugimendua ETA: euskal langileen alderdia	Euskal nazio frontea ETA: frontearen abangoardia
Nazionalismoaz	Kontra	Kontra	Alde: Nazionalismo iraultzailea

Iturria: Saratxo, 2013: 107

Hala ere, Burgoseko epaituen hausnarketek inflexio puntu bat ezarri zuten ETAREN garapen ideologikoan. Horrela, ETAKO militante horiek marxismo-leninismoa era esplizituan onartzean eta ETA-VI taldeari zilegitasuna ematean, bai *Células Rojas* taldearen aukera “likidazionista” nahiz ETA-VEKO tesi antkolonialisten defendatzaileen aukera (Krutwig, Beltza, Madariaga...) orduko ETAREN oinarri ideologikoetatik at kokatuak izan ziren. Gogoeta horiek *Documento de los presos de Burgos dirigido al Biltzar Ttipia de su organización Euskadita Askatasuna* idazkian bildu ziren¹²¹. Izan ere, Burgoseko epaiketaren osteko ETAK bere egin zituen epaituen tesiak, *Zutik* 63an¹²² modu agerian azaldu zen moduan. Aitzitik, nahiz eta Burgosko epaiketaren ostean ideologikoki gogoeta antkolonialistekin apurketa egon, ETA-V izan zen erakundearen jarraikortasun historikoa mantendu zuena¹²³. Izan ere, Zalbidek idatzitako *Fines y medios de la*

¹²¹ Ikusi Hordago, 1979 (10): 199-218. Burgosko auziperatuek idatzitako gutunak bi bertsio izan zituen: lehenean, ETA Viren alde eta ETA-VEKO taldean ziren Biltzar Ttipiko bost kideen aurka kokatzeaz gain, azken horien kontrako irain pertsonal gogorak ere topa zitezkeen. ETA-VEK, aipatu irainak kenduta, gutunaren eduki politikoarekin bat egin eta argitaratu zuen. Gutunean marxismo-leninismoaren aldeko apustu garbia egiten zen (López Adán, 2012: 135, 48. oharra).

¹²² In Hordago, 1979 (12): 355-362. Ikusi, gehigarri gisa Garate, 1971.

¹²³ 1972an Onaindiak, Uriartek eta Zalbidek gutun bat idatzi zuten Cáceresko kartzelatik ETA-V ETA bakarra zela esanez (Lopez Adan, 2012: 135, 48. oharra). Ikusi gutuna in *Zutik* 62; Garmendia, 1979 (2): 267-278.

*lucha de liberación nacional*¹²⁴ dokumentuan defendatutako ideia antiinperialistak erakundearen zigilu ideologiko nagusia bilakatzen hasi ziren (Jauregui, 1981: 470).

III.3.4 Ekintza-errepresio-ekintza estrategiaren bigarren fasea: 1971-1974.

Aurretik aipatu bezala, ekintza-errepresio-ekintza espirala martxan jarrita zegoen Burgosko epaiketaren garaian, baina ez ETAk aurreikusitako neurrian. Frankismoaren kontrako herri mobilizazioak ugaltu ziren, eta herri sektore batzuk, langile mugimendua barne, ETA begi onez ikusten hasiak baziren ere, onespén edo oniritzi horrek ez zen ETAREN proposamen insurrekzionalerako bulkada nahikorik ekarri (Ibarra, 1987: 85). Izan ere, 1971an, 1970eko barne zatiketen ostean eta errepresioaren eraginez, ETA-V oso ahulduta aurkitzen zen. Borroka armatuaren eta bide iraultzailearen aplikazioa defendatzen jarraitzen zuen ETA-Vak, baina Burgosko auziperatuek 1970eko VI Biltzarrari, eta hortaz ETA-VIri, emandako babesak barne erreferentzialtasuna kendu zien V Biltzarreko ideien defendatzaileei. Hala ere, 1971ko martxoan ETA-VIko Bizkaiko zuzendaritza atxilotu zutenean, ETA-Veko kideak saiatu ziren militante berriak erakartzen, eta hurrengo biltzar baterako prestakuntzekin hasi ziren (Bruni, 1988: 135). Halaber, 1971ko abuztuan ETA-Vek berrestrukturazio prozesu bat abiatu zuen, zuzendaritza berria aukeratzeko (Zabalza, 2015: 130). 1972an, EGI-Batasuna ETA-Van sartzean, ehunka militante berri gehitu ziren fronte guztietara, fronte militarra barne. Izan ere, hurrengo hilabeteetan hamarnaka komando berri sortu zituen ETA-Vek (Giacopuzzi, 1997: 19).

¹²⁴ Eskuragarri <http://www.abertzalekomunista.net/es/relato-historico/historia-del-mlnv/vi-asamblea/documentos-vi-asamblea/621-fines-y-medios-en-la-lucha-de-liberacion-nacional-1974> [Kontsulta: 2019-1-30].

Bere jarduera armatuari dagokionez, 1971n zehar ugaldtu ziren ETA-Vek buruturiko ekintza armatuak: lapurretak banketxeetan, leherkariak erregimenaren egoitzetan eta ultraeskuindarren ondasunen kontrako ekintzak, besteak beste. Orotara, 71 ekintza armatu burutu zituen, eta lau militante hilda suertatu ziren poliziaren kontrako enfrentamenduen ondorioz (Zabalza, 2015: 132) Hala ere, ETAk segitzen zuen erreferentzialtasuna bilatzen langile mugimenduaren baitan, eta horregatik lan munduko gatazketan era zuzen batean sartzea erabaki zuen. Horrela, 1972ko urtarrilean Lorenzo Zabala Suinaga enpresaburua bahitu zuen. Zabala Precicontrol enpresaren zuzendaritzako kidea zen. Enpresa horrek beraien lan baldintzetan hobekuntzak exijitzeko greba egin zuten langile batzuk kaleratu izan zituen. ETAk langile horiek berriz kontratatzea eta haien lan-aldarrikapenak onartzea exijitu zuen Zabalaren askatasunaren truke. Zabalaren bahiketak lau egun iraun zituen, enpresak ETAREN eskakizunak onartu zituen arte. Zabalaren bahiketaren ostean ETA-V ETA bakarra kontsideratzen hasi zen (Bruni, 1988: 137), batez ere, aurretik aipatu dugun Onaindiaren, Uharteren eta Zalbideren gutuna publiko egin ostean. ETAk horrela azaldu zuen Zabalaren bahiketa *Zutik* 63an (1972)¹²⁵:

Todos los patronos son iguales para nosotros, no cambia nada que tengan o no apellidos vascos. Tanto unos como otros son nuestros explotadores. Dicen que Zabala es vasco, pero explota a los obreros con la misma violencia que y los mismos métodos que cualquier otro patrón, independientemente de su nacionalidad.

Dokumentu berean, ETAk borroka armatuaren eta masa borrokaren arteko dialektikaz hitz egin zuen, bien arteko uztarketa defendatuz:

El FM de ETA está llamado a constituirse más adelante como la armada popular si el proceso revolucionario así lo exigiera, limitándose hasta el presente a acciones que aparte de radicalizar este proceso, sirven para desenmascarar a los enemigos del PTV (...) Estamos convencidos de que todos aquellos grupos políticos que tienen fundamentada su estrategia de lucha ÚNICAMENTE en el movimiento de masas (...) no pueden hacer posible la revolución¹²⁶.

¹²⁵ Letamendiaren arabera (1994 (1): 370) *Zutik* 63 horretan ETAREN apurketa ideologikoa ideia antikolonialistekin agerian geratu zen. Izan ere, hirugarren munduko esperientzien ordeztan, ETAREN eredu berriak Hego Amerikako hiri-gerrillak izaten hasi ziren. Laqueurren arabera (1979; in Letamendia, 1994: 371), hiri gerrillaren eredu Che Guevarak Bolivian izandako porrotaren ostean eta "Ezker Berria"ren sektore batzuen erradikalizazioa eraginez sortu zen.

¹²⁶ "Razones de la lucha armada", in *Zutik* 63 (1972).

1972an ETAREN jarduera armatuak igoera izan zuen¹²⁷, eta erakundeko lau militante hilda suertatu ziren. Gorakada horrek autonomia puntu bat eta neurri bateko erreferentzialtasuna ematen zion Fronte Militarrari beste fronteen aurrean, baina erregimenaren errepresioa Fronte guztietan pairatzen zuen ETAK (Garmendia, 1979 (2): 172). Horregatik, urte horretako urrian aurre-biltzar bat antolatu zen ETAREN barne antolamendua berritzeko. Horrela, Fronte Kulturala Langile Frontearekin bateratu zen (Letamendia, 1994 (1): 373). Halaber, 1972an bertan idatzitako *Resolución sobre la lucha armada* izeneko dokumentuan, ETAK berretsi zuen *Zutik* 63an masa borrokaren eta borroka armatuaren artean azaldutako dialektika. Hala ere, ETAK onartzen zuen 1970etik aurrera “atzerapen iraultzaile” bat egon zela Bizkaian eta Gipuzkoan, eta Estatuaren errepresioa¹²⁸ aipatzen zuen hori azaltzeko:

“En Guipúzcoa y Vizcaya - zonas más politizadas – se ha producido un aparente retroceso revolucionario: las masas ya concienciadas no luchan ¿Qué ha detenido y frenado el espíritu revolucionario en estos contextos? (...) La causa más importante, sin duda, es la brutal e increíble represión desencadena por el Estado sobre dichas zonas. (...) la única posibilidad real de superar los obstáculos que hoy mantienen a las masas sumergidas en el reformismo, el abstencionismo y el desánimo es un aparato militar que, codo a codo con las masas (pero por delante suyo) dinamice nuevamente el proceso revolucionario (...) hasta sacarlo del callejón sin salida en que se encuentra¹²⁹”

Hala ere, ETAREN ustez frankismoak errepresioarekin lortu nahi zuen efektuaren kontrakoa lortzen ari zela, hots, euskal jendartearen kontzientzia iraultzailea

¹²⁷ ETAK 1972an eginiko ekintza armatuen zerrenda argitaratuta dago aurretik aipaturiko *Zutik* 63an.

¹²⁸ Ibarrenaren ustez, dokumentu horretan ETA baikorregi agertzen da langile mugimenduaren atxikimenduari eta parte-hartzeari dagokionez. Aldi berean, ETAK errepresioari buruz egiten duen irakurketa ez dela zuzena dio (1987: 90). Izan ere, Ibarrenaren errepresioa ez zela izan handiagoa 1970tik aurrera, eta langile mugimenduaren kontrakoa, adibidez, askoz ere puntualagoa izan zela aurreko urteetan baino. Hala ere, Zabalzak gogoratzen duenez (2015: 142), 1972-73 urteetan ETAREN kontrako errepresioa areagotu zen, bi urte haietan sei ETAKide hil baitzituzten Espainiako indar polizialek. Letamendiak (1994: 334) Euskal Herrian izandako errepresioarekin lotutako hurrengo datuak ematen ditu; Guardia Zibilak edo Poliziak hildako pertsonak: 1968an 1, 1969an 3, 1970ean 16, 1972an 4, 1973an 14, 1975ean 18, 1976an 16. Guardia Zibilak edo Poliziak balaz zauritako pertsonak: 1970ean 16, 1972an 22, 1973an 14, 1974an 20, 1975ean 38, 1976an 21. Atxilotuak: 1968an 434, 1969an 1953, 1970an 831, 1972an 616, 1973an 522, 1974an 1116, 1975an 4625, 1976an 515.

¹²⁹ Hordago, 1979 (15); in Ibarra, 1987: 88-89.

handitzea. Horrela, ekintza-errepresio-ekintza espiralaren zuzentasuna frogatutzat ematen zuen ETAk:

“Gracias a la actividad militar – política en realidad – de ETA, las masas, recién y violentamente reprimidas despiertan de su letargo (...). Todo lo contrario, al golpear (el Estado) sobre las masas lo único que provocó fue un incremento en la capacidad concienciativa del pueblo, es decir, un salto más en la espiral revolucionaria: precisamente el efecto opuesto al que buscaban. Así fue cómo ETA demostraba con su práctica la validez de la teoría del foco y de la espiral acción-represión¹³⁰”

Aitzitik, ETAk jarraitzen zuen langile mugimenduaren borroketan parte-hartze zuzenagoa bilatzen, langile mugimenduaren nolabaiteko abangoardia bilakatu nahian. 1973an Felipe Huarte enpresaburua bahitu zuen. Kasu horretan, Huarteren enpresak kaleratutako hainbat langileren berkontratazioa eta beraien lan baldintzen hobekuntza eskatzeaz gain, ETAk 50 milioi pezeta exijitu zuen Huarte askatzeko. Bahiketak hamar egun iraun zituen. Aipatutako eskakizunak bete ondoren, ETAk Huarte askatu zuen. ETAk horrela baloratu zituen Zabalaren eta Huarteren bahiketak bere azken *Zutabe*an:

1970. urte inguru hartan, ETAk ahalegin berezia egiten zuen ekinbide armatua berpizten ari zen herri borrokaren gainontzeko adierazpideekin uztartzeko. Fronte politikoa, kulturala eta Langile Frontearen bidez garatzen zen borroka osatzea zen batik-bat ildo armatuaren zeregina. Horrek azaltzen ditu, esaterako, garai hartan ETAk lan gatazka batzuetan zuzenean eragiteko egindako ekintzak, Lorenzo Zabala ugazabaren bahiketa 72an (4 egun), edo Felipe Huarte oligarkarena 73an (10 egun). Horrela, gutxika handituz joango zen etengabeko herri mobilizazioaren eta presioaren bidez, erregimen frankista ahultzea, bere amaiera azkartzea eta Euskal Herriaren askatasuna lortzeko egoera berriak sortzea bilatzen zuen ETAk (ETA, 2018: 20).

Izan ere, 1973 urte berezia izan zen ETAREN historiarako. Alde batetik, poliziak erakundearen Fronte Militarreko arduraduna zen Eustakio Mendizabal, “Txikia” hil zuen Algortan. Txikia ETako militante karismatikoa izateaz gain, Fronte Militarraren eta Langile Frontearen arteko lotura islatzen zuen, eta bere heriotzaren ostean bi fronteen arteko talkak areagotu ziren¹³¹. Halaber, ETA-Vren

¹³⁰ *Resolución sobre la lucha armada*; 1972an idatzitako barne dokumentua. In Hordago, 1979 (15): 153.

¹³¹ 1973an argitaratutako *Hautsi 3an*, Langile Fronteak idatzitako “Resolución sobre el Frente Miitar” dokumentua zegoen. Bertan, ETAk garai hartan fronte bakoitzari ematen zion funtzioa azaltzen zen. Ikusi dokumentua in Hordago, 1979 (15): 95-97. ETA Abraham Guillének idatzitako *Estrategia de la guerrilla urbana* oinarritu zen aipatu testua idazterakoan (Letamendia, 1994: 381).

VI Biltzarraren lehen zatia burutu zen urte horretako abuztuan Hasparnen, eta abenduan ETaren historiako ekintzarik sonatuenetako bat burutu zen: Carrero Blancoren aurkakoa, alegia

Urte horretako urtarrilean argitaratutako *Hautsi* 2an, ETAk bi funtzio ematen zizkion borroka armatuari: langile mugimenduaren arazoei erantzutea eta insurrekzioaren aurreko faseen garapena, “euskaal armada iraultzailea”ren sorkuntzaren aukera alboratu gabe:

“Nuestra acción armada posee dos caras: la primera, de acciones tácticas destinadas a responder a problemas donde nuestros trabajadores vean frenadas sus capacidades de acción precisamente por la existencia de esa violencia institucional y de esas unidades especiales represivas. La segunda: el desarrollo estratégico cara a la preparación de las fases previas a la insurrección popular, sin olvidar la posible constitución de dicha armada revolucionaria vasca si el proceso revolucionario así lo exigiera¹³²”

Dokumentu horretan ETAk esaten zuen jarduera armatuak ez zuela inoiz masen borroka ordezkaturiko, hura osatuko zuela baizik. Era berean, ETaren zuzendaritza-funtzioaren helburua borroka moldeen arteko haustura saihestea zela aipatzen zuen:

“la actividad militar nunca suplantarà la lucha de masas, sino que deberá completarla y reforzarla. El control y dirección ejercidos por la organización tendrá como resultado eliminar el peligro de una ruptura entre la lucha armada, por una parte, y las otras formas de lucha revolucionaria¹³³”

Aipatu *Hautsian* esandakoak bat egiten zuen ETAk eredu insurrekzionalaren inguruan eginiko gogoeta berriarekin. Izan ere, Hirugarren Munduko ereduak alboratuta¹³⁴, ETarentzat eredu eragingarri berriak Hego Amerikako hiri-gerrilletatik eta foku iraultzailearen teoretatik zetozen. Horrela, ETAk arreta jarri zuen 70 hamarkadan ugaltzen hasi ziren hiri-gerrillen esperientzietan: Uruguaiako Tupamaroak, Palestinako Fatah edota Irlandako PIRA. Regis

¹³² *Hautsi*, 2; in Ibarra, 1987: 92.

¹³³ Ibid.

¹³⁴ Letamendiaren arabera (1994 (1): 371) *Zutik* 63an (1972) ETaren apurketa ideologikoa gertatu zen ideia antkolonialistekin. Orduan, Hirugarren Munduko esperientzien ordeztu, ETarentzako eredu berriak Hego Amerikako hiri-gerrillak izaten hasi ziren (Ibid). Laqueurren ustetan (1979: 193), hiri-gerrillaren teoriak Che Guevarak Bolivian izandako porrotaren ondorioz eta “Ezker Berria”ren sektore batzuen erradikalizazioaren eraginez sortu ziren

Debray¹³⁵ (1967) izan zen foku iraultzailearen teoriaren eta antolaketa-eredu politiko-militarraren aitzindaria. Debrayren teoriaren arabera, talde zentralizatu batek eraman behar zuen insurrekzioaren zuzendaritza, “Estatu Nagusi Iraultzaile” baten gisa. Debrayk mendi-gerrillari zuzendutako foku iraultzailearen teoria hiri-gerrillaren eremura eraman zuen Abaham Guillének (1969)¹³⁶, gerra luzearen (*guerra prolongada*) inplementazioa proposatuz:

“Estratégicamente, en un país de alto porcentaje de población urbana, el centro de gravedad de la guerra revolucionaria debe estar en la ciudad, pero en base a combates sorpresivos, móviles, rápidos, con superioridad de fuego (...) El ejército popular debe utilizar la estrategia de usura del adversario por medio de la guerra prolongada, a fin de que la moral política del pueblo gane a la fuerza militar, a la técnica” (Guillén, 1969; in Letamendia, 1994 (1): 381).

Hiri-gerrillaren teoriak aproposak ziruditen ETAREN ezaugarri zein beharretarako, eta laster teoria haien eragina nabaritu zen erakundearen idatzietan. Izan ere, VI Biltzarraren lehen zatirako aurkeztu ziren txosten gehienak (nahiz eta ez ziren eztabaidatuak izan, bigarren zatirako uzten baitziren eztabaida ideologikoak) aipatutako hiri-gerrillaren teoretan oinarritzen ziren (Letamendia, 1994 (1): 383).

VI Biltzar hori 1973ko abuztuan egin zen, ETA Carrero Blancoren kontrako ekintza prestatzen ari zelarik¹³⁷. Bertan erakunde leninistetan ohikoa izaten den zentralismo demokratikoa aukeratu zuen ETAK antolaketa-eredu gisa (Garmendia, 1979 (2): 176). Nahiz eta VI Biltzarraren lehen zati horretan barne-

¹³⁵ Debray 1966an Che Guevarak Boliviako orduko presidentea zen René Barrientos boteretik kentzeko gidatutako gerrillan sartu zen. Gutxira, Guevarak gerrillatik ateratzeko agindua eman zion Debrayri, azken honek beldurra zuelakoan borrokatzeko. Orduan, Debray, kazetaria izatearen aitzakiarekin, herrixka baterantz abiatu zen Ciro Bustos gerrillariarekin batera. Bidean biak atxilotuak izan ziren. Orduan, jasandako presioaren ondorioz, Guevara atxilotzeko ezinbesteko informazioa eman zioten Boliviako armadari (ez dago argi bietatik zein izan zen informazio hori eman zuena). Debray epaitua eta 30 urtetako kartzela-zigorrrera kondenatua izan zen. Hala ere, 1970ean askatua izan zen.

¹³⁶ Ikusi Hodges & Guillén, 1975. Debray eta Guillénez gain, Carlos Marighela gerrillari brasildarraren eragina nabarmentzekoa izan zen ETAREN garapen estrategikoan (ik. Marighela, 1969).

¹³⁷ Hasiera batean, Carrero Blanco Espainiako presidenteordea zenean, ETAK haren bahiketa prestatzen ari zen, kondena luzea zuten presoeren ordezkari gisa helburuarekin. Hala ere, 1973ko ekainaren 2an Carrero Blanco Espainiako Presidente izendatzean eta haren segurtasun maila handitzean, ETAK bahiketaren ideia alboratu zuen.

zatiketarik ez gertatu, Fronte Militarraren eta Langile Frontearen arteko ezadostasunak geroz eta handiagoak bilakatzen ari ziren. Edonola ere, VI Biltzarraren lehenengo zatian ateratako aktetan ETAk oraindik ere insurrekzioaren eredia jarraitu nahi zuela irakur zitekeen:

“Concebimos la lucha armada como forma suprema de la lucha de clase trabajadora. Nuestra liberación como clase y como pueblo será posible mediante la insurrección armada del proletariado y del resto del pueblo de Euskadi¹³⁸”

1973ko abenduaren 20an ETAk Carrero Blancoren kontrako ekintza burutu zuenean, erakundearen barneko tentsioak handitu ziren, batez ere Fronte Militarraren eta langile Frontearen artekoak. Horrez gain, Carrero Blancoren heriotzaren ostean erregimen frankistaren agorpena agerikoa zen, eta indar politikoak etorriko zen aldaketa politikorako prestatzen ari ziren dagoeneko (Garmendia, 1979 (2): 179).

1974an ETAREN jarduera armatua ez zen gelditu. Apirilaren 4an Guardia Zibilarren “Brigada Anti ETA”ko buruzagia zen Gregorio Pasadas, hil zuen ETAk Azpeitian, eta hurrengo egunetan, Espainiako segurtasun indarretako beste hiru kide hil zituen (Giacopuzzi, 1998: 33). Halaber, 1974an bertan argitaratutako *Zutik* 64an Zalbidetik urte batzuk lehenago masen borrokaren eta borroka armatuaren arteko dialektikaz esandakoa beretzat mantentzen zuen ETAk, ordura arteko borroka armatua erregimenaren kontradikzioak handitzeko baliorduna izan zela aitortzen zuelarik:

“La lucha armada ha contribuido eficazmente, pues, a resaltar y agudizar las contradicciones del sistema y su carácter opresivo, complementando las labores de agitación reivindicativas y concienciadoras de los revolucionarios a nivel de masas (...) a medida que la lucha se radicaliza y la represión arrecia, sectores crecientes de éstas (las masas) van comprendiendo la necesidad de optar por formas superiores de combate, y vistas las limitaciones de su acción pasan a colaborar directamente con la vanguardia revolucionaria y participan de su combate. Según progresa el proceso revolucionario, las formas clásicas de acción de masas se hacen más difíciles y pasan a un segundo término al tiempo que cobra una importancia mayor la actividad de éstas de carácter clandestino en íntima colaboración con el núcleo político-militar¹³⁹”

¹³⁸ *Resoluciones de la primera parte de la VI Asamblea de ETA-V* (1973ko abuztua); in Ibarra, 1987: 86.

¹³⁹ *Zutik* 164 (1974ko maiatza); in Ibarra, 1987: 89-90.

Hala ere, eredu insurrekzionalaren inguruko zalantzak erakundearen baitan areagotzen ziren heinean, ETA beste funtzio bat ematen hasi zitzaion borroka armatuari: Estatuaren ezegonkortzea, frankismotik irteera iraultzaile bat bultzatzeko (Ibarra, 1987: 95). Carrero Blancoren kontrako ekintza¹⁴⁰ funtzio horren espresiorik argiena izan zen, eta horrela interpretatu zuen ETAk ekintza horren helburua *Hautsi 5ean* (1974ko uztaila):

“Debilitar el régimen agudizando las contradicciones internas entre liberales y ultra-fascistas, radicalizando ambas tendencias e impidiendo de este modo la formación de una posición centrista, aglutinadora y estabilizadora (...) Estar preparados para desarrollar a tope de nuestras posibilidades humanas la iniciativa en los nuevos campos de lucha que se abrirán en el caso de que se produjese la transformación liberal del Estado español¹⁴¹”

Hortaz, ETAk V. Biltzarraren ostetik aurrera eraman zuen ekintza-errepresio-ekintza bidearen mugak agerian zeuden. Gauzak horrela, 1974an ETA bere estrategia eraldatzeko premian aurkitzen zen. Fronte Militarra izan zen bide insurrekzionala eta harekin lotutako estruktura politiko-militarrak alboratzeko aukera defendatu zuena (Letamendia, 1994 (1): 394-395). Hori baino lehenago, Langile Frontearen eta Fronte militarren arteko lehiek markatu zuten erakundearen egoera. Izan ere, Langile Fronteak oztopotzat hartzen zuen ETAk VI Biltzarrean aukeratutako antolaketa-eredua zein bere izaera militarra langile mugimenduaren abangoardia bihurtu ahal izateko (Giacopuzzi, 1992: 32). Hartara, 1974ko ekainean deituta zegoen Biltzar Ttipia, eta orduan izan zen Langile Frontearen zati handi batek ETA uztea erabaki zuen unea¹⁴² (Giacopuzzi, 1997: 24).

Ekinbide armatuarekin jarraituta, ETAk bomba bat jarri zuen Madrilgo Correo kalean zegoen Rolando kafetegian 1974ko irailean, espainiar poliziak hara joan

¹⁴⁰ Ikusi *Txikia* komandoko kideek Carrero Blancoren kontrako ekintzaren inguruan eginiko elkarrizketa in Forest, 2013.

¹⁴¹ *Hautsi*, 5 (1974); in Ibarra, 1987: 97.

¹⁴² ETako Langile Frontea izandakoak ibilbide ezberdina izan zuen ETA utzi ondoren lurraldearen arabera; Gipuzkoakoek LAIA (Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia) alderdia sortu zuten, eta Bizkaikoek era autonomoan funtzionatu zuten denboraldi batez, egitura bezala desagertu ziren arte (Hordago, 1979 (16); in Giacopuzzi, 1997: 24).

ohi zirelakoan. Leherkariak 50 zauritu baino gehiago eta 13 hildako eragin zituen, haietatik bakar bat polizia izanik. Ekintza horrek ETAren barnean existitzen ziren hika-mikak areagotu zituen. Izan ere, nahiz eta barne mailan ekintza bera akats gisa hartu, ETAren barnean batzuek uste zuten erakundeak ardura hartu eta bere gain hartu behar zuela ekintza hura (gerora, ETA-m osatu zutenek), eta beste batzuek, ordea, uste zuten erakundeak ez zuela bere gain hartu behar, horrek ordura arte lorturiko irudi soziala belztuko zuelakoan (gerora, ETA-pm osatu zutenek). Azkenean, ETAk ez zuen bere gain hartu ekintza hori¹⁴³, eta barne mailako liskarrek zatiketa berri bat iragartzen zuten.

Horrela, 1974ko urrian deitu zen Biltzar Ttipia, zeinetan ETAk izan zuen hurrengo barne-zatiketa gertatu baitzen: alde batetik, modelo insurrekzionalarekin jarraitu eta Urugaiko Tupamaroen estruktura politiko-militarra ezarri nahi zutenek ETA(pm) osatu zuten. Bestalde, bide insurrekzionalaren mugez jabetuta estrategia armatuaren birformulazioaren aldekoak zirenek ETA(m) osatu zuten.

III.3.5 Antolaketa-eredu berriak frankismoaren amaieraren aurrean. “Miliak” eta “polimiliak”.

Aurretik aipatu dugun bezala, Rolando kafetegiaren kontrako atentatuaren ostean ETA bitan zatitu zen: ETA(m) eta ETA(pm). Hasiera batean, ETA(pm)-k eredu insurrekzionalaren jarraipena defendatzen zuen, eta militanteen gehiengoa¹⁴⁴ mantendu zuen bere baitan. ETA(m), aldiz, bistakoa zen Francoren heriotzak ekarriko zuen irekiera politikoaren aurrean masa-borroka eta borroka armatuaren arteko dialektika birplanteatzearen alde kokatzen zen. 1974an bertan argitaratutako bi dokumentutan laburtu ziren bi erakundeen

¹⁴³ ETAk bere gain hartu zuen ekintza hori bere azken *Zutabe*an. Ikusi ETA, 2018: 25.

¹⁴⁴ 1974 urtearen amaieran ETA(pm)-k 200 eta 300 militante artean zituen, eta ETA(m)-k 40 bat militante (Letamendia, 1994 (1): 399).

ikuspegi estrategikoak; alde batetik, ETA(m)-ren *Agiria* (*Argalak* idatzia) eta, bestetik, ETA(pm)-ak zabalduko *Kemen*¹⁴⁵ 4an argitaratutako “¿Por qué defendemos una estructura político-militar?” artikulua.

Azken artikulua horretan, ETA(pm) masa-borroka eta borroka armatuaren arteko dialektikaz aritzen zen. Masa-borrokari zegokionez, maximoen eta minimoen bi programa ezberdintzen zituen; maximoen programak Euskal Herriko indar abertzale eta ezkertiar guztiak batzea zuen helburu, eta lau puntutan oinarritzen zen: Euskal Herriaren batasuna eta independentzia nazionala, Euskal Herriaren euskalduntzea, sozialismoaren aldeko borroka eta inperialismoaren kontrako elkartasuna (Letamendia, 1994 (1): 396). Minimoen programa, aldiz, zortzi puntutan oinarritzen zen: 1) behin behineko Gobernu popularra eratzea Euskal Errepublikarako, 2) Euskal Herrian ziharduten Espainiako indar polizialen disoluzioa, 3) botere frankistaren kontrako zigorrak inplementatzea, 4) elebitasuna sustatzea euskal lurralde osoan, 5) ekoizpen-bideen nazionalizazioa, 6) askatasun politikoak, sindikalak eta amnistia osoa lortzea, 7) Espainiar Estatuarekiko harreman konfederala sustatzea, eta, 8) Euskal Herrian bizi ziren atzerritarren eskubideak ziurtatuko zituen estatus bat eratzea (Ibid: 396-397). Borroka armatuari zegokionez, ETA(pm)-k bi zeregin nagusi planteatzen zituen: masa-borroka politizatzea eta borroka armatua “espezializatu” aurrera eramango zuten komandoak sortzea (komando

¹⁴⁵ Ordutik aurrera, ETA(pm)-k *Kemen* (1972an Fronte Kulturalak sortutako argitalpena) eta *Hautsi* argitalpenetan islatu zituen erakundearen agiriak eta hausnarketak. Horrez gain, kulturaren arloko gaiak jorrazteko, *Hitz* aldizkaria argitaratu zuen 1974 eta 1976 artean (Egaña, 2017: 86). ETA(m)-k *Zuzen* (argitalpen irekia) eta *Zutabe* (barne-argitalpen gisa) argitalpenak erabiltzen zituen. 1978an, *Komando* Bereziak ETA(m)-ean sartu ondoren, azken *Zutik* (69) argitaratu zuen ETA(m)-k (Ibid: 87) (ETA(pm)-k jarraitu zuen *Zutik* argitaratzen). 1975tik 1977ra argitaratutako *Zutiket*an (65, 66, 67 eta 68) ETAK “Nazio Askapeneko Erakunde Sozialista Iraultzaile Militar” moduan aurkezten zuen bere burua. 69.ean, aldiz, “militar” hitza kendu zuen (Casanova, 2007: 139. oharra). Bestalde, militanteentzako beste aldizkari bat egon zen, *Barne Buletina* izeneko; orotara 59 ale argitaratu ziren (Ibid). Bestalde, 1982an ETA zenbait irratsaio eman zituen; irratsaio haiek *Euskal Iraultzaren Irratia* izena hartu zuten (Egaña, 2017: 88).

bereziak). Halaber, fronteen egitura alboratzen zen, zuzendaritza organo bakarreko antolaketa-eredu politiko-militarra proposatzen zuelarik (Ibid: 397).

Aldiz, 1974ko azaroan ETA(m)-k argitaratutako *Agirian*, erakundeak estruktura politiko-militarretik aldentzen zela adierazi zuen. Erabaki hura estrategikoa izan zela esan daiteke. Izan ere, aurretik aipatu bezala, estruktura politiko-militarrak eredu insurrekzionala inplementatzeko aukera estrategiko gisa interpretatzen zuen ETA(m)-k, eta etortzear zegoen irekiera politikoaren testuinguruan eredu insurrekzionalaren mugak agerikoak ziren erakundearen aburuz:

“Ekintza-errepresio-ekintza” deitu estrategia inguru bilakatuari jarraitu zitzaion. Bosgarren Biltzar Nagusian onartutakoa, hots, ETAREN egitura lau adarrez osatzea: politika, kultura, langile eta militar adarrez, hain zuzen re. Egitura horren bitartez, gure Herriaren borroka-motak oro bideratzea pentsatu zen, askatasunerako gerra herrikoi handi batetara eramateraino. Errealitatea bestelakoa izan da: adarren lanak nahastu egin dira, batetik bestera iraganik, koadroak adarrez aldatu dira; hitz batez, organizatzeari buruzko nahasmenduaren etsenplu garbiena izan da ETA. (ETA, 1974).

Izan ere, ETA(m)-ren iritziz, Espainian gertatuko zen aldaketa politikoa begi-bistakoa zen 1974an, eta, horrez gain, “euskal armada herrikoa” sortzeko ezintasuna onartzen zuen. Hori dela eta, ETA(m)-k *demokrazia burgesak* ekarriko ei zituen bide politikoak erabiltzeko aukera defendatzen zuen. Hala ere, demokrazia burges horrek ez zuela euskal langileriaren helburuak lortzea ahalbidetuko adierazten zuen ETA(m)-k, eta horregatik, borroka armatuaren erabilpena ezinbestekotzat jotzen zuen etapa berri horretan ere:

Dena dela, Bosgarren Biltzar Nagusian finkaturiko strategiak ez gaitu askatasunerako gerra herrikoi batetaraino eramane. Aitzitik, beste espainol Estatuko herriekin batera, aterabide burges demokratiko baten aurrean aurkitzen gara gaur. Euskal Herriak ez du euskal armada herrikoi bat eratzea lortu, baina haren borroka eta auzo-Herrienak behartu dute oligarkia, ekonomia-haztea tratatzen ere duen faxismoa uztera; non, une honetan, guztioi baitzaigu begitaratzen hautsi-mautsi baten beharra. Auzia zera da, honi buruz ETAK zer jarrera hartu behar duen. Hego Euskal Herria industrializatua izanik ezin daiteke pentsa Euskadik garai lezakeenik, igurikatzen den demokrazia gaitzetsiko balu, eta hari legez kanpo jazarriko balitzaio. Hots, beharrezkoa izanen dela haren jokoa eginez, demokraziaz baliatzea politika-alderdiak, sindikatuak eta abar. Baina, ordea, ez gaitzetzke ere demokrazian osoki fida, jakin badakigu demokraziak ez litzakeela euskal langileen helburuak bete. Aitzitik, burgesgoarentzat, demokrazia biderik egokiena da, ezin barneratuz daukan gauza bakarra bereganatzeko, hits, gure azken xedeak betetzeko daukagun bakarra: borroka armatua. (Ibid).

Errepresioa zen, ETA(m)-ren aburuz, antolaketa-eredu politiko-militarra alboratzeko beste arrazoi bat. Izan ere, desdoblamentuaren estrategia berria jarduera armatuak, berez, dakarren errepresioa ekiditeko aukera eraginkortzat jotzen zuen. Era berean, desdoblamentuaren bidez borroka armatuaren erabilpenaren inguruko ezadostasunak murriztuko zirela argudiatzen zuen ETA(m)-k:

Gainera, borroka armatuak dakarren zapalkuntza izan dela eta, ezin konatuzko erorketek ez digute lanean jarraipenik iharduten utzi, ia etengabeki beti landua izan den militar arioan izan ezik (...) Gauzak hola izanik guri zegozkigun gizarte-sektoreak ezin ditugu behar bezala bildu eta organizatu ahal ukan. Orain arte ukan dugun egitura-motaren ondorioak badakizkigu. Adar bakoitzaren autonomia hobeki gorderik eta isillako lanaren arauak hobeto errespetaturik, erorketa gutxiago gera dakigun lor dezakegu. Baina, gure aburuz, aski frogatua den gauza da borroka armatuaz baliatzen den erakunde batek zampaketa dakarrela beti, hits, erorketak pairatu behar direla, eta, bide batez, axolatu egiten direla masa-erakundeen sortzea eta haztea, non, azken hauek demokratika-jokoan aritzeko guztiz ahul eta ahalgabe gertatzen baitira. Bestalde, hortik abiataturik, Erakundea beharturik legoke borroka armatua onartzen ez duten beste erakundeekin hautsi-mautsi egitera. Zertarako, bada, gure eskuak lotzen utzi? (Ibid).

Hartara, ETA(m)-ren iritiz, estruktura politiko-militarrak eta legalitate demokratikoan parte hartzea bi planteamendu bateraezinak ziren. Horregatik, alderdi eta eragile abertzale berriak sortzeko deia luzatzeaz gain, batasun abertzalearen aldeko apustua egiten zuen:

Egitura politiko-militarra elitista da guztiz, eta gaur egun ETA zer-nolakoa den ikusirik, halako egitura bat onartuz, ez lezake parterik har legalitate demokratikoan. Baina orduan, zergatik ez ondorio guztiak atera Erakunde osoa militar-adarrean bilduz? Aitzitik, legalitate demokratikoan aritu nahi baldin bada, ETAk bide bat beharko luke proposatu, hots, organizatu gabe dagoen herria politikazki ordezkartzea, batasun herrikoi abertzale baten bitartez. Eta, ETAk, jadanik dagoen edo berak sortuko lukeen plataforma demokratiko batean sartu beharko luke (Ibid).

Laburbilduz, hiru puntu nagusitan oinarritzen zuen ETA(m)-k bere egituraketa-proposamena:

- 1) *Gaur egun, gaizki organizatuta dauden langile eta abertzale taldek legalitate demokratikoan jokatu behar dute.*
- 2) *Legalitate demokratikoan ez sartzea, eta gure erakundea ilunpean eta isilean atxikitzea erabaki du.*
- 3) *Horregatik eta horretarako erabaki du ere, masa-laneko adarretatik bereiztea eta, taktikoki, bere lana mugatzea: hots, borroka armatuaren indartzera eta une bakoitzaren beharrei erantzunik bere politika-iritzi eta jarrerak adieraztera (Ibid).*

Agiriaren amaieran, ETA(m)-k erakundeak ordura arte izandako jarrera aktibista utziko zuela adierazten zuen, borroka armatua euskal langileen estrategiaren defentsan erabiltzeko:

ETA, estrategiari dagokionez, praktikan jarraitu zaion jokabide aktibista utziko du. Jakina, ez beste terrorista-motetan hasteko, baizik, borroka harmatua, euskal langileen defentsa bidez berme izan den estrategia batetan sar arazteko (Ibid).

Letamendiaren arabera (1994 (1): 398) agiri hori zabaltzean, ETAk, lehen aldiz, eta era kontziente batean, "talde-estatu" gisa aurkeztu zuen bere burua, gizarte zibilari deia egiten baitzion bere kabuz antolatzeko. Horren inguruan, 1975ean ETA(pm)-ren militante batek (LUR izengoitiarekin) idatzitako "*Análisis de las escisiones de ETA en el año 1974*" idatzian, ETA(m)-ren antolaketa-eredua Irlandako IRArenarekin alderatzen zen:

"La solución es clara: separar el aparato militar del aparato de masas y hacer de cada uno de ellos una organización diferente, a la imagen de IRA y Sinn Féin; el FM debería quedar como ETA, y todo el resto, crear un partido o un amplio Frente de Izquierda Abertzale" (Hordago, 1979 (17); in Letamendia, 1994 (1): 397).

Beraz, esan daiteke ETA(m)-ren eta ETA(pm)-ren arteko zatiketa irizpide estrategikoengatik burutu zela; bai 1974tik aurrera jarraitu beharreko strategiaren inguruko ezadostasunengatik baita erakunde armatuaren eta masa-eragileen artean izan beharreko harremanen ingurukoengatik ere. Hala ere, esparru ideologikoari eta borroka armatuaren erabilpenari dagokienez, ezberdintasun nabarmenik ez zegoen ETA(m)-ren eta ETA(pm)-ren artean, hasiera batean, behintzat. Izan ere, euskal gizarte zibila ez ezik, ETArekin inguruko jende asko ere kolokan zegoen erakundearen baitako zatiketa berriarekin, orduko militante batek adierazten zuenez:

"La gente de base tenía dificultad en saber perfectamente lo que estaba pasando. Si quería saber algo debía ir a Iparralde. Nosotros supimos de esa escisión cuando entraron en el interior los responsables. A nuestra casa llegó primero gente polimili y nos quedamos en esta parte. Con eso no quiero decir que no estábamos convencidos (...) Yo estaba en la cárcel en 1976 en donde estábamos gente pm y milis. Y discutíamos. Para nosotros, estoy hablando de la base con la que me relacionaba y no la gente de la dirección, funcionar como pm o como una organización militar no nos parecía gran diferencia" (Izaskun Rekalderi egindako elkarrizketa 1995ean. In Giacomuzzi, 1997: 28-29).

Aurrekoaz gain, ETA(m)-k berak 1975eko abuztuan argitaratutako *Zutik 65*ean bi erakundeen arteko antzekotasunak aipatzeaz gain, ETA(pm) Euskal Herriko “indar dinamikoena” bilakatzeko aukera ez zuen baztertzen:

“Entre las dos ETA no se da una diferencia sustancial de conceptos respecto a la Revolución Vasca, sino solamente en cuanto a las fases que ella debe recorrer; los político militares, si tenemos en cuenta la tarea realizada en estos últimos meses, pueden convertirse en la fuerza más dinámica de Euskadi” *Zutik 65*; in Giacopuzzi, 1998: 35).

Hain zuzen ere, ETA(m)-ren lehenengo erabaki operatiboa jarduera armatuaren geldiera taktiko bat aurrera eramatea izan zen, “estruktura eraginkor” bat osatzeko helburuarekin. Geldiera hura 1975eko maiatzera arte luzatu zen. Orduan, ETA(m)-k Espainiako segurtasun indarren eta haien “kolaboratzaileen” kontrako ofentsiba armatuari ekin zion (Zabalza, 2015: 182).

Bere aldetik, ETA(pm)-k erakundearen militantziaren eta koadroen gehiengoa bere eginez 1974ko azken hilabeteetan bertan hasi zuen bere jarduera armatua, eta laster Espainiako Poliziaren kontrako ekintza hilkorrak burutu zituen (Ibid: 186). Hala ere, 1975ean erakundearen baitan izandako Mikel Lejarzaren (“El Lobo”) infiltrazioaren ondorioz, dozenaka militante atxilotuak izan ziren, Josu Mujika Aiestaran ETA(pm)-ko militantea hilik suertatu zelarik. Operazio polizial horren ondorioz, ETA(pm)-k bere jarduera armatua Euskal Herritik kanpora hedatzeko zuen asmoa bertan behera geratu zen¹⁴⁶. Are gehiago, 1975eko amaieran, ETA(pm)-k komando aktibo bakarra zuen (Ibid).

Halaber, mobilizazioak ugaltzen ziren heinean, erregimenak bere azken atzaparkadak eman zituen, 1975eko irailaren 27an azken fusilamenduak agindu zituelarik.

¹⁴⁶ Ikusi Giacopuzzi, 1997: 50-53 eta Cerdán & Rubio, 2003.

III.3.6 “Txiki” eta Otaegi: Francoren azken fusilatuak.

1975. urtea inflexio puntutzat har daiteke Euskal Herriko eta Espainiako historian. Alde batetik, kaleko protesten intentsitatea handituz zihoan heinean, erregimenaren errepresioarena ez zen atzean gelditzen. Izan ere, 1975eko apirilaren eta uztailaren artean Bizkaian eta Gipuzkoan izandako salbuespen-egoeraren ondorioz ehunka pertsona izan ziren atxilotuak¹⁴⁷, eta Espainiako segurtasun indarrek 22 pertsona hil zituzten urtean zehar protesta edo mobilizazio ezberdinetan (Zabalza, 2015: 189). ETAren jarduera armatuak ere (hasiera batean ETA(pm)-rena, batez ere) gorakada izan zuen, eta horrek hiltzorian zegoen diktadorearen erantzun argia bezain bortitza izan zuen: Juan Paredesen (“Txiki”), Angel Otaegiren eta FRACeko José Luis Sánchezen, Ramón Garcíaren eta Humberto Baenaren heriotza-zigorrak. Kondenatuen aldeko kanpaina indartsua egon zen Euskal Herrian, Gipuzkoan bereziki, baina Espainia mailan protestek ez zuten Burgosko epaiketan izandako intentsitatea lortu. Izan ere, PCEk ez zuen heriotza-zigorrak salatzeke Hego Euskal Herrian deitu zen greba orokorrerako deia egin (Sullivan, 1988: 165). 1975eko irailaren 27an bostak izan ziren fusilatuak.

Fusilamenduen ostean, hileko hirugarren greba orokorra deitu zen Hego Euskal Herrian, eta enfrontamenduak ugaltu ziren manifestarien eta polizia espainiarren artean. Protestek, baina, Euskal Herriko mugak zeharkatu zituzten, eta enbaxada espainiar batzuk asaltatuak edota erreak (Lisboarena kasu) izan ziren (Giacopuzzi, 1998: 36). Horrez gain, Europako Ekonomia Erkidegoko zenbait herrialdek Espainian zuten enbaxadoreak deitu zituzten, eta Mexikoko presidentek, Luis Echeverría, Espainiarekiko harreman ekonomiko eta komertzialak bertan behera uzteaz gain, Espainiar Estatuaren kanporatzea

¹⁴⁷ Orotara, 4265 atxilotu eta 518 erbesteratu egon ziren 1975ean Euskal Herrian (Clark, 1984; Gurrutxaga, 1985; in Letamendia, 1994: 414).

NBEtik eskatu zuen (Ojeda Revah, 2017). Halaber, Suediako lehen ministroak, Olof Palmek, hiltzailatzat hartu zituen Espainiako agintariak.

Interpelazio diplomatikoek, baina, ez zuten denbora luze iraun; 1975eko azaroaren 20an Franco hil baitzen, eta ezjakintasunez beteriko trantsizio-garaia hasi zen, eta, horrekin batera, aukera eta mehatxu berriak estrategia-eraketarako.

III.3.7 The insurrectional strategy as a game.

After analysing the process by which ETA proposed implementing a revolutionary war strategy as a previous phase of an insurrectional process in the Basque Country during the Franco regime, in this section, we will try to interpret this strategic approach¹⁴⁸ through the language and the logic of the game theory.

III.3.7.1 Typology and description of the game.

Following the different types of games provided by the game theory, we will start from the premise that the insurrectional approach proposed by ETA during the Franco regime in the form of a revolutionary war can be identified as a simultaneous non-cooperative zero-sum game. Indeed, it is a non-cooperative game since, during the Franco regime, there was no possibility of any negotiation with the State that could turn the game into a cooperative model¹⁴⁹.

¹⁴⁸ Parallel to the insurrectional strategy, ETA repeatedly raised the rest of the Basque nationalist forces the articulation of a national front. However, ETA did not propose the creation of the national front as a strategic alternative to its insurrectional approach but rather did it as a call to the rest of the nationalist political formations to join the insurrection that the organization wanted to implement. In other words, as ETA stated, the creation of that national front would not have changed the rules of the game between ETA and the Spanish State. In any case, it would have increased the "insurrectional intensity" of ETA's strategic approach. Therefore, in this first stage, we have not analysed the national front strategy. The reader can read the analysis of the national front strategy in the post-Franco stage in the next chapter.

¹⁴⁹ On the one hand, the Franco regime did not have any incentive to engage in any type of dialogue or negotiation with ETA or to carry out any type of political concession (the only

Likewise, we can talk about an asymmetric game, given the apparent divergence between ETA's and the State's military capacity. Similarly, we would be talking about an asymmetric and imperfect information game since neither ETA nor the State knows the utility functions of the adversary nor the strategic movements available.

Similarly, it is a zero-sum game since profit sharing is no possibility. We understand that the benefit (V) for which ETA and the State competed was the political power and the monopoly of violence in the territory of the Basque Country. From this perspective, it seems logical to think that given that political power in a territory cannot be shared, and, by definition, a monopoly cannot be shared either, the game between ETA and the State must consider itself from a zero-sum perspective. Therefore, both ETA's insurrectional approach and the complete political closure of the Franco regime presented a game that can only be resolved with a victory or an absolute defeat.

III.3.7.2 The dynamic of the game.

In the insurrectional game, victory is obtained by whom finally takes control of the political power and, therefore, the control of the monopoly of the use of legal violence (either under Spanish or Basque legality) in the territory of the Country Basque. ETA and its insurrectionary process disappear from the political scene if the winner is the State. Its members are imprisoned or sentenced to death, and the Spanish legality in the Basque Country is maintained. Even more restrictive

exception could be found in the commutation of the death sentences in the Burgos trial, due to large international pressure). The only situation in which the regime could have been willing to enter a dialogue with ETA would have been in the hypothetical case in which the revolutionary war had reached the insurrectional phase, in which the regime would have had to choose between yielding or intensifying its offensive against ETA and the part of the population of the Basque Country that had joined the insurrection. For its part, ETA also did not contemplate an option to engage in dialogue or negotiations with the regime during the phase of the revolutionary war, as Krutwig (: 395) or Fanon (2006: 93-94) theorised.

legal measures could be incorporated to prevent a similar process from occurring again. On the contrary, if the winner of the game is ETA, this would imply that the Spanish State would lose the political power in the Basque Country, which would initially be in the hands of ETA until the institutions of the new Basque State assume it after establishing the new Basque legality. So far, the game does not differ significantly from the game that could represent a conventional war between two States. Indeed, in a traditional war scenario, the players compete for a territory's direct or indirect control. They do not cooperate, and the benefit of one corresponds precisely with the loss of the other.

However, the main difference between ETA's revolutionary war approach to a conventional war or a classical revolution lies in the function given to the use of violence. Although there may be other factors that determine the victory or defeat in conventional wars and classical revolutions, the correlation of forces between the actors generally determines the winner and the loser. There are exceptions, of course, such as the Vietnam War or the Algerian War of Independence. Nevertheless, despite the apparent asymmetry in terms of military capacity among the disputed actors, they were those who started from a position of lower military power and finally achieved victory.

ETA was logically aware of that asymmetry. Therefore, it posed the revolutionary war as a phase before the direct insurrectional route, which, in contrast, the organization never put into practice. Therefore, in 1967 ETA was aware that it did not have the sufficient operational capacity nor the popular support necessary to launch an insurrectional process in the Basque Country similar, for example, to the one carried out a few years earlier by the FLN in Algeria. Thus, ETA tries to achieve the greatest possible popular support in the first phase: the phase of the revolutionary war. Naturally, the ideological work is fundamental for that purpose, as seen in the large amount of political and ideological training material that ETA produces. However, that is insufficient. In

that sense, the State's repressive function against ETA was fundamental to the organisation's strategy.

ETA theorised that the repression of the State would be strategically beneficial¹⁵⁰, especially if that repression had an indiscriminate character against the civilian population of the Basque Country. Indeed, according to ETA's plans, the expected indiscriminate repression of the State would generate anger in Basque society that would become a direct response against the regime. That response would increase support for ETA's revolutionary approaches and mobilizing, militant, and operational capacity.

Moreover, according to ETA's logic, the greater the repression, the greater the Basque population's "insurrectional intensity" and the lower the benefit/cost ratio for the State¹⁵¹. Therefore, ETA's main objective through the revolutionary war strategy would be to force a repressive¹⁵² response by the State in a progressive manner until reaching an "escape point" (V_z). This "escape point" would represent the moment when ETA's level of control of the monopoly of violence (V_E) and, therefore, its level of control of the political power in the Basque Country is at the same level as the maximum cost that the State is willing to bear. In other words: its resistance threshold. Once this resistance threshold is exceeded, the insurrection would reach a level that would make the State's benefit/cost ratio so low that, seeing it from a rationality perspective, it would

¹⁵⁰ See *La acción-represión en Euzkadi*; in Garmendia, 1979 (2): 193-200.

¹⁵¹ When we talk about the State's cost/benefit ratio, we mean the relationship between the positive and negative incentives that the State would have had in the development of the insurrectionary process. In the beginning, when the level of violence and insurrectional intensity are not very high, the State must pay a low cost to maintain order, its status quo and, therefore, the monopoly of violence. However, as the insurrectional intensity increases, the State must face an increasing cost since it is increasingly difficult to have the insurrectionary process under control as well as to preserve the monopoly of violence.

¹⁵² Obviously, if that repression reaches an extreme level at which ETA is dismantled and the civil population sees no possibility of response, the revolutionary war approach ends up failing.

cause the State to withdraw from the game and, therefore, to overcome the insurrection.

III.3.7.3 The insurrectional strategy as a war of attrition.

As mentioned above, we could represent ETA's revolutionary war approach as a pre-insurrectionary phase. Moreover, ETA established a direct relationship between the violent-repressive spiral increase and its political power control level, or, in other words: the monopoly of violence. Moreover, according to ETA's logic, its utility function (V_E) would represent the organization's level of control of the monopoly of violence, which would be correlational to the "insurrectional intensity". This, in turn, would be determined by the number of people favourable to the insurrection, their activism, and the action-reaction spiral level's increment¹⁵³. Thus, according to ETA's ideal model, $V_E = V_{OE} + \sum(V_{EN} - C_{EN})$ would be inverse to the State's. Indeed, the State's utility function would be $V_S = V_{OS} + \sum(V_{SN} - C_{SN})$. V_{OE} and V_{OS} would represent the value of V_E and V_S at the beginning of the game (at that point $V_{OS} > V_{OE}$). In the same way, V_{EN} , C_{EN} , V_{SN} , and C_{SN} would represent each round's respective ETA's and the State's profits and costs.

Considering the above, we can say that the war of attrition model can represent ETA's insurrectional strategy. Indeed, the implementation of conventional warfare is discarded, but each player suffers a cost C in each game round. That cost brings each player closer to its resistance limit. According to the classic model of the war of attrition, both ETA and the State pre-set the maximum value of C that they are willing to bear in the game. In ETA's case, the cost C_E would be represented by the deaths and imprisonment of its members and supporters.

¹⁵³ We understand that ETA states that the increment of the insurrectional level corresponds exactly to the increase of V_E in the insurrectional game. That is, ETA believes that once the insurrectional level is equivalent to the escape point, the State quits the game.

In contrast, the State's cost C_s would be defined by the human, material, and symbolic damage caused by ETA's activity added to the insurrectional intensity level in the Basque Country.

The cost that the State can bear is much greater than in ETA's case. Moreover, the State is the only one of the two players who can defeat the other. However, ETA's action-repression-action logic presupposes that for each cost C that ETA must endure in each round, the organization will obtain a higher value V in the form of more considerable social support and greater operational capacity to face the next game round. Besides, despite the police about ETA, it could be said that the State was uncertain about the organization's real robustness, even more after the action against Carrero Blanco. Asako (2015a: 314) proposes for this model of war of attrition one equilibrium in which player-1 (in this case, the state) prefers to fight in the early periods but gives in when the war is prolonged, and player-2 (in this case, ETA) has an incentive to wait until player-1 gives in. Therefore, from the game theory perspective, it can be said that if we interpret the insurrectional approach as a war of attrition, there is an equilibrium solution where player-2 (ETA, in this case) can win the game if it can bear the costs of delaying the game for a period equal to or greater than the state resistance threshold. Therefore, the determining issue would be to know what resistance threshold the State would have. On this issue, different interpretations fit.

On the one hand, it is logical to think that if the insurrectional intensity derived from ETA's strategy had approached the "escape point", the State would have chosen to increase its repressive level against ETA. It could have reached a military intervention in the Basque Country. ETA's options to win the game would have been very limited or virtually nil in that situation. Indeed, let us look for an analogous case to this hypothetical situation. We could think about the military offensive of the Sri Lankan army that, between 2008 and 2009, killed hundreds of guerrillas and civilians and ended the *Liberation Tigers of Tamil Eelam*

guerrilla after more than 20 years of armed activity. Another hypothetical situation (the one that ETA raised) would be the one in which the State, aware of the level that the insurrection had reached, thinks that it has lost its legitimacy and its hegemony of power in the Basque Country and, therefore, it withdraws from the game instead of increasing its military offensive against ETA and the civilian population.

Having said the above, since we are talking about an incomplete information game, we could think that if ETA were convinced that there was no chance of the State giving in, its most rational option would have been to withdraw from the game. On the other hand, if the State had thought that it was impossible to defeat ETA, the most rational option for the State would have been to withdraw¹⁵⁴ from the game (Sanchez-Cuenca, 2001: 89).

So, what were the reasons why ETA's insurrectional strategy was unsuccessful, but neither did it end up with ETA defeated? There can be as many reasons as different prospects to answer that question. We will suggest some of them from the game theory perspective. The first and most obvious reason the insurrectional strategy was unsuccessful was that it was not implemented beyond the first phase of the revolutionary war. Indeed, the direct relationship that ETA expected to find between the level of its armed activity, state repression, and insurrectional intensity was not fulfilled. As a result, ETA did not achieve the exponential increase it hoped to accomplish in Basque civil society's support and direct participation in the insurrectional process. Thus, although ETA indeed managed to launch the action-repression-action spiral as planned in the first years of the revolutionary war, the insurrectional intensity finally failed to force the State's

¹⁵⁴ In this hypothetical situation, a process of dialogue or negotiation could have been opened. In principle, ETA did not contemplate the possibility of undertaking any negotiating process with the State, although, as Krutwig stays it in Vasconia, negotiations only arise after the end of the revolutionary war phase and never discussed political objectives (2006: 395). On the other hand, the option of the Franco regime sitting down to negotiate with ETA seems a rather unlikely option, but not completely ruled out if the insurrectional intensity were extremely high.

resistance threshold. Indeed, although the repressive level and the armed activity of ETA increased from 1967 to 1974, it did not have the consequences the organization hoped to obtain. On the contrary, all of them added to the foreseeable opening or the political transformation of the Franco regime that was predicted in 1974, forcing ETA to abandon the insurrectional model.

Therefore, the game of war of attrition during the Franco regime ended up, to some extent, a draw. In other words, although both players had to bear the costs of the confrontation, neither ETA nor the State reached their resistance threshold. Hence, that was the end of the first stage of the war of attrition game, but a new phase will soon be opened with different game rules from those in this first stage.

III.4 ETAREN BIGARREN ETAPA ESTRATEGIKOA (1975-2007). BI AUKERA ESTRATEGIKOEN ARTEAN: NEGOZIAZIOA ETA NAZIO FRONTEA.

III.4.1 Estrategia-eraketarako faktoreen analisia. AMIA analisia trantsizio garaian.

Franco hil eta bi egunetara Juan Carlos de Borbón Espainiako errege izendatua izan zen 1947ko *Ley de Sucesión en la Jefatura del Estado*¹⁵⁵ delakoa jarraiki. Hiru egun geroago, Espainiako errege berriak amnistia partzial baterako agindua eman zuen. 1976ko apirilean Espainiako parlamentuak 18/1976 Legea onartu zuen, zeinetan sindikatuak sortzeko eta grebarako eskubidea onartzen baitzen. Halaber, urte horretako ekainean 21/1976 Legea onartzean, alderdi politikoaren legalizaziorako aukera eman zen lehen aldiz Espainian Gerra Zibilaren ondoren. Izan ere, 1977ko ekainean antolaturiko hauteskunderen ondorioz Bigarren Errepublikaren garaitik herriak aukeratutako lehen parlamentua egon zen

¹⁵⁵ <http://www.cervantesvirtual.com/downloadPdf/ley-de-sucesion-en-la-jefatura-del-estado-de-26-de-julio-de-1947/>.

Espanian, 1978an onartu zen Espainiako Konstituzioa eratzeko enkargua izan zuena, alegia.

Hala ere, Euskal Herriko egoera politikoa ez zetorren bat Espainian aldaketa politikoa sortzen ari zen giro politikoarekin, eta egon zen protesten gorakada errepresioarekin erantzun zuen Estatuak. Egoera horretan, aukera eta mehatxu berriak sortzen ari ziren ekinbide politikorako ez ezik, jarduera armaturako ere. Hurrengo orrietan, trantsizio garaian ETAREN¹⁵⁶ estrategiaren eraldaketarako eragingarrienak izan ziren faktoreak aztertuko ditugu AMIA analisiaren bidez.

¹⁵⁶ Hemendik Aurrera "ETA" izena erabiliko dugu 2010eko urrian bere jarduera armatua bukatutzat eman zuen erakundeari erreferentzia egiteko. Bestelako barne-zatiketei erreferentzia egitekotan esplizituki aipatuko dugu.

Indarguneak	Ahulguneak
<p><u>JUSTIFIKAZIO IDEOLOGIKOAN:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - ETaren ekinbidea ezaguna da nazioartean. - ETA frankismoaren aurkako eta nazionalismo ezkertiarren erreferente bilakatuta Euskal Herrian. <p><u>BITARTEKOETAN:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Militanteak lortzeko ahalmena (EGI-Batasuna ETAn sartu zen 1972an). - Antolaketa eredu berria: desdoblamendua. <ul style="list-style-type: none"> - KAS alternatibaren agerpena (1976). <p><u>EMAITZETAN:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Herri-babesa: Burgoseko epaiketak herri mobilizazio handiak eragin zituen. 	<p><u>JUSTIFIKAZIO IDEOLOGIKOAN:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Jarduera armatua justifikatzeko zailtasun handiagoak diktadura amaitzen denean. - Masa borrokaren eta borroka armatuaren arteko dialektikarako zailtasunak egoera politiko berrian. <p><u>BITARTEKOETAN:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Zatiketa ETA(m)/ETA(pm) (1974). <p><u>EMAITZETAN:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekintza-errepresio-ekintzak bere mugak utzi ditu agerian. Egoera politiko berrian are zailagoa izango da haren aplikazioa.
<p><u>NAZIOARTETIK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Europako Komunitateen zabalpena. - Hiri-gerrilla esperientzien ugalketa Europan eta Hego Amerikan. <p><u>ESPAINIATIK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Frankismoaren amaiera: irekiera politikoa - Ekimen politikorako aukera berriak. - Amnistiaren aldeko jarrera indar ezkertiarren aldetik. <p><u>EUSKAL HERRITIK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Herri mobilizazio handiak. 	<p><u>NAZIOARTETIK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Tupamaroen kontrako erasoaldia. - Ipar Irlanda: Gobernuaren eta IRaren arteko elkarrizketetan emaitzarik ez. <p><u>ESPAINIATIK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Jazarpen politikoa ez da bukatzen diktadura amaitzen denean. - Irekiera politikoak eta parte-hartze instituzionalak bide insurrekzionala kolokan jartzen dute. - Ez da aurreikusten autodeterminazio eskubidearen onarpena. <p><u>EUSKAL HERRITIK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Indar nazionalisten ugalketa. Proiektu eta ikuspegi ezberdinak.
Aukerak	Mehatxuak

Iturria: autoreak eginda

III.4.1.1 Estrategia eraketarako kanpoko faktoreak.

Diktadurapean ETarentzat eredu insurrekzionalak eduki ahal izan zuen zentzu estrategikoak bere baliagarritasuna galtzen zuen Francoren heriotzaren ostean. Hain zuzen ere, aurreko urteetan erregimen frankistaren itxiera politikoa eta

izaera errepresiboa ETaren garapen estrategikorako elementu gakoa izan zen moduan, trantsizio garaian hautematen zen parte-hartze politikorako irekierak eskema insurrekzionala justifikatzeko, eta, batez ere, hura garaile izateko aukerak ezdeusak ziren. Hala ere, urte haietan Europan eta Hego Amerikan ugaltzen ari ziren hiri-gerrillako talde armatuen esperientziek borroka armatuaren jarraipenerako ereduak erakusten zizkien ETari. Halaber, Bigarren Mundu Gerraren ostean bloke kapitalistaren eta komunistaren artean hasitako Gerra Hotzaren testuinguruak aukera eta mehatxu berriak gehitzen zituen eszenatoki politiko berrian. Euskal Herriari zegokionez, amnistiaren eta independentziaren aldeko mobilizazioak moteldu beharrean areagotu ziren, eta haiekin batera Estatuaren jazarpena. Hurrengo orrietan gure uztez ETaren garapen estrategikorako eragin berezia izan zuten kanpo faktoreez arituko gara.

III.4.1.1.1 Aukerak.

Trantsizio garaian II Mundu Gerraren ostean hasitako Gerra hotza *Détente* (arintze) egoera batean aurkitzen zen. Gerra Hotzaren hasiera 1947an ezarri ohi da, hots, *Marshall plana*¹⁵⁷ indarrean sartu zen unean. Ordutik 1991era arte mundu ordena bi eredu antagonikoren artean banatuta egon zen: eredu kapitalista eta eredu sozialista. 1948an *Bruselako Ituna* eta 1949an *Washingtongo Ituna* sinatu ziren, NATOri jaiotza emanez. 1955ean, ordea, Varsoviako Ituna sinatu zuten bloke sozialistako herrialde batzuek. Bi blokeen arteko tentsioa handituz joan zen

¹⁵⁷ *Marshall Plana* (ofizialki Europa Suspertzeko Programa) Bigarren Mundu Gerraren osteko Europari ekonomikoki laguntzeko AEBetako Marshall jeneralak 1947ko ekainaren 5ean aurkeztu zuen plana izan zen Arrazoi ekonomikoengatik zein politikoengatik hartu zuten Estatu Batuek Europari laguntzeko erabakia. Alde batetik, Europarekiko harreman ekonomiko normalizatuak berreskuratzeko asmoz. Bestalde, komunismoaren hedapena ekiditeko. Teorian, Europako herrialde guztiek har zezaketen parte Marshall Planean, baina sobietarrek eta haien eragin-eremuko herrialdeek uko egin zioten laguntzari. Bloke komunistako herrialdeez gain, Espainia eta Finlandia geratu ziren plan horretatik kanpo. 1948tik 1952ra egon zen indarrean, eta 13 mila milioi dolar jaso zituen Europak tarte horretan. Britainia Handia (% 23,5), Frantzia (% 20,5), Italia (% 11) eta Alemaniako Errepublika Federala (% 10) izan ziren laguntzarik handienak jaso zituzten herrialdeak. (Aizpuru & Martínez, 2011: 21-22).

hurrengo urteetan, eta 1962an goia jo zuten *Kubako misilen krisiarekin*. Hala ere, mundua suntsitu ahalko zuen balizko gerra nuklear bati beldurrez, 1970eko martxoaren 5ean *Arma Nuklearren Ez Ugartze Hitzarmena* sinatu zuten AEBek, Sobietar Batasunak eta Erresuma Batuak. Era Berean, 1971ean AEBek, Sobietar Batasunak, Frantziak eta Erresuma Batuak *Berlingo Akordioa* sinatu zuten, blokeen arteko tentsioa motelduz, neurri batean behintzat. 1973an AEB Vietnamentik atera zen, Vietcomen garaipena erraztuz eta Vietnameko gerra komunismoaren eta gerrilla-gerraren ikur epikoa bilakatuz. Aldi Berean, 1975ean ere *Helsinki akordioa* sinatu zen, zeinetan sinatzaileek (AEB eta Sobietar Batasuna barne) estatuen lurralde osotasuna eta haien mugen bortxa-ezintasuna adostu zuten.

Mundu mailako egoera horrek, aukera berriak ematen zizkien Europan zein Hego Amerikan ugaltzen ari ziren nazio askapeneko mugimenduei zein hiri-gerrilla ezkertiarrei. Hain zuzen ere, euskal kausaz gain, Europa mailan Irlandako iparraldean *troublesak* hasiak ziren, eta IRA erakundea (Provisional IRA¹⁵⁸, batez ere) intentsitate handiko kanpaina armatua eramaten ari zen. IRArena baino intentsitate txikiagorekin, Britainiako Askapen Fronteak (*Talbenn Diebiñ Breizh*) ere borroka armatuari ekin zion 1966an. Korsikako FLNC (*Fronte di Liberazione Naziunale Corsu*) ere 1976an sortu zen, eta Alemanian RAF (*Rote Armee Fraktion*) erakunde antikapitalista aktibo zegoen 1970tik. Bestalde, Hego Amerikan garaiko hiri-gerrillen ikur bilakatu zen *Tupamaroen Nazio Askapenerako Mugimenduak* bere jarduera armatua indarrean mantentzen zuen 1965tik, Uruguaiako estatuaren jazarpen latza jaso arren. Besteak beste, José Mujicaren (gerora, Uruguaiako presidentea izan zena 2010etaik 2015era bitarte) partaidetza izan zuen tupamaroen mugimenduak. Halaber, 1964an sorturiko eta Yasir Arafat

¹⁵⁸ 1969an IRA erakundea bitan banatu zen: Official IRA eta Provisional IRA.

buruzagi izan zuen *Palestinaren Askapenerako Erakundea* Palestinako ordezkari izendatu zuen NBEk 1974an.

Aurrekoaz gain, Sobietar Batasunaren babespean, eredu sozialista aplikatzen ari zen munduko zonalde anitzetan. Eredu sozialistarekin lotuta joan ohi den autodeterminazio eskubideari dagokionez, Espainian PCEk ez ezik, PSOEek ere amnistia osoa eta autodeterminazio eskubidea defendatzen zuen trantsizio garaian. Hain zuzen ere, 1974an PSOEek antolatutako Surensesko Biltzarrean (XII.a), *apurketa demokratikoaren* aldeko apustua egiteaz gain, Espainian benetako demokrazia egoteko, “iberiar nazio” guztiek autodeterminazio eskubidea izan behar zutela defendatzen zuen¹⁵⁹ (Val del Omo, 2004: 87-889). Bi urte geroago antolatutako biltzarrean ere autodeterminazio eskubidearen aldeko aldarria egin zuen alderdiak.

Europa mailan, 1973an Danimarka, Irlanda eta Erresuma Batua Europako Erkidegoan sartu ziren, guztira 12 Estatu batuz. Bere aldetik, Espainiak 1977an egin zuen Erkidegoan sartzeko eskaera. 1977an bertan onartutako Erreforma Politikorako *1/1977 Legea*¹⁶⁰ onartu eta Espainiako Gorteetarako hauteskundeak deitu ziren lehen aldiz Gerra Zibilaren garaitik. Horrek alderdi politiko berrien sormena eta ekimen politikorako aukera berriak ekarri zituen. Euskal Herrian, eta zehazki, euskal nazionalismoaren inguruan, alderdi eta egitura politiko

¹⁵⁹ “El PSOE entiende que el restablecimiento de la democracia en España requiere con carácter inexcusable las medidas siguientes: - Libertad de todos los presos políticos y sindicales. - Devolución de todos sus derechos a las personas que hayan sido desposeídas por sus actuaciones políticas y sindicales contra la dictadura. - Disolución de todas las instituciones represivas. - Reconocimiento y protección de las libertades mediante: - Libertad de partidos políticos. - Libertad sindical. - Libertad de reunión y expresión. - Derecho de huelga y manifestación. - Restitución del patrimonio expoliado a las organizaciones políticas y sindicales suprimidas por la dictadura. - Convocatoria de elecciones libres en plazo no superior a un año a fin de que el pueblo manifieste soberanamente su voluntad. - Reconocimiento del derecho de autodeterminación de todas las nacionalidades ibéricas”. (PSOEn XIII Biltzarreko Ebazpen Politikoa; in Val del Omo, 2004: 87-889).

¹⁶⁰ Ikusi <https://www.boe.es/boe/dias/1977/01/05/pdfs/A00170-00171.pdf>.

berrien izenak ugaltzen hasi ziren. Horrela, EHAS¹⁶¹ (Euskal Herriko Alderdi Sozialista, 1975) LAIA (Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia¹⁶², 1974) edo KAS (Koordinadora Abertzale Sozialista, 1975) siglak sartu ziren Euskal Herriko eszenatoki politikoaren egunerokotasunean.

Bestalde, Euskal Herrian giro politikoa gori-gorian zegoen kalean. 1975ean Txiki eta Otaegiren epaiketen eta heriotza-zigorren kontrako mobilizazioen ostean, amnistiaren aldeko aldarria gero eta presenteago zegoen, eta *Amnistiaren aldeko asteak* antolatzen hasi ziren. Bestetik, langile-mugimendua ere indarra hartzen ari zen Francoren heriotzaren ostetik. Mobilizazio haiek, baina, Estatuaren jazarpen bortitza izan zuten aurrean, hori izanik, hain zuzen ere, estrategia eraketarako mehatxuetako bat.

III.4.1.1.2 Mehatxuak.

Nazioarteko egoerak aukerak ez ezik, mehatxuak ere ekartzen zituen ETaren estrategia eraldaketarako. Izan ere, ETarentzat, neurri batean, eredu izan zitezkeen IRA erakundeak zein Tupamaroen mugimenduak izandako esperientziek estrategia armatuaren mugak erakutsi zituzten. Hain zuzen ere, Tupamaroen mugimenduaren jarduera armatuak gorakada handia izan zuen 1968tik aurrera, 1970-71 urteetan puntu gorenera ailegatuz. 1970ean Dan Mitrione agente estatubatuarra bahitu eta hil zuten tupamaroek, Uruguaiako poliziaritza tortura metodo berriak erakutsi ziolakoan (Fontana, 1992: 1056). Halaber, 1970-71ean ihesaldi ezberdinak burutu zituzten kartzelan zeuden MLN-Tko emakumezkoek zein gizonezkoek. 1970eko martxoaren 8an 13 presok

¹⁶¹ 1974an Hego Euskal Herrian sorturiko EAS (Eusko Alderdi Sozialista) eta Ipar Euskal Herrian sorturiko HAS (Herriko Alderdi Sozialista) alderdien batuketaren ondorioz sortu zen EHAS alderdia. 1977ko uztailean desegin zen Hego Euskal Herriko EHAS, Eusko Sozialistak taldearekin batera, HASI (Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea) alderdia osatzeko. Ipar Euskal Herriko EHAS 1979ra arte egon zen eszenatoki politikoan.

¹⁶² 1974an ETatik atera zen Langile Fronteak sortutako alderdia.

(emakumezkoak) ihes egin zuten Cabildoko espetxetik, eta 1971ko uztailaren 30ean 38 izan ziren *Operación Estrella* izenaz ezagutu zen ihesaldiaren ondorioz ihes egin zuten emakume-presoa¹⁶³. Bestetik, 1971ko irailaren 6an *Operación abuso* gisa ezagutu zen ihesaldiaren ondorioz MLN-Tko ehun presok (gizonezkoak), haien artean José “Pepe” Mújicak eta Raúl Sendicek, Punta Carretas izeneko maila handiko espetxetik ihes egitea lortu zuten¹⁶⁴. Hiru egun geroago, Uruguako Gobernuak armadari egokitu zion MLN-Tren kontrako ekinbidea 566/971 dekretuaren bidez. Horren ondorioz, hiri-gerrillaren kontrako errepresioa areagotu zen, eta 1972an operazio militar ezberdinen ondorioz, MLN-Tko buruzagitza atxilotua izan zen, tupamaroen mugimendua oso ahulduta geratu zelarik. 1973an, estatu-kolpea gertatu zen, eta 12 urteko diktadura pairatu zuen Uruguako herriak. 1985ean, diktaduraren amaierarekin batera, MLN-Tk amaiera eman zion bere estrategia armatuari, politika instituzionalari ekin ziolarik.

Beste aldetik, Irlandako iparraldean 1969an hasitako *troublesak* gori gorian zeuden trantsizio garaian, batez ere, Provisional IRA erakundearen jardura armatuaren gorakadaren ondorioz. PIRA 1969an sortu zen, IRA eta mugimendu errepublikar irlandarra *Provos*en (Provisionals) eta *Officials*en artean banatu zenean. Faktore ezberdinek eragin zuten barne-zatiketa hura. Alde batetik, 1969an Belfasten eta Derryn komunitate nazionalista irlandarraren aurka izandako jazarpenaren aurrean IRAk izandako zailtasunak komunitatea defendatzeko areagotu zituen IRAren barneko tentsioak. Bestetik, marxismoan eta nazionalismoan oinarritutako ikuspegiaren araberrako aliantzen inguruko ezadostasunek eta, batez ere, instituzio politikoetan parte-hartzearen inguruko iritzi kontrajarriek eragin zuten zatiketa (Hayes, 1998: 22; ikusi ere Horgan & Taylor, 1997). Hala ere, laster ikuspegi nazionalista eta abstentzionismoa

¹⁶³ Ihesaldi haien inguruan ikusi Jorge, 1994, Cardozo, 2010 eta Licitra, 2018.

¹⁶⁴ Ihesaldi horren inguruan ikusi *History Channelek* eginiko dokumentala in <https://www.youtube.com/watch?v=WlpSmPleHOQ>.

defendatzen zituen PIRA erakunde txikia eta isolatua izatetik intentsitate handiko jarduera armatua praktikatzera igaro zen. Izan ere, OIRAk gutxika jarrera erreformistagoa hartzen zuen artean¹⁶⁵, PIRAk nazio askapeneko gerra iraultzaile gisa planteatzen zuen gatazka politikoa. Hala ere, gatazka armatuaren intentsitatea handitzen zen heinean¹⁶⁶, hura amaitzeko lehen saiakerak gertatu ziren. Horrela, 1972an bi asteko su-etena eman zuen PIRAk Britainia Handiko Gobernuarekin elkarrizketak burutzeko. Elkarrizketek porrot egin zuten, eta PIRAk estrategia “defentsibo” batetik estrategia “ofentsibo”rako urratsa eman zuen (O’Brien, 1997: 79-81). 1975ean beste su-eten bat iragarri eta negoziazio-prozesua hasi zen PIRAREN eta Gobernu britainiarren artean. PIRAk uste zuen negoziazio-prozesu horren ondorioz britainiarren ateratzea Irlandatik lortuko zutela (O Bradaigh, 1975; in O Ruairc, 2008). Hala ere, negoziazioen porrotaren ondorioz eta ia urtebeteko su-etenaren ostean, PIRAk bere jarduera armatua berraktibatu zuen 1976aren hasieran.

Su-etena kaltegarria izan zen PIRAREN gaitasun operatiboarentzat (Bishop & Mallie, 1988; Smith, 1995; in Craig, 2014: 308). Gobernu britainiarrentzat, ordea, positiboa izan zen su-etena, PIRAREN eta mugimendu errepublikararen ahultze operatiboa eta politikoa lortu baitzuten. Urte batzuk geroago Britainia Handiko Gobernuak berak onartu zuenez, 1975eko su-etena ahalik eta gehien luzatzen saiatu zen PIRA militarki ahultzeko asmoz (Rees, 1985: 224).

Gauzak horrela, 1976ko urtarrilean, PIRAREN eta Britainia Handiko Gobernuaren arteko elkarrizketak amaitzearekin batera, PIRAk bere estrategia armatua eraldatu zuen- Ordura arte urte gutxiko ekinbide armatuak Britainia Handiko

¹⁶⁵ 1972an Official IRAk su-etena adierazi eta estrategia armatuari amaiera eman zion (hurrengo urteetan enfrontamendu batzuetan parte hartu zuen arren). 1974an OIRAKo sektore batek Irish National Liberation Army (INLA) erakunde armatuaren sormena bultzatu zuen.

¹⁶⁶ Gatazkarekin lotutako hildakoak (alde bietakoak) 1969tik 1976ra arte hurrengoak izan ziren. 1969: 16; 1970: 26; 1971: 171; 1972: 480; 1973: 255; 1974: 294; 1975: 260; 1976: 297. Iturria: CAIN Archive <https://cain.ulster.ac.uk/sutton/tables/Year.html>

irteera Irlandatik ekarriko zuela uste bazuen ere, ordutik 90 hamarkadara arte PIRAk helburu hori lortzeko denboraldi luzeko desgaste-gerra planteatu zuen (ik. White, 1989; Ryan, 1994; O'Brien 1997; Coogan, 2000; McKearney, 2011).

Irlandako zein Uruguaiako esperientziek, hortaz, bi ondorio nagusi utzi zuten ETarentzat: alde batetik, bide insurrekzionalaren mugak, eta, bestetik, negoziazioaren estrategiaren aukerak eta mehatxuak. Izan ere, trantsizioak zekarren irekiera politikoaren testuinguruan bide insurrekzionalaren agorpena agerikoa zen bezala, frankismoan baino aukera gehiago egon zitekeela Gobernuarekin negoziatzeko pentsatzea logikoa zirudien. Hala ere, kaleko giroak ez zuen esperantza handirik ematen biolentziaren amaieraz pentsatu ahal izateko, Estatuaren errepresioa ez baitzen moteldu trantsizioa garaian, Euskal Herrian bereziki¹⁶⁷, hurrengo koadroan ikus daitekeenez:

Table 1 Victims of armed and police violence during the political transition and early years of democracy

Victims of:	1974	1975	1976	1977	1978	1979	1980	1981	1982
armed violence by ETA	19	16	18	10	65	79	94	30	39
armed violence by the far right	85 (from 1972 to 75)		51		33		126		
police violence during demonstrations (Basque victims in parentheses)	2	5 (3)	12 (8)	14 (8)	5 (2)	9 (3)	2(1)	1	0

Iturria: Ubasart-González, 2019.

Gauzak horrela, nahiz eta, lehen aipatu moduan, garai hartan PSOEek zein PCEk autodeterminazio eskubidea defendatzen zuten, ez zen aurreikusten trantsizioaren ostean ezarriko zen sistema politiko berrian Euskal Herrirako autodeterminazio eskubidea onartuko zenik. Izan ere, 1978an Espainiako

¹⁶⁷ 1976ko martxoaren 3an Espainiako poliziak 5 langile hil eta 150 zauritu zituen soldaten igoera eskatzeko deituta zegoen greba orokorraren testuinguruan (Ik. Lasheras, 2001 eta Carnicero, 2007).

Konstituzioa onartu zenean autodeterminaziorako aukerak guztiz alboratuta geratu ziren.

Euskal Herrian eta euskal nazionalismoan zentratuz, alderdi eta mugimendu politiko berri ugari agertzen ari zen, batzuk KASen inguruan eta beste batzuk haren kanpoan. LAIAren kasuan, adibidez, KAS koordinadoraren inguruko eztabaidek barne-zatiketa eragin zuten koordinadoraren aldekoen eta kontrakoen artean¹⁶⁸; LAIA(bai) eta LAIA(ez) bezala ezagutu ziren zatiketa horiek. Era berean, LAIAk borroka armatuaren erabilpena errefusatzeko ez bazuen ere, masa-borrokaren osagarritzat hartzen zuen, betiere *alderdi buruzagiaren* politikaren mendean kokatuta. Izan ere, “abangoardia armatua” kontzeptua erabili beharrean (abangoardia alderdia zen LAIAren aburuz) “beso armatua” kontzeptua erabiltzen zuen alderdiak. LAIAren ustez, beso armatuaren funtzioak hurrengoak ziren: 1) propaganda armatua egitea; 2) masa-borrokari sostengu zuzena ematea 3) koadro militarrek sortzea (Letamendia, 1994 (1): 399).

Beste alde batetik, trantsizioak irekitzen zuen egoera politiko berriaren aurrean hartu beharreko jarreraren inguruan ez zegoen adostasunik euskal alderdi eta erakunde nazionalisten artean. “Haustura ala erreforma”, hori izan zen eztabaidaren oinarria, eta, geroago ikusiko dugun moduan, horren inguruko ezadostasunek nazio frontea eratzea galarazi zuten Txibertako elkarriketetan.

¹⁶⁸ Ikusi LAIAren hausnarketak KASen inguruan in *Sugarra*, 3, 1976.

III.4.1.2 Estrategia eraketarako barneko faktoreak.

III.4.1.2.1 Indarguneak.

ETAk militanteak lortzeko ahalmen handia erakutsi zuen frankismo garaian, batez ere 1972an, *EGI-Batasuna*¹⁶⁹ ETAn sartu zenean, erakundearen militanteen kopurua nabarmenki handituz (12 liberatu eta 500 militante inguru izan zituen ETAk garai hartan, eta hilabete batzuetara 40 komando inguru izan zituen ETAk (Giacopuzzi, 1997: 18)). Bestalde, bere jarduera armatuak gorakada izan zuen 1967tik aurrera, puntu sinboliko gorena 1973an izanda Carrero Blancoren kontrako ekintzarekin lortu zuena. Horrek eta erregimen frankistaren aldetik jasotako errepresioak, bereziki Burgosko epaiketaren garaian, Euskal Herriko eta Espainiako mugetatik kanpo ezagutzera eraman zuen ETA. Izan ere, herri-mobilizazioaren zikloak goia jo zuen 1970ean Burgosko epaiketaren testuinguruan, eta 13 urteetan izandako 9 salbuespen-egoerak herri-mobilizazioen intentsitatea igotzeko faktore pizgarria izan ziren (Zallo, 2014). Horrela, aliantzak sortu ziren mugimendu abertzalearen, langile-mugimenduaren eta errepresioaren aurkakoaren artean (Ibid). Hain zuzen ere, Burgosko epaiketaren kontrako mobilizazioak frankismoaren kontrako mobilizazioen ikur bilakatu ziren moduan, trantsizioan amnistiaren aldekoak izan ziren Euskal Herrian oihartzun handiena izan zutenak (ik. Bueno, 2014).

¹⁶⁹ 1969an EGI gazte antolakundeko zati bat era autonomoan funtzionatzen hasi zen. Adar militar bat sortu zuen (Letamendia, 1994 (1): 369) eta bere bi militante hil ziren 1969an leherkari bat maneiatzen ari zirelarik. Garai hartan, EGIk *Batasuna* izeneko aldzkaria argitaratzen zuen, eta horregatik, EAJ *EGI-Batasuna* deitzen hasi zitzaion antolakunde horri (Ibid). ETA-Vren eta EGI-Batasunaren arteko fusioa 1972ko Aberri Egunean gertatu zen Erandion egindako batzar baten ostean (Ibid: 370). Garai hartan EGiko militantea izandako Iñaki Mugika Arregik horrela azaldu zuen EAJren eta EGiren arteko harremana urte haietan: *“En realidad no teníamos una relación orgánica con el partido porque no nos facilitó nada. Nosotros montamos EGI por nuestra cuenta y las relaciones eran con un emisario del PNV, es decir, Mikel Isasi. El PNV tenía rechazo a cualquier actuación que no legitimase al Gobierno Vasco en el exilio”* (In Giacopuzzi, 1997: 18).

Halaber, ETA frankismoaren kontrako borrokaren eta nazionalismo ezkertiarren erreferente nagusietako bat bilakatu zen Euskal Herrian ez ezik, Espainian ere. Hori, baina, ez zen nahikoa izan ETAk frankismoan martxan jarri nahi zuen insurrekzioa pizteko. Gainera, fronteetan oinarritutako antolaketa-ereduak bere mugak adierazi zituen ordurako, eta trantsizioak irekitzen zuen egoera politiko berrian beste antolaketa-eredu baten beharraz jabetu zen erakundea. Horrela, 1974an argitaratutako *Agirian* ETA(m)-k desdoblamentuaren aukera proposatu zuen egoera politiko berrirako. Laster, ETA(pm)-k ere desdoblamentuaren aldeko apustua egin zuen. Izan ere, nahiz eta hasiera batean ETA(m) izan desdoblamentuaren estrategiaren aldekoena, 1975eko urtarrilean antolatutako biltzar nagusian, ETA(pm)-k masa-antolakunde berriak sortu zituen. Horrela, IAM (ikasle Abertzaleen Mugimendua), EGAM (Euskadiko Gaztedi Abertzaleen Mugimendua) eta LAB (Langile Abertzaleen Batzordea) jaio ziren, KAS koordinadorearen inguruan batu zirenak.

KAS 1975eko abuztuaren 1ean aurkeztu zen. Haren sorrera ELI (Eusko Langile Indarra) taldeak bultzatu zuen Txiki eta Otaegiren epaiketen kontrako mobilizazioak koordinatzeko. Hasiera batean, EAS, HAS eta LAIA alderdiek zein ETA(pm) erakundeak osatzen zuten, ETA(m)-ren babesari zuelarik. 1976an *KAS alternatiba* aurkeztu zen. Ordura arte, plan estrategikoa baino ez zuen ETAk (independentzia eta sozialismoa), baina KAS alternatibarekin ETAk proposamen taktikoa izan zuen lehen aldiz Espainiako Gobernuari aurkezteko (Letamendia, 1980: 13). Hasiera batean, bi proposamen egon zen: LAIArena eta ETA(pm)-rena. Izan ere, KASen funtzioa ulertzeko bi joera egon zen hasieratik. Alde batetik, LAIAk zein ETA(m)-k koordinadorearen izaera subiranoa defendatzen zuten, hots, gerora KASek hartu zuen bloke buruzagiren funtzioa. Beste aldetik, ETA(pm)-k eztabaidarako eragile gisa ulertzen zuen KAS, eta bere baitako eragileek erabakiak hartzeko independentzia izan behar zutela defendatzen

zuen¹⁷⁰ (Soldevilla, 2014). Azkenean, orduko indar korrelazioengatik, ETA(pm)-ren proposamena gailendu zen, eta KAS “kontsultarako koordinadora” eta “eztabaidarako mahai” bezala definitua izan zen¹⁷¹. Alternatiba taktikoari dagokionez, bi proposamen egon ziren ere: alde batetik, LAIAk defendatu zuena, eta, bestetik, ETA(pm)-k planteatu zuena. LAIArena proposamen maximalistagoa zen; adibidez, Estatuaren armadak Euskal Herrian zituen unitateen kontrola aldarrikatzen zuen¹⁷². ETA(pm)-ren proposamena ez zen horren maximalista, eta bost puntutan geratu zen definituta: 1) askatasun demokratikoen berreskurapena; 2) amnistia osoa; 3) langile klasearen bizi baldintzen hobekuntza; 4) indar errepresiboen disoluzioa Euskal Herrian; 5) autonomia estatutu bat Hego Euskal Herrirako; 6) Euskal Gobernu Probisionalaren sormena.

Bere aldetik, ETA(m)-k ETA(pm)-ren proposamenaren alde egin zuen¹⁷³ (hura EHASekin adostu ostean), eta horrela adierazi zuen 67. *Zutiken*. Hala ere, ETA(m)-rentzat KAS alternatiba minimoetako programa bat zen, hots, borroka armatua desaktibatzeke oinarri minimoa (Letamendia, 1994 (1): 452 eta Zabalza, 2015: 205).

III.4.1.2.2 Ahulguneak.

Francoren diktaduraren amaierak kolokan jartzen zuen ETAk frankismo garaian borroka armatua justifikatzeko erabilitako osagai iraultzailea, bai zentzu ideologikoan eta baita estrategikoan ere. Izan ere, ETAREN ekintza-errepresio-ekintza planteamenduak bere mugak erakutsi zituen Franco hil orduko, batez

¹⁷⁰ KASen sorrera-garaian izandako eztabaidetan eta jarreretan sakontzeko ikusi Arregi, 1981 eta Hordago, 1979 (17): 507-515.

¹⁷¹ “Nota a KAS” eta “Comunicado de fundación del KAS”, Hordago, 1979 (17); in Fernández Soldevilla, 2014.

¹⁷² “Propuestas de alternativa para el KAS”, Hordago, 1979 (18); in Letamendia, 1994 (1): 452.

¹⁷³ 1978an ETA(m)-k KAS alternatiba birformulatu zuen. Bertsio hori izan zen 1995era arte ETAk aldarrikatu zuena.

ere, ETAk aurrera eramane nahi zuen insurrekzioa pizteko beharrezkoa zen masa-borroka ez zelako izan erakundeak teorizatu zuen tamainakoa. Halaber, esparru ideologikoari dagokionez, eredu insurrekzionalean oinarritutako planteamendu ideologiko batek nekez lortu ahalko zuen arrakasta izan demokrazia parlamentarioaren testuinguruan.

Hain zuzen ere, 1976an ETA(m)-k *“Relación actividad armada-actividad de masas”* dokumentuan egoera politiko berrian borroka armatuaren eta masa-borroka arteko dialektika nola planteatzen zuen aditzera eman zuen. Alde batetik, bi funtzio ezartzen zizkion bere jardura armatuari: funtzio taktikoa eta funtzio estrategikoa. Funtzio taktikoa KAS Alternatibaren puntuak lortzeari atxikitzen zitzaion. Hau da, ETA(m)-ren ustez alternatibaren puntuak lortu arteko jardura armatuak izaera ofentsiboa izan behar zuen. Funtzio estrategikoa, aldiz, KAS Alternatibaren puntuak lortu osteko etapari atxikitzen zion ETA(m)-k, eta oligarkia espainiarraren aurka zuzenduta zegoen:

“a) Táctica: Una vez elaborada por KAS una alternativa política y la correspondiente línea de intervención, la acción militar ha de estar orientada al logro del mismo objetivo (...) El tipo de acción armada pues, ha de ser de carácter ofensivo, lo que se ve justificado por la negativa unilateral por parte de las fuerzas en el poder de aceptar la alternativa de KAS. (...)”

“b) Estratégica: El objetivo estratégico de la organización militar, será capacitarse para dotar al pueblo de una dirección, unos cauces organizativos y unos remedios materiales, todo ello de carácter militar, que posibilite el triunfo popular vasco sobre la oligarquía española (...) Si dicho enfrentamiento tendrá carácter insurreccional o de guerrilla prolongada, nos lo dirá el futuro aun imprevisible” (ETA, 1976).

Era berean, Francoren heriotzaren osteko testuinguruan herriak borroka armatuaren erabilpena babesteko egon zitezkeen zailtasunez ohartarazten zuen erakundeak. Izan ere, ETA(m) kontziente agertzen zen bere jarduerak kritikotasun handiagoa sortzen zuela trantsizio garaian frankismoan baino. Horregatik, *“ekintza selektiboak”* aurrera eramane behar zituela ondorioztatzen zuen:

“Hasta la muerte de Franco, las acciones de ETA apenas habían sido puestas en cuestión por ningún sector del Pueblo Vasco. Pero desde su desaparición y merced al consentimiento del que disfrutaban las fuerzas reformistas han logrado un mayor auditorio, lo que ha situado al Pueblo en una posición”

más crítica frente a nuestra acción. Esto que hemos podido comprobarlo en la práctica, obliga a un tipo de acción extremadamente selectivo, que no hemos sabido o podido realizar” (Ibid).

Halaber, ETAk garrantzi bera ematen zien jarduera armatuari eta borroka politikoari:

“en la actual coyuntura, la actividad política militar puede ser a nivel subjetivo muy loable y en cambio negativa a nivel político real, mientras que la actividad puramente política (entendiendo actividad política como actividad de masas) afín siendo de menor valor subjetivo puede ser más positiva” (Ibid).

Areago, ETAk KASi ematen zion abangoardia politikoaren funtzioa. Izan ere, ETAk bere jarduera armatuaren koherentzia KASek aurrera eramane beharreko programen arrakastaren araberakoa izango zela zioen:

“Mientras KAS no se consolide y dote de unos programas de intervención a corto y largo plazo, la acción armada, que sólo tiene sentido coordinada con las masas de acción, será incoherente y discontinua. Para que la organización militar desarrolle una línea de acción por lo menos coherente – al margen de que sea correcta o incorrecta – es preciso que KAS cumpla los requisitos anteriores” (Ibid).

Laburbilduz, trantsizio garaian ETAk zailago zuen bere jarduera armatua ideologikoki zein estrategikoki justifikatzea frankismoan baino. Gainera, frankismoan garatutako eredu insurrekzionalean oinarritutako ikuspegia estrategikoki baztergarria zen ETarentzat.

III.4.1.3 AMIA analisiaren ondorioak.

Aurreko atalean ETAk trantsizioan bere estrategia aukeratzeko izandako barne eta kanpo faktore nagusiak aipatu ditugu. Ikusi dugunez, estrategia eraketarako kanpo faktoreen artean, *aukerak* nazioartetik ez ezik, Espainiatik eta Euskal Herritik ere bazetozen. Nazioarteari dagokionez, Europan eta Hego Amerikan ugaltzen ari ziren hiri-gerrillen esperientziek estrategia armaturako ereduak erakusten zizkioten ETari. Aldi berean, Espainian Francoren heriotzaren ostean irekitzen zen egoera berriak ekimen politikorako aukerak irekitzen zituen, parte-hartze instituzionala barne. Gainera, garai hartan ezker espainiarraren ordezkari nagusiak ziren PSOE eta PCE alderdiek autodeterminazio eskubidea eta amnistia

osoa aldarrikatzen zuten. Euskal Herriko egoerari dagokionez, errepresioaren aurkako eta autodeterminazioaren zein amnistiaren aldeko mobilizazioak ugaltzen eta indarra hartzen ari ziren trantsizioa garaian.

Era berean, *mehatxuak* ere alde ezberdinetatik zetozkion ETari. Nazioartetik tupamaroen kontrako erasoaldiak eta PIRaren eta Gobernu Britainiarraren arteko negoziaketa prozesuaren porrotak estrategia armatu batek izan zitzakeen mugak erakutsi zituzten. Espainiari dagokionez, trantsizioak irekitzen zuen egoera politiko berriak bide insurrekzionalaren balizko arrakasta lurperatzen zuen zeharo. Aldi berean, Estatuaren errepresioa ez zen moteldu diktadorearen heriotzarekin, eta trantsizio garaian ere Espainiako indar polizialen jazarpena bortitza izan zen, Euskal Herrian bereziki. Horrekin batera, eta nahiz eta Espainiako alderdi ezkertiar nagusiak horren alde agertu, ez zen aurreikusten idaztear zegoen Espainiako Konstituzioak autodeterminazio eskubidea barne hartuko zuenik.

Horrez gain, trantsizioarekin batera eragile eta alderdi politikoak ugaltzen hasi ziren, euskal nazionalismoaren kasuan ere. Horrek, zalantzarik gabe, zailago jartzen zuen indar nazionalisten arteko dinamika komun bat planteatzea. Hain zuzen ere, trantsizioaren aurrean, indar nazionalista batzuek (ETAk barne) hausturaren aldeko jarrera aldarrikatzen zuten bitartean, beste batzuek erreforma politikoak ekar zitzakeen aukerak aprobeztatzea defendatzen zuten. Bestalde, KAS Alternatibarekin hauteskundeetatik aterako zen Espainiako Gobernuarekin negoziatzeko programa eratuta zuen ETAk.

Barne faktoreei dagokienez, *indarguneak* ETAk frankismoan zehar lortutako erreferentzialtasunetik zetozen gehien bat. Izan ere, frankismoaren kontrako erreferente nagusi bihurtu zen ETA. Halaber, erakundeak militanteak lortzeko ahalmena erakutsi zuen, batez ere, EGI-Batasuna ETAn integratu zenez geroztik. Aldi berean, trantsizioak irekitzen zuen egoera politiko berriaren aurrean ETAk

fronteen egitura alboratu eta desdoblamentuaren aldeko hautua egin zuen, demokrazia parlamentarioak ekar zitzakeen aukerak aprobetxatu nahian.

Hala ere, frankismoaren amaiera bera ETAREN estrategiarako *ahulgune* bat zen. Izan ere, ETAK diktaduran zehar bere jarduera armatua justifikatzeko erabilitako diskurtsoak zein estrategiak nekez egingo aplika zitezkeen demokrazia parlamentarioaren testuinguruan. Aurrekoarekin batera, egoera politiko berriak borroka armatua masa borrokarekin uztartzeko zailtasun handiagoak sortzen zizkion ETARI diktadurak sortzen zizkionak baino. Hain zuzen ere, masa-borrokarekiko uztarketaren eta antolaketa-ereduaren inguruko ezadostasunek ahulgune bat eragin zuten ETAREN garapen estrategikorako: ETA(m) eta ETA(pm) erakundeen arteko zatiketa, alegia.

Aldeko eta kontrako faktoreen analisisan oinarrituz, esan liteke ETAK bi proposamen estrategikoren artean aukeratu behar edo ahal izan zuela trantsizio garaian. Alde batetik, zituen indarguneak aprobetxatuz, kanpotik zetozkion mehatxuak neutralizatzen saiatu ahal zen (ST Strategy (maxi-mini), (Weihrich, 1982: 60)). Bestetik, kanpotik zetozkion aukerez baliatuz, zituen ahulguneak gutxitzen saiatu ahal zen (WO Strategy (mini-maxi), (Ibid)). Lehena Estatuarekiko negoziazio-estrategiari dagokio, eta, bigarrena, nazio frontearen strategiari. Izan ere, ordutik 2009ra arte, ETA bi aukera estrategiko horien artean aldizkatu zen.

III.4.2 New games, new rules. Negotiation or national front?

As commented before, Franco's death brought a political opening for political and institutional participation in Spain and the Basque Country. ETA was not indifferent to this general mood and knew that widespread armed resistance would become impossible, as upholding an insurrectional process would be untenable in the foreseeable context of parliamentary democracy. Consequently,

it gradually brought its discourse and political practice into line with the changed social reality. At that point, ETA became convinced of the need for a genuine democratic framework which would need to be negotiated with Spain. Consequently, ETA put forward specific tactical objectives for its negotiation with the Spanish government, intending to attain its strategic political goals. In 1978 ETA expressed this new tactical and strategic logic as follows:

...as Basque socialists, we defend the territory of Euskadi as an autonomous framework from which to develop the class struggle until national liberties have been conquered and capitalist exploitation eliminated (...). We do, however, acknowledge that the degree of awareness of the workers and the correlation of forces attained by left-wing nationalist sectors suggest that now is not the time to fight to reach our strategic goal (...) Our current tactical claim is the attainment of political democracy to permit certain bonds and prevalent institutions which guarantee a process of autonomy for the Basque Country. (ETA, 1978a) (our translation)

This change in ETA's discourse and tactical approach contrasted with an escalation of violent attacks in the following years. About this apparent contrast, Mees has pointed out that ETA sought to interfere in all the transition's crucial moments by considerably intensifying its violent activity (2003: 35).

How can this intensification in armed activities be explained? According to Lecours (2007: 121), ETA's violence had two dimensions. On the one hand, there was the purely instrumental dimension: the use of violence as a way to attain political objectives. On the other hand, there was a symbolic dimension, a way to reassert the Basque nationalist community, specifically the *radical* community (2008: 126). According to Aretxaga, ETA's violence could be understood as an attempt by the organization to demonstrate a certain degree of sovereignty on the Basque nation in opposition to the nation-state (2005: 253) (see also Douglass and Zulaika, 1990).

Nevertheless, after Franco's death, ETA utilized two contrasting and coexisting strategic approaches, each pursued with varying intensity depending on the

situation¹⁷⁴. On the one hand, ETA sought direct negotiation with the Spanish state, through which the organisation sought to obtain the right of self-determination for the Basque Country as a counterpart to abandon its violent strategy.

On the other hand, it pursued the idea of a national front, whereby the Basque Country's nationalist forces would unite to force the Spanish state to accept the right of self-determination. As ETA itself pointed out:

“ETAk beti bi bide seinalatu ditu borroka armatua bertan behera uzteko. Lehena, Espainiako estatuarekin konponbide negoziatu bat lortzea. Bigarrena, Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko indar abertzaleen arteko ekimen batasuna. Aukera horiek guztiak jorratu dira, eta oinarritzko akordioak zein su-etenak ere izan dira horiek bideragarri egiteko” (Soto, 2018: 109).

ETA alternated both strategies between 1977 and 2009. The national front strategy peaked in 1977 and 1998 with the Txiberta talks and the Lizarra-Garazi accords. Similarly, the negotiation strategy had its most decisive moments between 1987 and 1989, with the Algiers talks, and between 2005 and 2007, with the Loiola talks. Next, we will analyse the most important events of both strategic approaches and interpret them from the perspective of the Rational Choice Theory. After that, we will address the process of the end of ETA's armed strategy in the same terms.

III.4.3 Nazio Frontea.

III.4.3.1 Nazio frontierako saiakerak Espainiako II Errepublikan eta Gerra Zibilean.

Nazio frontearen eraketa Jagi-Jagiren¹⁷⁵ aldarrikapena izan zen bere sorreratik bertatik (1932). Jagi-Jagik Autonomia Estatutuaren alternatiba gisa planteatzen

¹⁷⁴ View Saratxo & Zabalo, 2013.

¹⁷⁵ Jagi-Jagi *Bizkai Mendigoxale Batza* erakundearen (geroago *Euzko Mendigoxale Batza* EMB) prentsa organo ofiziala izan zen, baina praktikan aldizkari independentista bat eta izen bereko

zuen nazio frontea, eta Aberriren garaitik zetorren ideia zen (Renobales, 2010: 241). 1933an Jagi-Jagik nazio frontea eratzeko lehen deialdia luzatu zien EAJri zein EAERI. EAEk zalantza batzuekin baina begi onez jaso zuen Jagi-Jagiren proposamena eta horrela adierazi zuen 1933ko urriaren 8an argitaratu zen *Tierra Vasca* aldizkariaren “*Formemos un frente vasco*” izeneko editorialean. Hala ere, EAEk mesfidantzaz ikusten zuen EAJren parte-hartzea nazio frontean. EAJk ez zuen bat egin nazio frontearen proposamenarekin. Alderdi jeltzaleak aurreikusten zuen emaitza onak aterako zituela Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan, hortaz, ez zuen nazio frontierik eratzeko beharrik, eta horregatik ez zuen proposamena onartu (Ibid: 243-246 eta 250). Alderdiaren erabakiarekin batera, Luis Aranek EAJko lehendakaritza utzi zuen, alderdiaren baitako autonomisten eta independentisten arteko talkak azaleratuz

Hiru urte geroago, Jagi-Jagik nazio fronte bat osatzeko deia egin zuen 1936ko hauteskundeetarako. Programa politiko independentista batekin, Jagi-Jagiren proposamenak Espainiako instituzio politikoetan ez parte hartzea bultzatzen zuen. Horrez gain, aukeratuak izanez gero, nazio frontearen hautetsiek ezingo zioten men egin Espainiako Konstituzioari. Izan ere, Jagi-Jagik soilik onartuko zuen hautetsien parte-hartzea Espainiako instituzio politikoetan helburu batekin: “*reclamar la independencia de Euzkadi y presentar una oposición total a cualquier ley española que afecte a Euzkadi*” (Fernández Soldevilla, 2017: 228;

EAJ alderditik bereizitako talde abertzale bat izan zen. Jagi-Jagi aldizkariaren lehenbiziko zenbakia 1932ko irailaren 17an argitaratu zen. Egoitza nagusia Bilboko Kale Nagusian zeukan. Bere garai onenetan hamasei orri izan zituen, latzenetan hiruzpalau, eta momentu jakin batean aldizkariaren 23.000 ale kaleratu egin ziren (Gara, 2007c). Espainiako Gerra Zibila hastearekin batera astekaria desagertu zen. EAJk errezeloz ikusi zuen astekariaren sormena, eta horrela adierazi zion Bizkaiko Buru Batzarrak astekariaren zuzendariari: “*Ante la aparición el pasado sábado 17 del semanario ‘Jagi-jagi’, sobre cuya presentación no tenía noticia alguna el BBB, se acuerda pedir al señor director del mismo que acuda a entrevistarse con el BBB para informar si el citado semanario es del PNV y, en caso afirmativo, rogarle que cuide escrupulosamente que ningún trabajo se oponga al contenido doctrinal de nuestra organización*”. Halaber, astekariak 19 espediente zigortzaile jaso zituen bere lehen urtean, eta jarrera intsumisoa mantenduz, taldekide batzuk kartzelaratuak izan ziren jasotako isunak ez ordaintzeagatik (Ibid).

Renobales, 2010: 247)¹⁷⁶. Jagi-jagiren proposamenak, baina, ez zuen lortu euskal indar nazionalistak fronte independentista batean elkartzeari. Alde batetik, EAE-ANV Frente Popularraren zerrendetan aurkeztu zen hauteskunde haietara, eta EAJk, Autonomia Estatutua eskuratzeko prozesuan murgilduta zegoelarik, uko egin zion nazio frontearen proposamenari¹⁷⁷. EAJren jarrera hori ez zen Jagi-Jagiren gustukoa izan, eta horrela adierazi zuen urte horren maiatzean argitaratutako *Jagi-Jagi* astekarian: *“contubernios y vergonzosas claudicaciones» y «escudándose en el nombre de Sabino, pactan y colaboran con el opresor de la Patria, traicionando al nacionalismo vasco”* (Fernández Soldevilla, 2017: 228). Urte horretako irailean Jagi-Jagik bilera batera deitu zituen euskal eragile nazionalistak jada hasita zegoen Espainiako Gerra Zibilaren aurrean zein jarrera mantenduko zuten eztabaidatzeko, baina hura ere ezerezean amaitu zen. Bilera horretara ELA, EAE eta Jagi-Jagi (EMB) bertaratu ziren, ez, ordea, EAJ.

Aurreko deialdiaren porrotaren ostean, nazio frontea eratzeko beste bi saiakera egon ziren 1937an¹⁷⁸, baina biek porrotean amaitu zuten. Renobalesen ustez

¹⁷⁶ EMBk (Jagi-Jagi) testu bat bidali zien gainontzeko indar nazionalistei nazio frontierako proposamena azalduz. Testu horretan, horrela definitzen ziren nazio frontearen ezaugarriak eta zereginak: *“Desde EMB se acepta la idea del Frente bajo las bases siguientes: 1- Abarcará a todo el país. 2- Todos los candidatos han de ser nacionalistas. 3- Los que resulten electos no acudirán a Madrid por tener convencimiento de que jamás España dará la libertad a Euzkadi de forma voluntaria. 4- No acatarán las leyes españolas. 5- EMB, en todo caso, no se opondrá a que los electos acudan a las Cortes españolas con una única misión: la de demandar la restitución de la independencia que se nos arrebató”* (Renobales, 2010: 247-249).

¹⁷⁷ Nazio frontearen proposamenaren alde agertu ziren Galdakaoko udalbatza, Jagi-Jagi, EAEko sektore bat eta Larrinagako kartzelan zeuden preso nazionalistak (Ibid: 250).

¹⁷⁸1937ko maiatzean, ELAk antzeko proposamen bat aurkeztu ondoren, Jagi-Jagik izaera independentista zuen proiektu bat proposatu zien gainontzeko euskal indar abertzaleei. Jagi-Jagik proposatzen zuen indar abertzaleetako batailoiek, beste gauza batzuen artean, gudarien bizitzak babesteko, ahalik eta gutxien parte hartzea Espainiako Gerra Zibileko batailetan, guda-materiala lortzen zen artean. Denboraldi baten ostean, batailoi abertzaleek borroka independentistari ekingo zioten mugimendu beliko batekin, eta, azken momentuan Frente Popularreko indarren aurka borrokatu beharko zuten independentzia lortzeko. EAJk eta EAEk uko egin zioten Jagi-Jagiren proposamenari, Espainiako Gobernuan eta, batez ere, Eusko Jaurlaritzan Espainiako alderdi ezberdinekin zituzten aliantzengatik. Hala ere, Jagi-Jagiren proposamenak ibilbide urria izango zuen, indar abertzaleek Eusko Gudarostean zuten indar korrelazioa gainontzeko indar politikoekiko gutxi gora behera %50ekoa baitzen (Vargas, 2001; in Fernández Soldevilla, 2017: 230).

(2010: 249-250) nazio frontierako saiakera hori utopikoa zen EAJren ikuspegitik; alde batetik, nazio frontea eratzeak Autonomia Estatutuaren lorpena oztopatu ahal zuelako, hori izanik EAJren orduko estrategia, eta, bestetik, nazio frontea eratuz gero, EAJk hauteskundeetan EAEren eta EMBren aldetik lortuko zituzkeen bozka gehigarriak ez zirelako oso nabariak izango alderdiaren beharretarako. Beste hitz batzuetan esanda, ikusita lortu ahalko zituen onurak eta kalteak, nazio frontea eratzea une horretan ez zen politikoki errentagarria EAJrentzat.

1938an EAJko, EAEko, ELAko eta EMBko zazpi kidek gutun bat bidali zioten haien formazio politikoari nazio frontearen eraketa eskatuz, baina orduan ere ezerezean geratu zen proposamena (Ibid).

III.4.3.2 Nazio Fronterako saiakerak frankismoan.

40 hamarkadan ere nazio frontea eratzeke beste saiakera bat egon zen. 1944an “Bloke Abertzale” bat osatzeko elkarrizketak hasi ziren EAJ, EAE, EMB eta ELA (Ik. Renoables, 2010: 254-271). Hala ere, 1944ko elkarrizketa horiek berriro ere ezerezean geratu ziren 1945ean, erbestean eta 1936ko gerraren aurretik Hego Euskal Herrian ezarrita zeuden euskal eragile politikoek¹⁷⁹ Baionako paktua sinatu zutenean, Espainiako Bigarren Errepublikako Gobernuari zilegitasuna aitortuz eta norabide independentista hartuko zuen proposamen hura alboratuz.

¹⁷⁹ EAJ, EAE, Euskadiko Alderdi Komunista, UGT, EMB, Izquierda Republicana, Comité Central Socialista de Euskadi, Partido Republicano Federal, CNT eta ELA.

III.4.3.2.1 BAI kanpaina.

Bi hamarkada pasa behar izan ziren nazio frontierako hurrengo proposamena mahai gainean jar zedin¹⁸⁰. Orduan, ETA izan zen nazio frontearen eraketarako eragile bultzatzaile handiena. *Zutik* 19an, ETAk indar abertzaleei deitu zien mahai-inguru batean biltzeko. Deiak ez zuen erantzunik jaso, baina ETAk gutun bat bidali zien gainontzeko indar abertzaleei (EAJ, ELA, EAE, Enbata, EMB eta Iratxe) bilera batera deituz 1964ko ekainaren 20rako (Jáuregui, 1981: 278). EAJ, EAE eta ELA ez ziren bertaratu, eta, nahiz eta horrez gain beste bilera batzuk egin (EAJ, EAE eta ELA gabe), dinamika ahulduz joan zen urtu zen arte. 1965ean, ETAk beste deialdi bat egin zuen oinarrizko akordio bat lortzeko, baina deialdi horrek ez zuen efekturik lortu (Ibid).

Bi urte geroago, bere V. Biltzarra amaitu ostean, ETAk *Batasuna Askatasuna Indarra* (BAI) kanpaina martxan jarri zuen. Proposamenaren ideia, baina, ETAk berak *Zutik* 47an aitortu zuen bezala, Jagi-Jagi taldearen inguruko pertsona batzuen aldetik etorri zen (Garmendia, 1979 (2): 18). Edonola ere, ETA nazio frontearen eraketa bultzatzen saiatu zen BAI kanpaina horrekin; alde batetik, abertzaleen arteko estrategia komun bat aurrera eramateko, eta, bestetik, bere V. Biltzarrean adostutako lau fronteen zereginak gorpuzteko. Kanpainaren helburuak indar abertzaleen batasuna bultzatzea eta haien arteko programa minimo bat adostea ziren. Programa minimo hori hiru zutabeetan oinarritu behar zen ETAREN aburuz: euskal lurraldeen bateratzea, askatasun nazionala eta

¹⁸⁰ Gaizka Fernández Soldevillak (2017: 235) Jagi-jagiren beste saiakera batez hitz egiten du Nazio Frontea eratzeko 1958an. Halaber, 60 hamarkadan *Frente Nacional Vasco* izeneko aldizkaria bat argitaratu zuen *Euzko Aberri Alkartasuna* taldeak Venezuelen. Ikusi aldizkariaren ale bat hurrengo linkean:

<http://urazandi.euskaletxeak.net/vol1/dvd10/Frente%20Nacional%20Vasco/Revistas/09/pages/01.htm>

[Kontsulta: 2019-2-21].

euskal herriaren euskalduntzea (Ibid: 19). Horrela egiten zuen ETAk batasunerako deia:

“Hacemos una llamada angustiosa a todos los vascos sinceros de cualquier sector político que sean. Ellos son el núcleo del pueblo. Una vez más, pedimos que se dejen a un lado los partidismos inútiles que se fundan en la inacción y los intereses personales de “jauntxos” (...) es decir, que el pueblo en su conjunto tome parte en la revolución, y no unos cuantos desesperados ante la inoperancia de los hombres “políticos” y la indiferencia del pueblo. Nuestra postura debe ser la unión en la lucha ante todo” (Batasuna panfletoa; in Garmendia, 1979 (2): 20).

Aurretik aipaturiko *Zutik* 41ean, ETAk nazio frontean sartzeko aipatzen zuen irizpide bakarra “espainolista” ez izatea zen. Halaber, ETAk ez zuen bere ideologia sozialista ezkututzen, baina ez zuen hori oztopotzat hartzen batasunerako:

“Nosotros creemos que el pueblo vasco sólo será libre en una Euskadi libre y socialista. Hay abertzales que creen que basta con la libertad nacional. Nosotros estamos dispuestos a luchar con ellos para conseguir la libertad vasca sin exigirles que abandonen sus ideas, pero sin que traten de imponernos las suyas (...) Nosotros no imponemos nuestro socialismo a ningún abertzale (...) Dentro de ETA siempre ha cabido todo el que se ha sentido abertzale (...) En la historia de ETA sólo ha habido expulsiones por una causa: españolismo. A nadie se le ha expulsado por no ser socialista (...) Pero ETA ha acusado siempre a los dirigentes del PSOE de españolistas vestidos de socialistas, y por espologistas se niega a todo trato con ellos, por muy socialistas que pretendan ser” (Zutik 47; in Garmendia, 1979 (2): 20-21).

ETAk zeregin zehatzak proposatzen zituen *Zutik* horretan, hala nola: ikastolak sortzea eta defendatzea. errepresioa salatzea, abertzaleak defendatzeko abokatuak prestatzea eta presoak babestea. Zeregin horietatik abiatuta, ETAk zapalkuntza nazionalaren aurkako euskal bloke trinko bat osatzea proposatzen zuen. Era berean, immigrazioaren gaia aipatzen zen; ETAREN ustetan, Euskal Herrira emigratutako langileek ere parte hartu ahalko zuten nazio frontean.

1967ko urriaren 1 aukeratu zuen ETAk kanpainari hasiera emateko eguna. Urtero antolatzen zen elkarretaratze euskaltzale bat Urbiako zelaietan, eta ETAk “Batasun eguna” deitu zuen egun horretarako. Guardia Zibilak Urbiako zelaietarako sarrera guztiak hartu eta hainbat pertsona atxilotu zituen, ETako koadro batzuk barne, eta deitutako kontzentrazioa ezin izan zen aurrera eraman (Ibid: 19).

Hala ere, ETAk BAI kanpaina indarrean mantendu zuen denboraldi batez, eta, nahiz eta kanpainak EAJren aldetik erantzun positiborik ez zuen jaso eta nazio fronterako proposamena beste behin ere ezerezean geratu, ETAk positiboki baloratu zuen kanpainaren ibilbidea eta haren eragina¹⁸¹. Alde batetik, bi hamarkadaren ostean, nazio frontearen ideia berriro ere mahai gainean egon zelako, eta, bestetik, kanpaina horrekin EGIren sektore batzuekiko harremanak indartu zirelako, hori 1972an EGI-Batasuna ETAn integratzeko pauso garrantzitsua izanik (Letamendia, 1994 (1): 361).

III.4.3.2.2 1971ko elkarrizketak.

BAI kanpaina porrotean amaitu arren, 1971ean nazio frontea eratzeko beste saiakera bat egon zen. Burgosko prozesuak frankismoaren aurkako batasun irudi bat proiektatu zuen Euskal Herrian, eta hori faktore pizgarria izan zen 1971ean nazio frontearen eraketarako egon zen saiakera berrirako. Iniziatiba Branka eta Anai Artea taldeen aldetik etorri zen, batez ere, Txillardegiren¹⁸² eta Telesforo Monzónen¹⁸³ bultzadarekin. 1967an hasi ziren EGI-Batasunaren eta Brankaren arteko kontaktuak (López Adán, 1999: 3. oharra), eta 1971n nazio frontea sortzeko elkarrizketak hasi ziren, bi helburu nagusirekin: Burgosko prozesuak

¹⁸¹ Ikusi BAI kanpainren inguruko eztabaidaren laburpena 1971ko apirilean argitaratutako *Garaia* addizkarian.

¹⁸² Garai horretan Txillardegik nazio frontearen inguruan teorizatu zuen lan ezberdinetan. Ikusi Txillardegi, 1973 (batez ere "Frente nacional vasco y no frente español de clase" deritzon IX. Atala). Halaber, *Branka* aldizkarian artikulua ezberdinak topa daitezke nazio frontearen ideia defendatzen dutenak, gehienak Txillardek edo Krutwigek idatziak. Ikusi adibidez "Sí al frente nacional vasco", in *Branka*, 9.

¹⁸³ Telesforo Monzón 1930ean EAJn afiliatu zen. 1933an diputatu aukeratu zuten Espainiako Gorteetarako. 1936an lehen Eusko Jaurlaritzako Gobernatzeko Sailburua izan zen, eta 1946ean erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua aukeratu zuten. 1969an euskal iheslari politikoei sostengua emateko Anai Artea elkartearen sortzaileetako bat izan zen. 1977an TTxibertako elkarrizketen porroten ostean Herri Batasuna koalizioaren sortze prozesuan parte hartu zuen, eta 1979ko hauteskundeetan diputatu aukeratu izan zen Espainiako Kongresurako, hara joan ez arren. Halaber, garai hartan espetxeratua izan zen. 1980ko martxoan legebiltzarkide aukeratu zuten EAeko lehen autonomia hauteskundeetan, baina segituan dimititu egin zuen. Donibane Lohitzunen hil zen 1981eko martxoaren 9an, eta Bergaran lurperatu zuten.

Euskal Herrian sorturiko euskal kontzientzia nazionala kapitalizatzea eta EAJren eta PSOEren arteko aliantza apurtzea (Letamendia, 1994 (1): 359). Sei alditan bildu ziren euskal indar nazionalistak 1971eko urtarriletik maiatzera arte. Jarraian, bilera haietako puntu interesgarrienak aipatuko ditugu¹⁸⁴.

Lehenengo bilera (1971-1-16)

Parte-hartzaileak: EAJ; ETA-V¹⁸⁵; ELA; ELA-Berri¹⁸⁶; EGI-Batasuna; Enbata; Branka eta Eusko Abertzale Laguntza - Ayuda Patriótica Vasca (EAL-APV)¹⁸⁷.

Lehenengo bilera horretan, ETA-Vek *Zutik 59*an nazio frontearen inguruan argitaratutako artikulua irakurri zuen (ik. Hordago, 1979 (12): 247-241). Artikulu horretan, ETAk lau helburu nagusi ezartzen zizkion nazio fronteari: Euskal Herri osoko batasuna, Euskal Estatuaren independentzia politikoa, Euskal Herriaren euskalduntzea eta oinarrizko produkzio-bideen sozializazioa.

EAL ados agertu zen ETArekin eta hura oinarri gisa erabiltzeko proposatu zuen. Bere aldetik, EAJk nazio frontearen zeregin zehatzaz gain, Eusko Jaurlaritzaren eta haren parte ziren alderdi ez abertzaleen funtzioaz galdetu zuen. Izan ere, 1970ean zabalduko *Unión vasca* izeneko testuan, EAJk hurrengo esaten zuen: “*Es criterio del PNV que toda unión vasca (...) debe realizarse dentro del Gobierno de Euskadi*” (in Letamendia, 1994 (1): 360). Aurrekoaz gain,

¹⁸⁴ Bileren inguruan jarraian aurkezten dugun kronologia *Garaia*, 228 (1976): 30-34 aldizkarian eta Auñamendi Eusko Entziklopediak <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/frente-nacional-vasco/ar-63003-37820/> [Kontsulta: 2019-2-20] egindako kronikan azaldukoaren laburpena da.

¹⁸⁵ ETA-VI ez zen gonbidatua izan, baina erakunde horretako bi kidek parte hartu zuten bileran ETA-Veko sei kideekin batera. Jagi-Jagi (EMB) ez zen gonbidatua izan antolatzaileek haren existentziaz ez zekitelako.

¹⁸⁶ Horrela interpretatzen zuen ELA-Berri nazio frontearen beharra: “*la realización del Frente Nacional es la culminación de un proceso de desarrollo político dentro de las siguientes perspectivas (...) la denuncia y efectiva liquidación de la infiltración del social-colonialismo españolista, eterno pescador de aguas turbias*” (Hordago, 1979 (11); in Letamendia, 1994 (1): 360-361).

¹⁸⁷ Eusko Abertzale Laguntza - Ayuda Patriótica Vasca (EAL-APV) diktadurak eragindako presoer, iheslariei eta errepresaliatuei laguntza emateko sorturiko eragilea izan zen. 1967an sortu zen, eta hasieran EAJko, ELAko, EAEko, Jagi-Jagiko eta ETAko kideek parte hartu zuten maila pertsonalean. EAJk EAL-APV utzi zuen aipatu zereginen bere kabuz aritzeko gaitasuna zuela alegatuz. Eragile honen intzidentziarik handiena Burgosko prozesuaren harira izan zen.

bileran parte hartu zuen EAJko kide batek nazio frontearen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanaz hurrengo esan zuen:

"falta el organismo que, en 1971, represente y dirija toda la lucha del pueblo vasco. Ese organismo existió en 1936, pero no existe en 1971. Estoy completa, total y plenamente en desacuerdo con la política del PNV, que es mi partido... Nos vamos a encontrar con una dificultad. Pongámosla sobre la mesa. Se trata de la existencia del Gobierno Vasco. En cuanto se toque seriamente la creación de un FNV surge el problema del GV. Yo veo tres soluciones posibles: 1. Convertir al GV, renovado, con otro programa, dando entrada en él a las fuerzas nuevas, en un GV de Liberación Nacional. 2. Suprimir el GV, por falta de representatividad; y reemplazarlo por el FNV. 3. Dejemos el GV tal como ésta; y creemos un FNV. Por el momento prefiero no inclinarme por ninguna de las tres. Vayamos al aspecto de la legalidad del GV. Repito que no estoy de acuerdo en absoluto. Puesto que el GV tiene dos fuentes de legitimidad: 1. La que le dan la República Española con el agua al cuello. 2. La que le viene de haber sido la emanación popular. En este sentido el GV debe ser la emanación del pueblo vasco actual. Pero el GV tiene pactos con el PSOE. Hay con toda razón para ser optimistas: el pueblo vasco está demostrando un verdadero deseo de llegar a una acción concertada... Hay también otro problema a analizar: el que se deriva de la existencia de una Euzkadi-Norte y una Euzkadi-Sur". (In Auñamendi Eusko Entziklopedia, <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/frente-nacional-vasco/ar-63003-37820/#37821> [Kontslta: 2019-2-21].

Aurrekoarekin lotuta, EAJko beste kide batek esan zuen berak nahiago zuela PSOE aliatu izatea Eusko Jaurlaritzaren bidez aurkari bezala baino.

Bigarren bilera (1971-2-6)

Parte-hartzaileak: EAJ; ELA; ETA-V; Enbata; EAL; EGI-Batasuna eta Branka.

Enbatak ez zuen txostenik aurkeztu, baina nazio frontea eratzekotan ez zela ofizialki partaide bezala agertuko adierazi zuen. Brankak eta EGI-Batasunak irakurri zuten beraien txostena, euskara hutsean EGI-Batasunaren kasuan. Horrek ezinegona sortu zuen bileraren parte-hartzaile erdaldunen artean, bereziki EALkoengan. Azken horiek bilera uztea erabaki zuten, baina azken momentuan bileran geratu ziren; haien txostena irakurri eta galdetu zuten ea zergatik ETA-VI ez zegoen gonbidatuta bileretara. ETA-Vek ETA-VI gonbidatzeko aukera kritikatu zuen, hura ETA bakarra zela adieraziz. Azkenean, hiru puntu adostu ziren hurrengo bileretarako:

- 1) Hizkuntzaren gaia (euskara eta gaztelera) zehaztu behar zela.
- 2) Hurrengo bileretara etorriko zirenak beraien mugimenduen izenean etorriko zirela.

- 3) Gehienez mugimendu bakoitzeko bi kide etorriko zirela, eta haietako batek, gutxienez, euskalduna izan behar zuela.

Hirugarren bilera (1971-3-6)

Parte-hartzaileak: EAJ; Enbata; ETA-VI; ETA-V; EGI-Batasuna; ELA; ELA-Berri; EAL; EAJ eta Branka.

ETA-VIren parte hartzeak ezinegona sortu zuen beste talde batzuegan, batez ere, ETA-Vren kasuan. Hala ere, ETA-VIren parte-hartzeaz hurrengo batean hitz egingo zela adostu zen. Halaber, parte-hartzaileek beraien mugimenduen izenean zetoze bilerara adierazi zuten, EAJkoek eta ELAkoek izan ezik, era "ofiziosoan" egiten zutela esan zutenak. Bileraren amaieran hurrengoetarako era "ofizialean" etortzeko esan zen, taldeen arteko benetako koordinadora bat sortu ahal izateko. Halaber, ordutik aurrera kideen 3/4ren aldeko botoa beharko zela partaide berriak koordinadoran sartzeko erabaki zen.

Laugarren bilera (1971-3-27)

Parte-hartzaileak: ELA-Berri; EAL; ETA-V; ETA-VI; EAJ; ELA; EGI-Batasuna; EMB; Branka eta Enbata.

Nahiz eta aurreko bileran partaideek haien mugimenduen ahots ofizial bezala parte hartuko zutela adostu, EAJko zein ELAko (ELA-zahar) kideek era pertsonalean zihoazela adierazi eta elkarrizketak utziko zituztela esan zuten. Beste partaideek kritikatu zuten EAJren eta ELAren erabakia; haien ustetan, elkarrizketak uzteko benetako arrazoia PSOEekin zituzten paktuak ziren. Hain zuzen ere, ETA-VIek PSOE ez gonbidatzeagatik EAEk gonbiteari uko eginga ziola ohartarazi zuen. Gainontzeko taldeek gogor kritikatu zuten ETA-VIren jarrera, eta PSOE ez gonbidatzeko erabakia berretsi zuten. Halaber, ETA-VIri nazio frontearen kontrako adierazpenak egin izana leporatu zitzaion eta errektifikazioa

egin ezean ez zela hurrengo bileretan parte hartuko adostu zen. ETA-VIren errektifikazio horren esperoan amaitu zen bilera.

Bosgarren bilera (1971-4-17)

Parte-hartzaileak: EAL; EGI-Batasuna; ETA-V; Enbala; ELA-Berri; ETA-VI eta Branka.

ETA-VIek aurreko bileran eskatutako errektifikazioa aurkeztu zuen (bilera baino lehen gainontzeko taldeei helarazi zitzairen testua), hurrengoa adieraziz:

“A comienzos de febrero aparecieron en Euzkadi unas hojas firmadas por nuestra organización, haciendo pública la existencia de reuniones oficiales entre distintas organizaciones políticas, de cara a la formación de un Frente Nacional Vasco, y denunciando el haber sido excluidos de las mismas. En realidad, no existieron tales reuniones con carácter de oficialidad, sino que se realizaron simplemente a nivel informal entre elementos de algunas organizaciones políticas. Creemos que es deber nuestro el rectificar la información de los hechos que allí dábamos, y el criticarnos por hacerlos públicos sin constatar la veracidad de los mismos. Desde estas líneas ETA afirma la urgente necesidad de desarrollar un auténtico Frente de fuerzas obreras y populares que elimine la opresión nacional a través de la destrucción del Estado Fascista, y de la clase dominante a quién defiende”
(ETA-VI, 1971eko apirilaren 17an)

Talde guztiek gaitzetsi zuten testua, horrekin nahikoa ez zela adieraziz. ELA-Berrik ETA-VIren parte-hartzea zela eta elkarrizketak uztea erabaki zuela adierazi zuen. ETA-Vek ere ETA-VIrekin batera ez zuela inolako proiektutan parte hartuko esan eta bilera utziko zuela adierazi zuen. Gainontzeko taldeen eskaerak entzun eta gero, ETA-V bileran geratu zen azkenean. Autokritika sakona egitea exijitu zitzaion ETA-VIri eta bilera bertan behera gelditu zen.

Seigarren bilera (1971-5-8)

Parte-hartzaileak: ETA-V; EGI-Batasuna; EAL; Enbata; ETA-VI eta Branka.

Antolatu zen azken bileraren giroa txarra izan zen. ETA-Vek egoeraren errua leporatu zion ETA-VIri, eta autokritika eskatu zion. ETA-VIek irakurri zuen prestatutako autokritika-testua, gainontzeko taldeen harridura eta haserrea eraginez, aurreko bileran irakurritakoaren oso antzekoa baitzen. ETA-VIek erantzun zuen lantzen ari zirela 44 orritako dokumentu bat, beraien jarrera

azalduko zuena, eta hilabete bateko epean prest egongo zela. Gainontzeko taldeek bozkatu ostean, ETA-VIren errektifikazioa errefusatua izan zen. Horren ondorioz ETA-VIek elkarrizketak uztea erabaki eta bilera utzi zuen. Gainontzeko taldeen aldetik elkarrizketen lehen fasea amaitutzat eman zen, eta hurrengo bileran ordura arte eginiko aurrerapenen balantze komun bat egiteko geratu ziren. Hala ere, hura izan zen azken bilera, eta nazio frontearen eraketa ezerezean amaitu zen beste behin ere.

Arrazoi ugari bila daitezke 1971ko porrota azaltzeko. Alde batetik, EAJk Eusko Jaurlaritzaren zilegitasuna kolokan jarriko zuen proiekturik bultzatzeko asmorik ez zeukala argitasunez adierazi zuen. Horren harira, Letamendiaren ustez (1994 (1): 360), EAJ nazio frontearen ideiatik urrun mantendu zen konbentzitura zegoelako Euskal Herriko eta Espainiako indar korrelazioaren garapenak arrazoia emango ziola. Aurrekoarekin lotuta, PSOE elkarrizketetara ez gonbidatzeak ezinegona sortu zuen Eusko Jaurlaritzako partaideen kasuan. Izan ere, EAEk ez zuen elkarrizketetan parte hartu, hain zuzen ere, PSOE gonbidatuta ez zegoelako. Bestalde, ETA-Vren eta ETA-VIren arteko tirabirak agerian geratu ziren bileretan, eta horrek bileren norabidea erabat markatu zuen. 1971eko saiakera horrek ez zuen fruiturik eman, eta Francoren heriotzaren osterara arte ez zen beste saiakerarik egon.

III.4.3.3 Nazio frontierako saiakerak trantsizioan. Txibertako elkarrizketak: *haustura ala erreforma.*

Adolfo Suárezek Gorteetarako hauteskundeak deitu zituen 1977ko apirilean, ekainaren 15erako martxoaren 18ko 20/1977 Errege Dekretu Legearen¹⁸⁸ bidez. Hauteskunde haien harira, Francoren heriotzaren osteko etapa politikoari ekiteko bi aukera aurrez aurre aurkitzen ziren: haustura ala erreforma.

¹⁸⁸ <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1977-7445>.

Espanian, frankismoaren kontrako oposizioa bi eragile nagusitan banatu zen hauteskundeei begira; alde batetik, PCEk bultzatutako *Junta Democrática de España* eragilea zegoen, eta, bestetik, PSOEek gidari zuen *Plataforma de Convergencia Democrática* eragilea. Bi plataformek autodeterminaziorako eskubidea aldarrikatzen zuten *haustura adostuaren* perspektiba baten barne (Ik. Porrero, 2006). Hala ere, *haustura adostuaren* perspektiba hura *erreforma adostua* bilakatu zen, batez ere 1977ko apirilean PCE legeztatu zenez geroztik (Anai Artea, 2011: 76).

Euskal Herrian, KAS Alternatiban oinarrituta eta *haustura demokratikoa* eta autodeterminazio eskubidea aldarrikapenarekin, 1977ko otsailean *Euskal Erakunde Herritarra* eragilea sortu zen. Eragile horrek urte horretako Aberri Eguna deitu zuen Gasteizen, baina hilabete batzuk baino ez zituen iraun, hauteskundeetan parte-hartzearen inguruko ezadostasunek haren desgitea eragin baitzuten (Zallo, 2014). Halaber, Marc Légasse euskal idazleak beste aliantza bat proposatu zuen 1977ko hauteskundeetarako. Bere ideia zen presoek, iheslariek eta fusilatuen senitartekoez osatutako zerrenda batean aurkeztea indar abertzale guztiak, *Presoak Cortes-etara* izena izango zuena (Fernández Soldevilla, 2009a: 102). Bere aldetik, EAJ PSOE ardatz zuen *Plataforma de Convergencia Democrática* delakora atxiki zen 1975eko ekainean. Izan ere, EAJk erreformaren aldeko hautua egin zuen urte batzuk lehenagotik, autonomiaren aldarrikapenarekin batera, eta ez zuen hautu hori aldatu trantsizio osoan zehar (Montero, 2014: 336).

Hortaz, esan daiteke euskal nazionalismoaren baitan bi perspektiba estrategiko nagusi planteatzen zirela trantsizioan, 1977ko hauteskundeetan parte-hartzeari begira eragin berezia izan zutenak; alde batetik, ETAk zein KASen inguruko indarrek defendatzen zuten *haustura demokratikoa*rena, eta, bestetik, EAJk planteatzen zuen erreformarena. Bi perspektiba haiek bateraezintasun agerikoak aurkezten zituzten arren, euskal nazionalismoak bere osotasunean estrategia

komun bat hartzeko saiakera egon zen. Izan ere, 1977ko hauteskunderen aurretik, Espainiako zein Euskal Herriko etorkizun politikoa erabakitzeaz zegoelarik, nazio frontea eratzeke beste saiakera bat burutu zen. Iniziatiba Telesforo Monzónnek bultzatu zuen, eta Txibertako elkarrizketetan islatu zen. Ondoren, elkarrizketa haietako gora-beheren laburpena aurkeztuko dugu.

III.4.3.3.1 Txibertako elkarrizketak (1977). *Haustura ala erreforma.*

Monzonen ustez, bi joera horiek, EAJrena zein ETArena, edo, erreformarena eta hausturarena, ez ziren bateraezinak. Haren ustez, Estatu frankistaren biolentziaren aurka altxatu zirenek 36ko gudarien borroka segitzen zuten; haien seme-alabak ziren. Hortaz, Francoren oinordekoen aurkako batasuna behar-beharrezkoa eta presakoa zela uste zuen.

Monzónen proposamena hiru zutabetan oinarritzen zen: 1) indar abertzaleen arteko dinamika komun bat erdiestea hauteskunderen begira; 2) Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba bilduko zituen Autonomia Estatutu bat eskuratzea; eta 3) Euskal Estatuaren sormena bultzatuko zuen nazio fronte bat eratzea¹⁸⁹ (Deia, 2017). Horrela azaltzen zuen Monzónnek bere egitasmoa 1977ko martxoan argitaratutako *Enbatan*:

“Nire arima guztiaz, abertzale guztien arteko programa batua eraikitzeke ekintzetan parte hartzea da nire egitasmo pertsonala. Horri ‘Bergararik Eibarra’ deitzen diot. Itun horren lehen atala preso guztientzako, bai eta atzerriratuentzako ere, amnistia osoa da; gero, galdua dugun guregaintasunaren berreraikuntza; azkenik, euskal populuak burujabetasunerako duen eskubidearen ezagupena, eta, noski, indar espainiar okupatzaileak Euskaditik kanporatzea... Bere buruaren jabe zen Jaurlaritzaren partaide izan nintzen. Gaur egun, alderdi guztien gain dago, Euskal Herriari galdetu bitartean, iraungo duen estatutu iragankor hori zein izango den erabakitzea (Anai artea, 2011: 83).

Monzónen lehenengo erronka hautagaitza abertzalea prestatzea izan zen. Hautagaitza hura 1977ko hauteskundeetarako aurkeztuko zen, baina ez zuen

¹⁸⁹ Ik. “Entrevista a Telesforo Monzon”, *Enbata*, 442 (1977-2-10); in Fernández Soldevilla, 2009a: 66. oharra.

Espainiako gorteetan parte hartuko. Horren ordez, *Euskadiko Biltzarra* (Asamblea de Euskadi) osatuko zen Iruñean, Eusko Jaurlaritzza berria aukeratzeko. Eusko Jaurlaritzza berri horrek Euskal Herriaren independentzia negoziatu beharko zuen Espainiarekin (Fernández Soldevilla, 2009a: 102).

1977ko otsailean Monzónnek bere proposamena helarazi zien ETA(m) zein ETA(pm) erakundeei. Bi erakundeek aldeketasuna adierazi zioten, baina KASeko indarren¹⁹⁰ onespina jarri zuten baldintza moduan parte hartzeko¹⁹¹. Hortaz, KASen bilera antolatu zen martxoaren 7an proposamenaz eztabaidatzeko, eta nahiz eta lehenengo unean soilik ETA(pm) agertu zen horren alde (ik. *Kemen* 10; in Letamendia, 1994 (2): 34), azkenean, gainontzeko eragileek ere, ETA(m)-k barne, baiezkoa eman zioten elkarrizketei ekiteari. Gauzak horrela, ETA(m)-k eta ETA(pm)-k bilera bat egin zuten Monzónekin KASen aldeketasuna adierazteko. Bere aldetik, EAJk, bere biltzarra egin ostean, elkarrizketetan hasteko bere aldeketasuna adierazi zion Monzóni. Orduan, EAJren eta ETA(m)-ren arteko bilera bat antolatu zen. Bertan ETA(m)-k hauteskundeei begirako jarrera komun bat hartzea proposatu zion EAJri, eta jeltzaleak aukera horren aurka ez ziren agertu¹⁹². Orduan, KASen eta EAJren arteko elkarrizketak hasi ziren Angeluko Txiberta hotelean. Orotara sei bilera¹⁹³ egin ziren. Ondoren, bilera haietako gora-beheren laburpena emango dugu.

Lehenengo bilera (1977-04-24)

Parte-hartzaileak: ETA(m); ETA(pm), EAJ; Telesforo Monzón; José Luis Elkoro (Alkateen Taldearen izenean).

¹⁹⁰ KASeko orduko partaideak ziren: EHAS, LAIA-Bai, LAB, LAK (Langile Abertzale Komiteak), ETA(pm) eta ETA(m). 1977an ESK eta EIA sartu ziren. 1979an Jarrai sartu zen. 1980ean HASi sartu eta LAIA irten egin zen.

¹⁹¹ "Cumbre vasca. Ruptura y división", *Punto Y hora de Euskal Herria*, 37: 10-12 (1977-5-26). Eskuragarri: <http://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/48383> [Kontsulta: 2019-3-4].

¹⁹² Ibid.

¹⁹³ Ikusi bileretako aktak in Anai Artea, 2011 eta 1977ko maiatzean argitaratutako *Enbata* aldizkarian.

Ekaineko hauteskundeetan parte hartzea ala abstenitzea izan zen Txibertako elkarrizketetako gai nagusia, eta lehenengo bileran agerian geratu zen. Telesforo Monzónen diskurtso baten ostean ETA(m)-k zein ETA(pm)-k maiatzaren 15erako amnistia lortu ezean abstentzio-bloke bat eratzea proposatu zioten EAJri¹⁹⁴. Lau xede nagusi izango zituen bloke horrek: 1) presioa eragitea Gobernuari presoak askatzeko; 2) Estatutua eskuratzeko garaian posizio indartsua izatea; 3) erreforma ezegonkortzea parte-hartzerik ezaren bidez; 4) erreformarekin ez kolaboratzeko kontzientzia piztea herrian (Anai Artea, 2001: 93). EAJk, aldiz, nahiz eta gai horren inguruko posizio ofizialik adierazi ez zuen, parte-hartzearen aukera defendatu zuen, herriak bozkatu nahi zuela eta Gobernuak presoak askatuko zituela argudiatuz (Ibid). Gauzak horrela, parte-hartzaileak hurrengo bilera baterako geratu ziren. Bigarren bilera horretan, EAJk hauteskundeetarako bere proposamen ofiziala eraman behar zuen, eta gainontzeko indar abertzaleei egingo zitzaien parte-hartzeko gonbitea.

Bigarren bilera (1977-4-30)

Parte-hartzaileak: EHAS; LAIA-bai; EKA; ESEI; EAE; EAJ; ETA (m); ETA (pm); Telesforo Monzón eta Alkateen Taldea.

ETA(m)-k abstentzioaren aldeko apustua berrestu zuen. KASeko gainontzeko indarrek eta Alkateen Taldeak bat egin zuten abstentzioaren aukerarekin. Alkateek, gainera, maiatzaren 24rako amnistia egon ezean dimitituko zutela adierazi zuten. Hala ere, KASen barneko indarren jarrerak ez ziren monolitikoak. EHASEk, adibidez, abstentzioaren aldeko aldarri garbia egin zuen, horrela “frankisten erreforma ezegonkortuko zela” argudiatuz (Renobales, 2011: 39). ESEIk, aldiz, parte-hartzearen alde kokatu arren, amnistia lortzea jarri zuen

¹⁹⁴ Joseba Azkarragaren hitzetan: “ETA y los partidos de KAS introdujeron como condición previa a cualquier acuerdo que las formaciones abertzales en bloque se abstuvieran de participar en las elecciones generales si no se concedía una amnistía total. Pero todos teníamos claro que íbamos a presentarnos, incluido ANV” (Diario Vasco, 2011-8-2; in Renobales, 2011: 42. oharra).

lehentasun moduan, eta eragile guztien artean abstentzioa adostekotan horren alde egingo zuela adierazi zuen. Jarrera bera adierazi zuten EAEk zein EKAK (Ibid). EAJk, aldiz, edozein modutan hauteskundeetan parte hartuko zuela adierazi zuen. EAJren ustez, abstentzioarekin amnistiaren aldeko aldarria zailagoa izango zen, eta horrez gain, Nafarroaren gaia borrokatzeko posizio ahulagoa izango zuten indar abertzaleek:

“Asko hausnartu ondoren, hauteskundeetan baldintzarik gabe parte hartzeko erabakia hartu dugu (...) Egin diren sondeo guztien bidez, eta Araba eta Nafarroa kontuan harturik, uste dugu ezin dela abstentzioa kontrolatu, herriak bozkatu nahi du. Gu aurkezten ez bagara, herriak gure ordezkarietarik gabeko erakundeak ontzat emango ditu, homologatuak gainera (...) Parlamentuan koalizioak egin ahal izango dira amnistia, estatutua eta abar lortzeko. Pixkanaka lortuko dira. Nik bermatzen dut amnistia emango dutela” (EAJren ordezkaria Txibertako elkarrizketetan; in Anai Artea, 2011: 96).

Eragile guztiek haien argudioak azaldu zituzten bileran zehar, eta haien arteko tirabirak agerian geratu ziren. Bere aldetik, ETA(m)-k akordiorik egon ezean urte hasieratik indarrean zuen su-etena amaituko zuela adierazi zuen:

“Lehen gauza garrantzitsu bat esatea ahantzi dut: baldintzak betetzen ez badira, masa-mobilizazioek segituko dute, baita ekintza armatuek ere. Eta ohartarazten dugu: gure jarduera ezin da hauteskundeen arabekoa izan, hauteskunde horietan zeinahik parte hartzen duela ere”. (ETA(m)-ren ordezkaria Txibertako elkarrizketetan; in Anai Artea, 2011: 100).

Azkenean, jarreraren arteko talkak ikusita, eragile guztien arteko batzorde iraunkor baten sorrera adostu zen. Horrez gain, Adolfo Suárezekin bilduko zen beste batzorde bat osatzea erabaki zuten. Azken batzorde hori Santiago Brouardek, Iñaki Aldekoak, Valentín Solagaistruak, Iñaki Pujanak eta José Luis Elkoroak osatu zuten, eta maiatzaren 10ean bildu ziren Espainiako Presidentearekin.

Suárezekiko bilera hartan, indar abertzaleen ordezkariak Txibertako bileran esandakoa transmititu zioten Espainiako Presidenteari, hots, maiatzaren 24rako amnistia egon ezean, alderdi politiko guztiak legeztatu ezean eta askatasun demokratiko guztiak indarrean egon ezean indar politiko batzuek abstentziora deituko zutela, Alkateen Taldeko kideek dimitituko zutela, eta ETA(m)-k bere

jarduera armatua berraktibatuko zuela. Suárezek hauteskunderen osterara arte amnistia orokorrik ez zela egongo adierazi zuten ordezkari abertzaleei. Hauteskunderen aurretik, askoz jota, preso batzuk askatuko zituela “borondate oneko erakustaldi” gisa¹⁹⁵ adierazi zuten, PCEn legezkatzeren ondoren oso posizio ahulean aurkitzen zela Espainiako armadarekin argudiatuz. Askatasun demokratikoei buruz, hauteskunderen ondoren hasiko zela horiek ziurtatzeko prozedura legala esan zuten Suárezek (Fernández Soldevilla, 2009a: 104). Bestalde, eskakizunak bete ezean lehen aipaturiko neurrien aurrean (abstentzioa, alkateen dimisioa eta borroka armatuaren aktibazioa) Suárezek haiei aurre egiteko nazioarteko laguntza zeukala adierazi zuten ordezkari abertzaleei¹⁹⁶. Halaber, erakunde armatuei zegokienez, jarrera irmoa erakutsi zuten: desagertu behar ziren. (Anai Artea, 2011: 102).

Hirugarren bilera (1977-05-12)

Parte-hartzaileak: EAJ; EAE; ESB; EKA; EHAS; LAIA-bai; EIA; ESEI; ETA(pm); ETA(m); Alkateen Taldea eta Telesforo Monzón.

Suárezekiko bileraren ostean indar abertzale guztiek gogor kritikatu zuten Espainiako Presidentearen jarrera, eta horrela adierazi zuten maiatzaren 12ko bileran. Hala ere, eragile abertzaleen arteko talkak agerian geratu ziren beste behin ere. ETA(m)-k amnistia jartzen zuten baldintza negoziatzen moduan hauteskundeetan parte hartzeko, eta EAJk, aldiz, hauteskundeetan parte hartzearen aldeko bere jarrera berretsi zuten, hauteskunderen aurretik amnistia lortu ez arren.

¹⁹⁵ “Laupabost” preso gehiago askatzeko aukeraz hitz egin zuten Suárezek bilera horretan (Renobales, 2011: 178. oharra).

¹⁹⁶ “Cumbre vasca. Ruptura y división”, op. cit.

Gauzak horrela, *Argalak*, ETA(m)-eko ordezkarietako batek, hiru puntutako proposamen bat luzatu zuen maila pertsonalean (Renobales, 2011: 62; Anai Artea, 2011: 109):

- 1- Ekainaren 8rako amnistia eta askatasun demokratikoak ziurtatua egon ezean indar abertzale guztiek abstentzio aktiborako deia egingo zuten.
- 2- Erakunde armatuek ez zuten haien jarduera armatua berraktibatuko data horretara arte.
- 3- Akordioa lortzekotan, hura publiko egingo zen, eta hauteskunde-kanpainari gehituko zitzaion.

Alkateen Taldeak, Monzónek, EAEk eta ESBk beraien adostasuna adierazi zioten *Argalaren* proposamenari. Gainontzeko eragileek (ETA(m)-eko gainontzeko ordezkariak barne) ez zuten begi onez ikusten proposamena. EAJren ustez eragile bakoitzak aukera zezakeen hauteskundeetan parte hartuko zuen ala ez, eta eragileen arteko batasuna mantentzeko Autonomia Estatutuaren eskakizunean (Ibid: 63). Ezadostasunak, hortaz, sakonagoak ziren, eta indar abertzaleen arteko jarrera komuna hauteskunderi begira geroz eta zailago antzematen zen.

Hala ere, bilera amaitu aurretik, indar abertzaleetako ordezkari guztiek agiri bat adostu zuten Espainiako Gobernuaren jarrera salatzen zuena amnistia ez emategatik, erabaki horrek indar abertzaleen arteko banaketa bilatzen zuela adieraziz eta Euskal Herrian izan zitzakeen “ondorio larriez” ohartaraziz:

“Reunidos todos los partidos políticos abertzales y representantes del grupo de alcaldes y de grupos armados, consideramos una obligación de exponer a nuestro pueblo, la gravísima situación política de Euskadi que hemos hecho llegar directamente al Presidente del Gobierno Español, en audiencia concedida el martes día diez. En este momento el Rey, a través de su Presidente, debe conocer la situación de profundo deterioro (boicot a las elecciones de partidos políticos, dimisión de alcaldes, reanudación de ofensivas armadas, falta de credibilidad democrática ante la consulta electoral, etc). Al que podría verse abocado el pueblo vasco, ante la negativa del Gobierno de Madrid de liberar a todos los presos y posibilitar el retorno de los exiliados vascos en la fecha reclamada del 24 de mayo próximo. El hecho de no haber atendido al pueblo vasco en este derecho básico e indispensable, no

sólo para una credibilidad a la política seguida por el Gobierno respecto al pueblo vasco, sino también por las terribles consecuencias que puede acarrear a nuestro pueblo, nos obliga con honda preocupación a informar que: interpretamos esta negativa como un intento premeditado de dividir a las fuerzas políticas vascas. Intento que denunciamos ante la opinión vasca e internacional. Finalmente, manifestamos nuestro propósito de proseguir estas conversaciones entre las fuerzas firmantes, para ofrecer a Euskadi la firme voluntad de una acción común. El pueblo vasco espera que, en estas horas tan graves para él, no ha de faltarle el apoyo de las fuerzas de oposición democrática de todos los pueblos del Estado Español". Sinatzaileak: EAJ, EAE, EKA, EHAS, ESB, ES, LAIA, EIA, ESEI, ETA(pm), ETA(m), Alkateen Taldea ("Gravísima situación política en Euskadi"; *Punto y Hora de Euskal Herria*, 36: 12. Eskuragarri: <http://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/48383> [Kontsulta: 2019-3-4].

Laugarren bilera (1977-05-14)

Parte-hartzaileak: LAIA; EHAS; EIA, ETA(pm); EKA; ESB; ESEI; EAJ; ETA(m); Alkateen Taldea eta Telesforo Monzón.

Hau izan zen EAJko ordezkariak parte hartu zuten azken bilera. Telesforo Monzónnek, bileraren moderatzaile moduan, bi puntutako gai-ordena proposatu zuen: maiatzaren 7an hasitako *Amnistiaren Aldeko Asteko gertakariak*¹⁹⁷ eta aurreko bileran *Argalak* egindako proposamenaren inguruko hausnarketak. Amnistiaren Aldeko Astean gertatutakoaz hitz egin ostean, ETA(m)-k jarduera armatuarekin hasteko beharra ikusten zuela eta hauteskundeetako hautagaitzak erretiratu behar zirela adierazi zien gainontzeko indar abertzaleei:

"Gertatuak gertatu, ekintzak egiteko ez gara itxarrotearen aldekoak, uste dugu hautagaitzak berehala erretiratu beharko lirakeela, baina EAJ-PNVk du hitza, zeren ados badago, hauteskundeak baino

¹⁹⁷ 1977ko maiatzaren 8tik 15era Amnistiaren aldeko Astea antolatu zen Hego Euskal Herrian, urte horretako bigarrena. Zazpi pertsona hil ziren poliziaren eta Guardia Zibilaren errepresioaren ondorioz, beste asko zaurituak izan zirelarik. Hilaren 12an greba zegoen deituta, eta eguerdian Guardia Zibilak bortizki desegin zuen Erreterian egindako manifestazioa. Balaz zauritutakoak asko izan ziren, eta batzuk, larri. Hildakoak, berriz, hiru izan ziren: Gregorio Maritxalar bala batek jo zuen bere balkoian zegoelarik, eta egun batzuk geroago hil zen; Rafael Gomez tiro batez hil zuten, paseatzen zebilela. Clemente del Caño Ibañez auto batek harrapatu zuen Bilbo-Behobia autobidean guardia zibilek barrkada bat kentzera behartu zutenean. Hurrengo egunean, Guardia Zibilaren jarrera ez zen aldatu Erreterian, eta hango gertaerek Euskal Herri osoan izan zuten eragina. Liskarrak areagotu egin ziren, eta ondorio tragikoak beste herrialdeetara ere zabaldu ziren. Maiatzaren 13an, greba orokorra deitu zen Hego Euskal Herri osoan. Egun horretan Jose Luis Cano hil zuten Iruñean. Jose Luis Cano hil zuten egun berean, Luis Santamaria, hilz zen (poliziak jaurtitako gomazko pilota bat ondoan erori zitzaion, etxeko balkoian, eta bihotzekoak jota hil zen). Hurrengo egunean Manuel Fuentes gaztea hil zuten Ortuellan. Halaber, eskuin muturrekoek Francisco Javier Núñez hil zuten Bilbon (Berria, 2017).

15 egun lehenagora arte itxarotea onartuko genuke, nahiz eta ez gauden alde.”(ETA(m)-ren ordezkarien adierazpenak; in Anai Artea, 2011: 111).

ETA(pm), EHAS, EKA, EIA eta LAIA(bai) ados agertu ziren ETA(m)-ren proposamenarekin. ESEIk esan zuen erabaki bateratua izatekotan, harekin bat egingo zuela, baina alderdi abertzaleek utzitako espazio hura beste batzuek ordezkaturako zutela ohartarazten zuen. EAJk, aitzitik, argi zeukan: edozein kasutan hauteskundeetara aurkeztuko zen, ez aurkeztea herriari egindako traiziotzat hartzen baitzuen:

“Hauteskundeetara aurkeztu behar dela uste dugu, herria bozkatzera joango da eta ez du inongo alderdi abertzalek ordezkaturako. Dena den, aurreikusi bezala, jende hori bozkatzera joateko modukoak dira baldintzak. Egungo egoera gorabehera, egungo Gobernuak hauteskundeak egitea ahalbidetuko du. Proposamen horretan kaleko istiluetarako bidea baino ez dugu ikusten. Eta ez joatea herriari traizio egitea litzateke. Hauteskundeetan parte hartuko dugu” (EAJren ordezkari baten hitzak; in Anai Artea, 2011: 111).

Alkateen Taldeak maiatzaren 24an dimisioa aurkezteko eta abstentziora deitzeko hartutako erabakia berretsi zuen. Era berean, EAJren erabakia kritikatu zuen, alderdiaren buruzagi batzuek esandakoaren aurka zihoalakoan¹⁹⁸. EAJk erantzun zuen egoera aldatuz gero erabakia ezberdina izan zitekeela, baina parte hartzeko erabakia hartua zuela berretsi zuen.

¹⁹⁸ 1977ko otsailean argitaratutako *Garaia* aldizkarian egindako elkarrizketa batean, Xabier Arzalluzek preso guztiak askatu ezean EAJk ez zuela hauteskundeetan parte hartuko adierazi zuen: *“Evidentemente, si no existe una salida de todos los presos vascos, un correcto tratamiento del problema del orden público, garantías del control electoral, igual tratamiento para la publicidad y acceso a los medios de difusión, no participaremos”* (“Entrevista a Xabier Arzalluz”, *Garaia*, 24; in “Cumbre vasca. Ruptura y división”, op. cit.). Halaber, Manuel de Irujo esan zuen Diario Vasco egunkariari egindako adierazpen batzuetan, EAJ amnistia osoa lortzekotan soilik aurkeztuko zela hauteskundeetan: *“si la amnistía se cumple plenamente el PNV concurrirá a las elecciones. De lo contrario se abstendrá”* (*Diario Vasco*, 77-3-25; Ibid). Arzalluzek idatzitako liburu batean, buruzagi jeltzaleak esan zuen berak ez ziola ETA(m)-ri EAJren abstentzioa prometituko (Arzalluz, 2005; in Fernández Soldevilla, 2009a: 72. oharra). Izan ere, Arzalluzek berak aitortu zuenez: *“Eran unas elecciones internacionalmente reconocidas, apoyadas por toda la Europa democrática y por los EE UU (...) Sabíamos que, si nos quedábamos fuera, otros ocuparían nuestro sitio. Nos convertiríamos en extraparlamentarios”* (Ibid).

Gauzak horrela, Monzón saiatu zen EAJrekin hitz egiten egoera bideratzeko, baina EAJk erabakia hartuta zeukan, eta bilera utzi zuen¹⁹⁹. ESBk esan zuen nahiz eta EAJ gabeko nazio frontea eratzea ez izan haien helburua, era horretako zerbait planteatzea zitekeela epe labur, ertain eta luzera begira, baina erakunde militarrek ardatz horren menpe egon beharko zutela gaineratu zuen. ETA(m)-k erantzun zion horrek jardun armatua utzi beharra esan nahi bazuen, erantzuna ezezkoa izango zela (Anai Artea, 2011: 112; Fernández Soldevilla, 2009a: 104).

ESEIk ere “fronte partzialak” sortzearen aurka agertu zen, eta galdetu zuen halako fronte batek nork gidatuko zukeen: alderdiek, alkateek edo erakunde armatuak. Bere aldetik, EKAKo ordezkariak *Argalak* egindako proposamena berrestea proposatu zuen, baina bigarren puntua kenduta. Gainerako eragileek esan zuten ezin zutela momentuan erantzun ofizialik eman. Egoera horretan amaitu zen bilera, nazio frontea sortzeko aukera berriro ere erabat deuseztatuta geratzen zelarik.

Bosgarren bilera (1977-05-17)

**Parte-hartzaileak: ESEI; EAE; ESB; EHAS; EIA; LAIA(bai); ETA(pm); ETA(m)n
Alkateen Taldea eta Telesforo Monzón.**

EAJrik gabe Monzónek Txibertarako zuen nazio frontearen ideia ahulduta edo ia lurperatuta zegoen, eta hori nabaritu zen bosgarren bileran. Hala ere, abstentzioaren aukerak, EAJ ezik, indar abertzaleen arteko batasuna ekar zezakeen oraindik, eta, hortaz, gai horrek monopolizatu zuen bilera. EKAREN ustez amnistiaren gaia hauteskunde-kanpainen borrokatu beharrekoa zen, horregatik, bertan parte hartuko zuela adierazi zuen, baina, aldi berean, ekainaren 6rako amnistia egon ezean bere hautagaitza kenduko eta abstentziora

¹⁹⁹ EAJko ordezkariak Monzónekin pribatuan hitz egiteari uko egin ostean, azken honek bileratik alde egiteko esan zien: *“Si no van a existir aportaciones en positivo, no creo que tenga mucho sentido que continuéis presentes en esta conferencia”* (Renobales, 2011: 78. oharra).

deituko zuela ziurtatu zuen²⁰⁰. EAEk²⁰¹, ESBk eta ESEIk behin betiko erabakirik ez zeukaten oraindik, eta hilaren 23rako jakinaraziko zutela esan zuten (Renobales, 2011: 72). Bere aldetik, KASen orduan zeuden alderdi politikoeak (EHAS, EIA²⁰² eta LAIA(bai)) abstentzio aktiborako deialdia eta kanpaina egingo zutela esan zuten. José Luis Elkorok, Alkateen Taldearen izenean, maiatzaren 24an haien dimisioa emateko erabakia konfirmatu zuen, baina proposamen unitariorik egon ezean (nahiz eta EAJ barne ez egon) ez zutela abstentzioaren aldeko kanpaina egingo esan zuen, sentsibiltate politiko ezberdinetako alkateak zeudela argudiatuta. Maiatzaren 23rako deia egin zen EAEk, ESBk eta ESEIk haien behin betiko erabakia gainontzeko eragileekin konpartitzeko.

Seigarren bilera (1977-5-23).

Parte-hartzaileak: EKA; EHAS; LAIA(bai); ESEI; ETA(pm); ETA(m); Alkateen Taldea; Telesforo Monzón eta ESB.

Nazio frontea sortzeko aukera gutxi geratzen ziren, eta azken bilera horretan proposamena lurperatu zen. EAEk²⁰³ (telefonoz deituta), ESBk eta ESEIk hauteskundeetan parte hartzeko erabakia hartua zutela komunikatu zieten gainontzeko eragile abertzaleei. Alkateen Taldeak atzera bota zuen maiatzaren

²⁰⁰ Espainiako Gobernuak ez zuen EKA garaiz legeztatu, hortaz, nahi izanez gero ere, EKA ezin izango zuen hauteskundeetan parte hartu.

²⁰¹ EAEk ez zeukan behin betiko erabakirik, alderdiaren baitan bi iritzi baitzeuden: batzuek abstentzioaren alde egin nahi zuten zuzenki, eta besteek, parte-hartze baldintzatuaren alde zeuden, hau da, hauteskundeetan parte hartzea baina amnistia eman ezean Espainiako Gorteetara ez joatea (Anai Artea, 2011: 115).

²⁰² Azkenean, EIA Euskadiko Ezkerra koalizioan aurkeztu zen hauteskundeetan EMKrekin batera (EMK ETA-berritik sortutako mugimendu komunista zen), eta parlamentari bat eskuratu zuten, Francisco Letamendia (Ortzi). Nafarroan Unión Navarra de Izquierdas (UNAI) hautagaitza sortu zuten, baina ez zuten parlamentariarik lortu. EIAk KAS utzi zuen 1977ko abuztuaren (Ikusi Garaialde, 1980; Egido, 1993 eta Fernández Soldevilla, 2009b).

²⁰³ Maiatzaren 31n antolatutako Biltzar Nazionalean idatzitako agiri batean, EAEk Espainiako Gorteetan parlamentariak lortuz gero ez zituztela eserlekuak hartuko adierazi zuen. Ikusi agiria in Renobales, 2011: 75-76.

24an dimititzeko erabakia, detaile gehiagorik eman gabe. Hortaz, ETA(m), EHAS eta LAIA(bai) bakarrik geratu ziren abstentzioaren aldeko jarreran.

Porrotaren sententzia erabatekoa zen, beste behin ere nazio frontea eratzeko saiakera ezerezean geratu baitzen. Telesforo Monzónek Suárezekiko elkarrizketa hartu zuen egoera horretarako arrazoi nagusitzat, eta porrota onartu bazuen ere, aurrerantzean indar abertzaleen batasuna lortzen saiatuko zela adierazi zuen:

“Egoera hau espero nuen; bilera hauetarako gestioak egiten hasi banintzen ere, porrot egin dudala aitortu behar dut, baina dena den, zatiketa hau Madrildik datorrela ziur naiz; pertsonalki, datozen egunen beldur naiz, euskaldunen arteko gerra edo horrelako zerbait gertatuko da, nire ustez, kontzientzia arazoa da, eta gainera, beste arazo bat ere badago, une honetan ez dakit zein beste bide har daitekeen, baina ororen gainetik, unerik larrienean eta asmatzeko segurtasunik gabe, nik diot ez naizela eusko gudariengandik urrunduko, eta ez ditut bakarrik utziko; nik eman diezaiekedan itzala ematen jarraituko dut, eta gudariez ari naizenean preso ez ere ari naiz, ez dut bereizketarik egiten.”
(Telesforo Monzónen hitzak; in Anai Artea, 2011: 118).

Monzonen nahia, baina, ez zen loratu eta bi hamarkada pasa behar izan ziren nazio frontea agenda politikoan berriro egoteko. Egoera guztiz ezberdina zen; demokrazia parlamentarioa sustraituta zegoen, Autonomia Estatutuak Espainiako legealdian sartuta, ETAk Espainiako Gobernuarekiko negoziazio-prozesu bat sortzeko bere jarduera armatua aktibo mantentzen zuen, eta EAJk EAEn zuen hegemonia politikoa agerikoa zen. Egoera politiko horretan nazio frontea eratzeko hurrengo saiakera gertatu zen, Lizarra-Garazikoa, alegia.

III.4.3.4 Nazio frontierako saiakera demokrazia parlamentarioan.

III.4.3.4.1 Lizarra-Garaziko akordioa (1998-1999). Dena ala ezer ez.

III.4.3.4.1.a ETAre su-etena. Abertzaleen arteko akordioaren ondorioa.

1998ko irailaren 12an Lizarran aurkeztu eta urriaren 2an Donibane Garazin berretsi eta sinatu zen *Lizarra-Garaziko Ituna*²⁰⁴. Sinatzaileek Ipar Irlandako bake-prozesua eredutzat hartuz, Euskal Herriko gatazkari eta haren ondoriozko biolentziari amaiera emateko konpromisoa hartu zuten. Akordioaren muina Euskal Herria subjektu politiko bilakatzea eta “erabakitze-markoa” bertan ezartzea zen. Hainbat helburu ezarri ziren, hala nola lurraldetasunari, erabakitzeari eta autodeterminazioari buruzko auziak ebatzea inolako eragilerik kanpoan utzi gabe, betiere biolentziarik gabeko egoera batean eta elkarrizketa eta negoziazioan oinarritutako prozesu ireki baten bidez (Letamendia, 2019).

Akordio horrek Euskal Herriko indar abertzaleen arteko konbergentzia-puntu altuena eragin zuen Txibertako elkarrizketen garaitik, eragile ezberdinen arteko hitzarmena burutu zela eta (Egaña, 2015: 18-20). Historikoa izan zen, funtsean euskal indar abertzaleen arteko lehen ituna izan zelako. Itunak bederatzi egun lehenagoko akordio batean izan zuen oinarria, EAJk eta HBk 1998ko irailaren 3an sinatutakoan, alegia. Aipatu testuari hitz batzuk aldatu eta huraxe aurkeztu zuten irailaren 12an, Lizarran (Esnaola, 2018)²⁰⁵. Aldez aurretik, abuztuan, ETA, EAJ eta EA akordio batera heldu ziren. Izan ere, 1998ko uztailean ETAk oinarrizko akordio bat sinatzeko proposamena aurkeztu zien EAJri eta EAri. Lau

²⁰⁴ Lizarran aurkeztu zen testua Ipar Irlandako bake prozesuari buruzko hausnarketa batzuekin hasten zen. *Lizarra-Garaziko Itun* gisa ezagutu zen horretan, ordea, Ipar Irlandako kasuaren inguruko zati hura ez zen agertzen.

²⁰⁵ Joseba Egibarren hitzetan: “HBk eta guk adierazpen modura egin genuen irailaren 3ko idatzia, baina azkenean hura izan zen Lizarrako Akordioaren edukia”. Ollorak prestatu zuen zirriborroa, eta Iruinek ñabardurak egin zizkion (Esnaola, 2018).

ziren akordiorako proposatzen ziren puntuak, geroago, ñabardura batzuekin, 1998ko abuztuan EAJk eta EAK onartu zituztenak:

“ 1- Akordioaren sinatzaileek, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoa bere baitan hartuko dituen instituzio egitura bakar eta subiranoa sortzeko urrats eraginkorrak gaurdanik emateko konpromisoa hartzen dute. Helburu dena duten indar politiko eta sozial desberdinekin bat eginez, instituzio-egitura gailen horren sorrera bidean, gaur egungo zatiketa instituzional eta estatuzkoak gainditzeko asmoa duen ekimen oro adostu, babestu eta bultzatuz.

2- Akordioaren sinatzaileek, Euskal Herriaren eraikuntza edota Euskal Herriaren eskubide demokratikoaren aldeko indarrekin, oinarritzko eta gutxiengo beharren inguruan, unean eta ikuspegi luzeagoko akordioak lotzeko eta dinamikak eragiteko konpromisoa hartzen dute.

3- EAJ-PNVk eta EAK Espainiaren eraikuntza eta Euskal Herriaren deuseztapena helburu duten alderdiekin (PP eta PSOE) dituzten akordioak bertan behera uzteko konpromisoa hartzen dute.

4- Euskadi Ta Askatasunak, bere aldetik, mugagabeko su-eten bati ekiteko konpromisoa hartzen du. Su-etena orokorra eta mugagabea izanik ere, ETAREN hornitze zereginak eta balizko enfrontamenduetan defenditzeko bere eskubidea bere horretan mantentzen dira” (ETA; EAJ; EA, 1998).

Esan bezala, ñabardura batzuk jarri zizkioten EAJk eta EAK ETAREN proposamenari. Hain zuzen ere, bi alderdiek ETAK sinatu ez zuen dokumentu bat adostu eta sinatu zuten abuztu hartan. Dokumentu horretan, bi alderdiek aldarrikatzen zuten ETAREN proposamenaren lehenengo bi puntuak aurrera eramanez ahal izateko eragile bakoitzak jarraitu beharreko estrategien eta erritmoen inguruko proposamena luzatu behar ziela besteei. Halaber, apurketak saihesteko, akordioaren segimendua eta ebaluaketa era elkartuan egitea proposatzen zen (EAJ; EA, 1998). Hirugarren puntuaren inguruan, bi alderdiek “euskal nazioaren defentsaren ikuspegitik” gobernagarritasunerako zein egonkortasunerako formula egokiak bilatzeko konpromezua hartzen zuten, baina, bestelako eragileen parte-hartzearen aukera baztertu gabe (Ibid). Dokumentuaren amaieran, ETAREN su-etenaren proposamena giza-eskubideen ikuspegiaren aldetik ontzat emateaz gain, sinatutako akordioa publiko ez egiteko konpromisoa hartzen zuten, gainontzeko eragileen oniritzia izan ezik.

Era berean, EAJk beste ohar bat gehitu zion akordioari, ETARI zuzenduta zegoena. Akordioaren lehen bi puntuen inguruan EAREKIN batera sinatutako

dokumentuan esandakoa berresten zuen EAJk. Hirugarren puntuaren inguruan, EAJk “etorkizunari begira” ikusten zuen proposamena, nahiz eta sortzear zegoen Eusko Jaurlaritza berria horren isla izango zela adierazi. Horrez gain, alderdi jeltzaleak adiskidetasunezko mezu zuzena luzatzen zion ETari, bi estrategien arteko lehia alboratzeko eta etapa berri bat irekitzeko zuen asmoa adieraziz:

“Han pasado demasiados años en los que las dos estrategias irreconciliables han funcionado cada una por su lado y enfrentándose. Se nos ha propuesto y hemos firmado un acuerdo para dar paso a una nueva etapa” (EAJ, 1998).

Hortaz, ETaren eta EAJren arteko akordioa hurbilago zegoen urte batzuk lehenago egon zena baino. Izan ere, *Ajuria Eneako Hitzarmena*²⁰⁶ sinatzeaz geroztik, alderdiaren eta erakundearen arteko harremana kaskarra izan zen; batez ere, 1993an eta 1996an, ETAk Ertzaintzaren burua eta EAJko militantea zen Joseba Goikoetxea eta Ertzaintzaren ofizialordea zen Ramón Doral hil zituelarik. Urte haietan batere adiskidetsuak ez ziren mezuak elkarri zuzentzen zizkion alderdiak eta erakundeak. Hala ere, 1996an ETAk akordiorako atea ez zuen ixten, EAJri zuzendutako dokumentu batean adierazten zuenez:

Euskadi Ta Askatasunak argi izendatuak ditu bere etsaiak eta argi adierazi dizue ere ez duela PNV alderdia etsaitzat hartzen (...) Gure eskua luzaturik izan duzue eta duzue oraindik. Badakizue zein den zuen indarra eta gizartean eragiteko ahalmena. Ez ezazue erabil gehiago zuen erkideen aurka, baizik eta Euskal Herriaren geroan urrats sendoak emateko (ETA, 1996).

Gauzak horrela, irailaren 18an ETAk su-etena²⁰⁷ iragarri zuen agiri baten bidez. Agiri luze horretan, ETAk Txibertako aukera ekartzen zuen gogora, 20 urte beranduago egia bihurtu zatekeelakoan. Halaber, *Alternatiba Demokratikoaren* balioa gorai patzen zuen, herriari hitza ematearen helburua bilatzen baitzuen ETaren hitzetan:

“Bestetik, egoera aldakor honetan zeresan nagusia du “KAS Alternatiba” zahartuaren lekua hartu duen “Alternatiba Demokratikoa” gizarteratu izana. Bake proposamen berri horren bidez, oinarri

²⁰⁶ Ikusi hitzarmena: http://especiales.ideal.es/2006/eta/pdf/1892/AJURIA_ENEA.pdf.

²⁰⁷ Hasiera batez, su-etena lau hilabetetako izango zen, eta akordioaren sendotzearen eta inplementazioaren arabera luzatuko zen (ETA, 2000b).

oinarrizko kontzeptu eraginkor bat hedatu da hiru urteotan; herriari hitza eramatearen beharra, herriak hitza berreskuratu eta hitz hori errespetatzea” (ETA, 1998a).

Horrez gain, ETAk deia egiten zien euskal eragile politikoei, sindikalei eta kulturei konpromisoa hartzeko Euskal Herriaren burujabetzaren alde. Halaber, Euskal Herriaren burujabetzaren aurkako indar politikoekiko akordioak apurtzeko deia luzatzen zuen ETAk:

Urrats guztien artean garrantzia handienekoa gaur egungo zatiketa instituzional eta estatuzkoa gainditze bidean jartzea izanen da; horretarako Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Ziberoa bere baitan hartuko dituen instituzio egitura bakar eta subiranoa sortzeko urrats eraginkorrak gaurdanik emanaz (...) Subiranotasunaren aldeko apustu argi eta erabatekoa egiteko garaia da. Ondorioz, Espainiaren eta Frantziaren eraikuntza eta Euskal Herriaren deuseztapena helburu duten alderdi, egitura instituzional eta errepresiozkoekin dagoen hitzarmen oro bertan behera uzteko garaia da” (Ibid).

III.4.3.4.1.b Akordioaren inplementazioa.

Lehen aipatu bezala, su-etena iragarri eta lau egun geroago Lizarrako Ituna sinatu eta prozesua martxan jarri zen. Laster euskal gizarteak prozesuari ematen zion oniritzia edo aurkakotasuna neurtzeko aukera etorri zen urriaren 25eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeekin²⁰⁸. Emaitzek, neurri batean, EAeko gizartearen oniritzia Lizarrako akordioarekin erakutsi zuten, hurrengo taulan ikus daitekeenez:

EAJ-PNV	21	350.322	28,01%
PP	16	251.743	20,13%
EH	14	224.001	17,91%
PSE-EE/PSOE	14	220.052	17,60%
EA	6	108.635	8,69%
EB	2	71.064	5,68%
U.AL.	2	15.738	1,26%
PLN-LNA	0	4.858	0,39%
PH	0	3.288	0,26%
EHB	0	864	0,07%

1998

EAJ-PNV	22	304.346	29,84%
PSE-EE/PSOE	12	174.682	17,13%
HB	11	166.147	16,29%
PP	11	146.960	14,41%
EA	8	105.136	10,31%
EB	6	93.291	9,15%
U.AL.	5	27.797	2,73%
CNPS	0	1.462	0,14%

1994

²⁰⁸ Hauteskundeak burutu baino lehen, BBCk ekoiztutako “ETA. Saliendo de las sombras” dokumentalean ETARI egindako elkarrizketa baten zati batzuk agertu ziren. Ikusi dokumentala: <https://www.youtube.com/watch?v=a-E68KVW8Ng>.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen emaitzak (1998). Iturria:
<https://www.datoselecciones.com/pais-vasco-parlamento-1998>

Aljerreko elkarrizketak apurtuta, alde bikotasunerako aukerak gutxituz joan ziren; ETaren jarduera armatua berraktibatuta, bere militanteen atxiloketa ugarirekin Espainian eta Frantzian, euskal presoek sakabanaketa abiatuta eta Ajuria Eneako ituna berretsi zenez gero, etorkizun hurbilean negoziazio-prozesu berri bat irekiko ez zela espero zitekeen. Hala ere, 1992an beste saiakera bat gertatu zen. Aljerreko elkarrizketak amaitu eta hurrengo urtean bertan, Espainiako Gobernuak Etxebesterekin kontaktatu zuen berriro ere, azken hau Santo Domingon deportatuta zegoelarik. Elkarrizketak berrabiatzea eskaini zitzaion Etxebesteri, betiere ETak su-etena iragartzen bazuen (Ibid: 43). Leku ezberdinak planteatu ziren elkarrizketak burutzeko: Kuba, Aljeria eta Suedia, besteak beste. Azkenik, Suediako Gobernuaren oniritzia lortu zen, eta hala adierazi zion enbaxadore suediarak Rafael Verari (Fonseca, 1996; in Murua, 2015: 43). Hala ere, elkarrizketa-prozesu hura ez zen abiatu. Alde batetik, ETak negoziazio-prozesu eraginkor bat abiatzeko baldintzarik ez zegoela uste zuelako, eta, bestetik, Espainiako Gobernuak koste txikiagoa eragingo zioten beste kontaktu batzuetan sartuta zegoelako (Ibid). Izan ere, Rafael Vera eta Luis Roldán Ezker Abertzalearen ordezkariekin bildu ziren hainbat alditan 1991an zehar. Urte batzuk geroago Verak aitortu bezala, Gobernuaren berehalako kezka 1992ko Olinpiar Jokoetarako eta Exporako segurtasun neurriak ziren, eta horrek ekarri zuen harremanetarako bide berriak irekitzea. Izan ere, akordio orokor bat lortu ezean, Gobernuak ETaren zein Ezker Abertzalearen baitan barne-hausturak eragitea lortu nahi zuen elkarrizketekin (Ibid). ETak, aldiz, presioa

igo nahi zuen desgaste-gerran, balizko negoziazio-prozesu batean ahalik eta posizio indartsuenean egon ahal izateko. Izan ere, ETAk 18 pertsona hil zituen 1989an, 25 1990ean eta 44 1991n (Casanova, 2007; in Murua, 2015: 44).

1992 urtea, hortaz, gakoa zen bi aldeentzat; Espainiaren irudia nazioartean kolokan egon zitekeen ETAk kanpaina armatu erasokorra aurrera eramanez gero, eta Gobernuak, hori jakinda, negoziatorako jarrera baikorragoa har zezakeela pentsa zitekeen. Izan ere, 1992ko urtarrilean, Rafael Verak Etxebesterekin hitz egin zuen telefonoz, elkarrizketak berrabiatzea eskainiz ETAk bi hilabeteko su-etena iragarri gero. ETAk, baina, uko egin zion Gobernuaren eskaerari, 1992an zehar bere jarduera armatua mantenduz gero negoziatorako posizio indartsuago batean egongo zelakoan (Ibid). Hala ere, ETAREN kontrako jarduera poliziala ez zen moteldu, 1992ko urtarrilaren eta otsailaren artean ETAREN ustezko 60 kide eta kolaboratzaile atxilotuak izan zirelarik (Sordo, 2017: 162). ETARI emandako kolperik handiena martxoaren 29an etorri zen, erakundearen orduko arduradun nagusiak atxilotuak izan zirenean, hain zuzen ere, urte batzuk lehenagoko elkarrizketetan parte hartu zuen Enrique Rodríguez Galindok abiatutako operazio baten ondorioz (Ibid). Hurrengo hilabeteetan ETAREN kontrako kolpeak areagotu ziren, erakundearen estrukturari zein gaitasun operatiboari min handia eginez. Horrek ETAk balizko negoziazio-prozesu batera posizio indartsu batean heltzeko zuen asmoa deuseztatu ez ezik, Ezker Abertzalearen ildo politikoa kolokan jarri zuen ere. Oso adierazgarria da 1995ean KASEk idatzitako *Txinaurri* txostenean horren inguruan adierazitakoa:

“Atzera begirako azterketa eginez, 92rako planteatutako interbentzioa honelakoa izan zen: erresistentzia maila politikoki, eta borroka armatuarekin gogor joz. Pedagogia hori oso txertatua zegoen eta 91ean hausnarketa batzuk egin arren eta gizartearen aldaketen aurrean beste mota bateko lan politikoa egin beharra planteatu arren, praktikan oso gutxi garatu zen, Ezker Abertzalearen ildo politikoa txertatzeko zailtasunak areagotuz (...) ETAk 92an zehar jasandako kolpeen ondoren agertzen den “argazkia”n zalantzak, etsipena eta egoera oso zaila da nagusi. Gaur egunetik begiratuta, Ezker Abertzalearen egoera erabateko noraezarena izan zen” (KAS, 1994).

Gauzak horrela, 1992ko gertaeren ostean, ETAk *KAS Alternatibaren* onarpena ekarriko zuen negoziazio prozesu bat aurrera eramateko zituen esperantzak lurperatuta geratu ziren. Horrekin batera, Ezker Abertzaleak etorkizunean hartu beharreko norabide estrategikoari buruzko eztabaida sakonak burutu zituen hurrengo urteetan. Izan ere, KAS Alternatiba eguneratu eta Alternatiba Demokratikoa aurkezteaz gain, Ezker Abertzalearen baitan “Nazio eraikuntzako estrategia ofentsibo bat” inplementatzeko beharra azpimarratzen hasi zen 90 hamarkadaren erdialdean (Ahedo, 2006 (2): 487); hain zuzen ere, urte batzuk geroago Lizarra-Garaziko prozesuarekin saiatu zena. Orduan ere ETaren eta Espainiako Gobernuaren arteko elkarrizketak burutu ziren, baina ez zen inolako akordiotara ailegatu²⁴³.

Urte batzuk pasatu behar izan ziren ETaren eta Espainiako Gobernuaren arteko hurrengo elkarrizketak gertatu arte. 2005-2007 urteen artean burutu ziren haiek, eta azkenak izan ziren ETaren historian.

III.4.4.4 Zapateroren Gobernuarekiko negoziazio-prozesua (2005-2007).

III.4.4.4.1 Elkarrizketak su-etenaren aurretik.

2004ko abuztuan, ETAk gutun bat bidali zion Espainiako Gobernuari, zeinetan erakundeak "gatazka konpontzeko komunikazio bideak ezartzea" proposatzen zion exekutiboari. Gobernuak, ñabardurekin eta ez berehala, baina ETaren proposamena onartu zuen (El País, 2007a). Azaroan, Batasunak *Anoetako proposamena*²⁴⁴ aurkeztu zuen. 2005eko urtarrilean Batasunak beste gutun bat bidali zion Zapaterori, biolentziaren amaiera elkarrizketatua lortzeko

²⁴³ 1996an Alfredo Pérez Esquivel Nobel saridunak ETaren enkargua jaso zuen Espainiako Gobernuarekiko elkarrizketak berrabiarazten saiatzeko (El País, 1996; in Esser & Bridges, 2011: 64).

²⁴⁴ Ikusi Anoetako proposamenaren dokumentua: <https://e00-elmundo.uecdn.es/documentos/2004/11/14/batasuna.pdf> [Kontsulta: 2020-4-6].

ahaleginetan sartzeko eskatuz. Zapaterok biharamunean erantzun zuen, Donostiako Kursaalaren egindako ekitaldi batean, elkarrizketarako prest zegoela, "beharrezko baldintzak emanaz gero" (Ibid). Urte horretako maiatzaren 17an Espainiako Kongresuak ETArekiko elkarrizketak ahalbidetzen zituen mozio bat onartu zuen (El Mundo, 2005). Mozio hura, Ajuria Eneako Itunaren 10. puntuan oinarritzen zen, zeinak aukera ematen baitzion Gobernuari ETArekin elkarrizketak hasteko, erakundeak biolentzia uzteko borondatea argi eta garbi erakutsiz gero (Eguiguren & Aizpeolea, 2011; in Sordo, 2017: 272). Abenduan, *Bihar, Euskal Herria* elkarrizketa-liburuaren aurkezpenean, 2001etik aurrera Ezker Abertzaleko eta PSEko ordezkarien artean *Txillarre* baserrian izandako topaketen berri eman zuen Arnaldo Otegi; ordurako, komunikabide batzuetan topaketa haien inguruan ari ziren hizketan (Murua, 2010: 33). *Txillarre*ko topaketetan, beste gauza batzuen artean, Eguigurenek eta Otegi negoziazio-prozesua bi mahai paralelotan planteatzearen beharra azpimarratu zuten; *mahai teknikoa* eta *mahai politikoa*. Lehena ETAk eta Espainiako Gobernuak osatuko zuten, eta gatazkaren ondorio zuzenak (presoak, armak, biktimak...) jorratuko ziren bertan. Bigarrenean gai politikoetan sakonduko zen, eta euskal alderdi politikoek osatuko zuten (El País 2007a). Bi mahaietako planteamendu hura bateragarria zen, alde batetik, Zapateroren adierazpenarekin eta baita Ezker Abertzaleak 2004an publiko egindako *Anoetako proposamenarekin* ere. Hortaz, elkarrizketarako "sukalde-lana" bideratuta zegoela zirudien.

Izan ere, *Txillarre*ko topaketak publiko egin zirenerako, ETAren zein Espainiako Gobernuaren ordezkarien arteko lehen elkarrizketak burutuak ziren. Lehen elkarrizketak Genevan egin ziren 2005eko ekainaren 25etik uztailearen 14ra bitartean. Elkarrizketa horietan, Henri Dunant Zentroaren bitartekaritzapean, Jesus Eguiguren²⁴⁵ ETAren ordezkaritza batekin batu zen (Sordo, 2017:273).

²⁴⁵ Zapateroren Gobernuaren eta ETAren arteko negoziazio prozesuaren inguruko Eguigurenen bertsioa jasotzen da *Las claves de la paz: confesiones del negociador* (Eguiguren & Aizpeolea, 2011)

Lehenengo bilera haietan negoziazio prozesurako oinarrien akordio bat edo bide orri bat hitzartu zen, jorratu beharreko urratsak hitzartu zirelarik:

“1) Bide orriari buruzko akordioa; 2) Bide orria berrestea; 3) Su-etena eta Gobernuaren adierazpena; 4) Bilerak "mahai teknikoa"; 5) Bilerak "mahai politikoa"; 6) Akordioak onartzea; 7) Akordioak inplementatzea” (Eguiguren & Aizpeolea, 2011; in Romero, 2013: 42).

Uztailaren 14an eginiko bileran lehen akordio batera iritsi zen; ETAK su-eten iraunkorra iragarriko zuela adostu zen eta bere aldetik, Gobernuak adierazpen instituzional batekin erantzungo zion ETAREN erabakiari, erakundearekiko elkarrizketa prozesu ofizial bat irekiko zuela eta euskal herritarrek askatasunez harturiko erabakiak errespetatuko zituela aipatuz/adieraziz (Sordo, 2017: 273).

Elkarrizketen bigarren txanda 2005eko azaroaren 3tik 12ra egin zen Oslon. Orduan sortu ziren prozesuaren definizioari eta helburuei buruzko lehen desadostasunak. Gobernuaren iritziz, 2005eko maiatzaren 17an Espainiako Kongresuan onartutako mozioan ezarritakoaren arabera elkarrizketak izango ziren, hots, biolentziarik gabeko egoera batean ETAREN behin betiko amaiera elkarrizketatua bultzatuko zuten. ETAK, aldiz, gatazkak eragindako auzi politiko eta tekniko guztiak konpontzeko tresna gisa planteatzen zituen negoziazioak. ETAK prozesuari eman nahi zion izaera horren ondorioz, Alfredo Perez Rubalcabak, orduan PSOEek Espainiako Kongresuan zuen bozeramailea izanik eta hilabete batzuk geroago Espainiako barne ministroa izango zenak, elkarrizketak bertan behera uzteko eskatu zion Eguigureni (Romero, 2013:42).

Hala ere, azkenik bi aldeek uztailean adostutako bide-orria berretsi zuten akordio baten bidez. Henri Dunant zentroak jaso zuen akordioaren akta. 2007an argitaratutako 112. *Zutabe*an, ETAK akordioaren nondik norakoak aditzera eman

liburuan eta Angel Amigok zuzendutako *Memorias de un conspirador* dokumentalean: <https://www.eitb.tv/es/video/memorias-de-un-conspirador-memorias-de-un-conspirador/2545/50693/memorias-de-un-conspirador-memorias-de-un-conspirador/> [Kontsulta: 2020-4-10]. Negociazio prozesuari buruzko ETAREN bertsioa 112. *Zutabe*an aurki daiteke.

zituen. Bere aldetik, Eguigurenek ere akordio horren inguruko detaileak azaldu zituen 2011n argitaratutako liburu batean. Hurrengo taulan sintetizatu ditugu adostu ei ziren puntu nagusiak, aipaturiko bi iturrien arabera:

<u>Konpromiso politikoak</u>	<u>Aldebiko su-eten konpromisoak</u>	<u>Bestelako konpromisoak</u>
- Espainiako Gobernuak euskal herritarrek beren etorkizunari buruz erabakiko zutena errespetatzeko konpromisoa hartzen zuen.	- Espainiako Gobernuak presentzia poliziala mugatzeko eta jarduera politikoaren aurkako presio poliziala desagerrarazteko konpromisoa hartzen zuen	- <u>Istripuak</u> : unean uneko urraketak mahaian eztabaidatuko dira, aurrera jarraitzeko borondatearekin
- Espainiako Gobernuak Euskal Herriaren existentzia onartzen zuen, errealitate linguistiko, historiko, kultural eta sozio-politiko bezala.	- Espainiako Gobernuak esker abertzalearen antolakundeen jarduera "de facto" errespetatzeko konpromisoa hartzen zuen, beste indar politikoekiko aukera berdintasunean eta inolako eskubide zibil eta politikoren urraketarik gabe.	- <u>Hausturari buruzko irizpideak</u> : alde bakoitza bestearekin eta bitartekariekin bilduko da hautsi aurretik. Ez da dokumenturik argitaratuko prozesuan zehar.
- Akordioak Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa barnebiltzen zituen.	- Espainiako Gobernuak Guardia Zibila, Espainiako Polizia, Ertzaintza eta Frantziako Poliziaren aldetik inolako atxiloketarik ez burutzeko konpromisoa hartzen zuen.	- <u>Ofizialtasuna</u> negoziazioek ordezkartza ofizialak izango dituzte. Alde bakoitzeko bi lagun bakarrik egongo dira mahaian
- Euskal Herriaren etorkizunari buruzko akordioa euskal alderdi politiko, eragile sindikal eta ekonomikoen artean adostuko zela zehazten zen.	- ETAk, ekintza armatuen su-eten iraunkorra mantentzeko konpromisoa hartzen zuen.	- <u>Filtrazioak</u> negoziazioei buruzko filtrazio oro mahaian eztabaidatu eta konponduko da
- Espainiako Gobernuak euskal eragileek adosten zutena errespetatzeko konpromisoa adierazten zuen.	- ETAk, pertsona eta eraikinen aurkako ekintzarik ez burutzeko konpromisoa hartzen zuen.	- <u>Ordezkaritzen segurtasuna</u> : bitartekarien esku geratzen da, eta gobernu eskudunak egiten dira erantzule
- Espainiako legalitatea inoiz ez zen euskal herritarren borondatearentzat muga izango.	- ETAk, arma eta lehegailuen horniketa ekintzarik ez burutzeko konpromisoa hartzen zuen.	
Espainiako Gobernuak akordioaren edukiaren inguruan Estatu Ituna lortzeko konpromisoa hartzen zuen.		

Iturria: ETA, 2007d eta Eguiguren & Aizpeolea, 2011; in Romero, 2013: 43.

Hitzartutakoaren arabera, ETAk su-etena iragarriko zuen 2006 urtea hasi aurretik (Murua, 2010: 29). Hala ere, ETAk aurrerago adierazi zuen akordioaren mamia 2005eko abenduan hitzartu bazuten ere, 2006ko otsailera arte ez zutela behin betiko bertsoia zehaztu (Ibid: 30). Osloko bileretan ere berme batzuk adostu zituzten elkarrizketa prozesua hautsi ez zedin: batetik, ETAk su-etena mantentzea, eta, bestetik, Estatuko Segurtasun Indarren aldetik ETako edo Ezker Abertzaleko kideen atxiloketarik ez gertatzea, besteak beste (Sordo, 2017: 275). Halaber, erabili beharreko terminologiaren inguruan hainbat eztabaida izan ondoren, azkenean ETAk "su-eten iraunkorra" iragarriko zuen komunikatua ez

ezik, erakundearen iragarpenaren ondorioz Zapaterok egingo zuen adierazpenaren testua ere adostu zituzten (Ibid: 275-276). Abenduaren 31n beste bilera bat egin zuten epeak eta bestelako detaileak zehazteko. Ordutik aurrera prozesua beste fase batean sartu zen, ETAREN su-etenarenean, alegia.

III.4.4.4.2 Su-etenaren iragarpenetik Barajasera Loiolatik pasatuz. Gaizki hasten dena, gaizki amaitu ohi da.

Oslon hitzartutakoa mantenduz, ETAK su-eten iraunkorra iragarri zuen 2006ko martxoaren 22an zabalduko bideo baten bidez²⁴⁶. Ekainaren 29an José Luis Rodríguez Zapaterok adierazpen instituzionala egin zuen. Adierazpen horretan, Espainiako presidentek ETAREKIKO elkarrizketei ekingo ziela adierazi zuen, argi utziz kontu politikoaren inguruko eztabaidak alderdi politikoei zegozkiela, eta “alderdien legeak” indarrean jarraituko zuela:

“Precisamente, al amparo de la resolución adoptada por el Congreso de los Diputados en mayo de 2005, quiero anunciarles que el Gobierno va a iniciar un diálogo con ETA manteniendo el principio irrenunciable de que las cuestiones políticas sólo se resuelven con los representantes legítimos de la voluntad popular” (Rodríguez Zapateroren adierazpena (2006-6-29)²⁴⁷.

Ondorengo bileretan, ETAK kritikatu²⁴⁸ zuen Zapaterok irakurritako adierazpenaren edukia ez zela Oslon adostutakoa, Espainiako presidentek Espainiako konstituzioa ezartzen baitzuen negoziazio prozesuaren muga gisa, eta aurretik bi aldeek adostu zituzten beste gai batzuk aipatzen ez ei zituelako (Gara, 2007a). Eguigurenen ustez, aldiz, Zapaterok bete zuen Oslon hitzartutakoa; izan ere, Eguigurenek esandakoaren arabera, hitzartutako

²⁴⁶ Ikusi bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=2KeXxy5frs4> [Kontsulta: 2020-4-3].

²⁴⁷ Ikusi adierazpena: <https://www.elmundo.es/elmundo/2006/06/29/espana/1151589418.html> [Kontsulta: 2022-3-1].

²⁴⁸ Hala ere, Batasunak begi onez hartu zuen Zapateroren adierazpena, hura “positiboa eta sakonera politiko handikoa” zela argudiatuta. Ikusi albistea; <https://www.berria.eus/albistek/15350/batasunak-zapateroren-adierazpena-positiboa-eta-sakonera-politiko-handikoa-dela-iritzi-dio.htm> [Kontsulta: 2020-4-6].

pasarteez gain, alde bakoitzak pasarte gehiago gehitu ahal zizkion adierazpenari (Murua, 2010: 51).

III.4.4.4.3 Etengabeko “istripuak”. Konfiantza ahulduz doa.

Edonola ere, hori ez zen prozesuak bizi izan zuen lehen bihurgunea. Izan ere, su-etenaren iragarpena eta astebetara, Arnaldo Otegi eta Ezker Abertzaleko beste bi kidek Auzitegi Nazionalean deklaratu behar izan zuten Fernando Grande Marlaska epailearen aurrean, hogei egun lehenago deitutako greba²⁴⁹ egunean izandako istiluengatik. Behin-behineko espetxealdia agindu zitzaizen hiruei, fidantzapean saihesteko aukerarekin. Aurrekoaz gain, Grande Marlaskak, urtarrilean Batasunaren jardueren etenaldiaren luzapena erabaki zuenak, debekatu egin zuen alderdi abertzaleak apirilaren 5erako Donostiako Kursaalaren antolaturiko ekitaldi politiko bat (ik. El Correo, 2006). Marlaskak ere maiatzean deklaratzera deitu zituen Otegi eta Batasunako beste sei kide, alderdiaren Mahai Nazional berriaren eraketaz galdetzeko. Aurreko hilabetean, Auzitegi Nazionalek 15 hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zion Otegi, 2003an *Argalari* egindako omenaldi batean parte hartzeagatik. Halaber, Batasunak ekainean Iruñean emango zuen prentsaurreko bat debekatu zuen Auzitegi Nazionaleko epaileak, eta egun batzuk geroago Marlaskak²⁵⁰ berak ere zuzendu zuen ETaren ustezko finantzaketa-sarearen aurkako operazio judiziala, hainbat pertsona atxilotuak izan zirelarik. Bestalde, apirilaren 18an Guardia Zibilak gizon bat atxilotu zuen Bizkaian, ETari diruz laguntzeko bonuak eramateagatik. Atxilotuak torturak salatu zituen epailearen aurrean, baina azken honek

²⁴⁹ Martxoaren 10ean greba orokorra deitu zen Euskal Herrian, Igor Angulo eta Roberto Saiz euskal presoen heriotzak salatzeko. Ikusi albistea: <https://gara.naiz.eus/idatzia/20060310/art154978.php> [Kontsulta: 2020-5-2].

²⁵⁰ Eguigurenen ustetan, Grande Marlaska izan zen prozesuaren blokeorako faktore nagusietako bat (Escrivá, 2006; in Sordo, 2017: 291).

fidantzarik gabeko espetxealdia ezarri zion²⁵¹. Horren ondorioz, aseguru-etxe baten aurkako *kale borrokako* eraso bat gertatu zen Getxon (Bizkaia)²⁵². Hala ere, hori ez zen izan su-etenaren iragarpenetik gertatutako lehen kale borrokako ekintza. Izan ere, Getxokoa baino egun bat lehenago, Barañaingo (Nafarroa) UPN-ko zinegotzi baten negoziua erre egin zen kale eraso baten ondorioz. Ezker Abertzaleak aipaturiko kale erasoak kritikatu zituen, "oso larriak" zirela argudiatuz (ik. El País, 2006).

III.4.4.4 Akordiorik ez mahai teknikoan.

Gauzak horrela, negoziazio prozesuaren bigarren fasearen (su-etenaren aldarrikapenaren ondorengo fasea) hasierarekin batera, Oslon aurreikusi ziren hainbat "istripu" gertatu ziren, prozesuaren beraren garapena arriskuan jar zezaketenak. ETAk arrisku-egoera hori plazaratu zion Espainiako Gobernuari ekainaren²⁵³ 22an eta 23an Genevan eta Lausanan egin ziren bileretan. Bilera horietan adostutako bide orriarekin jarraitu beharrean, Osloko akordioak ez betetzeagatik elkar kritikatzeko aritu ziren bi aldeak. ETAk Gobernuari aurpegiratu zizkion azken hilabeteetan egindako atxiloketak, Batasuna legeztatu ez izana eta prozesua blindatzeko PPrekin Estatu-itunik lortu ez izana. Halaber, erakundeak elkarrizketetako ordezkariak atxilotuak izango ez zirela ziurtatu nahi zuen (Sordo, 2017: 290). Era berean, ETAk mahai politikoa lehenbailehen martxan jarri nahi zuen, aldeaz aurretik mahai teknikoan inolako akordiorik lortu

²⁵¹ Ikusi albistea: <http://barcelona.indymedia.org/newswire/display/253115/index.php> [Kontsulta: 2020-4-4].

²⁵² Ikusi albistea: https://www.diariovasco.com/pg060424/prensa/noticias/Politica/200604/24/DVA-POL-022_amp.html [Kontsulta: 2020-4-4].

²⁵³ Ekainaren 18an Kataluniako Parlamentuak eta Espainiako Gorteek aldeaz aurretik onartutako Autonomia Estatutua onartzeko erreferenduma egin zen Katalunian, hura onartua izan zelarik. 2010ean, baina, horren edukiaren zati garrantzitsu bat baliogabetu egin zuen Konstituzio Auzitegiak, Kataluniako prozesu independentistaren enbrioia izan zen erantzun sozial handia sortuz.

beharrrik gabe, eta hala adierazi zion Gobernuari²⁵⁴, (Eguiguren & Aizpeolea, 201; in Sordo, 2017:290). Bere aldetik, Gobernuak ETari aurpegiratu zion *kale borrokaren* jarraipena eta enpresariei gutunak bidaltzea "zerga iraultzailea" ordaintzeko eskatuz (Ibid). Gauzak horrela, Lausanan egindako topaketak ia ez ziren gaitzespenen truketik haratago joan, aurreko kontaktuetan sortutako konfiantza-giroa ahulduz (Romero, 2013:43). Bilera haietan agerian geratu zen prozesuak hasieratik izan zuen arazoetako bat, neurri handi batean behintzat prozesuaren beraren amaiera ekarri(ko) zuena: Gobernuak mahai teknikoari lehentasuna eman nahi zion, mahai politikoaren aurrean; hortaz, mahai teknikoan ETaren borroka armatuaren behin betiko amaiera hitzartu osterako atzeratu egin nahi zituen Gobernuak mahai politikoan lor zitezkeen akordioak (Sánchez-Cuenca, 2009). ETarentzat, aldiz, *sine qua non* baldintza zen mahai politikoan akordioak lortzea mahai teknikoan aurrerapausoak egin ahal izateko. ETaren iritiz, Espainiako Gobernuak mami politikorik gabeko prozesu tekniko huts bat bilatzen ari zen (Murua, 2010: 56).

Gauzak horrela, abuztuan publiko egindako agiri batean, ETak gogor kritikatu zuen prozesuarekiko PSOEko Gobernuaren jarrera eta su-etena mantentzen zuela esan arren, Estatuaren errepresioak jarraituz gero ETAK erantzungo zuela adierazi zuen

"PSOEek, bere Estatu eredu propioa garatu eta Gobernuaren agintaritzan irauteko bitarteko soilean bilakatu nahi du prozesua (...) Errepresio egoera horren mantentzea batera ezina da gatazkaren konponketarako negoziazio prozesu baten garapenarekin. Ohartarazi nahi dugu, Euskal Herriaren aurkako eraso horiek jarraitzen badute, ETak erantzun egingo duela. ETak martxoaren 22ko

²⁵⁴ Bilera haietako akten laburpen polizial baten arabera (2019an, Auzitegi Nazionalak kasuaren sumario-sekretua kendu ondoren, publiko egin zirenak) ETak Gobernuari jakinarazi zion elkarrizketak gelditu egingo zirela bermeak bete arte, eta Gobernuak erantzun zion bermeak bi aldeek bete behar zituztela. Halaber, Gobernuak ziurtatu zuen lanean ari zirela Batasuna iraila-urrirako legezkoa izan zedin, eta konpromisoa hartu zuen atxiloketa gehiago ez egiteko, baina gogorarazi zion ez zituela epaileak kontrolatzen (ikusi akten laburpen poliziala: http://www.arcadiespada.es/wp-content/uploads/2011/03/20110329elpepunac_1_Pes_PDF.pdf [Kontsulta: 2020-4-4]. Hemendik aurrera, dokumentu horri erreferentzia eginez gero, "aktak" aipatuko dugu, nahiz eta akta ofizialak ez izan. Izan ere, dokumentuan bertan aipatzen da 2007an egin ziren bileretako akta bakarra jaso zutela bitartekariak, banku batean gorde omen zutena.

Adierazpenean adierazitako helburuak berresten ditu. Norabide horretan hartu behar dira konpromiso eta erabaki argiak". (ETA, 2006b).

Irailetik urrira bitartean burutu zen elkarrizketen bigarren txanda. Hala ere, aurrekoetan gertatu bezala, Oslon hitzartutako bide orria garatu beharrean, hitzartutakoa bete ez izana elkarri leporatu zioten (Murua, 2010: 58). Eguigurenek geroago aitortu zuen bezala, Oslon adostu zen su-etena iragarri ostean Gobernuaren eta ETAREN arteko lehen bileran hitz egin beharrekoa, hala nola, desmilitarizazioa eta presoak, baina lehen bilera hura, planteatu zen bezala, ez zen inoiz egin (Ibid). Urriko bileran Gobernuak atxiloketa berririk ez egiteko konpromisoa hartu zuen ETAK armen hornidurari uko egitearen baldintzapean. Halaber, espetxe politika malgutzea proposatu zuen, euskal presoen sakabanaketarekin amaitzeko behin-behineko eta pixkanakako neurrien aplikazioaren bidez²⁵⁵. ETAK, aldiz, mahai politikoaren akordioetan jarria zuen begirada, eta akordio teknikoak akordio politikoaren menpe jarri zituen.

Mahai politikoari dagokionez, Gobernuak nahi zuen Batasunak Alderdien Legea onartzea mahai politikoan parte har zezan, baina Batasunak ez zuen proposamen hori onartu. Hala ere, jakinda Ezker Abertzalearen parte-hartzerik gabe prozesua ez zela abiatuko, PSEko ordezkariak Batasunako ordezkariekin bildu ziren modu ofizial eta publikoan uztailaren 7an Donostian. Bileran ez zen gai handirik landu; PSEk legalitatera bueltatzeko urratsak eman zitzala eskatu zion Batasunari, eta azken honek mahai politikoa lehenbailehen martxan jartzeko premia gogorarazi zien PSEko ordezkariari (ik. El Mundo, 2006). Mahai politikoa martxan jartzeko, baina, aurreakordio bat behar zen alderdien artean, eta 2006ko udarako hura ez zen existitzen. Ezker Abertzalearen aldetik etengabeak ziren prozesuak bizi zuen krisi egoerari buruzko aipamenak. ETAK ere egoera horretaz ohartarazi zuen abuztuan zabalduko agiria batean (ETA, 2006b).

255

Ikusi

http://www.arcadiespada.es/wp-content/uploads/2011/03/20110329elpepunac_1_Pes_PDF.pdf [Kontsulta: 2020-4-10].

III.4.4.4.5 Loiolako elkarrizketak.

Egoera horretan, Oslon adostutako bide-orriaren arabeko mahai politikoa sortzea ezinezkoa zela ikusita, aurre-akordio bat lortzeko asmoz, eztabaida politikoetan parte-hartze zuzena izatea eskatu zitzaion EAJri. Uztailaren 26an, EAJren eta PSEren arteko bilera batean, bi alderdiek udazkenerako mahai politikoa eratzea posible ikusi zuten. Bi egun geroago Batasunak hausnarketa bera egin zuen EAJrekin izandako beste bilera batean (Gara, 2007d: 12). Abuztuaren 31n Batasunak eta PSEk eginiko bilera batean egutegi bat proposatu zen: irailaren 10etik 20ra bitarte hiru alderdien arteko bilera intentsiboak egingo ziren, oinarritzko akordioa lortzea helburu. Akordioa irailaren 31 baino lehen berretsi beharko zuten hiru alderdiek, mahai politikoa azarorako eratzeko (Murua, 2010: 65). EAJk, errezeloz, baina hiru alderdien arteko mahaiian parte-hartzea onartu zuen. Izan ere, Josu Jon Imaz, garai hartan EBBko burua zena, Espainiako Gobernuak prozesuarekiko zuen logikaren aldekoa zen, hau da, lehenik ETaren borroka armatuaren amaiera eta gero kontu politikoak, edo, beste era batera esanda, lehenengo mahai tekniko eta gero mahai politikoa (Sánchez-Cuenca, 2009; Murua, 2010: 63).

Gauzak horrela, 2006ko iraila eta azaroa bitartean EAJ, PSE eta Batasunako ordezkariak Loiolako basilikan bildu ziren akordio politiko erabakitzailea lortzeko asmoz. Guztira, hamabi bilera egin zituzten alderdi politikoek. Bilera haietako lehena irailaren 2an egin zuten. Bertan, oinarritzko puntu batzuk hitzartzeaz gain, hala nola, akta komunak beharrezan alde bakoitzak bere aktak jasoko zituela, hirurek azaldu zuten elkarrizketa haietatik lortzea espero zutena. Hitz egin beharrekoari buruz, aurreko hilabeteetan Batasunak prestatutako eta PSEk eta EAJk emendakinak eginiko gidoi antzeko bat hartu zen oinarri gisa, horrela zehaztu zena:

1. *Etorkizuneko akordiorako oinarri politikoak.*

- 1.1 *Euskal Herriaren (Pueblo Vasco, gaztelerazko jatorrizkoan) izaerari eta nortasun nazionalari buruz.*
 - 1.2 *Euskal herritarrei etorkizun politiko eta instituzionalari buruz modu libre eta demokratikoan erabakiak hartzea ahalbidetuko dieten mekanismoei buruz.*
 - 1.3 *Euskal herritar guztientzako eskubide guztien bermeari eta errespetuari buruz.*
 - 1.4 *Euskal Herriaren egituratze instituzionalari buruz.*
 - 1.5 *Akordioak esparru juridikoan txertatzeari eta herri berrespenari buruz.*
 2. *Alde askotako elkarrizketaren prozesu demokratikorako eskema orokorra.*
 3. *Akordio-markoaren kudeaketarako protokoloa.*
- (Eranskina) Bake, elkarrizketa eta akordiorako konferentziaren *adierazpena* (Murua, 2010: 79).

Irailaren 20an eta 21ean egin ziren hurrengo bilerak. Bilera emankorrak izan ziren, hitzartu beharreko gaiak eta puntuak zehaztu baitziren, eta lehen akordio-zirriborroa eztabaidatu zutelako (Ibid: 80). Laster, baina, bileren inguruko filtrazioak agertu ziren. Berez, negoziazio-prozesua deskorapilatzeke asmoz sekretupean eramango ziren hiru alderdien arteko topaketen berri eman zuen *El Correo* egunkariak irailaren 22an, Elizondo herrian egiten ari zirelakoan²⁵⁶. Alderdietako ordezkariak filtratutako informazioa ezeztatu zuten, eta bilerak ez ziren eten egin. Irailaren 23an egin zen hirugarren bilera. Bertan aurrerapauso handirik ez zen eman, baina egun horretako gertakari esanguratsuena ez zen Loiolan gertatu, Aritxulegin baizik. Egundorretan, *Gudari Eguna* ospatzeko, agerraldi publikoa egin zuten ETako ustezko hiru kidek ehunka pertsonen aurrean. Agiri bat irakurri ostean, zeinetan “*Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa lortu arte armak eskutan borrokan tinko jarraitzeko konpromisoa*” berretsi baitzuten, kaputxadunek zazpi salba jaurti zituzten airera, ETaren historian halako propaganda ekimena egin zen aldi bakarra izanik.

Aritxulegiko gertakariak urduritasuna ekarri zuen Loiolako mahaira, baina elkarrizketek jarraitu zuten, sekretupean. Elkarrizketak sekretupean gordetzea ez zen edonolako erabakia izan. Hain zuzen ere, urrian, Loiolako bilerak egiten

²⁵⁶ Eguigurenek eta Otegiak uste dute segurtasun indarrek orduan Batasunako kideei egiten zizkien telefono-entzuketan ondorioz atera zela filtrazioa. Ziur asko, haietakoren batek “eliza ondoan” aipatuko zuen telefonoaren bidez, eta entzuketan transkribatzaileek Elizondo herriari buruz ari zela ulertu zuten (Murua, 2010: 84-85).

ari zirelarik, Espainiako Auzitegi Nazionalak instrukzioa zabaldu zuen Juan José Ibarretxe Lehendakariaren kontra ez ezik, PSEko Patxi Lópezen eta Rodolfo Aresen aurka ere, Batasunako hainbat kiderekin bildu izanagatik. Bestalde, urriaren 25ean, Europako Parlamentuak, talde popularraren oposizioarekin, negoziazio-prozesua babesten zuen ebazpen bat onartu zuen²⁵⁷. Egun bat lehenago, ETAko komando batek 350 pistola inguru lapurtu zituen Vauverteko (Frantzia) arma-enpresa batean.

Prozesua amildegiaren ertzean zegoela zirudien, eta alderdi politikoen arteko akordioa ezinbestekoa zen berriro bideratzeko. Akordio hura *Bases para el diálogo y el acuerdo político*²⁵⁸ zirriborro-dokumentuan islatu zuten hiru aldeek urriaren 31n egindako bileran (Egaña, 2017: 118-119). Bost gai nagusitan banatu zen akordioa: nazio izaera, erabakitzeko eskubidea, aitortu beharreko beste eskubideak, lurraldetasuna eta akordioa gauzatzeko prozedura (Murua, 2010: 97). Dokumentuan Euskal Herriaren nazio izaera aitortzeaz gain, unean uneko bide legalak jarraituz edozein proiektu politiko gauzatzeko aukera bermatzeko konpromisoa hartzen zuten hiru alderdiek, betiere euskal jendartearen borondate politikoaren menpe egonda (Ibid: 252-253). Halaber, EA Eren eta NFKren arteko organo politiko-administratibo berri bat eta euro-erregio propio bat sortzearen aldeko konpromisoa hartu zuten hirurek. Horretarako bake konferentzia bat antolatuko zen, alderdien mahai politikoa eratzeko deia egingo zuena. Ondoren, mahai politikoak adostutako akordio zabalago batean oinarrituz, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako organo instituzional berria sortzearen inguruko erreferenduma antolatuko zen. Prozesu hura 2007-2008 urteetan zehar gauzatzeko asmoa zegoen (Ibid: 255-258). Hiru ordezkariak

²⁵⁷ Ikusi ebazpen horren nondik norakoak: <https://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+CRE+20061025+ITEMS+DOC+XML+V0//ES&language=ES> [Kontsulta: 2020-4-26].

²⁵⁸ Ikusi dokumentua in Murua, 2010: 251-260).

norbere alderdiarekin berresteko enkargua hartu zuten, akordioa behin-betikoa izan zedin.

Hurrengo bilera azaroaren 8an egin zen, baina akordioa ez zen berretsi. Bai Batasunak eta baita PSEk ere emendakin batzuk gehitu zizkioten adostutako testuari, akordioaren behin-betiko berrespenarekin bateraezinak zirenak²⁵⁹. Batasunak proiektu politiko guztiak, independentzia barne, gauzagarriak izango zirela jaso nahi zuen adierazita akordioan. Era berean, Batasunak sortzeke zegoen lau herrialdeetako organo instituzionalaren esku utzi nahi zituen autonomia estatutu berri bat eratzeko ardura ez ezik, Euskal Herriaren etorkizun politikoa eta administratiboa erabakitzeko ardura (Ibid: 261-262). PSEk, bere aldetik, edozein erabakik edo proiektu politikok ordenamendu juridikoaren arauak eta prozedurak bete egin beharko zituela argi utzi nahi zuen akordioan. Halaber, PSEk proiektu politiko guztien bideragarritasunaren inguruko paragrafoa akordiotik kentzea proposatu zuen. Agerikoa denez, bi proposamen berrien arteko diferentziek akordioa lurperatu zuten. Azaroaren 10ean eta 15ean beste bi bilera egin ziren. EAJk proposamen batzuk jarri zituen mahai gainean Batasunak eta PSEk aurkeztutako bi testuaren arteko erdibidea lortzeko asmoz. Erdibideko puntu hartara heltzea, baina, ez zen posible izan, eta hiru alderdiek akordiorik gabe utzi zituzten Loiolako elkarrizketak.

III.4.4.4.6 Blokeotik eztanda.

Loiolako elkarrizketak blokeatuta, mahai teknikoa bildu zen abenduaren 12tik 15era Oslo inguruko herri batean. Bitartekaritza lanetan *Henri Dunant* Zentroko

²⁵⁹ Hasieran, Espainiako Gobernuaren onespena lortuta, urriaren 31n adostutako testua berretsiko zuen PSEk, baina Batasunak aldaketak eramango zituela jakin eta gero, haiek ere aldaketak planteatuko zituztela erabaki zuten. Hala ere, Eguigurenen ustez, Madrilgo PSOEn onespena lortu zuten, berez, Madrilen akordioaren implementazioak ekarriko zituen ondorioez kontziente ez zirelako, besteak beste, herri galdeketarena (Murua, 2010: 141-142).

kideak eta Norvegiako Gobernuko ordezkari bat egon ziren (Sordo, 2017: 304). Bilera haiek urrian hitz egindakoaren jarraipena izan ziren, baina tentsioa areagotuta zegoen ordurako. Batasunaren legeztatzeari begira, Gobernuak Alderdien Legearen berrikuspena egin eta espetxe politika arindu ahal izateko Espainiako Parlamentuaren gaikuntza eskatzea proposatu zuen (Ibid: 305). ETArekin aldetik, berriz, alderdien mahaian akordioa lortzearen menpe jarri zen Batasunaren balizko legeztatzea, eta, inondik inora, Alderdien Legearen barnean. Konkretuki, Loiolan Hego Euskal Herrirako proposatu zen organo instituzional berria sortzeko bideari ekin nahi zion ETAk. Azken bilera abenduaren 15ean egin zen. Aurrekoetan bezala, ez zen blokeoa askatzeko aurrerapausorik eman. Ordurako prozesuaren apurketa hipotesi nahiko probablea zen arren, azkenean hurrengo bilera 2007ko urtarrilean egitea adostu zen. Baina 2007ko urtarrileko bilera hura ez zen egin.

Negoiazio-prozesuaren egoera larria bistakoa izan zen prozesuaren hasieratik bertatik, baina azken bileretan izandako giroak alarma guztiak piztu zituen. Hala ere, Espainiako Gobernuak prozesua birbideratzeko esperantza ez omen zuen galduta 2006ko abenduaren amaieran. Izan ere, hilaren 29an emandako prentsaurreko batean, Zapaterok berak adierazi zuen: “duela urtebete baino hobeto gaude, eta urtebete barru orain baino hobeto egongo gara”. Errealitatetik oso urrun. Izan ere, hurrengo egunean ETako komando batek bomba-furgoneta bat leherrarazi zuen Madrilgo aireportuko T-4-ko aparkalekuan. Nahiz eta ETak lehergailuaren kokapenaz abisua eman hura lehertu baino ordubete lehenago, leherketak kalte material erraldoiak eragiteaz gain, Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacio Ekuadorreko herritarrak hil zituen, bonbak eztanda egin zuen aparkalekuan lo egiten ari zirela. Erreakzioak berehalakoak izan ziren; abenduaren 30ean bertan Zapaterok “ETArekiko elkarrizketa ekimenen etena” iragarri zuen. Aizpeolearen arabera, Zapaterok “etena” terminoa erabili zuen eta

ez “haustura” argi uzteko ETA zela su-etena, eta, hortaz, negoziazio prozesua apurtzen zuena (ik. El País, 2007b).

III.4.4.4.7 Barajasetik Suitzara. Akordio negoziatu baterako azken aukera.

Jordi Évole kazetariari 2016an egindako elkarrizketa²⁶⁰ batean, Otegik ziurtatu zion abenduaren 29an bertan Jesus Eguigurenekin bildu zela Txillarre baserrian. Bilera horretan, PSEko buruak T-4ko leherketaren ostean prozesua berriro abiatzerik izango zenik ez zuela uste esan zion Otegi. Hala ere, prozesuarekin jarraitu ahal izateko Batasunak elkarrizketaren bidea ez ixteko moduko adierazpenen bat egin behar zuela gehitu zuen²⁶¹. Otegik, orduan, Batasunako beste kide batzuekin batera, prentsaurreko bat eman zuen, ETari su-etinari eusteko eskatuz. ETak 2007ko urtarrilaren hasieran igorritako agiri batean erantzun zuen 2006ko martxoan agindutako su-etinari eusten ziola. Era berean, T-4ko atentatuarekin bere asmoa ez zela hildakoak eragitea esaten zuen. Bestalde, Oslon adostutako puntuak ez betetzea eta Espainiako Konstituzioa negoziazioen tope politiko gisa jartzea leporatzen zion Gobernuari. Era berean, ETak EAJ kritikatzeko zuen, PSOEek prozesuan hartu zuen jarrera bera hartu izana leporatuta, eta PSOERI Estatuaren bigarren erreforma abian jartzea exijitzen zion:

“Espainiako Konstituzioaren eta legalitatearen mugak jarri dituzte prozesuaren tope bezala. Espainiako Gobernuak agintariak jakin beharko lukete ezingo dela bake prozesu bat eraiki gatazka eragin duten muga politiko berdinak mantendu (...) Espainiako Gobernuak bere su-etena konpromisoak bete gabe jarraitzen du (...) Bide beretik, Imazean PNVk azken hilabetetan erakutsitako jarrera salatu nahi dugu, ezker abertzalearen aurka Espainiako Gobernuaren ildoak elikatuz aritu baita. PSOE eta PNV prozesuari buruzko ikuspegi eta estrategia berdinean aritu dira, (...) PP-UPN eta Espainiar Estatuko eskuin faxista alboratu eta Espainiar Estatuaren bigarren erreforma egitera ausartu beharko lirake indar demokratikoak (...) PSOEek, gatazkaren oinarrian dagoen mami politikoari heldu behar dio horretarako, berandu baino lehen (...) Ekintza armatu honen helburua biktimarik eragitea ez zela irmoki adierazteaz gain, lehergailuaren kokagune zehatza azalduz hiru

²⁶⁰ Ikusi elkarrizketa osoa: https://www.atresplayer.com/lasexta/programas/salvados/temporada-11/capitulo-18-entrevista-arnaldo-otegi_5ad094dd7ed1a88d4ef8120c/ [Kontsulta: 2022-3-1].

²⁶¹ Ikusi elkarrizketaren zati hori: <https://www.youtube.com/watch?v=IVd3z8PZwpk> [Kontsulta: 2020-4-10].

dei egin ondoren, ordubete luzeko denbora tartean parkingaren aterarazte edo hustea egin ez izana salatu nahi dugu. Honela, gure doluminik sentituenak helarazi nahi dizkiegu ekintza honetan bizia galdu duten Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacioren senide, lagun eta Ekuador herriari (...) Azkenik, ETAk martxoaren 24ko 00:00etan abiatutako ekintza armatuen etenaldi iraunkorra indarrean dagoela adierazi nahi du (ETA, 2007a).

Urtarrilean emandako elkarrizketa batean, Rodríguez Zapaterok ETArekiko elkarrizketa-bideak itxita zeudela berretsi zuen. Kazetariak Irlandako bake prozesua ekarri zion gogora Zapaterori T-4ko bonbaren osteko egoerarekin alderatzeko. Zapaterok erantzun zion momentu horretan ez zegoela inolako espektatibarik ETArekiko elkarrizketa-bideak berriro irekitzeko, eta Irlandako bake prozesutik Tony Blairren esperientziaz ikasi zuela:

“Al día de hoy, no. No, porque el atentado ha sido una opción muy grave. Al día de hoy, no. No hay ninguna expectativa. He de decir que el proceso de Irlanda no se parece en nada. Pero, sobre todo, no se parece en lo político. No se parece en lo político porque allí hubo un apoyo absoluto de los partidos al Gobierno y un ambiente muy distinto. Yo tomé buena nota de las informaciones y de la experiencia de Tony Blair. Una parte me la quedo para mí, para el futuro” (El País, 2007c).

Prozesuarekin jarraitzeko aukerak gutxi izan arren, otsailean ETAk gutun bat helarazi zion Zapaterori, zeinetan erakundeak berresten zuen bere “borondate argia elkarrizketaren, negoziazioaren eta akordioaren bidea suspertzeko” eta “behin betiko bakea” lortzeko, hasitako prozesuarekin jarraitzeko deia egiten ziolarik. Halaber, elkarrizketak abenduan izandako azken bileratik berrabiatzea proposatzen zuen, alderdi politikoen arteko akordio bat bilatzeko beharra azpimarratzen zuelarik (ik. Gara, 2007a; Murua, 2010: 303-305). Ezker Abertzaleak bere aldetik, *Marko Demokratikorako Proposamena*²⁶² aurkeztu zuen martxoaren 3an Iruñean egindako ekitaldi batean. Bertan bi egitura politiko-instituzional berri sortzea proposatzen zen: bat Hego Euskal Herriko lau lurraldeetarako (negoziazio mahaietan aipatutakoa) eta antzeko beste bat Ipar Euskal Herriko lurraldeetarako, biek ala biek erabakitzeko eskubidea izango zutelarik.

²⁶² <http://cspb.s.c.f.unblog.fr/files/2007/05/propositionpouruncadredmocratiquebec.pdf> [Kontsulta: 2020-4-28].

Espainiako Gobernuaren asmoei dagokienez, Angel Amigok zuzendutako dokumentalean²⁶³ Eguigurenek esaten duenaren arabera, T-4ko leherketaren ondoren Gobernuak prozesuarekin ez jarraitzea erabakita zuen, baina Tony Blair eta Gerry Adams bezalako pertsonen gomendioek iritzia aldarazi zioten Zapaterori. Izan ere, Gerry Adams bera izan zen ETaren gutuna Espainiako Presidenteari helarazi omen ziona. Zapaterok, orduan, ETarekiko elkarrizketa berriak irekitzea eta Gerry Adamsen nazioarteko bitartekaritza taldean parte-hartzea baimendu zuen (Ibid: 313).

Lehenengo kontaktuak martxoaren amaieran burutu ziren, Suitzan. Bileretako "akten" arabera, bilera hura PSEren eta Batasunaren arteko beste bilera baten ondoren egin zen, zeinetan PSEk Hego Euskal Herriko lau herrialdeetarako autonomia estatutu bat sortzearen ideia baztertu zuen²⁶⁴. Gobernuak nahi zuen ETak agiri baten bidez argi eta garbi adieraztea ez zuela atentaturik egingo su-etena indarrean zegoen artean. Horren ostean, Ezker Abertzalearen legalizazioa planteatuko zen²⁶⁵ (Gara, 2007a). ETak ez zuen Gobernuaren proposamena onartu "Gobernuaren estrategia elikatzea" izango zela argudiatuta (Murua, 2010: 183). Hain zuzen ere, ETaren ustez Gobernuak birnegoziatu nahi zituen 2005ean adostutako oinarriak, eta erakundea ez zegoen hori egiteko prest (Gara, 2007a). Gauzak horrela, ez zen aurrerapausorik eman eta inongo akordiorik ez zen lortu bilera hartan. Prozesua hiltzeko zorian zegoen, baina, hala ere, bitartekariak lortu zuten bi aldeek "erasorik ez egiteko akordio" ez ofiziala onartzea, eta beste bilera bat egiteko geratu ziren (Ibid).

²⁶³ Ikusi dokumentala: <https://www.eitb.tv/es/video/memorias-de-un-conspirador-memorias-de-un-conspirador/2545/50693/memorias-de-un-conspirador-memorias-de-un-conspirador/> [Kontsulta: 2020-4-28].

²⁶⁴ Ikusi http://www.arcadiespada.es/wp-content/uploads/2011/03/20110329elpepunac_1_Pes_PDF.pdf [Kontsulta: 2020-4-28].

²⁶⁵ Hain zuzen ere, hiru egun lehenago Ezker Abertzaleak *Abertzale Sozialisten Batasuna* alderdia erregistratu zuen maiatzeko hauteskundeetan parte hartu nahian.

Hurrengo kontaktuak burutu aurretik, ETAk elkarrizketa bat eman zuen *Gara* egunkarian. Elkarrizketa horretan, erakundeak prozesuaren inguruko bere hausnarketak batu zituen. Hasteko, prozesuaz ulertzen zuena azaldu zuen, “bake hutsetik” baino haratago zihoana ETAREN ustez:

“Prozesua=bake hutsa, prozesua=ETA desagerraraztea... horrelakoak entzun edo ulertarazi nahi izan dizkigute askok. Oker dabilta ordea. 2006ko martxoan esan genuen moduan (eta ondoren errepikatu), Euskal Herrian marko demokratiko bat eraikitzea eta euskal herritarrei beren etorkizunari buruzko hitza eta erabakia ematea da guretzat prozesua” (ETA, 2007b).

Horrez gain, ETAk 2006ko martxoaren 24ko agirian iragarritako konpromisoak mantentzen zituela adieraztearekin batera, posibletzat hartzen zuen biolentziarik gabeko eszenatoki politiko bat, “Euskal Herriaren kontrako erasoak” desagertuz gero:

“ETAk martxoaren 24ko bere konpromiso guztiak berresten ditu gaur. Are gehiago, Euskal Herriaren aurkako erasoak desagertzen badira, testuinguru horretan prestutasun osoa daukagu biolentziarik gabeko eszenario batekin konpromiso sendoak hartzeko, su-eten egoeraren baitan erantzun puntualetarako aukera indargabetuz ere” (Ibid).

Gobernuaren eta ETAREN arteko hurrengo bilerako²⁶⁶ giroa aurrekoarena baino are nahasiagoa izan zen. Imanol Muruak (2010: 183-184) aipatzen dituen iturri batzuen arabera, leku berean egon arren, bi aldeak ez ziren mahai berean eseri, Gobernuak hala exijitu zuelako. Gela ezberdinetan egon omen ziren, eta *Henri Dunant* Zentroko bitartekariak mezuak elkar trukatu zizkieten (Ibid). ETAk proposamen zehatza helarazi zion Espainiako Gobernuari. Bertan erakundeak ASB alderdiaren legalizazioa ez ezik, Alderdien Legearen derogazioa exijitzen zuen. Horrez gain, euskal alderdi politikoaren arteko akordio bat sustatu nahi zuen ETAk; akordio horren ondorioz, erakundeak Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako organo politiko-administratiboaren sorrera bultzatu nahi zuen. Halaber, erakundeak indarrean zegoen legeriatik abiatzea onartzen zuen, baina aldi berean, argi uzten zuen legeriak ez zuela inola ere muga izan behar euskal gizartearen borondate politikoa garatzeko. Presoen aferari dagokionez, ETAk

²⁶⁶ Sordoren arabera (2017: 313) bilera apirilean egin zen. Muruaren arabera (2010: 190), ordea, maiatzaren hasieran.

preso gaixoak askatzea, *Parot Doktrinaren* derogazioa eta sakabanaketaren amaiera exijitu zuen. Aurrekoa betez gero, erakundeak su-etena mantentzeko eta balizko “erantzun armaturik” ez burutzeko konpromisoa hartzen zuen, akordioak inplementatuz gero, borroka armatua utzi eta bere estruktura militarrek deuseztatuko zituela adierazteaz gain. ETAk 2012rako planteatzen zuen prozesuaren garapenaren amaiera bere proposamenean. (Ik. Gara, 2007b eta Murua, 2010: 303-309).

Gobernuaren ordezkariak ez zuen proposamenaren dokumentua hartu eta bitartekarien esku utzi zuen, argudiatuz Gobernuaren ikuspuntutik prozesua hautsita zegoela eta jasotzeak kontrakoa agerian utz zezakeela (Gara, 2007b). Hala ere, bere proposamena aurkeztu zion erakundeari: ASB²⁶⁷ alderdiaren estatutuak Alderdiaren Legea egokitzea, eta, mahai politikoa eta teknikoa desblokeatzeko, ETAren aldetik atentatu gehiagorik egongo ez zela adieraztea agiri baten bidez, argi utzita akordio orok Espainiako Konstituzioaren muga izango zuela (Sordo, 2017: 317). Agerikoa denez, proposamenak ez ziren bateragarriak, batez ere, bi aldeek Espainiako Konstituzioa eta Alderdien Legea balizko akordioaren erdian jartzen zituztelako; ETAk, garatu beharreko markoak bezala, eta Gobernuak, aldiz, akordiorako muga gisa. Izan ere, Gobernuak uste zuen ez zegoela ezer gehiagorik hitz egiteko eta negoziazioak bertan behera uztea erabakita zuen. Hala ere, nazioarteko bitartekariak, batez ere *Henri Dunant* Zentroak eta Tony Blairrek, azken ahalegina egiteko konbentzitu zuten Gobernuak (Murua, 2010: 186).

²⁶⁷ 112. *Zutabe*-an ETAk zioen bilera horretan Gobernuaren ordezkariak esan ziola Ezker Abertzaleak maiatzeko hauteskundeetarako bultzatzen zituen herri plataformak legez kanpo utziko zirela, eta EAE-ANV-koekin zer gertatuko zen eztabaidagarria izan zitekeela (ETA, 2007d). Maiatzaren 5ean Espainiako Auzitegi Gorenak herri plataformen zerrenda guztiak eta EAE-ANV-ko alderdiaren 133 zerrenda baliogabetu zituen, eta hilaren 18an ASBren erregistroaren ukoa berretsi zuen.

Hurrengo azken aukera izan zen. Prozedura berritzailea izan zen ordura arte erabilitakoarekin alderatuta: bi bilkura paralelo antolatu zen, bata akordio politikoa erdiesteko, Batasunak eta PSEk osatu zutena, eta, bestea, ETAren eta Gobernuaren artekoa, “prozesuaren garapen globalaren diseinua egiteko”, biak nazioarteko behatzaileen bitartekaritzapean (Ibid). Bi mahai paralelo horiek maiatzaren 14tik 21era bitarte antolatu ziren, Genevan²⁶⁸.

Lehen bilera Gobernuaren eta ETAren artekoa izan zen²⁶⁹. Gobernua izan zen hitza hartu zuen lehena. Bilerak isilpekoak izan behar zireneko premisa ezarri, prozesua berriro irekitzeko borondatea aipatu zuen, baina argi utziz errail politikoan lor zitezkeen akordioak errail teknikoan emandako aurrerapenen ondorio izango zirela. Halaber, epaileek ETAren aurka jardungo ez zutenik ezin zuela bermatu onartu zuen, ezta negoziazioaren aldeko Estatu-itunik lortuko zutenik ere. ETArentzat, aldiz, gakoa errail politikoan zegoen. Hain zuzen ere, errail politikoan lurraldetasunari zein erabakitzeko eskubideari buruz akordioa lortuz gero, ETAk erakunde gisa desagertuko zela adierazi zuen (Sordo, 2017: 319).

Mahai politikoan lurraldetasuna eta erabakitzeko eskubidea izan ziren gai korapilatsuenak. Batasunak Hego Euskal Herriko lau herrialdeetarako autonomia erkidego berri bat sortzeko proposamena jarri zuen mahai gainean. Hura sortzeko azken erabakia EAEko eta NFKko biztanleen esku uzten zuen,

²⁶⁸ Bileretako “akten” arabera, Batasunako, PSOEko, ETAko eta Gobernuko bina ordezkari hartu zuten parte, eta *Sinn Féine*ko eta Irlandako Gobernuko beste bina ordezkari zein Norvegiako Gobernuko ordezkari batek osatu zuten bitartekarien taldea. Beste iturri batzuen arabera, Jonathan Powellek (Labour party) eta Gerry Kellyk (*Sinn Féin*) parte hartu zuten behatzaile gisa ETAren eta Gobernuaren arteko elkarrizketetan (Escrivá, 2006; in Sordo, 2017: 317-318). Elkarrizketa politikoak *Henri Dunant* Zentroaren, Sinn Féinen eta Gobernu britainiarraren zein Gobernu norvegiarraren bitartekaritzarekin burutu ziren (Murua, 2010: 190).

²⁶⁹ Muruak emandako informazioaren arabera, PSE eta Batasuna bildu ziren lehendabizi (2010: 190).

Kosovoko kasuaren berezitasunak eta euskal testuinguruarekiko aldea agerikoa izanda ere, egia da Kosovoko esperientziak hausnarketarako ondorio bat ekarri zuela: litekeena zela estatu independente berrien sorrera Europako testuinguruan, baita aldebakarreko independentzia aldarrikapenetik sortuak ere, nazioarteko zuzenbideak hala urratzen ez baitzuen²⁷⁸. EAJk “demokraziaren garaipen gisa” kalifikatu zuen Kosovoren independentzia²⁷⁹. Eusko Jaurlaritzak ere positibeusko alkartasunaki baloratu zuen Kosovoko esperientzia, burujabetzarako eskubidearen aldeko aldarria eginez (Eusko Jaurlaritzak, 2008). Zentzu berean, Ezker abertzalearen partetik, Batasunak txalotu egin zuen esperientzia hura, autodeterminazio eskubidearen aplikazioaren erakuslea izan zela esanez²⁸⁰.

gertatu zen bezala. Hura izan zen XXI. mendean European izandako aldebakarreko lehen independentzia aldarrikapena. Orduetik, iritzi ezberdinak egon dira nazioarteko komunitatean Kosovo Estatu gisa onartzearen inguruan. Hala, AEB Kosovoren independentziaren defendatzaile nagusietako bat izan da (AEBen jarrerari buruz, gogoratu behar da European dagoen base militar estatubatuar handiena (Camp Bondsteel) Kosovoko lurraldean dagoela). Aitzitik, Errusia eta Txina izan dira Kosovoren independentzia onartzearen aurka agertu diren nazioarteko potentzia nagusiak. Bestalde, Europar Batasunak estatu kide bakoitzaren esku utzi zuen Kosovoren estatus berriari buruzko jarrera. Horrela, Europar Batasuneko estatu kide askok Kosovoren independentzia onartu zuten 2008an bertan. Ez zen hala gertatu Espainiaren kasuan; tesi hau idazten den egunera arte Espainiak ez du Kosovo estatu subirano bezala onartu (Frantzia, aldiz, lehenetarikoa izan zen).

²⁷⁸ 2010ean, Hagako Nazioarteko Justizia Gorteak honakoa ebatzi zuen: "Nazioarteko zuzenbide orokorrak ez du inolako debeku aplikagarririk independentzia aldarrikapenei dagokienez. 2008ko otsailaren 17ko independentzia aldarrikapenak ez du nazioarteko zuzenbide orokorra urratzen, ezta Nazio Batuen Kontseilu Nagusiaren 1244 ebazpena ere" (Ik. <https://undocs.org/es/A/64/881> [Kontsukta: 2022-1-9]).

²⁷⁹ <https://www.eaj-pnv.eus/eu/berriak/17792/urkullu-herritarrek-erabakiak-askatasunez-hartzeko> [Kontsukta: 2022-1-9].

²⁸⁰ <https://kaosenlared.net/posici-n-de-batasuna-en-relaci-n-con-la-declaraci-n-unilateral-de-independencia-de-kosovo/> [Kontsukta: 2022-1-9]. Hala ere, urtebete geroago argitaratutako *Argitzen* txostenean Ezker Abertzaleak zalantzak agertu zituen Kosovoren kasuan aplikatutako metodoei buruz, “potentzien interesen arabera aukeratu” zirelakoan (ik. <https://eh.lahaine.org/ezker-abertzalea-publica-el-documento-do>) [Kontsukta: 2022-1-9].

Garai berean, eskoziar nazionalismoa goraldi une batetik pasatzen ari zen, 2014an egindako independentzia erreferendumarekin²⁸¹ joia jo zuena. Izan ere, 2007an SNP alderdi bozkatuena izan zen Eskoziako Parlamenturako hauteskundeetan eta lau urte beranduago lortu zuen gehiengo absolutua. 2008ko urtarrilean *Gara* egunkarian egindako elkarrizketa batean, ETAk berak Kosovoren eta bai Eskoziaren adibideak aipatzen zituen Europar Estatu berrien sormena “utopia” ez zela defendatzeko (ETA, 2008a)²⁸². Euskal gizartearen jarrerari zegokionez, Eusko Jaurlaritzak 2007an egindako *Soziometroaren* datuen arabera, euskal populazioaren %70 autodeterminazio-erreferendum bat antolatzearen alde zegoen²⁸³.

Beste alde batetik, aurreko hamarkadan Irlandako iparraldean hasitako bake prozesua eredu bihurtu zen Euskal Herrian, eta *Irlandako Foroan* baturik, eragile abertzaleek bestelako konponbide bat bila zitekeela hausnartu ahal izan zuten. Lizarra-Garaziko esperientzia gogoeta haren ondorio izan zen, eta porrotean amaitu arren, aukera modura geratu zen euskal abertzale askoren artean, betiere borroka armaturik gabe. Nazioarteko inplikazioa aktiboki bilatzen zen testuinguru horretan, Europar Batasunaren babesa lortzeko aukera ere aztertu zen. Hura ez zen aukera irrealia, Irlandaren kasuan hala gertatu baitzen, eta Loiolako negoziazioa-prozesuaren testuinguruan Europako Parlamentuak

²⁸¹ 2012an Erresuma Batuko eta Eskoziako Gobernuek Eskozian independentziari buruzko erreferenduma egitea adostu zuten 2014rako, biek hautestontzietatik aterako zen erabakia errespetatzeko konpromisoa hartuta. 2014ko irailaren 18an egin zen erreferendum hori, eta % 84,5eko partaidetzarekin, Erresuma Batuko kide izaten jarraitzearen aldekoak nagusitu ziren, botoen % 55ekin.

²⁸² Ik. <https://www.laopinioncoruna.es/espana/2008/01/05/eta-mira-kosovo-ejemplo-seguir-25465098.html> edo <https://www.elmundo.es/elmundo/2008/01/05/espana/1199496686.html>.

²⁸³ 35. Soziometroan hurrengo jasotzen zen euskal jendartearen autodeterminazioari buruzko iritzia inguruan: “*Hamar herritarretatik zazpiren iritziz Euskadik autodeterminazio erreferenduma egiteko eskubidea du eta %66k hurrengo urtetan autodeterminazio erreferenduma egitea nahi luketela diote (%25 nahiz eta indarkeria ez amaitu egitearen alde legoke eta beste %41 indarkeria behin betiko amaituko balitz). Beste %21ek ez lukete erreferendumik egitea nahi*” (5-6 orriak). https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_34/eu_soc34/adjuntos/07sv3_411.pdf [Kontsukta: 2022-1-30].

Euskal Herriko bake-ekimenari babesak emateko epai bat onartu baitzuen (Khatami, 2013:201).

Baina balizko esku-hartzea gertatzeko, borroka armaturik gabeko egoera batera heldu behar zen. Hortaz, ETari gogoetarako gaia aurkeztu zitzaion: nazioartean eta Euskal Herrian laguntzeko jarrera ager zitekeen, baldin eta bere ekinbide armatuari amaiera ematen bazion.

III.5.1.1.2 Mehatxuak.

Gerra Hotzaren amaieraz geroztik, biolentzia politikoaren erabilpena aldekatasuna galtzen joan zen munduan, batik bat mendebaldean. 2001eko New Yorkeko gertakariak erabakigarriak izan ziren aldeketa horretan, eta erabat aldatu zituzten erakunde armatuen aurkako estrategiak, terrorismo globalaren kontrako defentsa argudiatuta.

Euskal Herrian ere, zalantzarik gabe, Aznarren²⁸⁴ Gobernuak Alderdien Legearekin abiatutako eta PSOEek bere egindako aldaera hori nabaritu ahal izan zen argitasunez. Orduan, Ezker Abertzalearen antolakundearen legez-kanporatzeak eta bere militanteen atxiloketak hasi eta ugaltu ziren. Gainera, Espainiako Gobernuaren jarrera hori nazioarte mailan ere legitimatua izan zen, Ezker Abertzaleko antolakundeak nazioarteko erakunde terroristen zerrendetara gehituz²⁸⁵.

Egoera hartan, Ezker Abertzaleak Europar jarri zuen begirada, batez ere Estrasburgoko Auzitegian Batasunaren legez-kanporatzearen aurka jarritako helegiteak aurrera egingo zuelakoan. Ez zen horrela gertatu, eta Estrasburgoko

²⁸⁴ Jose Maria Aznarrek hauxe idatzi zuen bere memorietan: "Bagenekien ezin genituela bereizi erakunde terrorista bat eta, ustez, biolentzia ez den haren ingurunea, gauza bera da" (Whitfield, 2014:82).

²⁸⁵

Ik.

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/PDF/?uri=CELEX:32009E0468&qid=1412596355797&from=EN>

Auzitegiak Espainiako Alderdien Legea eta horren ondorioz burutu ziren alderdien legez-kanporatzeak berretsi zituen 2009an²⁸⁶. Une hartan, esan dezakegu, ETaren jarduera armatua eta Ezker Abertzalearen politika instituzionala aldi berean aurrera eramateko aukera itxi egin zela. Zentzu horretan, 2010eko hasieran, Rubalcabak mezu argia zuzendu zion Ezker Abertzaleari: “bonben eta botoen artean” aukeratzeko²⁸⁷, hots, borroka armatua egon artean politika instituzionaletik kanpo egongo zela. Era berean, 2007ko urrian Batasunako mahai nazionala atxilotua izan zen moduan, 2009ko urrian, Ezker Abertzaleko hainbat kide atxilotuak izan ziren Batasunaren mahai nazionala berreraikitzen saiatzea leporatuta, gerora *Bateragune* auzia bezala ezagutu zen prozesuaren ondorioz. Argi zegoen, beraz, ETaren jarduera armatua indarrean zegoen bitartean Ezker Abertzalearen ekinbide politiko-instituzionala guztiz blokeatuta egoteaz gain, haien kideak atxilotuak izateko arriskuan zeudela ETako kide izatea leporatuta.

Beste aldetik, Lizarra-Garaziko porrotaren ostean, itxi egin ziren Ezker Abertzalearekin elkarlana bultzatzeko bideak. Horretan eragiteko oztopo nagusia ETaren jarduera zen. Hura izan zen, hain zuzen ere, neurri handi batean, 2009an EA eta Ezker Abertzalearen arteko hauteskunde-aliantza sortzea galarazi zuena.

Horrez gain, Ezker Abertzaleari beste mehatxu bat gehitu zitzaion, ezkerreko abertzaletasunean zuen erreferentzialtasuna kolokan jarri zezakeena. Izan ere, 2009ko martxoaren 1eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan Aralarrek

²⁸⁶ 6/2002 Lege Organikoa onartu eta berehala aplikatu zen Batasuna, Herri Batasuna eta Euskal Herritarrok legez kanpo utziz. Alderdien desegitea Auzitegi Gorenak dekretatu (2003ko martxoaren 27ko epaia) eta Konstituzio Auzitegiak abalatu zuen (5/2004 eta 6/2004 epaiak). Bai Batasunak eta bai Herri Batasunak demanda aurkeztu zuten Giza Eskubideen Europako Auzitegian 2004ko uztailaren 19an. 2007ko abenduaren 11n demandak partzialki onartu ziren. Hala ere, 2009ko ekainaren 30ean epaia atera zen, azaroaren 6an behin betiko bihurtu zena, alderdi abertzaleen errekursoaren kontra eta haien legez-kanporatzearen aurka zuten esperantza lurperatuz (Virgala, 2010: 415-416).

²⁸⁷ <https://www.publico.es/videos/207367/rubalcaba-o-bombas-o-votos> [Kontsulta: 2022-1-9].

62.214 boto (bozken% 6,05) eta lau eserleku lortu zituen, 2005ean lortu zuen boto kopurua bikoiztuz. Horrela, EAEko laugarren indar politiko bihurtu zen, EAJren, PSE-EEren eta PPren atzetik. Ezker Abertzaleak bultzaturiko *Demokrazia 3 Milioi* plataforma baliogabetu zuen Auzitegi Gorenak, eta nahiz eta plataforma horri lotutako boto baliogabeak 100.000 baino gehiago izan ziren (aurreko hauteskundeetan 4.000 boto baliogabe baino ez ziren zenbatu), argi zegoen Ezker Abertzalearen ilegalizazioaren aurrean Aralar espektro politiko horren erreferentzia berria bihur zitekeela. Izan ere, urte bereko ekainean burutu ziren europar parlamenturako hauteskundeetan Aralarrek (EArekin batera aurkeztu zena *Europa de los Pueblos-Verdes* koalizioaren baitan) parlamentari bat lortu zuen, botoen %6 eskuratuta.

Agerikoa zen, hortaz, ETAren jarduera armatuaren jarraipenak bi mehatxu nagusi sortarazten zizkiola Ezker Abertzaleari: alde batetik, jarduera politiko-instituzionalean aritu ezinean erreferentzialtasun politikoa galtzea eta, bestalde, haren kideen espetxeratzea.

III.5.1.2 Estrategia eraketarako barneko faktoreak.

III.5.1.2.1 Indarguneak.

Estrategia militarreko erakunde politikotzat jo izan zuen bere burua ETAk, arlo politikoari lehentasuna emanaz. Arlo politiko horretan zeuden, hain zuzen ere, 2009-2010 urteetan ETAk izan zitzakeen indargune gehienak. Maila ideologikotik hasita, eragile abertzaleen eskaerak, hau da, autodeterminazioa, euskararen garapena, zazpi herrialdedun Euskal Herri batua eta halako kontzeptuak era logikotzat eta naturaltzat hartzen ziren abertzale askoren aldetik. Eskera haiek, gainera, demokraziaren aldeko diskurtsoarekin bateragarriak ziren biolentziarik gabeko egoera batean. Halaber, abertzaleen arteko batasuna aukera arrazionala ez ezik, aurreko eskaerak bultzatzeko aukera

eraginkorra ere izan zitekeen abertzaleen helburuak lortzeari begira. Era horretara, jarduera armatua amaitzeak desio horietan lagun zezakeen, eskenatoki berrira eramanez. Iritzi horretakoa zen garai hartan Xabier Arzallus, 2004ra arte EBBko presidentea izandakoa:

“Pistolak tartean dauden artean, ez da polo soberanista izango, zulo soberanista baizik. Hori hala, eta ETA suntsitzea ia ezinezkoa dela jakinik, ETAk beste Xiberta bat antolatu beharko lukeela uste dut, euskal alderdi guztiak deitu, armak uzteko prest dagoela esan, eta aurrera begirako estrategia denon artean diseinatzeko ETA beste agente politiko bat gehiago bihurtu”²⁸⁸.

Bazirudien, beraz, ETAREN jarduera armatua gehiago zela oztopo pizgarri baino batuketa horretarantz jotzeko.

Beste indargune bat Ezker Abertzalearen militantzian aurkitzen zen, oso militantzia aktiboa eta politizatua baitzen. Ezker Abertzaleak mobilizaziorako ahalmen handia mantentzen zuen legez kanpo egon arren. Izan ere, Ezker Abertzaleak jarraitzen zuen izaten euskal abertzaletasunaren ezkerreko erreferentzia nagusia, etorkizunean, gauzak aldatu ezean, erreferentzialtasun hori zalantzan egon bazitekeen ere.

Azkenik, maila ideologikoz eta militantziaz gain, hirugarren faktore garrantzitsu batek ere jotzen zuen ildo berriaren alde: Ezker Abertzaleak harremana mantentzen zuen hurbileko beste alderdi batzuekin, eta horiekiko lankidetzarako aukerak bazeuden. Baina horretarako, aurretik aipatu dugun bezala, ETAREN jarduna oztopo gaindiezina zen.

III.5.1.2.2 Ahulguneak.

ETAK XX. mendeko 60 hamarkadan ekin zion bere jarduera armatuari, borroka armatua erabiltzen zuten mugimendu iraultzaileen gorakadaren testuinguruan. XXI. mendeko lehen hamarkadako testuingurua, ordea, oso desberdina zen. Hego Amerikako gerrilla batzuk oraindik aktibo bazeuden ere, hala nola FARC

²⁸⁸ Ik. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2189/xabier-arzalluz/oso> [Kontsulta: 2022-1-9].

eta ELN Kolonbian, XX. mendearen bigarren erdialdean sortutako mugimendu iraultzaile gehienek, hala nola Nikaraguako FSLN, El Salvadorko FMLN edo Uruguaiako MLN-*Tupamaros*, aspaldi atzean utzita zuten borroka armatua alderdi politiko bihurtzeko. Halaber, Provisional IRAk 2005ean kanpaina armatuaren amaiera iragarri ondoren, Europan, IRAren eta FLNCren zatiketa batzuk izan ezik, ETA jardunean zegoen azken erakunde armatua zen. Agerian zegoen, hortaz, XXI. mendeko Europako testuinguruan biolentzia politikoaren erabilera justifikatzea, maila ideologikoan zein estrategikoan, gero eta zailagoa zela ETA bezalako erakunde batentzat. Era berean, 2005-2007ko negoziazio-prozesuaren amaieratik 2010ra birtarte, ETAk bere jarduera armatua mantendu bazuen ere, ez zuen nahikoa intentsitate izan Espainiako Gobernuak erakundearekin beste negoziazio-eszenatoki bat planteatzeko. Era berean, euskal gizartearen zati batek aurretik emandako babesak galtzen hasia zen ETA. Erakundeak berak errealitate horren jabe zela aitortu zuen urte batzuk geroago egindako bere azken elkarrizketan:

“faktore soziala aztertuz, beste ondorio batzuk atera genituen. Garai batean, kontzientzia kolektibo bat eratu zen, non zapalkuntzaren aurrean ETAREN borroka armatuarekin identifikatzea gauza arrunta zen. Herri sektore zabaletan nagusi izatera iritsi zen ideia hori, eta borroka armatuaren praktikaren beharrezkotasuna ez zen zalantzan jartzen. Baina, enfrentamendu armatua hamarkadetan luzatzearekin eta borroka armatuaren erabilera faseak bete ahala (moldeetan, sutesenak, negoziazio prozesuak), ideia horren sendotasuna ere ahulduz joan zen. Eta higadura hori, jadanik oso nabarmena zen 2000ko hamarkadan zehar” (Soto, 2018; 210).

Aurrekoarekin lotuta, 2008an PSEko oinarriko militantea zen Isaias Carrascoren edo Inaxio Uriaren (abiadura handiko trenaren eraikitzearen enpresa esleipendunetako baten jabea) aurka egindako ekintzek, Ezker Abertzalearen barne-tentsioak areagotu zituzten borroka armatuaren jarraipena babesten zuten sektoreen eta borroka armaturik gabeko aldaketa estrategikoa planteatzen zutenen artean. Barne-disonantzia horiek presente egon ziren ETAk 2007an su-etena hautsi zuenetik, Ezker Abertzalearen barne kohesioa ahultzeaz gain, mugimendu politikoan zatiketa gertatzeko aukerak areagotzen zutenak. Errealitate hori agerian geratu zen 2009an. Urte horren azaroan, Ezker

Abertzaleko erreferentziazko kide batzuek agerraldi publiko bat egin zuten Altsasun. Bertan Ipar Irlandako bake-prozesuan aplikatutako Mitchell printzipioetan²⁸⁹ oinarritutako biolentziarik gabeko prozesu demokratiko baten sormena proposatu zuten, *Prozesu demokratikorako lehen urratsa: ezker Abertzalearen oinarriak eta borondatea*²⁹⁰ izeneko dokumentuaren bidez. Agerpen publiko hura Ezker Abertzaleak etorkizunean planteatu beharreko estrategiari buruzko barne-eztabaida baten atarian egin zen. Hain zuzen ere, eztabaida horren hasieran ikusi zen Ezker Abertzalearen baitan bi jarrera zeudela ETaren borroka armatuaren inguruan. Jarrera haiek txosten banatan islatu ziren, eztabaidaren hasieran militantziaren artean era nahasian banatu zirenak. Alde batetik, *Argitzen* txostena zegoen, borroka armaturik gabeko aldaketa estrategiko bat proposatzen zuen sektoreak bultzatuta zegoena, eta, bestetik, *Mugarri* txostena, zeinetan borroka armatuaren funtsezkotasuna aldarrikatzen baitzen:

“Ezker Abertzalearen 50 urteetako borroka estrategia politiko militarrean oinarritu da. Estrategia horrek, ibilbide gogor baina oparo horretan fase berriak ireki ditu askapen prozesuan. Fase horien baitan borroka armatuak funtsezko papera bete izan du baldintza berriak sortzeko, mugarri berriak ezartzeko eta askapen borrokan urratsak eman ahal izateko. Eta zer esanik ez, estatuaren zapalkuntzari egiteko. Aurkitzen garen fase politikoan borroka armatuak jokatzen duen papera ere funtsezkoa da. Borroka armatua Ezker Abertzalearen estrategiaren aktibo nagusietakoa da” (Mugarri – “Estrategia integrala” atala – Murua, 2015: 107)

Azkenik, *Mugarri* alboratu eta *Argitzen* izan zen barne prozesuan eztabaidatu zen txostena. Eztabaida 2010ean amaitu zen. Bertan parte hartutako %80ak *Argitzen* txostenean jasotakoaren alde bozkatu zuen (Whitfield, 2014: 220). Eztabaidaren ondorio gisa, *Zutik Euskal Herria* txostena argitaratu zuen Ezker Abertzaleak. Dokumentu horretan, esplizituki ez bazen ere, argi zegoen Ezker Abertzaleak estrategia politiko berri bat planteatzen zuela, zeinetan ETaren borroka armatuak lekurik ez baitzuen:

“Prozesu demokratikoa erabateko indarkeriarik eta esku sartzetik gabe garatu behar da, alderdien arteko elkarriketa eta negoziazioa Mitchell senatariaren printzipioen baitan arautuz. Inork ezingo

²⁸⁹ Ik. <https://es.alphahistory.com/Irlanda-del-Norte/principios-mitchell-negociaciones-de-paz-1996/> [Kontsulta: 2022-2-6].

²⁹⁰ <https://www.berria.eus/dokumentuak/dokumentua552.pdf> [Kontsulta: 2022-1-9].

*du indarkeria edo mehatxua erabili alde anitzeko negoziazioaren garapena edo emaitza baldintzatzeko, ezta prozesu horretan erdietsitako akordioa aldatzeko ere*²⁹¹”

Agerikoa zen, hortaz, ETAk bere jarduera armatuarekin jarraituz gero Ezker Abertzalearen estrategia berriarekin talka egingo zuela.

III.5.1.3 AMIA analisiaren ondorioak.

ETAk bere jarduera armatuari amaiera emateko eragina izan zuten arrazoi bilketa egiten saiatu gara. Aukerak, neurri on batean, nazioartetik zetozkion ETari. Euskal gatazkaren aitortza etor zitekeen aukera hauetatik, eta gatazka hura modu demokratikoan konpontzeko, autodeterminazio eskubidearen baliagarritasuna indartuta agertzen zen. Gainera, Ipar-Irlandako eta Kosovo adibideek Europako agenda politikoan jarri zuten autodeterminazioaren gaia, haren aplikazioa Euskal Herrian ere posible zitekeelako esperantza indartuz. Mehatxuak jarduera armatuarekin jarraitzeko eta Ezker Abertzaleak bere lan politikoa egiteko zailtasunekin lotuta zeuden. Mehatxu hauek baliogabetu egiten zituzten, gainera, aukerak; nazioartetik etor zitekeen laguntza edo aitortpena, gertatzekotan, derrigorrez jarduera armaturik gabeko egoera batean izango baitzen. Indarguneak, arlo politikoari zegozkion, oro har; bereziki, independentziaren aldeko indarren arteko metaketa sortzeari lotuta zeuden. Ahulguneak, azkenik, arlo militarri zegozkion bereziki, eta arlo politikoari ondoren. Ahulguneak eta mehatxuak oso loturik zeuden. Hau da, mehatxuak euren eragina zabaltzen ari zirela erakusten zen ahulguneetan. Ahulgune hauek baliogabetu egiten zituzten, gainera, aipaturiko indarguneak, eta zalantza handia jartzen zuen ordura arte jarraitutako bi estrategien eraginkortasunaren inguruan.

²⁹¹

Zutik

Euskal

Herria.

Eskuragarri:

<https://web.archive.org/web/20131030060538/http://www.ezkerabertzalea.info/doku/zutikeuska/lherria-eu.pdf> [Kontsulta: 2022-1-9].

Hain zuzen ere, ETAk 2010ean harturiko erabakia azaltzeko orduan eragin berezia izan zuen 1970eko hamarkadatik aurrera ETAk jarraitu zituen bi ildo estrategikoei lortutako emaitzarik ezak. Zentzu horretan, 2000ko hamarkadaren amaieran, ETAk egiazta zezakeen:

1. Negoziazio estrategiari zegokionez: borroka armatuak ez zuen presio nahikoa lortu Espainiako Gobernuarekin autodeterminazio negoziatu ahal izateko.

2. Nazio fronteari zegokionez: Lizarra-Garazitik aurrera, jarduera armatua bera oztopo bihurtu zen nazio frontea sortzeko, gainerako indar abertzaleek hura ez eratzeko arrazoi handiena izanik.

Izan ere, urte batzuk geroago, bere azken elkarrizketan, ETAk gai horren inguruan egindako hausnarketa aipatzen zuen bere jarduera armatuaren amaierarako faktore garrantzitsu gisa:

Batez ere, sortutako baldintza soziopolitikoek modu egokienean erantzutea izan zen estrategia politiko-militar batetik estrategia politiko batera igarotzeko erabakia hartzerantz bultzatu gintuena. Prozesua zegoen egoeran, borroka armatua indarrean mantentzea indar berriak metatzearekin eta independentziaren aldeko gehiengo sozial bat eraikitzeko aukerarekin bateragarri egin nahi izatea bide itxia zen. Ondorioz, borroka molde guztien osagarritasunaren printzipioa ez zen gehiago baliagarria” (Soto, 2018: 110).

Laburbiltzeko, AMIA analisi honen ondorioz, gure ustez, jarduera armatua bera izan zen ETAREN erabakirako funtsezko faktorea, hurrengo arrazoiengatik:

1. Ez zuen eraginkortasun nahikorik izan orduara arte aurrera eramandako estrategien bidez (nazio frontea eta negoziazioa) ezarritako helburuak lortzeko.

2. Jarduerak berak oso zail zeukan momentuan edota etorkizunean eraginkortasun maila handiagoa lortzeko.

3. Jardueraren jarraipenak ezinezkoa egiten zuen bai nazioarteko laguntzarako zein barruko aliantzarako aukera.

4. Jardueraren jarraipenak, bestalde, oztopatu egiten zuen, neurri handiz, Ezker Abertzalearen jardura politikoa, legez-kanporatzeak zirela bide.

5. Jardura armatuaren luzapenak Ezker Abertzaleko militantziaren desmobilizazioa eragin zezakeen, legez-kanporatzeak eta errepresioa zirela medio, eta, gainera, Ezker Abertzalearen baitan barne zatiketak eragin zitzakeen.

Aldeko eta kontrako faktoreen analisisian oinarrituz, esan liteke ETAk AM (ahulgune-mehatxu) strategiaren logika (The WT Strategy (mini-mini, Wehrich, 1982: 60) jarraitu zuela bere jardura armatua amaiera emateko orduan. Izan ere, biolentzia politikoaren erabilpenak ahulguneak areagotzen zizkion inplementatutako estrategiei zegokienez, eta, aldi berean, mehatxu bilakatzen ari zen Ezker Abertzalearen jardun politikorako.

III.5.2 ETAREN JARDURA ARMATUAREN BEHIN BETIKO AMAIERA.

Lecoursek esandakoaren harira (2007: 133-134), esan daiteke ETA bera konturatu zela batzuetan biolentziarik eza errentagarriagoa izan daitekeela termino politikoetan biolentziaren erabilpena baino. Izan ere, diskurtsoaren aldetik demokrazia, partaidetzaz edo helburu taktikoez hitz egiten zuen bitartean, bere jardura armatua oztopo bilakatzen ari zen planteatutako estrategietan aurrerapausoak egiteko. Esan liteke, hortaz, ETAk bereganatu zuela Laqueurrek biolentzia politikoaren eragin politikoari buruz adierazitakoa, hots, bere eragin politiko, oro har, mugatua dela eta berau erabiltzen dutenentzat kaltegarria izan daitekeela termino politikoetan (1987:203). Gauzak horrela, ETA Ezker Abertzaleak bere barne-eztabaidan adostutako norabide berrian laguntzeko prest agertu zen, eta aintzat hartu zuen bertan egindako gogoeta politikoa:

“Euskal Herria dugu erronka kolektiboa. Ukazio egoera gainditu eta Euskal Herriaren etorkizuna bermatuko duen eszenatoki demokratikoa eraikitzea. Bide horretan eragile guztion urrats sendoa eta konpromiso irmoak behar dira. ETA-k elkarlanerako eskuak luzatuak dituela adierazten du (...) ETA-k, bere aldetik, dagokion eremuan aldaketa politikoaren bidean beharrezkoak diren urratsak emateko prestutasuna adierazten du” (ETA, 2010a).

Aitzitik, joera berriak ez zuen ekarri erantzun positiborik Espainiako Gobernuaren aldetik, ETArekin harremanik ez izateko erabakia berrets baitzuen, are gehiago 2010ko martxoan ETAko kide batzuk kotxeak lapurtzen ari zirenean jendarmeriarekin sortutako tiroketa baten ondorioz Serge Nérin jendarmea hilik suertatu ostean²⁹². Hura izan zen ETAk bere historian eragindako azken hilketa, eta nahiz eta ETAk hilketa hura bere gogoaren kontrakoa izan zela aitortu (ETA, 2010b), argi zegoen gertaera horrek ez zuela aurrerapausoak egiteko.

Hala ere, bi faktore berrik jarduera armatuaren amaieraren alde jokatu zuten. Alde batetik, 2010eko martxoan *Bruselako Adierazpena*²⁹³ sinatu zuten bakegintzan ospe handia zuten munduko hogeit hamar pertsonak, Nobel saridunak euren artean. Bertan, onetsi egiten zen Ezker Abertzaleak harturiko bidea, eta dei egiten zitzaion ETARI eta Espainiako Gobernuari; lehenari su-eten iraunkorra iragartzeko eskatzen zitzaion, bigarrenari, bake iraunkorra lortzeko asmoz, tamaina bereko erantzun bat emateko eskatzen zitzaiolarik, Egun batzuk geroago, ETAk ontzat hartu zuen ekimena eta nazioarteko begiraleen garrantzia azpimarratu zuen, nahiz eta jarduera armatua desaktibatzeak ez zuela, berez, gatazka konponduko adierazi (Ibid). Beste aldetik, independentziaren aldeko indar metaketaren aldetik, 2010ko ekainean itun estrategikoa sinatu zuten Ezker Abertzaleak eta Eusko Alkartasunak. Bertan, Euskal Estaturanzko pausuak bideratu behar zirela adierazteaz gain, euskal gatazkaren konponbideari ekin behar zitzaiola ohartarazten zuten. Independentziaren aldeko mugimendu berriak hiru zutabe izango zituen: *indar metaketa, konfrontazio demokratikoa eta nazio eraikuntza* (Ezker Abertzalea; Eusko Alkartasuna, 2010).

²⁹² <https://www.diariodenavarra.es/archivo/actualidad/20100317/nacional/rubalcaba-eta-esta-lo-esta-este-asesinato-lo-viene-demostrar.html> [Kontsulta: 2022-2-6].

²⁹³ <https://web.archive.org/web/20120203141354/http://www.euskaria.eu/es/news/1270037007> [Kontsulta: 2022-2-3].

ETAk begi onez hartu zituen pausu haiek, eta 2010eko irailean “eraso ekintza armaturik ez burutzeko” erabakia hartu zuen. Gainera, dei egiten zion nazioarteko komunitateari gatazkaren konponketan parte hartzeko (ETA, 2010c). Aste batzuk geroago, ETA nazioarteko komunitateari zuzendu zitzaion berriro, pausu eta konpromiso berriak hartzeko bere borondatea adieraziz

“ETA gatazkaren konponbide demokratikoarekiko konpromisoan berresten da, elkarrizketa eta negoziazioaren bidez euskal herritarrok gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko prozesu demokratikoarekiko konpromisoan. ETA prest dago, gaur atzo bezala, Espainiako gobernuak borondatea izanez gero, prozesu demokratikoa abiarazteko beharrezkoak diren gutxiengo demokratikoak adosteko. Horrela jakinarazten diogu nazioarteko komunitateari ere eta dei egiten diogu ETAREN borondatea eta konpromisoari ardura historikoaz erantzun diezaion, mendetako gatazka politikoari konponbide iraunkor, justu eta demokratikoa egituratzen parte har dezan” (ETA, 2010d).

Aldi berean, independentziaren aldeko indarren aliantza ere aurrera zihoan. Irailaren 25ean “Gernikako Akordioa” moduan ezagutu zen *Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa*²⁹⁴ sinatu zuten hogeitaka alderdik eta eragilek. Bertan “jarduera armatua behin betiko uzteko borondatearen erakusle gisa, nazioarteko komunitateak egiaztatzeko moduko su-eten iraunkorra eta aldebakarrekoa aldarrikatzea,” eskatu zioten ETARI. Era berean, nazioarteko komunitatea bitartekari izanda eta Mitchell printzipioetan oinarriturik, ETARI zein Espainiako Gobernuari biolentziarik gertatuko ez zela bermatzea eta normalizazio politikorantz aurrerapausoak ematea eskatzen zieten. ETAk, bere aldetik, erantzun zion eskaerari, eta 2011ko urtarrilean su-eten iraunkor eta egiaztagarria adierazi zuen:

“Azken hilabeteotan, Bruselatik Gernikara, mundu mailako izen handiko pertsonalitateek eta euskal eragile politiko eta sozial andanak, mendeetako gatazkari konponbide justu eta demokratikoa ematearen beharra nabarmendu dute. ETAk bat egiten du. Konponbidea elkarrizketa eta negoziazioa lanabes eta euskal herritarren borondatea iparrorratz duen prozesu demokratikoaren bidez etorriko da (...) Horrenbestez: Nazioarteko komunitateak egiaztatu ahalko duen su-eten iraunkor eta orokorra adieraztea erabaki du ETAk. Horixe da behin betiko konponbiderako prozesuarekiko eta konfrontazio armatuaren amaierarekin ETAk duen konpromiso irmoa” (ETA, 2011a).

²⁹⁴ Eskuragarri: https://gara.naiz.eus/agiriak/20100925_acuerdogernika.pdf [Kontsulta: 2022-2-6].

Espainiako Gobernuaren aldetik, ordea, ez zen erantzunik izan, eta aurreko politikari eutsi zion. *Sortu*, Ezker Abertzalearen alderdi berria ez zen legaltzat hartu. Hala ere, 2011an *Bildu* eta *Amaiur* aliantza berriek lorturiko emaitzak modu baikorrean baloratu zituen ETAk, eta egoera berriaren aldarri gisa irudikatu zituen. Era berean, erakundeak Gernikako Akordioan markatutako bide-orria onartu zuen gatazkaren konponbiderako:

“Hilabeteotan, ezker abertzalearen iniziatibaz eta beste sektore batzuetan ere egin den hausnarketaren ondorioz, egoera erabat aldatu da. Egun, burujabetzaren aldeko indarrek bere protagonismoa eta eraginkortasun politikoa berreskuratu dute, herri sektore zabaletan aldaketarako ilusioa eta esperantza piztuz eta indar metarako aukera eskainiz. Honekin batera, ETAk eman dituen urrats sakonak lagundurik, gatazka politikoaren konponbidearen aukera eta premia indarrez plazaratu da Euskal Herrian zein nazioartean. Euskal eragile ugari izenpetu zuten Gernikako Akordioa eta bertan jasotzen den oinarritzko ibilbide orria konponbide demokratikorako ukaezinezko erreferentzia bilakatu da” (ETA, 2011b).

Ondoren, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak ere bat egin zuen akordioarekin, eta ondorioz Ezker Abertzaleak harturiko bidearekin:

“Bere abia irabazi, garatu eta gauzatu behar den ibilbide politiko bat, behin betiko konponbide demokratiko batera eraman behar gaituena: Euskal Herriaren aitortza, bere etorkizunaz duen erabakitze eskubidearen onarpena eta erabaki horren errespetua, hain justu». Eszenatoki Demokratiko hori gauzatzeko bidean erreferentzia da GERNIKAKO AKORDIOA EPPKrentzat, eta hein horretan Akordioarekin bat egiten dugula adierazi nahi diogu euskal jendarteari. Gatibu gauzkatzen estatuak inposatzen dizkiguten muga eta traba guztien gainetik, EPPKk, GERNIKAKO AKORDIOAREN baitan eta GERNIKAKO AKORDIOAREN edukiaren arabera, prozesu demokratikoan aurrera bultzatzeko konpromiso irmoa azaltzen du” (EPPK, 2011).

2011ko urrian, azkenik, Donostiako Nazioarteko Bake Konferentzia antolatu zen, bakegintzan ospe handia zuten nazioarteko pertsonekin, hala nola Kofi Annan, Jonathan Powell edo Bertie Ahern. Berrero ere, ETArri eskatzen zitzaion jarduera armatua behin betiko amaitzeko, eta Espainiako eta Frantziako Gobernuak elkarrizketan sartzea gatazkaren ondorioez hitz egiteko. Hiru egun geroago, 2011ko urriaren 20an, ETAk bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera iragarri zuen, eta dei egin zien Espainiako eta Frantziako Gobernuak elkarrizketa zuzenei ekiteko, gatazkaren ondorioak konpontzeko:

“Euskal Herrian burutu berri den Nazioarteko Konferentzia garrantzi politiko handiko ekimena dela deritzogu. Adostutako ebazpenak gatazkaren konponbide osorako osagaiak biltzen ditu eta nazioartearen eta euskal jendartearen sektore anitzetan babesa du (...) Etorkizunari itxaropenez

begiratzeko unea da. Baita ausardiaz eta arduraz jokatzeko unea ere. Honenbestez, ETAk bere jarduera armatua behin-betiko amaitzea erabaki du. ETAk Espainia eta Frantziako gobernuei dei egiten die, gatazkaren ondorioei konponbide ematea helburu izango duen elkarrizketa prozesu zuzena zabaltzeko, konfrontazio armatua gainditu ahal izateko. Adierazpen historiko honekin ETAk bere konpromiso argi, sendo eta behin-betikoa erakusten du” (ETA, 2011c).

Adierazpen horrekin, ETAk hamarkada luzeetan zehar erabilitako biolentzia politikoari ateak itxi zizkion behin betiko.

IV BIOLENTZIA POLITIKOA ETA ARRAZIONALTASUN INDIBIDUALA. ETAKO ETA IRAKO KIDE OHIEN HAUSNARKETAK BIOLENTZIA POLITIKOAREN ERABILPENARI BURUZ. ANALISI KONPARATUA.

Kapitulu honetan biolentzia politikoaren azterketa egin dugu arrazionaltasun indibidualaren ikuspegitik. Horretarako, biolentzia politikoa erabili duten erakundeetako militante ohien gogoeta ekarri dugu. Konkretuki, jakin nahi genuen zeintzuk izan ziren haien pizgarriak eta motibazioak erakunde armatu batean sartzeko. Horrez gain, biolentzia politikoaren inguruan egindako hausnarketaren garapena ezagutu nahi genuen. Analisi sendoagoa izan zedin, eta kasu bakar bat aztertzeak ekar ditzakeen hutsune analitikoak saihesteko asmoz, kapitulu hau bi kasu ezberdinen arteko konparaketa bezala planteatu dugu: ETA eta IRA erakundeetako militante ohien artekoa. Guztira 19 elkarrizketa egin dira, 10 ETako kide ohien kasuan eta 9 IRAko kide ohien kasuan. Elkarrizketen bidez lortutako informazioa izan da tesiaren kapitulu honetan erabili dugun lehen mailako iturria.

Hiru zatitan banatu dugu kapitulu hau: lehenengoan elkarrizketatutako militante ohiek borroka armatuari ekiteko izan zituzten arazoietan eta motibazioetan zentratu gara, haurtzaro garaian bizitakoak zein gertakari konkretuek, tortura pairatzeak tarteko, izandako eraginean arreta berezia jarritz. Bigarrenean, elkarrizketatuen gogoetak jaso ditugu borroka armatuaren eraginkortasunari eta zilegitasunari buruz zein haren amaieraren inguruan. Hirugarrenean, elkarrizketatuek gaur egun borroka armatuaren erabileraren inguruan duten iritzia eta etorkizunari buruz duten ikuspuntua jaso ditugu.

IV.1 Arrazoiak eta motibazioak erakunde armatuan sartzeko.

Zeintzuk izan daitezke pertsona bat erakunde armatu batean militatzera eraman ahal duten arrazoiak? Nolako motibazioak izan ditzake biolentzia politikoa erabiltzeko prest dagoen pertsona batek? Ba al dute familia-giroak eta haurtzaro garaian bizitako gertaerek eraginik horrelako erabaki bat hartzeko orduan? Tortura pairatzeak indartu edo aldatu dezake erakunde armatuetako militanteek borroka armatuaren erabilerari buruz egiten duten hausnarketa? Aurreko galderei erantzuten saiatu gara atal honetan.

IV.1.1 Familia-giroa, haurtzaroa eta politikaren inguruko interesaren jatorria.

Elkarrizketatuen jatorria ezagutu nahi genuen, haien garapen politikoan eragina izan zezakeelakoan. Horregatik, haien familia-giroaz eta haurtzaroaz galdetu diegu, haurrak zirenean gatazka politikoaz kontzienteak ziren jakiteko. Horrez gain, politikarekiko interesa noiz eta zergatik piztu zitzairen eta militantzia politikoan noiz hasi ziren ere jakin nahi genuen. Aurrean dugu gai horien inguruan jasotakoa.

IV.1.1.1 ETAko militante ohiak.

Haurtzaro garaian euskal abertzaletasunaz zein gatazka politikoaz kontzienteak ziren jakin nahi genuen. Familia-giroari dagokionez, gehienek (E-3, E-4, E-5, E-6, E-8, E-9, E-10) esaten dute familia-giro abertzale batetik datozela, baina ñabardura batzuekin. Izan ere, batzuek zalantzarik gabe baieztatzen dute familia eta giro abertzale batean hezi zirela (E-4, E-6, E-8, E-9, E-10). Beste batzuek (E-3, E-5), aldiz, nahiz eta abertzaletzat hartu beraien familia eta ingurugiro hurbila, ez diote faktore horri garrantzi handirik ematen beraien garapen politikoaz azaltzeko orduan; bai EAJ alderdiaren inguruko familia batetik datozelako (E-5)

edo giro abertzalean baino langile mugimenduaren inguruko giroan hezi zirelako, nahiz eta horrek ere bere eragina eduki zuela aitortu:

“Mii aita estuwo trabajando en Euskalduna y recuerdo una vez yendo al médico con mi ama a Bilbao pararnos el autobús para cruzarlo y uno de ellos era él. Me acuerdo de que le preguntaba y que él más o menos me explicaba. (...) No tenías ningún concepto político con esa edad, lógicamente, pero sí sabías que algo pasaba” (E-3).

Familia-giro ezkertiarrean baina ez bereziki abertzalean hezi ziren beste batzuk (E-1, E-2), eta beste bat Espainiatik Euskal Herrira emigratutako familia batekoa izanik, aita salbu, ez du izan euskal abertzaletasunaren eraginik familiaren aldetik (E-7).

Haurtzaro garaian gatazka politikoaren inguruan zuten ikuspegiak galdetuta, denetariako erantzunak ematen dituzte. Batzuek esaten dute haurrak zirenen ez zirela oso kontzienteak gatazka politikoaren existentziaz, (E-1, E-7, E-10) edo batere ez (E-2). Besteek, ordea, gogoratzen dute haurtzaroan egoera politikoaren inguruko nolabaiteko kontzientzia zutela, arrazoi ezberdinengatik. Batzuek komunikabideen bidez heltzen zitzairen irudia gogoratzen dute:

“Eran los años de plomo, como se han conocido, cada dos por tres había ekintzas. Claro, tú en la tele veías lo que pasaba y en casa se comentaban esas cosas. También estaba el tema de la guerra sucia del GAL y demás. Era consciente de que algo había” (E-3).

“Komunikabide espainoletan egundoko presentzia zeukan ETAk, eta ETA munstro bat bezala bazegoen irudikatuta. (...) Oso azkar izan nintzen kontziente nintzela herria zapaldu baten semea” (E-4).

Beste batzuek, ordea, egoera politiko ez normalizatu batean bizi zireneko oroitzapena daukate:

“Nire aita euskalduna zen, eta gogoratzen naiz arazoak zituela, edo hori esaten zigun behintzat, kolean euskaraz hitz egiteko, eta horrek harridura sortu zidan, nahiz eta haur txikia izan” (E-5).

“Aita garai hartan normaltasunez ibiltzen zen kaletik nahiz eta errefuxiatua izan, eta txikitatik entzuten genituen elkarrizketak beste errefuxiatuekin. Gero, Hegoaldean geundela, hasi ziren ekintzak eta atentatuak ugaltzen, eta bai, kontzientea nintzen” (E-6).

“Haurtzaroko lehen oroitzapenetakoa daukat, halako arratsalde batez, polizia etxeko leihoaren aurka gomazko pilotak jaurtitzen, eta lau anaia-arrebok sukaldeko mahaiaren azpian ezkutatuta (...) ez nintzen gai jazoeren irakurketa politikoa egiteko, baina banuen halako kontzientzia instintiboa gure herrian bazegoela arazo bat, poliziarekin eta gobernuarekin lotuta” (E-8).

Aipatutakoaren arabera, esan daiteke elkarrizketatuen kasu batzuetan familia-giroak zein etxean eta haurtzaroan bizitakoak eragina izan zutela “zerbait gertatzen zela” konturatzeko; bai komunikabideetatik jasotzen zutenagatik (E-3, E-4), senitarteko zuzen batengandik entzundakoagatik (E-5, E-6) edo haurtzaroan bizitako gertakari konkretu batengatik (E-8). Hala ere, gehienek ez zuten egoera hori politikarekin zuzenki lotzen. Izan ere, politikarekiko kontzientzia eta interesa aurrerago piztu zitzaizen elkarrizketatuei. Kasu guztietan nerabezaroan piztu zitzaizen politikarekiko interesa; batzuetan institutua hastear zeukatenean (E-1, E-2, E-3, E-5, E-7, E-8, E-10) eta besteetan apur bat lehenago. Interesa alor askotatik etor daiteke: herri mailako dinamika sozialetatik (E-1), kalean eta komunikabideetan egoera politikoaz ikusten zutenagatik (E-4), adin horretan izaten den kuriositate arruntagatik (E-2) eta baita etxeko giroaren eraginagatik (E-6, E-9):

“Aita errefuxiatua zen (...) ETAko militante asko ezagutu genituen, errefuxiatuak eta abar BVE hasi zenean (...) Nik uste dut gaztetatik datorkidala politikarekiko interesa. Etxean mamatu nuen” (E-6).

“Aitak Ipar Euskal Herrira ihes egin behar izan zuen, polizia atzetik zebilkiolako. Bertan errefuxiatuen mundua topatu (ge)nuen, GAL taldeen eraiketak, eta abar. Giro zeharo politikoan murgilduta bizi ginen” (E-9).

Laster, politikarekiko interes hura parte-hartze politiko eta militantzia bilakatu zen elkarrizketatu guztien kasuan. Askok institutu garaia markatzen dute beraien militantzia politikoaren hastapen gisa (E-3, E-5, E-6, E-7, E-8), bai ikasle mugimenduan (E-3, E-6), gazte mugimenduan (E-7) edo gizarte mugimenduetan (E-5):

“Institutuan ere hasi nintzen nuklearraren aurkako mugimenduan, eta nire ustez orduan sortu zen nire kontzientzia, mobilizazio horietan. (...) Eta hortik abertzaletasuna sentitzera... lagun bat eta biok joaten ginen ekitaldi politiko guztietara, eta behin joan ginen HBren ekitaldi batera eta gogoan dut hunkituta gelditu nintzela hainbeste jende ikusteaz oihuka eta abar” (E-5).

Gainontzekoek, nahiz eta institutuko garaia ez aipatu espresuki, 15-16 adin tartean kokatzen dute beraien hastapena militantzia politikoan. Haietako batek

bere inguruko jendeak hartutako konpromiso politikoa identifikatzen du bere kasuan militantzia politikoan hasteko faktore pizgarri bezala:

“Ikusten duzu zure ezagun batek ihes egin behar izan duela, ez dakit nor harrapatu eta torturatu dutela... zuk ezagutzen duzun jendea. Eta horrek eragiten du zure garapenean eta hasten zara pentsatzen zer dagoen, zergatik dagoen eta nola jende horrek uzten duen daukan guztia, bere familia, bere lana... Eta bueno, orduan hasten zara zure buruarekin hizketan” (E-2).

Denbora pasa ahala, militantzia maila igo zuten erakunde armatuan sartu arte, batzuek errepresioarekin lotutako gertakari konkretu batzuen eraginez, hurrengo azpiatalean ikusiko dugunez.

IV.1.1.2 IRAko militante ohiak.

Elkarrizketatu gehienak hezi ziren gatazka politikoaren testuingurutik gertu. Familia-giroari dagokionez, esperientzia ezberdinez hitz egiten dute. Batzuek, ñabarduraz ñabardura, tradizio familiar errepublikar batetik datozela diote (I-1, I-4, I-6, I-9); beste batzuek tradizio politiko ezberdinen arteko nahasketaz hitz egiten dute beraien familiaren jatorriari erreparatzen diotenean (I-2, I-3, I-5); beste batek dio ingurune unionistan bizi zen tradizio errepublikarreko familia bat baino familia nazionalista zela berea (I-7); eta beste batek ingurune errepublikarrean bizi zen familia ez errepublikar batetik datorrela dio (I-8). Izan ere, bi kasutan izan ezik (I-1, I-3), gainontzekoek esaten dute haien familia-giroan politikak ez zeukala presentzia handirik:

“There was nothing in our house that would tell we were republicans. No pictures of martyrs or anything like that, and well, in anybody’s house really... I can’t remember seeing anything like that in the other houses” (I-5).

“My family was Republican by tradition, but I think I have to have some perspective on this because it wasn’t something that was overwhelming” (I-6).

“I think they didn’t want to influence any of us in terms of moving into republicanism because that was pretty much dangerous” (I-7).

Hala ere, nahiz eta kasu gehienetan familiaren aldetik eragin politiko txikia jaso, elkarrizketatu gehienek aitortzen dute haurrak zirenean, neurri handiagoan edo

txikiagoan, zuzenki edo zeharka, kontziente zirela gatazka politikoaren existentziaz, nahiz eta adin horrekin ez zuten termino politikoetan interpretatzen. Batek, adibidez, gogoratzen du haurra zenean abesti errepublikarrak abesten zituela, baina ez zekiela oso ongi zertaz ari ziren abesti horiek:

"We sort of grew up learning from songs and from music about the 1916 Rebellion, 1798 Rebellion, the famine, immigration... But generally, we hadn't really got into general politics, we just knew those people existed, and we knew there was a sort of friction between both communities" (I-5).

Beste batzuek gatazkaren inguruko oroitzapen argia dute; bai bizi ziren zonaldean soldadu britainiarren presentzia oso nabaria zelako (I-7), gatazkaren ondorioz senideen edo ezagunen atxiloketak eta heriotzak gertutik bizi zituztelako (I-1, I-3) edo gatazka politikoarekin zerikusia zuten gertakariak gertutik bizi izan zituztelako (I-2):

"I had three uncles in jail without trial, also some cousins. I knew people who were arrested and tortured, and I knew they weren't evil or bad... In my class in secondary school, more than a half of students were affected in some way directly by the troubles" (I-1).

"I certainly wouldn't have been able to describe it as political, but I was aware that there was something wrong in the community. I was aged 7, and that's the first recollection I have of something happening. Sammy Devenney²⁹⁵ was beaten up... He was a father, a daddy figure, not far from where I lived in the Bogside, and the B Specials at that time beat him up at his front door" (I-2).

"I'd have been very aware from a very, very young age (...) I'm just trying to remember the first time that the house was raided ... It was the B Specials who came in, and I never was so scared in my life" (I-3).

"I grew up in a rural area in the country, and there was a lot of stuff happening around where I lived. It was pretty intense in terms of unionist death squads and stuff like that, so people I knew were killed, and I'd have seen soldiers in the streets, so politics was just part of my life" (I-7).

Beste elkarrizketatu bik (I-4, I-8), aldiz, haurtzaro garaian gatazka politikoaz kontzienteak ez zirela baina 1969an, *Troubles*ak (gatazka modernoa) hasi zirenean, interes eta kontzientzia politikoa piztu zitzaizela esaten dute. Izan ere,

²⁹⁵ Sammy Devenney eskubide zibilen aldeko aktibista zen. 1969ko apirilaren 19an RUCeko kide batzuek bera eta bere bi alaba jipoitu zituzten haien etxean, Derryn. Urte horretako uztailaren 16an, 43 urte zituela, hil zen jipoiak eragindako bihotzeko baten ondorioz, bederatzi seme-alaba umezurtz utziz. Askok Sammy Devenney *Trouble*seko lehen biktimatza hartzen dute. 2012an Londreseko poliziak (MET) bere kasuaren inguruko artxibo batzuk birklasifikatu zituen. Inor ez da kasu honengatik kondenatua izan.

elkarrizketatu askoren kasuan, adin ezberdinekoak izan arren, 1960 hamarkadan zehar Ipar Irlandan gorpuztu eta indartu zen gizarte zibilen aldeko mugimenduak (NICRA) salatu zituen komunitate nazionalista irlandarraren²⁹⁶ eta unionista britainiarraren arteko ezberdintasun sozialak izan ziren haien interes eta kontzientzia politikoa sortzeko eta indartzeko pizgarri garrantzitsua. Hain zuzen ere, 60 hamarkadan komunitate nazionalistak pairatzen zuen bazterketak hasiera batean bizitzen zuten egoera hori gatazka nazional bat bezala baino gatazka sozial bezala interpretatzera eraman zituen elkarrizketatu batzuk:

“At the beginning, it was basic civil rights; it wasn’t a republican uprising (...) the protests started about civil rights. They weren’t about the partition of our country, which was the cause of all the problems we were facing, but it was the demand for jobs, for housing, for the right to vote” (I-2).

“I suppose that the thing that really grabbed me was the outbreak of the conflict in 1969. We got to ask ourselves why that happened, why they did this, and then I began to understand about the gerrymandering, and about the discrimination in housing, employment, etcetera” (I-5).

“I think my earliest memories would’ve been about the housing (...) was aware listening to my parents and neighbours, that my community didn’t receive the same equality and privileges that others did” (I-6).

“I used to take part in some of the protests with her about civil rights. So back in the 60s, I was interested, but I wasn’t very knowledgeable. It was a premature awareness of a need for a socio-political change here in Ireland. It was... I think ‘revolutionary’ could be a fair term” (I-8).

Halaber, beste elkarrizketatu batzuek (I-1, I-4, I-7) txikitatik bizi izandakoaren eta etxean entzundakoaren garapen logiko bezala ulertzen dute haien interesaren jatorria politikan. Izan ere, bai langile klaseko ingurugiro batean hezi izanagatik eta senideen eraginagatik (I-1) edo egoera orokorragatik bada ere (I-4), oso gazte piztu zitzairen politikarekiko interesa:

“I come from a work class background, and we saw the soldiers in the streets. In middle-class areas, they were less likely to be on the streets. In those areas, the conflict was not so visible (...) In my

²⁹⁶ Ipar Irlandako gatazka politikoaz aritzean batzuetan komunitate katolikoaz eta protestanteaz hitz egiten da. Gure ustez zuzenagoa da komunitate nazionalistaz edo errepublikarrak (irlandarra) eta komunitate unionistaz edo lealistaz (britainiarra) hitz egitea, bi komunitateen arteko gatazka erlijioso baina politikoa delako. Egia da historikoki Ipar Irlandako komunitate nazionalista katolikoa izan dela, komunitate unionista protestantea izan delarik (historikoki irlandarrak katolikoak eta ingelesak protestanteak izan diren bezala), baina, erlijioa ez izanik gatazkaren arrazoi nagusia, zuzenagoa iruditzen zaigu nazionalista/unionista banaketa erabiltzea. Hala ere, testuan zehar katoliko/protestante banaketa erabiltzekotan nazionalista/unionistarenari egiten zaio erreferentzia.

case, which is probably unusual, I was very politicised as a young person. (...) most of my politicization came from my father, who was very political. My father had been involved in the Republican Movement in the 1930s and 40s. He had been in jail etc. But I did not know this until just before he died when I was in my 30s” (I-1)

“In the late 1960s, it seemed as if the world was ready for a change, that you had demonstrations, protests, trouble in places like Paris, London, Derry, Chicago, Vietnam... What was the defining moment for me was... My father had fought fascism during the Second World War. He was actually captured and spent five years as a POW. So in the 1st of April 1970, I was just turning 13 years of age, and I decided to become a Republican” (I-4).

Gehienak 13 eta 20 urte artean zituztenean hasi ziren mugimendu errepublikarrean militatzen; kasu batzuetan mugimendu errepublikarraren gazte mugimenduan (I-2, I-4) (*Na Fianna Éireann* mutilentzat eta *Clann na nGael* nesKentzat) edo emakumeen antolakundean (I-3) (*Cumann na mBan*) militatzen hasi ziren IRAn sartu aurretik:

“When I entered into my teens, there had been an organisation it was called the Clann na nGael. It was young girls who had been involved at the low age of 16, from 13 to 16, and every Easter Sunday was about the Easter Rising. We marked it, we commemorated it and remembered it, and there had been a military parade, and they led the march, and it was through that that I became involved in the movement” (I-2).

“From a very young age, I suppose, I was involved. I was very young as well, maybe 13 in the Clann na nGael, and then from that into Cumann na mBan, and then onto the Army” (I-3).

“When I was 13. You become involved at that time, and you can kind of join the youth movement. Then you can get involved in more activities. It’s just a gradual process, so there isn’t one date or anything like that, say, that you become more involved. You’re involved, and that’s it” (I-4).

Era berean, 60 hamarkadaren amaieran eta 70 hamarkadaren hasieran gatazkaren gordinkeriak izan zuen gorakadaren eraginez (1969ko abuztua Belfasten, *Bloody Sunday* Derryn, *internment*²⁹⁷, eta abar) militantzia politikoari ekin zioten elkarriketatu askok.

IV.1.2 Gertakari konkretuen eragina erakunde armatuan sartzeko.

Kontziente izanda gertakari konkretu batzuek eragin berezia izan dezaketela gizaki batzuen garapen pertsonalean zein haien konpromiso politikoan eta

²⁹⁷ EpaiKETarik gabeko kartzelaldiak.

militantean, elkarrizketatuei galdetu diegu ea beraien kasu partikularrean egon al zen gertakari konkreturik eragin berezia izan zuena haien parte-hartze politikoaren maila igotzeko eta erakunde armatuan sartzeko erabakia hartzeko.

Izan ere, badaude gertakizun batzuk era batean edo bestean markatu gaitzaketenak, eta gure barnean geratzen direnak mota ezberdinetako ondorioak eraginez. Horregatik, eta jakinda gizakion arrazionaltasun indibidualaren baitako erabakitze-prozesuetan mota askotako faktoreek eragin dezaketela, jakin nahi genuen ea elkarrizketatuen kasu partikularrean egon al zen gertakari konkreturik eragin berezia izan zuena geroago erakunde armatuan sartzeko erabakia hartzeko. Hona gai horren inguruan jasotakoa.

IV.1.2.1 ETAko militante ohiak.

Elkarrizketatu guztiek esaten dute egon zirela gertaera batzuk beraien garapen politikoan eragina izan zutenak. Hala ere, ez dituzte gertakari horiek inplizituki lotzen erakunde armatuan sartzeko hartutako erabakiarekin. Alegia, gertakari horiek beraien garapen politikoan eragina izan zutela aitortu arren, ez dute uste erakunde armatuan sartzeko erabakia hartu zutenik gertakari konkretu bati erantzuteko beharra sentitzeagatik. Batek, adibidez, 60. hamarkadan munduan ugaltu ziren esperientzia iraultzaile ezberdinak gogoratzen ditu faktore eragingarri moduan: *“El mundo estaba polarizado, comunismo contra imperialismo. O elegías un campo o elegías el otro”* (E-10). Beste kasuetan, ordea, estatuaren biolentziak eragindako errepresioa aipatzen da (E-1, E-2, E-3, E-4, E-6, E-7, E-8, E-9), tortura kasuak edota euskal militanteen heriotzak gogora ekarriz:

“Badauzkat batzuk nigan eragin berezia izan zutenak: haietako bat izan zen Mikel Arregirena²⁹⁸, hori oso inpaktantea izan zen niretzat, ezin nuen sinetsi. Iruditzen zitzaidan... gogorra ez, ez dago

²⁹⁸ Mikel Arregi Herri Batasunako zinegotzia zen Lakuntzan Guardia Zibilak jarritako kontrol batean tirokatuta hil zenean. Arregi zihoan kotxea tirokatu zuen Guardia Zibilak, jarritako kontrolean gelditu ez izana leporatuta. Hala ere, hainbat lekukoren arabera, kontrol horren

hitzik hori deskribatzeko (...) Gero, Germán Rodríguezena²⁹⁹ ere bai (...) Pasaiakoa ere gogoratzen dut era berezi batean. Nik orduan banuen kontzientzia bat, eta gehiago hartzen nuen halako gauzak ikustean (...) Kasu batzuetan bai ezagutu nituen pertsona hurbil batzuk torturatuak izan zirenak eta alde egin behar izan zutenak. eta azkenean pentsatzen duzu zuk zerbait aportatu behar duzula. Eta horrela etorri zen nirea” (E-2).

“En mi cabeza lo que sí hizo como un clic fue en el año 93: lo de Anuk³⁰⁰ y Gurutze Jantzi³⁰¹, justo yo tenía 17 años. Fueron Xabier Kalparsoro y Gurutze Jantzi, los dos murieron por torturas. Bueno, a Anuk lo tiraron por la ventana en Bilbao y Gurutze Jantzi murió en comisaría. Y eso sí que me hizo reaccionar y pensar que había que hacer algo”. (E-3).

“1995ean identifikatzen direnean Lasa eta Zabalaren³⁰² gorpuzkinak. (...) Adinean gora joan ahala, atxiloketa eta torturak pairatzen hasten den jendea askoz ere gehiago gerturatzen da nire adinera eta nire inguru sozialera. Orduan, horrek bai ematen dit identifikazio bat eta errekonozitzen naiz guzti horretan, eta ulertzen dut ere nire txanda badela horretarako. Hala ere, ez dut sinestean dagoenik gauza konkretu bakar bat balantzaren pisua alde batera edo bestera eramaten duena” (E-4).

“Gogoratzen dut Anuk Kalparsororen kasua, bera ezagutzen nuen. Eta asko inpaktatu ninduen kasu horrek, Gurutze Jantzirena ere bai, baina Anukena bereziki. Eta justu kaptatu zidan pertsona kaptatu zidan garai horretan (...) esan zidan egun batzuk hartzeko eta pentsatzeko, baina berehala esan nion baietz” (E-6).

“Espainiako estatuaren errepresioa oro har: atxiloketak, tortura testigantzak, euskal militanteen heriotzak. Bereziki dut gogoan 1995eko urtea. Lasa eta Zabalaren gorpuzkinak identifikatu eta Euskal Herriratu zituztenean Ertzaintzak izan zuen jarrera oldarkorra; markatu ninduen” (E-8).

seinaleak ez zeuden jarrita Arregiren kotxea handik pasatu zenean (Iturria: Europa Press; <https://goo.gl/pSSSdW>).

²⁹⁹ 1978ko San Ferminetan Espainiako Polizia Nazionalak Germán Rodríguez hil zuen tiro batez Iruñeako zezen-plazan. 150 zauritu baino gehiago egon ziren interbentzio polizial horren ondorioz, haietako 11 balaz zaurituak izanik.

³⁰⁰ Xabier Kalparsoro “Anuk” 1993an hil zen Espainiako Polizia Nazionalak Bilbon duen polizia-etxeko leiho batetik erori ostean. Poliziaren bertsioaren arabera, Kalparsorok salto egin zuen polizia-etxeko bigarren pisuko leihotik handik ihes egiten saiatu zelarik. Bi poliziak seina hilabetetako espetxe-zigorra jaso zuten zuhurtziagabetasun ausartegia leporatuta.

³⁰¹ Gurtze Jantzi Herri Batasuneko zinegotzia zen Urrietako udalean 1993ko irailaren 23an Guardia Zibilak atxilotu zuenean. Atxilotua izan eta bi egun geroago hil zen, Guardia Zibilaren egoitzan. Bertsio ofizialaren arabera bihotzekoak jota hil zen. Operazio horretan atxilotutako beste pertsona guztiek torturak salatu zituzten. Jantziren kasua auzitegiatarako eraman zen, eta heriotza naturala izan zela argudiatuz, kasua itxi zen.

³⁰² 1983an Ipar Euskal Herrian errefuxiatuta zeuden Joxean Lasa eta Joxi Zabala ETAko militanteak bahituak, torturatuak eta erailak izan ziren, GAL erakunde parapolizialaren lehen hildakoak izanik. 1985ean ehiztari batek garezurrean tiroak zituzten giza gorputzen arrastoak aurkitu zituen Alacanteko inguru menditsu batean. 1995ean, gorpuzkinei autopsia eta ADN probak egin ostean, Lasa eta Zabalarenak zirela demostratu zen. 2000an Guardia Zibileko lau kide eta Gipuzkoako orduko gobernadore zibila kondenatuak izan ziren gertakari haiengatik.

“Esperientzia edo gertakari asko egon dira, baina bat aipatu behar badut Peru eta Steinen³⁰³ erailketa da, erakutsi baitzidan Estatua ez dagoela hor ni eta nire komunitatea babesteko, hura erasotzeko baizik” (E-9).

Esan daiteke, beraz, elkarrizketatu gehienen kasuan estatuaren biolentzia elementu inportantea izan zela beraien garapen politikorako, edo neurri batean markatu zituela, behintzat. Ez dute, aitzitik, kausa-efektuzko erlaziorik ezartzen gertaera horien eta gerora ETAn sartzeko erabakia hartzearen artean. Hala ere, kasu batzuetan neurri bateko inflexio puntutzat hartzen dituzte estatu-errepresio gertaera horiek, tortura tarteko dutenak bereziki, hurrengo puntuan sakonago ikusiko dugun bezala.

IV.1.2.2 IRAko militante ohiak.

Gertakari konkretu batzuek eragin berezia izan zuten elkarrizketatu askorengan. Hain zuzen ere, gehienek 60 hamarkadaren amaieran eta 70 hamarkadaren hasieran komunitate nazionalistaren kontra areagotu zen biolentzia eta errepresioa ekartzen dute gogora. Izan ere, 1969ko abuztuan Derryn gertaturiko *Battle of the Bogside* eta Belfasteko zonalde nazionalistako *Bombay Street*eko sutea (*Troubles*en hasieratzat hartzen diren bi gertakariak) zein 1971an Ipar Irlandan indarrean sartu zen *internmenta* lehenengo pertsonan edo oso gertutik bizi izan zuten elkarrizketatu batzuek, eta, beraien aitortzen duten bezala, esperientzia horiek erabat markatuta utzi zituzten, gertakari horien aurrean erantzuteko beharra sortu zitzaielarik:

“On the night of the 14th of August, it seemed as if all Belfast was burning. I was watching this from my granny’s house. At that time, I was scared, I was afraid, but then as I got older, I just knew instinctively that something was wrong” (I-4).

Batzuek ((I-3, I-5) komunitate nazionalista zibilaren aurkako erasotzat hartu zituzten gertakari horiek, guztiz babesgabe sentitu zirelarik:

³⁰³ 1984ko otsailaren 8an GALEk Angel Gurmindok “Stein” eta Bixente Perurena “Peru” Ipar Euskal Herrian errefuxiatuta zeuden ETako militanteak hil zituen Hendaian.

"We would have in 1969 what was known as the Bogside Riots, and I think they lasted for two weeks, and out of the Bogside, Riots was born Free Derry. There were barricades built. You had the burnings in Belfast where Catholics were getting burnt out of their houses (...) If we thought we were oppressed before that, we had no idea because the Brits did move on big time, and you couldn't move, you couldn't go anywhere, no matter where you looked. And from that, there was nothing but having to rise up" (I-3)

"I went home then (14th August 1969), I heard gunfire, which I never heard before (...) I think it was maybe the RUC who fired on us with a machine gun, a heavy machine gun. I was 14 years old, she was 15, so we were two obvious kids, but they fired (...) There were people burning houses that belonged to your friend and their families, people you knew, and you were just trying to stop them; that's all we were doing" (I-5).

Elkarrizketatu batek (I-6) dio bere kasuan *internmentaren* hasiera izan zela politikoki mugiarazi zuena eta gerora IRAn sartzeko erabakia bultzatu zuen arrazoi nagusietako bat. Halaber, garai horretan zuen gaztetasunak eta bestelako obligazio familiarrik ez izateak erabaki hori erraztu zuela onartzen du:

"That was a massive event (Internment without trial), and for me, that was the turning point. I was at an age when my mother couldn't keep me in the house any longer, but I hadn't settled down. I didn't have any family, no children, no wife... I had no extra obligations, so I was free to make those decisions. I think that has to be also taken into consideration" (I-6).

Beste batek (I-8) dio *Bloody Sunday*ko gertakarien ostean erabaki zuela IRAn sartzea; lan finkoa zeukan eta bizitza proiektu bat ere, baina ikusitako errepresioak bere lehentasunak aldarazi zizkion:

"Yes, it was the Civil Rights Movement that was the core of my mobilisation. There was a civil right march up in Derry, and there were a lot of people shot dead by the British state. I just decided that Sunday night or maybe on Monday... I had a job, I was working in the civil service, and I remember hearing the news before going to work and saying to myself, 'Fuck that! Nothing is going to change; we're going to have to get up and defend ourselves, stop protesting and take a bit of action.' After that, I pursued the IRA" (I-8).

Beste elkarrizketatu baten kasuan 1969ko abuztuaren 14an eta 15ean Belfasten izandako gertakari biolentoek inpaktu berezia izan zuen; bera *Springfield Road*koa izanik (istiluak zentratu ziren zonaldea) eta hamalau urterekin lehenengo pertsona bizi zuen egun haietan gertatutakoa. Izan ere, gehien bat markatu zuena izan zen ikustea bere lagun bat tirokatua hil zela auzoko jendeari laguntzen ari zitzaiolarik.

"We were going from street to street trying to stop these people burning houses. I was crossing Clonard Gardens, and somebody said they were down at the bottom of Waterville Street burning houses, so we went down, and before I got to the corner, I heard shots, very, very close. I looked

around the corner, and I saw a friend of mine, Gerald, with a chair on his head, getting hit by a bullet in the stomach. He dropped the chair and tried to hide in a lamppost, but they shot him twice more. At that moment, I panicked; I didn't know what to do, and I was frightened. The guy was a friend of mine" (I-5).

Horrek, berak aitortzen duen bezala, bere barneko zerbait aldatu zion; inflexio puntu bat izan zen berarentzat.

"I was something else the next morning. I wasn't a child anymore. (...) That next day, I remember going out into the street feeling completely different from the day before. I felt completely different. A different person. And that whole week was like establishing a sort of what your history, what your future was going to be" (I-5).

Beste batzuek, gertakari konkretu batzuek haiengan eragin berezia izan zutela aitortu arren, ez dute lotzen gertakari konkreturik IRAn militatzen hasteko hartu zuten erabakiarekin (I-1, I-2, I-7, I-9). Batek dio gertakari guzti haiek demostratu ziotela protesta baketsuak porrot egiten ari zirela, eta, hortaz, beste bide batzuk inplementatu behar zirela komunitatearen defentsarako (I-9). Antzeko iritzia dauka beste batek gogoratzen duenean bera bizi zen zonaldean *Glenanne gang* talde paramilitar unionistak komunitate nazionalistaren aurka erabilitako biolentziaren aurrean erantzuteko beharra sentitu zuela, hori izanik gerora IRAn sartzeko bere arrazoi eta motibazioetako bat (I-8).

Izan ere, errepresioa izan daiteke erakunde armatu batean sartzeko pertsona batek izan ditzakeen arrazoietako bat (Coser, 1970; Tilly, 1975a; Della Porta, 1995) baina ez du zertan arrazoi bakarra izan behar. Hurrengo atalean elkarrizketatuek borroka armatuari ekiteko izan zituzten motibazioetan zentratuko gara.

IV.1.3 Motibazio ideologikoak, estrategikoak edota emozionalak erakunde armatuan sartzeko?

Nolakoak izan ahal dira pertsona baten motibazioak erakunde armatu batean sartzeko? Ba al dago erakunde armatuetako militanteen perfil argirik? Noraino eragiten dute emozioek erakunde armatu batean sartzeko erabakia hartzeko orduan? Aurrekoak dira atal honetan erantzuten saiatu garen galdera batzuk.

Izan ere, erakunde armatuetako militanteen motibazioak eta perfilak anitzak izan daitezkeela jakin arren, militanteen hiru motibazio nagusi planteatu ditugu: motibazio ideologikoak, motibazio estrategikoak eta motibazio emozionalak. Aipatu kategoriak, ñabardurak ñabardura, Bosik eta Della Portak (2012) IRAko eta *Brigate Rosse*ko militanteen perfilak aztertzeke planteatzen dituztenekin bat datoz. Beraiek hiru profilez hitz egiten dute: perfil ideologikoa, perfil instrumentalista eta perfil solidarioa, horrela definitzen dituztelarik (362):

-**Perfil ideologikoa:** *They perceived their sociopolitical context as open to a potentially revolutionary situation, where particular transformative events worked to confirm and support previous views, up to legitimizing the choice for armed activism.*

- **Perfil instrumentalista:** *They joined the armed groups following their belief that armed activism would lead to concrete results.*

- **Perfil solidarioa:** *For those who followed a solidaristic path resorting to political violence was the result of escalating political conflict (...) Along with their peers, they felt compelled to join armed groups as a means of defending and avenging their own community rather than for more general political reasons.*

Lan honen kasuan, bildutako datuekin perfilak eratu beharrean, zuzenean galdetu genien elkarrizketatuei erakunde armatuan sartzeko izan zituzten motibazio nagusiak ideologikoak, estrategikoak edota emozionalak izan ziren, gai horren inguruko haien gogoeta ezagutzeko. Aurrean dugu elkarrizketatuek esandakoa.

IV.1.3.1 ETAko militante ohiak.

Gehienek ez dute motibazio bakar batekin lotzen beraien militantzia, eta arrazoi eta motibazio ezberdinen arteko nahasketaz hitz egiten dute ETAn sartzeko hartutako erabakia azaltzen dutenean. Batek (E-10) garbi dauka bere kasuan arrazoi ideologikoak izan zirela eragingarrienak:

“La razón principal es ideológica (y hago referencia sobre todo al proceso de 3 años antes de militar en la erakunde). Por ejemplo, en el 73 nos daban cursillos de 7 días, y de esos 7, 6 eran de formación ideológica (historia y cultura vasca, el libro Vasconia de Federico Krutwig, y sólo un día para echar tiros” (E-10).

Beste batek (E-3) lotzen ditu arrazoi ideologikoak eta estrategikoak bere erabakia azaltzeko orduan, arrazoi emozionalak baztertzen dituelarik, nahiz eta onartzen

duen aurretik atxilotua izanak ere nolabaiteko ondorio emozional bat eduki ahal zuela bere kasuan:

“Las razones ideológicas te llevan a las razones estratégicas, es decir; yo tengo unas ideas, yo tengo una ideología, y tienes un fin, que son las razones estratégicas. Y yo creí en un momento que, aunque quizás no iba a ser el medio más directo ni el más rápido, la lucha armada era una de las maneras de llegar a ese fin, conseguir esos derechos que creía que teníamos como pueblo. (...) Las convicciones políticas que yo tenía me llevaron a implicarme al máximo, porque creía que era una de las maneras que nos iban a ayudar a llegar a ese fin. (...) No fue desde luego por razones emocionales, aunque es posible que el plus de la detención también me influyera” (E-3).

Beste lau kasutan, ordea, garrantzi handiagoa ematen zaie arrazoi emozionalei (E-4, E-5, E-6, E-9), beste motatako motibazioen eragina ukatu gabe. Haietako batek (E-4) uste du emozioak direla lehenengo momentu batean eragin handiena izaten duen faktorea, baina gizakiok, izaki arrazional gisa, denborarekin emozio horiei logika bat ematen saiatzen gara; logika politiko bat kasu honetan:

“Nire iritziz emozioetatik hasten zara, bada zerbait emozionala, eta gero hitzak ematen dizkiezu emozio horiei. Nik uste dut erabat emozionala dela, eta gero, gu izaki emozionalak eta gizaki intelektual bezala uste dut denborarekin bakoitzak ibilbide ezberdina duela eta doala guzti hori politizatzen. Gero gorpuzten dituzu zure emozioak, askotan gizakiok bizitzen dugunean zerbait oso boteretsua askotan esaten dugu ez dagoela hitzik azaltzeko hori, eta niretzat politizazio guzti hori da hitzak jartzea emozio guzti horiei. Nire iritzia da oso emozionala dela” (E-4).

Antzeko iritzia plazaratzen du beste elkarrizketatu batek (E-6). Bere kasuan dio hasieran emozioak izan zirela militatzen hasteko faktore nagusia, baina denbora pasa ahala, emozio horiek lasaituz joan zirela formakuntza politikoa jasotzen zuen heinean:

“Agian nahasketa bat izan zen, baina nire kasuan uste dut arrazoi emozionalak izan zirela eragingarriena, ez nuen gehiegirik pentsatu (...) Ni orokorrean oso emozionala naiz, eta nire kasuan pisu gehien izan zuena izan zen hori (...) Formakuntza nahiko garrantzitsua izaten zen. Bai, gero kezkatzen zara, irakurtzen dituzu liburuak... Nik uste dut geroago emozioak apur bat lasaitzen direla” (E-6).

Hain zuzen ere, formazio politikoa izan zen elkarrizketatu batek (E-5) ETAn sartu aurretik igaro zuen fase bat, erakundean sartzeko erabakia hartua zuen arren. Hala ere, arrazoi emozionalak eta estrategikoak ere aipatzen ditu bere kasua azaltzeko; esaten du gaztetatik sinesten zuela borroka armatua biderik eraginkorrena zela independentzia lortzeko, eta aldi berean ETAn bi militanteren heriotzak era berezi batean hunkitu zuela aitortzen du:

“Ni politikan mugitzen hasi nintzenetik, ia hasieratik, nire barnean neukan oso garbi momentu horretan independentziaren alde borrokatzeko bide bakarra edo biderik eraginkorrena zela borroka armatua (...) Niretzat oso inportantea zen formakuntza. Nik nahiko gazetetik esaten nuen lehenengo formatuko nuela nire burua, hau da, ikasiko dut dena, eta dena behin ikasita eta formakuntza osatuta daukadanean egingo dut bestea (...) banuen nire lana, nire pisua... Baina egun batean esnatu nintzen eta esan nuen: “zu ez zara hankamotz, ez zara tontoa, ez zara torpea... eta hain konbentzitura baldin bazaude horrela egin behar dela zure herriaren alde borrokatzeko, zergatik ez duzu egingo? (...) Eta gogoratzen naiz asteburu batean Anuken eta Gurutze Jantziren heriotzak gertatu zirela, eta oso asteburu intentsua izan zen niretzat. Orduan, nik uste dut saihestezina zela. Alde batetik, nahiko heldua nuen erabakia aspaldidanik, eta beste alde batetik arrazoi sentimentalek edo emozionalek ere ziurrenik eragin handia izan zuten nik pauso hori emateko” (E-5).

Arrazoi emozionalak eta ideologikoak nahasten ditu beste batek (E-9). Bere kasuan haurtzarotik zetozkion arrazoi emozionalak aipatzen ditu, baina arrazoi ideologikoen eragina ere handia izan zela esaten du. Izan ere, elkarrizketatu honek dio berarentzat ETAn militatzea mundu mailako iraultzan parte hartzeko bide bat zela; ETako militanteak iraultzaile gisa ikusten zituen, eta hortaz, berak ere iraultzaile haietako bat izan nahi zuen:

“Argi dago nire haurtzaroak ETAn sartzeko arrazoi afektibo-emozionalak eman zizkidala: ETA “gu” ginen, gure komunitatea, gure herria. (...) Era berean, banuen borroka armatuaren irudi mitifikatua, erromantikoa. (...) Mundu Iraultzaren alde ari ginen. Gure aberria ez zen geografia bat, etorkizun ideia bat baizik. Euskal Herria ez zenez errealitate estatal bat, independentzia ez zegoenez gauzatua, hura edozer gauza izan zitekeen: utopia. ETako kideak utopia horren alde ziharduten iraultzaile gisa ikusten nituen, jende purua, garbia, eskuzabala, entregatua, ona, leiala, osoa... Eta nik neuk ere anbizioa nuen halakoa bilakatzeko: iraultzailea” (E-9).

Iraultza egiteko eta iraultzaile gisa bizitzeko ideia izan zen ere beste elkarrizketatu baten (E-7) arrazoietakoa bat ETAn sartzeko. Hala ere, arrazoi estrategikoen eragina ere aipatzen du, ETaren existentzia estatuaren biolentziaren eta independentzia lortzeko aukerarik ez egotearen ondorio bezala ulertzen baitu:

“ETAzalea nintzen. Baina gehien erakartzen ninduen iraultzaile bizimodua zen. Ekintzaile iraultzailearena, gazteago nintzenez hainbeste aipatzen zen praxia. (...) Gaztetatik ezagututakoaren ondorio logiko bat izan zen. Independentzia lortzeko biderik ez zegoen, eta independentistak jarraituak izan gara modu biolentean eta basatian. Horri erantzuteko bide zilegi eta argia iruditu zitzaidan ETak urteetan zehar egindako borroka” (E-7).

Beste elkarrizketatu bik (E-1, E-2), aldiz, ez dute aipatzen arrazoi berezirik ETAn militatzera bultzatu zituenik; beraien militantzia politikoaren garapen logiko gisa ulertzen dute ETAn sartu izana. Biak militante politikoak ziren beraien

herrian ETAn sartu aurretik, eta erakunde armatuan militatzea beraien militantzia politikoaren beste pauso bat bezala ulertu zuten orduan.

“Niretzat erakundearen sartzea izan zen pixka bat kate berdineko hurrengo urratsa (...) nire helburua zen herrian egotea eta eraldatzen saiatu, baina denborak eta batez ere etsaiak markatzen du noiz arte, eta horrela izan zen nire kasua. (...) Niretzat izan zen: erakundearen alde nago, uste dut erakundeak segitu behar duela bere jardunean uste baitut jarduera hori zilegia dela, baina klaro, guay dago esatea baina norbaitek egin behar du. Orduan, niri iritsi zitzaidan momentua erabakitzeke bai ala ez, nire txanda moduan zela ulertu nuen. Hurrengo urratsa bezala ulertu nuen” (E-1).

“Uste dut ez dagoela arrazoi bakar bat, bada bidea jarraitzea (...) Sentitzen nuen zerbait gehiago aportatu behar nuela nik hori konpontzeko. niretzat izan zen bidea jarraitzea eta beste konpromiso bat hartzea (...) Nire kasuan ez zen egon hausmarketa estrategikorik edo, egoerak eraman ninduen” (E-2).

IV.1.3.2 IRAko militante ohiak.

ETAko militante ohien kasuan gertatu bezala, IRAko militante ohien kasu gehienetan ere ez dago motibazio bakar argirik erakundearen militatzera bultzatu zituena. Askok aitortzen dute komunitate nazionalistaren kontrako bazterketak eta errepresioak eragina izan zutela erakunde armatuan sartzeko erabakia hartzeko orduan, baina faktore horrek eragin handiagoa edo txikiagoa izan zuen kasuaren arabera. Batek (I-1), adibidez, aitortzen du errepresioa izan zela bere kasuan eragina izan zuen arrazoietako bat IRAn sartzeko, aldiz, ez du uste emozioak izan zirenik bere erabakiaren parte inportante bat. Halaber, bizi zuen egoeraren aurrean oinarri ideologikozko erabaki arrazionaltzat hartzen du IRAn sartzeko urratsa. Hala ere, uste du beharbada beste pertsona batzuek arrazoi emozionalen ondorioz hartu zutela IRAn sartzeko erabakia, gatazkaren ondorioz senideren bat galdu zutenak, adibidez:

“Maybe that kind of events (the Bloody Sunday and the beginning of the internment) had some influence on me to get involved, but I would say that it was mainly a rational decision rather than emotional (...). In my case, this was an ideological and moral decision because I felt that I had a responsibility. Emotions may have had a part to play, but it was more a rational and moral decision to get involved rather than an emotional reason (...) I think there were people who got involved because of events or for emotional reasons. If someone loses a family member, for example, there might be an incentive to get involved, not necessarily for reasons of revenge but because people may feel they have to do something” (I-1).

Aldiz, beste elkarrizketatu baten kasuan (I-5) motibazio ideologikoen eta motibazio emozionalen eragin antzekoa izan zuten bere erabakian. Berak aitortzen duen moduan, ikusten zuen injustizia izan zen pizgarri handiena IRAn sartzeko. Halaber, elkarrizketatu honek onartzen du hasieran kostatu egin zitzaizkion defentsatik ofentsibarako urratsa onartzea eta ematea, hau da, biolentzia politikoa erabiltzea ikuspuntu ofentsibo batetik:

“Well, I’m not sure. I think it was a mixture of both ideological and emotional. I think this applies to most people too. I think after 1969-1970, different things were happening in different parts of the town, and what struck me more than anything else was the injustice (...) Our reluctance to use violence was pretty strong in us. We were reluctant to use violence against people. One thing was to protect ourselves, no problem with that, but with this sort of a reluctance to attack people, that was something that didn’t come very easily. It was just a thing we didn’t do. But they kept on attacking us, injustice on top of injustice, and then the IRA began to get stronger, and people were looking to the IRA, and the IRA was making statements... Everybody liked what they were saying” (I-5).

Beste batek (I-4), ordea, IRAn sartzeko erabakia hartu zuen garaian (gaztea zenean) oinarri ideologiko handirik ez zeukala aitortzen du, baina bizi zuen egoerak bultzatu zuen “aldaketa”ren alde egiteko:

“I just knew that if a change was on the agenda. I wanted to be part of that change, that I wanted to be part of that progressive change. But as having a clearly thought, ideological position... No, I wouldn’t have had it at that stage” (I-4).

Arrazoi estrategikoei dagokienez, elkarrizketatu batek (I-7) dio berak ulertzen zuela borroka armatua tresna taktiko bat bezala, hots, bizi zuten egoera hori aldatu ahal zuen bide bakar moduan. Halaber, bere kasuan emozioek eragin txikia izan zutela esaten du, baina bai, ordea, alde ideologikoak, hots, borrokaren ikuspuntu idealista bat kolonialismoaren kontrakoa, alegia:

“My view about the armed struggle was that it was of tactical use. Originally, there was no other option; the political dynamic wasn’t there, for example, so the armed struggle was there with the tactic, which at that stage was the only option to achieve your ends. (...) I think the emotional side of it would be the least of the influences, to be honest with you. I think, in my case, it was ideological and idealistic in a sense” (I-7).

Beste bi elkarrizketatuek (I-8, I-9), aldiz, zeharka bada ere, arrazoi emozionalen garrantzia azpimarratzen dute. Izan ere, eskubide zibilen aldeko mobilizazioen aurkako eraso eraginez, eta bereziki *Bloody Sunday*ren ostean, hartu zuten IRAn sartzeko erabakia. Hala ere, ez dute uste akzio-erreakziozko erabaki bat

izan zenik, aldez aurretik ezagutu zituztelako beste esperientzia errepresibo batzuk, baina eskubide zibilen aurkakoak bereziki hunkitu zituen, eta horrek beraien interes indibiduala interes kolektiboaren menpe kokatzera eraman zuen:

“It wouldn't have been strategic reasons, but it wouldn't have been reactionary... What's the option when things are happening? Is doing something about it that makes it reactionary? (...) But when a civil rights march was shot by the British Army, by the British paratroopers... And they had been massive killings prior to that, which didn't have the same effect on me! They shot 8 or 9 men dead in the New Lodge Road, in Ballymurphy... But there was something about that civil rights march very reminiscent of... I don't know” (I-8)

“It was the way that the civil rights marchers were being treated. If the peaceful protest was being met with attacks from those meant to uphold the law, then it seemed pointless to continue down that road. The idea that you were fighting back, literally and metaphorically, that you were going to change the future for you children, grandchildren meant more than the possible outcome for yourself” (I-9).

Horrez gain, haietako baten kasuan (I-9), behintzat, IRAn sartzea ez zen batbateko erabaki bat izan; hiru hilabetez egon zen sartuko zen ala ez pentsatzen. Azkenean, nahiz eta ezkondata zegoen eta neurri batean bizitza bideratuta zeukan, IRAko militante bihurtzea erabaki zuen

Ikusten dugunez, motibazio ezberdinak izan zituzten elkarrizketatuek borroka armatuari ekiteko; batzuek arrazoi emozionalak izan zituzten, beste batzuk estrategikoak edota ideologikoak, eta kasu askotan motibazio mota ezberdinen arteko nahasketa bat izan zuten. Motibazio horiek, baina, erakunde armatuan sartu aurretikoak izan ziren, hots, borroka armatua erabiltzera bultzatu zituztenak. Hala ere, behin erakunde armatuko militante izanda, denbora pasa ahala, baliteke borroka armatuaren inguruko iritzia aldatzea arrazoi ezberdinengatik. Arrazoi horietako bat tortura pairatzea izan daiteke, zeren beste pertsona batzuek pairatutako errepresioak elkartasunezko sentimendu bat sorbaitezake, baina norberaren azalean pairatzeak bestelako sentimenduak sor ditzake ere. Hurrengo puntuan tortura pairatzeak elkarrizketatuengan izan zuen eraginaz arituko gara.

IV.1.4 Torturaren eragina borroka armatuarekiko atxikimendurako.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren³⁰⁴ 5. artikuluan eta *Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren*³⁰⁵ 7. artikuluan jasotakoaren arabera, ezin da torturarik egin, ezta tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarririk ezarri inoren aurka. 1976ko irailaren 26an Espainiar Estatuak Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna sinatu zuen, 1977ko apirilaren 30eko BOEn argitaratu zuelarik³⁰⁶. Erresuma Batuak 1968ko irailaren 16an sinatu zuen, 1976ko maiatzaren 20an berretsi zuelarik. Bestalde, Espainiar Estatuak eta Erresuma Batuak 1985ean sinatu zuten 1987an indarrean sartu zen *Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioaren Hautazko Protokoloa*, zeinek horrela definitzen baitu “tortura” bere 1. Artikuluan:

“Konbentzio honen ondoretarako, «tortura» terminotzat ulertuko da pertsona bati begira gauzaten den egintza oro, hala nahita min edo sufrimendu larriak, fisikoak nahiz mentalak eragiten dizkiona, horren helburua dela berarengandik edo hirugarren batengandik informazioa edo aitortpenen bat lortzea, gauzatu duen edo ustez gauzatu duen egintza batengandik zigortzea, edo pertsona hori edota beste batzuk ikaratzeara edo derrigortzea, edota edozein bereizkeria-motatan oinarritutako arrazoi batengatik, betiere, min edo sufrimendu horiek eragiten baditu funtzionario publiko batek nahiz funtzio publikoak gauzaten dituen pertsona batek, edo halakoek bultzatuta edo halakoek baimenarekin edo oniritziarekin jarduten dutenek. Ez dira tortura gisa hartuko zehapen legitimoen ondoriozko min edo sufrimenduak, edo zehapen horiei datxekizienak nahiz zehapen horiei begira intzidentalak direnak”³⁰⁷.

Baliteke pentsatzea tortura edo tratu txarrak jasotzeak ondorio larriak sor ditzakeela pairatzen dituzten pertsonengan. Sor dakizkiekeen ondorio psikologikoez gain, halako esperientzia bat bizi izateak ondorio emozional gogorrek ekar diezazkieke torturatuak izan diren pertsonen. Horrela, torturatuak izan ondoren pertsona horiek beldurra, amorrua, gorrotoa edota mendeku-grina bezalako emozioak izan ditzakete. Hortaz, jakin nahi genuen torturak nolako eragina izan zuen gure elkarrizketatuen kasuan. Horretarako, torturatuak izan

³⁰⁴ <https://dudh.es/giza-eskubideen-aldarrikapen-unibertsala/>

³⁰⁵ http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tratados_internacionales/eu_tratados/adjuntos/pr_otoc_facult_pacto_internac_dchos_civiles_y_politicos_eu.pdf

³⁰⁶ <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1977-10733>.

³⁰⁷ http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tratados_internacionales/eu_tratados/adjuntos/cv_nv_contra_tortura_y_otros_tratos_o_penas_crueles_eu.pdf.

zirela salatu zutenei galdetu diegu ea bizipen horrek indartu edo aldatu egin zuen aldez aurretik biolentzia politikoaren erabileraren inguruan egina zuten hausnarketa. Halaber, torturak salatu ez zituztenei ea aurrekoa gertatzea posiblea dela uste duten galdetu diegu. Aurrean dugu elkarrizketatuen gogoeta gai horren inguruan.

IV.1.4.1 ETAko militante ohiak.

1960-2014 urteen artean, gutxienez, 3415 EAeko biztanlek tortura pairatu zuten Espainiar Estatuaren indar polizialen eskutik. Haietako batzuek behin baino gehiagotan jaso zituen torturak. Orotara, 4113 kasu detektatu zituen 2017an publiko egin zen Eusko Jaurlaritzak UPV/EHUko Kriminologiaren Euskal Institutuari eskatutako ikerketa batek³⁰⁸. Hala ere, 1978ra bitarteko kasuak detektatutakoak (1081) baino askoz ere gehiago izan zireneko susmoa zutela adierazi zuten ikerketaren egileek (Etxeberria; Martín Beristain & Pego, 2017: 350). Halaber, ikerketa horretan gogoratzen dute badaudela Espainiako Auzitegi Gorenak 1979-1992 urteen artean emandako 20 epai tortura kasuak berretsi zituztenak, eta baita Giza Eskubideen Estrasburgoko Epaitegiak 2002-2011

³⁰⁸ Ikerketa honetarako 4225 espediente pertsonal eratu zen. Haietatik, 386 ikerketatik kanpo geratu ziren arrazoi ezberdinengatik: 292 NFE erkidegoari zegozkiolako; 26 beste erkidego batzuei zegozkielako; 31 salatutako gertaerak torturaren edo tratu txarren delituarekin harremanik ez izateagatik; 2 errepresaliei beldurragatik; 8 egiletza argi ez zegoelako; eta 27 beste arrazoi batzuegatik. Ikerketa horren ondorioak biltzen dituen txostena (Etxeberria; Martín Beristain & Pego, 2017) <https://goo.gl/QXsCrd> estekan kontsulta daiteke. Bestalde, 2016ko ekainean UPV/EHUko Kriminologiaren Euskal Institutuak antolatutako "Verdad y reconocimiento para las víctimas de tortura, tratos inhumanos y degradantes" udako ikastaroan Euskal Memoria Fundazioak parte hartu zuen gonbidatu bezala. Bertan, aipatutako fundazioko kideek beste datu batzuk eman zituzten; fundazioaren behin behineko datuen arabera, 1947-2014 urteen artean 4207 euskal herritarrek jaso zituzten torturak, 5022 kasu detektatu zituztelarik. Datu zehatzak eta ikastaro horretan emandako hitzaldiaren transkripzioa <https://goo.gl/Ehttg6> estekan kontsulta daitezke.

urteen artean emandako beste 7 epai ere³⁰⁹, zeinetan Espainiar Estatua kondenatzen baitzuten tortura saihestu ez izanagatik.

Torturak eragindako eragileei dagokienez, ikerketa honek hurrengo datuak aurkezten ditu: 1792 kasu egozten dizkio Guardia Zibilari, 1796 kasu Polizia Nazionalari, 336 kasu Ertzaintzari, 21 kasu espetxeetako funtzionarioei, 9 kasu Udaltzaingoari, 89 kasu beste indar batzuei, eta 96 kasutan zalantzak agertzen dituzte egilea zehazteko (Ibid: 154).

Goian aipatutako datuak kontuan hartuta elkarrizketatuei galdetu diegu ea bai atxiloteta-unean, polizia-etxean edota kartzelan pasatako denboran torturak edo tratu txarrak jaso zituzten. Haietatik seik diote behin bakarrik izan direla atxilotuak ETako militanteak izateagatik eta egonaldi bakarra pasa dutela kartzelan (E-1, E-2, E-5, E-6, E-7, E-8); bi behin baino gehiagotan izan dira atxilotuak baina egonaldi bakarra egin dute kartzelan (E-3, E-4); eta beste bi (E-9, E-10) birritan izan dira atxilotuak eta bina egonaldi egin dute kartzelan.

Torturaz edota tratu txarrez galdetzean, atxiloteta, inkomunikazio-epealdia eta kartzelan pasatako denbora bereizten dituzte. Izan ere, Frantziar Estatuan atxilotutakoak (E-1, E-2, E-3, E-4, E-7, E-8, E-9, E-10)³¹⁰ atxiloteta-unea bortitza izan zela aitortu arren, polizia-etxean igarotako egunetan jasotako tratua “egokia” izan zela adierazten dute, tratu txarrak edota torturarik jaso ez zutela

³⁰⁹ Ikerketaren txostenean 7 epai aipatzen dira, 2017ko abenduan argitaratu zela eta. Hala ere, 2018ko urtarrilean, Giza Eskubideen Estrasburgoko Epaitegiak beste bi zigor-epai eman zituen Espainiar Estatuaren aurka; 2008an atxilotuak izan ziren Igor Portuk eta Martin Sarasolak jasandako torturengatik, eta, hortaz, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 3. artikulua ez betetzeagatik. Halaber, 2007an Guardia Zibilak atxilotutako Gorka Lupiañezek ere torturak jaso zituela adierazi zuen Nazio Batuen Elkartearen Giza Eskubideen Batzordeak 2019ko maiatzean. Era berean, 2021eko otsailean, Estrasburgoko Auzitegiak berriro zigortu zuen Espainiako Estatua, 2011n Guardia Zibilak Ekin antolakundearen aurka egindako operazio baten harira Iñigo Gonzálezek jarritako tortura salaketak behar bezala ez ikertzeagatik.

³¹⁰ E-3, E-9 eta E-10 elkarrizketatuak atxilotuak izan ziren bai Espainiar Estatuan baita Frantziar Estatuan ere.

argi utziz. Hala ere, batzuen erantzuna ezberdina da kartzelan jasotako tratuari dagokionez. Batek (E-1), adibidez, bera egon zen moduluan bost presok beren buruaz beste egin zutela gogoratzen du, eta beste batek (E-9) dio kartzelan halako egoerak naturalizatu egiten direla:

“Nik esango nuke hala ere bai izan ditudala tratu txarrak kartzelan nengoenean nahiko konstanteak izan zirenak (...) Polizia-etxean ez ninduten ukitu, baina espetxean bai. Beraien aldetik probokazioak eta irainak eguneroko kontua izaten ziren (...) Ohitzen zara horrenbeste astakeria ikustera kartzelan... nire moduluan adibidez bost neska suizidatu ziren” (E-1)

“Kartzelan orotariko egoerak ezagutu ditut. Zazpi urtez egon naiz ondorengo erregimenarekin: 20 orduz ziegan egunero, bakar-bakarrik (...) Orobat, uste dut kartzela tortura “zuria” dela, gizakia bakardadera behartzen duelako, bere ingurune sozial-afektiboaz ebakiz... Kartzelak egiten dio gizakiari gizaki batek bere txakurrari egingo ez liokeena. Guzti hori ez da sartzen “tratu txarren” kategorian, kartzela “naturalizatu” egin delako” (E-9).

Aldiz, Espainiar Estatuan atxilotuak izan zirenen kasu guztietan tratu txarrak edota torturak salatzen dituzte, bai Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilaren aldetik (E-3, E-10) eta baita Ertzaintzaren aldetik ere (E-5, E-6, E-9), tortura fisikoak zein psikologikoak salatzen dituztelarik:

“En la segunda detención el trato fue muy violento, tanto en la detención como en el viaje a comisaria. Fui torturado por la Policía Nacional, no me aplicaron bolsa ni electrodos, fueron golpes, hacer ejercicio hasta la extenuación, escupir en el suelo y chupar el suelo, amenazas... Fue duro” (E-3).

“Ni Ertzaintzak atxilotu ninduen. Arkauten egon nintzen, eta tratu txarrak jaso nituen, bai fisikoak eta baita bestelakoak ere. Lau egun egon nintzen polizia-etxean, gero Auzitegi Nazionaleko epailearen aurrean salatu nuen, esan zidan que vaya con Dios” (E-5).

“Tortura psikologikoak jaso nituen. Ni momentuan ez nintzen konturatu, baina gerora konturatzen zara tortura mota bat dela hori ere” (E-6).

“1997an tratu txarrak jasan nituen Ertzaintzaren eskutik: legez kanpoko galdeketak, oihuak, irainak, lo egitea galaraztea, musika gorgarria entzunaraztea etengabe... lau egunez luzatu ziren tratu txarrak” (E-9).

“Si. Sufrí torturas en el 79, pasé 10 días en la comandancia de la Policía Nacional. También sufrí torturas la segunda vez, en la entrega a España pasé tres días en Madrid en manos de la Guardia Civil” (E-10).

Tortura eta tratu txarrak jasotzeak biolentzia politikoaren erabilpenaren inguruko hausnarketan eduki dezakeen eraginaz galdetuta, iritzi ezberdinak aurkitzen ditugu. Batzuek (E-5, E-6, E-9, E-10), nahiz eta torturak eta tratu txarrak

jasan zituztela adierazi, uste dute bizipen horrek lehendik borroka armatuaz egina zuten hausnarketa ez zuela gehiegi aldatu, atxilotuak izanez gero hori etorriko zitzaiela bazekiten eta:

“Nik banekien hori pasako nuela momentu batean edo beste batean (...) baina egia da zuk bizitzea, nola ez, indartzen duela lehen zeneukan ideia” (E-5).

“Nire ustez indartuta atera nintzen horretatik” (E-6).

“Esperientzia horrek indartu egin du nire ustea ezen biolentzia estatuaren eta boterearen natura funtsezkoenean dagoen. Borroka armatua boterearen biolentziari aurrez aurre begiratzeko deliberoa baino ez da” (E-9).

“No. Ya sabes de antemano que si eres detenido te van a torturar” (E-10).

Torturak jaso zituen beste batek (E-5), aldiz, onartzen du bizipen horrek eragin emozionala eduki zuela bere kasuan, baina ez ziola, ordea, aldez aurretik borroka armatuaz zuen ideia aldarazi:

“Después de ser torturado tienes ese sentimiento de rabia y de odio hacia ellos, te hacen pasar por un infierno. Eso se suma, no es que por eso vayas a hacer una cosa ni otra, pero está claro que es un plus (...) No me hizo ser ni más independentista ni creer más en el socialismo ni tampoco me hizo creer que la lucha armada era más necesaria que antes de haber pasado por ahí, pero ese sentimiento de venganza, de ajustar cuentas, está ahí” (E-5).

Polizia-etxean inkomunikatuta egondako egunetan tratatu txarrik jasan behar ez zuten artean iritzi ezberdinak daude torturaren eraginaren inguruan. Batzuek ez dute uste torturatua izateak alda lezakeela aldez aurretik borroka armatuaren erabileraz eginiko hausnarketa (E-1, E-2, E-7, E-8):

“Ez dut uste. Nik uste dut helduak garelako eta badakigulako zer egiten ari garen eta etsaia nor den eta zein den bere tresna, hau da, tortura (...) Uste dut mendekua ez dela egon gure jardunean, orokorrean behintzat, eta etorkizunari begira ere uste dut mendeku grinarekin bizi izatea kaltegarria dela. Ezin gara bizi gorrotoaren pentsaeran” (E-2).

Beste batek (E-4), ordea, nahiz eta bere kasuan inkomunikazio denboraldian tratatu txarrik ez jaso, bai uste du torturak era ezberdinetako ondorioak izan ditzakeela sufritzen duen pertsonaren baitako emozioetan eta hortik aurrerako bere arrazionaltasun indibidualean:

“Nik uste dut baietz. Zure larruan halako zauri bat zabaltzen dutenean nik uste dut gertatu daitekeela hori edo gerta daitekeela ere guztiz kontrakoa, hau da, guztiz desbinkulatzea guztiarekin. Baina bai, uste dut holako biolentzia bat zure azalean pairatzeak norberaren subjektibitatean,

ikuspegieta, emozioeta eta abarretan izan behar duela egundoko eragina. Baina pertsonalki ez dakit, ezin dut jakin” (E-4).

Elkarrizketatuek, beraz, oro har, ez dute uste torturak eragin handirik daukanik norberak biolentzia politikoaren erabileraren inguruan egindako hausnarketa pertsonalean. Alegia, nahiz eta torturak pertsona batengan izan ditzakeen ondorioak ez ukatu, ez dute pentsatzen haren ondorioz sor litekeen mendekugrinak eraldatzen dituenik aldeztatik erakunde armatu batean militatzea erabaki duen pertsona baten arrazoiak eta motibazioak. Aldiz, halako esperientzia batek, salbuespenak salbuespen, motibazio horiek indartu egiten dituela uste dute.

IV.1.4.2 IRAko militante ohiak.

1971n (*internment*³¹¹ martxan jarri zen urtean) Irlandako Errepublikak Erresuma Batuaren kontrako salaketa jarri zuen Europako Batzordean eta Estrasburgoko Epaitegian poliziak eta armadak Ipar Irlandako biztanleak torturatu zituelakoan. Konkretuki, salaketa horrek 14 pertsonen kasuei egiten zien erreferentzia, eta armadak zein poliziak atxilotuen galdeketetan erabili omen zituen bost teknika aipatzen zituen: lo-gabetzea, janari eta edari-gabetzea, atxilotuen aurpegia

³¹¹ *Internment* 1971ko abuztutik 1975eko abendura arte Ipar Irlandan indarrean egon zen atxilotze-politika izan zen (hamarkada batzuk lehenago *internment* erabilia izan zen IRAren aurka. Izan ere, 1922an sinatu zen *Special Power Act* arauen multzoan aurreikusten zen berau aurrera eramateko aukera). *Internment*aren bidez armadak edo poliziak atxilotu eta kartzelaratu ahal zuen jendea epaiketarik izan gabe, eta atxilotuaren epealdia zazpi egunetara luzatu ahal zen. 1971ko abuztuaren 9tik 12ra bitarte Britainia Handiko armadak eta Ipar Irlandako poliziak “Demetrius” operazioa aurrera eraman zuten. Operazio horren helburua NICRArekin, IRArekin eta mugimendu errepublikarrekin lotura omen zuten 450 pertsona atxilotzea zen. Azkenik 343 pertsona izan ziren atxilotuak operazio horretan. Aldi berean, 24 pertsona hil zen operazio horretan (IRAko bi militante, bi soldadu britainiar eta 20 zibil); haietatik 17 tiroz hil zituen armadak (11 Belfasteko *Ballymurphy* zonaldean). Atxilotuen artean 100 pertsona aske geratu ziren, gainontzekoak kartzelaratuak izan ziren epaiketarik gabe (iturria: BBC, <https://goo.gl/nBiVg8>). *Internment* indarrean egon zen urteetan (1971-1975) 1,981 pertsona izan ziren atxilotuak, haietatik 1,874 irlandar nazionalistak izan ziren, eta 107 lealista britainiarrek (iturria: CAIN web service, <https://goo.gl/sEg13S>). Gehiago sakontzeko ikusi McGuffin, 1973. Aurreko liburuaren atal batzuk eskuragarri daude CAIN artxibo digitalean, <https://goo.gl/nn9ui9>).

estaltzea, denbora luzez posizio behartuetan hormaren kontra jartzea atxilotuak eta denbora luzez zarata handia eragitea atxilotuei (Lauterpacht & Greenwood, 1980: 198). 1976an idatzitako txosten batean Europako Batzordeak torturatzat jo zituen aipaturiko bost teknika horiek³¹², baina urte bat geroago Estrasburgoko Epaitegiak teknika horiek ankerrak eta umiliagarriak zirela onartu bazuen ere, ez zituen, ordea, torturatzat hartu³¹³. 2014an garai hartako dokumentu batzuen desklasifikazioaren ostean³¹⁴, Irlandako Gobernuak kasuaren berrikusketa eskatu zuen, baina 2018an Estrasburgoko Epaitegiak berrikusketa hori ukatu zuen³¹⁵. Aipatutako dokumentuen artean Britainia Handiko orduko barne Ministroa (*Home Secretary*) zen Merlyn Reesek eta orduko Lehen Ministroa zen James Callagharek elkarri bidalitako gutun batzuk omen daude. Gutun haietan, Reesek onartzen du 1971-72 urteetan Ipar Irlandan tortura erabiltzeko erabakia Britainia Handiko ministroek hartutako erabaki politiko bat izan zela:

"If at any time methods of torture are used in Northern Ireland contrary to the view of the government of the day, I would agree that individual policemen or soldiers should be prosecuted or disciplined; but in the particular circumstances of 1971/72, a political decision was taken" (Merlyn Rees, 1977an idatzitako gutun batean. Iturria: BBC, <https://goo.gl/SbHBKy>).

Aurrekoa kontuan hartuta, eta jakinda elkarrizketatu guztiek kartzelaldia pasa zutela, jakin nahi genuen ea atxiloketa-unean, polizia-etxean edota kartzelan pasatako denboran torturak edo tratu txarrak jaso zituzten.

Elkarrizketatuen artean, lauk (I-1, I-2, I-4, I-5) egonaldi bana egin dute kartzelan, baina behin baino gehiagotan izan dira atxilotuak, batez ere 70 hamarkadan poliziak eta armada britainiarrak martxan jarri zuten "screening" politikaren ondorioz, zeinen bidez pertsona asko atxilotuak izan ziren Ipar Irlandan ordu

³¹² Ikusi Europako Batzordearen txostena: <https://goo.gl/MQv7di> (kontsulta: 2018-8-5).

³¹³ Ikusi Estrasburgoko Epaitegiak emandako epaia: <https://goo.gl/weVgnk> (kontsulta: 2018-8-5).

³¹⁴ RTÉk, Irlandako telebista publikoak, kasu horren inguruko dokumental bat ekoiztu zuen 2014an. Dokumental hori eskuragarri dago hurrengo estekan: <https://goo.gl/cqnaJD> (kontsulta: 2018-8-6).

³¹⁵ Ikusi Estrasburgoko Epaitegiak kasuaren berrikusketaren aurka emandako epaia: <https://goo.gl/8vZLWB> (kontsulta: 2018-8-5).

batzuez IRArekin lotura zutelakoan, gehienak aske geratu zirelarik. Beste elkarrizketatu guztiak behin izan dira atxilotuak eta egonaldi bana egin dute kartzelan.

Torturei eta tratu txarrei dagokienez, elkarrizketatu bakar batek (I-4) esaten du ez zuela tratu txarrik pairatu atxilotua izan zenean ezta kartzelan pasatako denboraldian ere. Bera 1972ko maiatza eta 1976ko martxoa bitarte atxilotua izan zen, eta, gogoratzen duenez, epealdi horretan IRArekiko harremana izategatik atxilotuak izan zirenek preso politikoaren statusa izaten zuten (“Special Category Status”), eta horrek, neuri batean bada ere, torturak eta tratu txarrak pairatzeko probabilitatea murrizten zuen bere ustez.

Gainontzeko elkarrizketatu guztiek atxiloketa-unean, inkomunikazioan edota kartzelan bertan tratu txarrak eta torturak pairatu izana salatzen dute. Behin baino gehiagotan eta garai ezberdinetan atxilotua eta kartzelaratua izan zen elkarrizketatu batek (I-1) gogoeta ezberdinak egiten ditu bere esperientziez. Hasteko, bere azken atxiloketa 90 hamarkadan izan zen, eta aldi horretan tratu txarrik pairatu ez zuela esaten du. Aldiz, 70 hamarkadan atxilotua izan zenean tratu txarrak eta torturak pairatu zituela dio. Halaber, bere ustetan ezberdina izaten zen armada britainiarrak edo RUCek (Ipar Irlandako polizia) burutzen bazuen atxiloketa; RUCen kasuan inkomunikazio epealdia luzeagoa izaten zen (zazpi egunetara iritsi ahal zen) eta jasotako tratua txarragoa izaten zen bere ustez. Tortura fisikoak eta psikologikoak salatu zituen, azken horiek txarrenak izan zirela aitortzen du. Halaber, garai hartan kartzelan pasatako denboran kartzelarien aldetik ere tratu txarrak jaso zituela salatzen du:

“The worse thing was whenever you were handed over to the RUC, which was the police force, and you were brought to the interrogation centre. They specialised in torture, and at that time, they could keep you up to seven days, and that gave them a lot of time to work on you. That was the worst. The British army would have punched you, made you stand against walls, But the RUC... That was definitely torture, what they did to you. It was physical, psychological as well because the whole thing about the torture is psychological generally speaking because they make you suffer in pain, but then they stop, and there's your opportunity to avoid the pain, which is a psychological thing” (I-1).

Beste elkarrizketatu bik (I-5, I-6) RUCek erabilitako bortizkeria aipatzen dute era berezi batean. Konkretuki, Castlereagh (Belfast) eta Ballymenako polizia-etxeetan jasotako tratua gogoratzen dute: kolpeak, plastikozko poltsa bat aurpegian jartzea arnasa galaraziz, mehatxuak eta bestelako esperientziak aipatzen dituzte:

“I was tortured before I went to prison on a couple of occasions. I was tortured in Castlereagh and in the barracks in Ballymena as well. It wasn't awful bad torture, but yeah... Well, I remember one of them burnt me with a cigarette, which was awful. They would've kicked you on the ground, hit you in the head, and that kind of stuff. In Ballymena, they kept me in a locker, and they were coming along with their batons and banging there” (I-5).

“When I was arrested and captured, I was then handed over into RUC custody, and I was taken to what at the time was the RUC torture centre Castlereagh (...) The commonest tactic used was to bring three or four large, big, strong policemen and then what they'd have done was to hold your elbow... It might not seem to be a lot, but the room was incredibly warm, and since we were deprived of liquids, and before long, the pressure was put constantly on the wrist, it felt almost similar to an electro-shock. The tactic was designed not to leave marks, but it was incredibly painful, to such an extent that after a number of days, I just went unconscious. I still was refusing to cooperate, so as a last effort to make me talk, they held me on the ground and put a plastic bag on my head so I couldn't breathe. That was terrible” (I-6).

Beste elkarrizketatu batek ere atxilotua izan zenean ez ezik, kartzelan pastako denboran ere tratu txarrak pairatu zituela salatzen du (I-7). Hala ere, esperientzia gogorra izan zela baieztatu arren, 70 eta 80 hamarkadan atxilotuek jasan behar izaten zuten tratua askoz ere txarragoa izaten zela esaten du, emakumeen kasuan bereziki. Hain zuzen ere, elkarrizketatu genituen hiru emakumeek (I-2, I-3, I-9) esperientzia gogorrek kontatzen dituzte, batez ere espetxean pasatako denboraz. Batek dio atxiloketan jasotako tratua “ohikoa” izan zela bere kasuan, hau da, kolpeak jaso zituela, ez ziotela lo egiten utzi, eta abar (I-2). Kartzelan pasatako denboraz esaten du beste emakume bakar batekin egon zela gizonen kartzela batean eta miaketa ugari izaten zituztela egunero, gizonen aurrean bilustu behar zutelarik. Antzeko tratua salatzen dute gainontzeko bi emakumeek (I-3, I-9). Haietako batek kontatzen du kartzelan zegoelarik parte hartu zuela “no-wash³¹⁶”

³¹⁶ 1980-81 bitarte Armagh espetxean zeuden preso errepublikarrek (emakumeek) estatus politikoa eskatzeko egin zuten protesta bat izan zen, zeinetan higiene pertsonalari uko egin baitzioten, urte batzuk lehenago Long Kesh kartzelan zeuden preso errepublikarrek (gizonek) egin zuten antzekoa. “No-wash” protestaren inguruan gehiago sakontzeko ikusi Loughran, 1986.

protestan, eta horren ostean kartzelariak ziegak garbitzeko erabilitako produktua oso gogorra zenez (behien ukuiluak garbitzeko produktu bera omen zen) osasun ondorio larriak eragin zizkiela preso batzuei:

“When the commander washed the cells, what they used was a detergent, a chemical that was used when they washed out cows’ shit, and when they’d have washed it out, the cows wouldn’t have been put back in for a week, the cattle couldn’t have been put back in for a week because of the fumes. So, they were using that to wash out our cells in the morning, and we were in that night. There were 32 women in protest, and I think 10 of them had already died from cancer. We have done an interview, and it has passed the third stage onto Europe, and all we want to do is make the Brits admit that they shouldn’t have had us in those cells the way that they did” (I-3).

Oro har, elkarrizketatuek ez dute uste esperientzia horretatik pasa izanak aldatu egin zuenik borroka armatuaren erabileraren inguruan lehendik egina zuten hausnarketa. Amorrua neurri batean bai, baina mendeku-grinarik ez; hori da batzuek aitortzen dutena. Batek dio esperientzia hori bizitzeak indartu zuela lehendik pentsatzen zuena, eta egotekotan zerbait era bereziko amorrua sortarazi ziona gose grebalarien heriotza izan zela (I-1). Baten ustez (I-5) mendeku-grinak gizatasuna kentzen dio pertsona bati; berak aitortzen duen moduan, Irlandako independentziaren aldeko borrokalari bat izanik soldadu britainiarren gizatasuna ez zuen ukatzen, bere ustetan moralitatea galduz gero kriminal bat bihurtuko baitzen:

“Revenge was never part of my make-up at all. It was simply a war for independence from Britain, and we were combatants, so I felt it that way. I always thought that the feeling of revenge would have made me wrong, weaker, because revenge is not a reason for anything. (...) I always thought of a soldier on the street as a human being and that what I was doing was fundamentally wrong, but I was prepared to do it, wrong and all as it was (...) If you lose the moral standard you become a criminal, so no, revenge was never part of me” (I-5).

Hain zuen ere, beste elkarrizketatu bik onartzen dute torturak pairatu zituzten garaian amorrua sentitu zutela hasieran, baina denbora pasa ahala amorru hori arrazionalizatu zutela berau desagerrarazteko (I-2, I-6). Baten ustez (I-2) tortura erabiltzen duen pertsona batek bere gizatasuna galtzen du, eta uste du torturatua izateak indartu egin zituela lehendik zituen ideiak:

“Yes, I was personally living in anger after all those strip searches, but it was angry at the individuals who allowed themselves in a job to treat another human being, regardless of what we have done, our punishment was jail, and they wanted to continue on with those punishments, so they were dehumanizing themselves. (...), but I never had this ‘Let’s get out and revenge what

happened to us!' We went to jail as politically motivated individuals who were fighting against the injustice of the British state, and that's what we wanted to change" (I-2).

Besteak, aldiz, tortura pairatu eta hurrengo hilabeteetan mendeku-grina sentitu zuela onartzen du, baina denborarekin sentimendu hori arrazionalizatu zuela bere torturatzailleak estatuaren parte bat gisa kontsideratzearen ondorioz, eta, hortaz, bere ikuspuntuak pertsonala baino politikoa izan behar zuela ulertuta:

"Well, in the first weeks or months, maybe even a year after that, there's a feeling or desire for revenge, but bit by bit, in my case and my personal views, the desire, need or feeling for revenge changed from personalising the interrogators and the torturers to see it as a function of the state. So my rationalisation was that the torturers, while are wisely despicable people, they were simply functionaries of the state. I think the point is to think that –this is how I eventually changed from thinking about it– it's not a personal issue but a political issue" (I-6).

Torturatua izatearen esperientzia eremu pertsonaletik baino eremu politikotik hausnartu zuten beste elkarrizketatu batzuek ere (I-3, I-7, I-8, I-9). Horrela, denek esaten dute tortura pairatzeak ez zuela aldatu borroka armatuaren erabileraren inguruan zuten iritzia; alde batetik, IRAn sartu zirenean bazekitelako atxilotuak izanez gero ziurrenik torturatuak izango zirela, eta bestalde, borroka armatuari funtzio taktiko bat ematen ziotelako.

Atal honetan elkarrizketatuek borroka armatua erabiltzeko izan zituzten arrazoiak eta motibazioak aipatu ditugu. Ikusi dugunez, motibazio ezberdinak aurki daitezke haien artean, kasu batzuetan alderdi emozionalak eragin handiagoa izanik beste kasu batzuetan baino. Torturari dagokionez, oro har ez dute uste hura pairatzeak aldatu zuenik lehendik borroka armatuaren inguruan egina zuten gogoeta.

Hurrengo puntuan elkarrizketatuek ETA zein IRA erakundeen jarduera armatuaren amaieraren inguruan eta gaur egun borroka armatuaren eraginkortasunaz egiten duten gogoetaz arituko gara.

IV.2 Borroka armatuaren inguruko iritziak eta jarrerak.

Atzera begirako gogoetek hausnarketa sakonagoak lortzeko balio izaten dute. Izan ere, baliteke momenturen batean akats edo porrot moduan baloratzen den zerbait asmatze edo garaipen gisa baloratzea behin denbora pasa dela, norberaren perspektiba eta gertakariak baloratzeko neurgailuak aldakorrek izan baitaitezke. Biolentzia politikoaren erabilpenaren inguruko gogoetarekin gauza bera gerta daitekeela uste dugu, eta hori aztertu nahi izan dugu atal honetan. Horregatik, ETAREN zein IRAREN jarduera armatuaren amaieraz galdetu diegu elkarrizketatuei. Konkretuki, jarduera armatuaren amaiera gertatu zen garaian izan zituzten emozioez eta egin zuten hausnarketa politikoaz galdetu diegu. Horrez gain, jarduera armatuaren amaiera ekarri zuen prozesuaren inguruan zer aldatuko luketen, eta egungo perspektibatik borroka armatuaren inguruko hausnarketa ezberdina egiten duten lehen egiten zutenarekin alderatuta jakin nahi genuen. Aurrean dugu gai horien inguruan jasotakoa.

IV.2.1 Borroka armatuaren amaierak eragindako emozioak.

Zeintzuk izan ziren elkarrizketatuek izan zituzten emozioak ETAREN zein IRAREN jarduera armatuaren amaiera iragarri zenean? Poza? Tristura? Emozio ezberdinen arteko nahasketa bat? Horixe jakin nahi genuen, eta horregatik 2011ko urrian ETAK bere jarduera armatua amaitutzat eman zueneko momentuan izandako emozioez galdetu diegu ETAKO militante ohiei. Halaber, 1998ko apirilean Ostiral Santuko Akordioak sinatu zireneko momentuaz galdetu diegu IRAKO militante ohiei. Aurrean dugu erantzundakoa.

IV.2.1.1 ETAKO militante ohiak.

2011ko urriaren 20an ETAK bere jarduera armatua behin betiko bukatzen zuela iragarri zuenean elkarrizketatu gehienak (E-1, E-2, E-4, E-5, E-7, E-8, E-9, E-10)

kartzelan aurkitzen ziren. Egoera horretan egonda, albisteak inpaktu berezia izan zuen haiengan, beraiek onartzen duten moduan, gehienek jarduera armatuaren amaiera etorriko zela alde aurretik bazekiten arren. Albisteak sortarazi zizkien emozioei dagokienez, elkarrizketatu gehienek emozio ezberdinen arteko nahaste batez hitz egiten dute. Batzuek umezurtz sentazioa izan zutela aipatzen dute (E-1, E-5, E-6, E-9), beste batzuek nora eza (E-8), zalantza existentziala (E-7) edo frustrazioa (E-3) aipatzen dutelarik. Bakar batek dio albisteak inolako sentimendurik eragin ez ziola (E-10). Halaber, tristura eta poza sentitu zutela gogoratzen dute batzuek (E-1, E-2); alde batetik, tristura ordura arte beraien erreferente politikoa irudikatzen zuen erakundearen amaiera bistan zegoelako, eta beste alde batetik, poza borroka armatuak sortarazten zuen sufrimendua bukatu zelako:

“Esango nuke hasieran behintzat tristura sentitu nuela, negar egin nuen, nik eta nire kideek uste dut, tristura handia. Umezurtz sentazio bat eduki nuen bat-batean. Ipar bat galtzen nuela edo, eta gero konturatu naiz ez dela horrela izan, baina bat-batean itzaltzen zaizu argi bat, zuretzat erreferentea dena (...) Alde batetik ikusten duzu sufrimendua eragiten duen zerbait amaitzen dela, baina nire kasuan gehiago izan zen tristura. Irakurketa hori ere egiten nuen, ze niretzat pozgarria da ere bai jakitea hemendik aurrera inork ez duela bide hori hartu behar izango, nik ez nuen hori amesten ere” (E-1).

“Ez dakit nola deskribatuko nukeen; halako nahaste bat: alde batetik poza, ze pentsatzen nuen bide natural bat zela, iritsi behar zena, eta beste aldetik kezka, tristura... Ez dakit, izan zen... sentimendu ezberdinak aldi berean” (E-2).

Hiru elkarrizketatuk (E-3, E-4, E-5) esaten dute albistea ezagutu zutenean, eta behin amaiera-prozesua ikusita, bere buruari galdetu ziotela ea zerbaitetarako balio izan zuen urte luzeetako borroka armatuak Haietako batek (E-5) dio espexetik atera zenean (jarduera armatuaren amaieraren garaian) konturatu zela euskal gizartea oso aldatuta zegoela espexera sartu zeneko garaiarekin alderatuta, Euskal Herriaren independentzia urrunago ikusi zuelarik:

“Una de mis primeras preguntas a mí mismo fue ¿para qué todo esto? Porque en ese momento te pones a pensar y ¿qué hemos conseguido? Si de los puntos que queríamos no hemos conseguido ni uno, literal, es más, estamos peor que hace tiempo. Entonces, eso pensé ¿para qué todo? Por otra parte, también piensas, una vez terminado, que igual se tenía que haber parado antes (...) fue una mezcla de sentimientos, de rabia, frustración... igual uno de los peores momentos que he pasado, porque no se había conseguido nada” (E-3).

“Egon nintzen pentsatzen jende asko nire ingurukoa gatazka eta estatuaren atzaparkada oso modu bortitzean pairatu duenak, senideak galdu dituztenak edo aspalditik dauden lagunak zigor oso luzeekin... eta egon nintzen pentsatzen jende guzti horrengan ea nola onartuko zuen, ea ulertuko zuen ala ez, eta gero, egon nintzen pentsatzen ea zerbaiteko balio izan zuen horrek guztiak, ea suposatuko duen zer bait positiboa zentzu askotan” (E-4).

“Gizartea aldatu da. Ni konturatu naiz gizartea aldatu dela orain. Ni kartzelan bizi nintzen burbuila batean, eta atera nintzenean konturatu nintzen ikusten nuen Euskal Herria ez zela nik utzi nuena, ez dauka zerikusirik (...) Batzuetan pentsatzen dut independentzia lortzeko helburua gaur egun badagoela askoz ere urrunago ni erakundearen edo kartzelan sartu ninduten garaian baino. “Orduan zertarako?” pentsatu nuen “ (E-5).

IV.2.1.2 IRAko militante ohiak.

1997ko uztailaren 20an Provisional IRA erakundeak bere azken su-etena indarrean jarri zuen. 1998ko apirilaren 10ean Ostiral Santuko Akordioa (*Good Friday Agreement* edo *Belfast Agreement*) sinatu zen. Zazpi urte beranduago, 2005eko uztailaren 28an, Provisional IRA erakundeak bere kanpaina armatuari amaiera eman zion bideoz grabatutako komunikatu baten bidez³¹⁷. Urte horretako irailean, IRAREN armagabetze prozesua ikuskatzen zuen nazioarteko batzordeak (IICD) hura amaituta zegoela egiaztatu zuen, eta hiru urte beranduago, 2008ko irailaren 3an, erakundearen egitura guztiak desagintzat jo zituen.

Bake prozesuak eta borroka armatuaren amaierak sortaraziko emozioez galdetu diegu elkarrizketatuei. Haietatik hiru kartzelan zeuden 1998an, Ostiral Santuko Akordioa sinatu zenean (I-1, I-2, I-7), eta gogoeta ezberdinak egiten dituzte garai hartako gertakariez. Haietako bik (I-2, I-7) diote bake akordioak sinatu baino lehen prozesuaren nondik norakoen inguruko informazioa (neurri batean, behintzat) heldu zitzaiela kartzelara. Batek akordioa Irlandako batasunerako aukera berri gisa ikusi zuela dio (I-2). Besteak, emozio kontrajarriak izan zituela onartzen du; alde batetik, hasiera batean borroka armatuari amaiera emateak

³¹⁷ Ikusi komunikatuaren bideoa: <https://bit.ly/2KFbhkP> (Kontsulta: 2018-8-10).

helburu politikoak lortu gabe tristura eragin ziola esaten du, baina, aldi berean, espetxetik aterako zela jakiteak poztasuna eragin zion. Izan ere, bere ustez oso zaila da halako egoera batean sentimendu eta emozio pertsonalak eta gogoeta politikoak ezberdintzea (I-7). Hirugarrenak (I-1), aldiz, prozesuaren inguruko informaziorik eza aipatzen du; bere ustez mugimendu errepublikarraren zuzendaritzak horrela egin zuen, hots, prozesuaren nondik norakoen detaile handirik militanteekin konpartitu gabe, barne mailako zatiketak ekiditeko helburuarekin. Hala ere, presoan artean iritzi ezberdinak zeudela aitortu arren, bere ustez preso gehienak ados zeuden borroka armatuaren amaierarekin. Izan ere, bere ustez mugimendu errepublikarraren zuzendaritzak konbentzitu behar izan zituen mugimenduko kideak borroka armaturik gabeko estrategia bat estrategia armatua baino eraginkorragoa izango zela, porrotaren ideia zabaldu ez zedin eta 1975eko eta 1994ko su-etenek sorturiko frustrazioak ekiditeko:

“The 1975 ceasefire was thus viewed as a disaster by many republicans, and the notion of ceasefires seemed to go out the window for a long time to come. Anyone proposing a new ceasefire in the late 1980s, therefore, had to be careful and prepare the ground well. (...) I think that that was a difficulty for many at the time of the ceasefire in 1994. I think that emotions intertwined with rational decision-making because the fact was that republicans, after all those years of armed struggle, were now stopping that armed struggle before they had attained their goals. The peace process had to be sold to them as a rational alternative to armed struggle – unarmed struggle. The difficulty is that when you start questioning the tactic of armed struggle, and you say that maybe we should stop this, some people say that if we stop this, the British have won, or if we stop this, what about the people who have been shot, tortured or have died because of the conflict?” (I-1).

Bere kasu partikularrean, bake akordioen puntu batzuekin ados ez zegoela aitortzen du, hala nola: *Sinn Féin* Ipar Irlandako Gobernuan sartzea edo, geroago, Ipar Irlandako polizia berriaren (PSNI)³¹⁸ sormena bultzatzea. Hala ere, kritikaz kritika, bake akordioekin bat egin zuela adierazten du.

³¹⁸ 2007ko urtarrilean Sinn Féin alderdiak Ipar Irlandako polizia eta justizia zerbitzuak onartzeko erabakia hartu zuen barne mailako bozketa batean. Erabaki horren ostean, autonomia itzuli zitzaion Ipar Irlandari, justizia eta barne eskuduntzak eskualdatu ziren, eta errepublikarren eta unionisten arteko Gobernuak eratu zen Ipar Irlandan.

Beste elkarrizketatu bik ere emozio kontrajarriak izan zituztela aitortzen dute (I-5, I-6). Batek esaten du urte batzuk lehenagotik pentsatzen zuela estrategia armatuak goia jo zuela, azken urteetan estrategikoki kaltegarri bihurtuz, beraz, ados zegoela borroka armatuari amaiera emateko erabakiarekin, baina, era berean, prozesua planteatu zen modua ez zitzaiola gustatu onartzen du (I-6). Besteak, ordea, borroka armatua amaituko zela jakin zuenean lasaitu hartu zuela dio (I-5). Hala ere, sentimendu nahasiez hitz egiten du; tristura ere sentitu zuen neurri batean:

“Relief, probably, more than anything. Relief. It was strange to think it was over, that it was finished. I wasn’t happy; it was confusing. (...) It was a sad time as well. (...) Everybody was ‘Why did they shoot that guy? What was that for?’ We were going nowhere; it was getting ugly. Attacking Miltown, beating people in funerals, we were taking soldiers and shooting them and... It was bad” (I-5).

Beste elkarrizketatu guztiek esaten dute pozaz hartu zutela erabakia (I-3, I-4, I-8, I-9) eta arrazoi ezberdinak ematen dituzte. Baten ustez azken urteetako nazioarteko egoerak (munduko beste gatazka politiko batzuen norabidea eta Ekialdeko Europaren kolapsoa) ez zuen ahalbidetzen estrategia armatuaren jarraipena (I-4). Beste baten iritziz, aurrerapen teknologikoen ondorioz geroz eta zailago zegoen borroka armatuaren bidezko garaipena (I-3), eta beste biek aukera berri gisa hartu zuten erabakia, bai maila politikoan eta baita maila pertsonalean ere (I-8, I-9).

IV.2.2 Borroka armatuaren amaieraren inguruko gogoeta politikoa.

Pertsonalki jarduera armatuaren amaierak eragindako emozioez gain, erabaki hori politikoki nola hartu zuten jakin nahi genuen. Hori dela eta, jarduera armatuaren amaiera politikoki garaipen bat bezala edo porrot bat bezala bizi zuten galdetu diegu. Aurrean dugu elkarrizketatuen iritzia.

IV.2.2.1 ETAko militante ohiak.

Kasu batzuetan ez dago erantzun borobilik, hau da, ez dute porrot/garaipen eskemaren baitako ikuspegi garbirik (E-2, E-7, E-8). Haietako batek dio ilusioa sentitu zuela inork gehiagorik borroka armatuaren bidea hartu beharko ez zuela jakin eta gero (E-2). Beste batek, aldiz, borroka-tresna baten amaiera baino borroka-molde baten amaiera bezala bizi eta neurri batean porrot sentazioa etorri zitzaiola aitortzen du (E-7), eta beste batek bai garaipeneko bai porrotako aztarnak ateratzen dizkio erabakiari (E-8). Bakar batek garaipen bat bezala bizi zuela adierazten du, baina ez lehenengo momentuan, behin denbora pasa zela (E-6). Beste batek dio bi aukera baino ez zegoela: erabakia bultzatzea edo mugimendu politikotik aldentzea, eta, hortaz, berak lehenengo aukera hartu zuen (E-10). Beste batek, momentu hartan hartutako erabakiarekin bat ez zetorrela onartu arren, porrot bat bezala bizi ez zuela adierazten du. Hala ere, orduan borroka armatuak zuen sostengu eskasak hausnarketa sakon bat merezi zuela esaten du:

“Nik momentuan egia esan ez nuen ikusten, hori hasteko, eta ondorioz ez nuen bizi garaipen bat bezala. Bizi nuen triste, baina ez porrot bat izan zelako (...) baina politikoki ez nintzen aldekoa, alde batetik arrazoi estrategikoengatik eta baita arrazoi emozionalengatik. (...) Hala ere, aurretik gogoratzen naiz pertsona batekin hitz egin izanaz horretaz, eta nik neuk esaten nuen agian paron bat egin behar zela, hau da, herriak ez badu ulertzen erakundeak egiten duena zerbait pentsatu behar da. Niri etortzen bazait nire oinarri sozialeko norbait esanez ze pasada den hau zerbait pentsatzen hasteko momentua da” (E-1).

Beste batzuek, ordea, argitasun handiagorekin esaten dute porrot bat bezala bizi zutela borroka armatuari amaiera emateko erabakia (E-3, E-4, E-5, E-9), arrazoi eta ikuspuntu ezberdinak planteatuz. Bat (E-3) oso argia da esaten duenenean egon zen amaiera ikusi eta gero, eta jakinda azken denboraldian sostengu txikia zuela borroka armatuak, lehenago eman behar zitzaiola amaiera jarduera armatuari. Hala ere, oso kritikoa agertzen da Ezker Abertzaleko buruzagi batzuek amaiera-prozesuan izandako jarrerarekin:

“Personalmente creo que la lucha armada debería de haber acabado antes si ya se veía este final. Primero porque ya faltaba apoyo social, eso estaba claro. Pero a nivel político yo vi que nuestros propios políticos no lo hicieron bien, se vieron presionados y acorralados. En parte me sentí un poco traicionado (...) Era “esto y te callas”. No hubo un proceso interno como tal para decidir qué se hacía. (...) No sabría decírtelo con una palabra, pero en gran medida hemos sido derrotados; hasta ahora no hemos ganado. Pero es que llegamos a un momento en el que ni siquiera nuestros propios políticos ni nuestra gente apoyaba ya la lucha armada” (E-3).

Antzeko iritzia plazaratzen du beste elkarrizketatu batek (E-9); bere ustetan, erabakia hartu baino lehenagotik entzuten ziren borroka armatuaren kontrako adierazpenak Ezker Abertzaleko buruzagi batzuen aldetik, eta horrek, beharbada, berak konpartitzen ez dituen irakurketa triunfalistak ekarri zituen geroago:

“Borroka armatuaren amaiera ez nuen garaipen gisa bizitu. Borroka armatuaren egin zuen, baiki, ezinezkoa baita borroka armatuak eskatzen duen sakrifizio terriblea eternalki luzatzea. Gure herria neka-neka eginda zegoen, 60 urteko sakrifizio deskribaezinak ahitua. Baina nekea, naturala izanagatik, ez da bateragarria garaipenaren ideiarekin. gero eta ohikoagoa zen Ezker Abertzaleko eledunak entzutea borroka armatua zalantzan jartzen, halako moduan non sentsazioa zabaltzen hasi zen egiturazko fenomeno zela, eta ez, ordura arte bezala, hainbat arduradun politikoen kontu indibiduala. Ordukoa da, halaber, “estrategia eraginkorra”-ren eufemismoa, zeinak ezkututzen baitzuen, sinpleki, borroka armatuaren amaiera. Proklama triunfalistak, funtsean, propaganda bezala ulertzen nituen” (E-9).

Aipatu kritikak are handiagoak dira amaiera-prozesua aurrera eramanean zen moduaz, hurrengo puntuan ikusiko dugunez.

IV.2.2.2 IRAko militante ohiak.

Elkarrizketatu batzuek garaipen gisa bizi zuten borroka armatuaren amaiera (I-2, I-3, I-5, I-6, I-8) eta beste batzuek esaten dute ez zutela ez garaipen bezala ezta porrot gisa hartu ere (I-1, I-4, I-7, I-9). Garaipentzat hartu zutenek, alabaina, IRaren garaipen militarra ezinezkoa izango zela onartzen dute, eta horregatik, termino politikoetan balorazio positiboa egiten dute bake akordioaren inguruan. Hala ere, batzuek hausnarketa kritikoak ere egiten dituzte. Batek kritikatzeko du bake akordioaren ostean Ipar Irlandako legebiltzarrerako antolatutako sistema parlamentarioa, zeinetan alderdi politikoek beren burua nazionalista irlandarrak

/ unionista britainiarrek bezala definitu behar duten aurkeztu ahal izateko³¹⁹, bere ustez horrek sektarismoa bultzatzen duelako (I-6). Beste batek uste du bake akordioak sinatu orduko mugimendu errepublikarraren baitan bazegoela ikuspegi erromantiko bat gatazkaren amaieraz, baina denborarekin ikuspegi erromantiko hura errealismo estrategiko bihurtu zela (I-2).

Garaipen moduan ikusi ez zutenen artean ere kritika batzuk agertzen dira. Baten ustez bake akordioetan presoen gaia ez zen behar bezala landu, preso ohien eskubideak kontuan hartu ez zirelako (I-9). Beste batek uste du borroka armatuaren amaiera estrategia armatuak goia jo zuela ulertzearen ondorioa izan zela (I-4). Beste batek hasiera batean bake akordioak burutu ziren moduekin ados ez zegoela aitortzen duen arren, kartzelatik ateratzean eta jendearekin hitz egin eta gero errealitatea aldatuta zegoela eta borroka armaturako tokirik ez zegoela konturatu zela esaten du:

"I remember going to a cafe in West Belfast and meeting different people that I knew, just informally, and I remember talking to one guy about the peace process, and he was saying, 'Listen, everybody's got work, there are no British soldiers on the streets, there are house raids, people are happy...' That was maybe one of the first times I went out on parole. And I realised then that everything had changed outside. The context was different, and there was no fire in the belly for armed struggle (...) You had to support the peace process because people wanted it" (I-1).

Ikusten dugunez, nahiz eta elkarrizketatuak ziklo armatuaren amaierarekin bat etorri, kasu askotan kritikoak agertzen dira erabakia hartu zen moduekin eta amaiera-prozesuaren hainbat punturekin. Izan ere, gehienek, ahal izatekotan, zenbait gauza aldatuko lukete amaiera-prozesuari dagokionez, aurrerago aipatuko dugunez.

³¹⁹ Ipar Irlandako sistema parlamentarioaren antolakuntzan sakontzeko ikusi Wilford, 2000.

IV.2.3 Borroka armatuaren amaiera-prozesuaren inguruko iritzia.

Borroka armatua aktibo dagoen egoera batetik jarduera armatuaren amaiera ematen den momentura arteko prozesuak luzeak eta korapilatsuak izaten dira. Batzuetan, barne-zatiketak gertatzen dira horrelako prozesuetan, beste batzuetan, nahiz eta barne-zatiketarik ez egon, borroka armatua uztea erabakitzen duen erakunde baten barneko iritzi disonanteak sor daitezke borroka armatua uzteko erabakiaren beraren inguruan, hura azaltzeko erabilitako diskurtsoaren inguruan edo hura bermatzeko aurrera eramandako prozesuaren inguruan. Hori dela eta, borroka armatuaren amaierako prozesuaz elkarrizketatuen iritzia ezagutu nahi genuen. Horregatik, gaur egungo perspektibatik begiratuta haien erakundeek jarraitutako prozesuaz zerbait aldatuko lukeen galdetu genien. Aurrean dugu erantzundakoa.

IV.2.3.1 ETAko militante ohiak.

Oro har, nahiko kritikoak agertzen dira elkarrizketatuak ETAREN jarduera armatuaren amaiera ekarri zuen prozesuarekin. Bakar batek dio ez lukeela jakingo esaten zer aldatuko lukeen prozesuari dagokionez (E-2). Beste bik Espainiaren eta Frantziaren jarrera kritikatzeko dute, alde biko prozesu batean parte hartu nahi ez izanagatik (E-8, E-10). Beste batek, aldiz, uste du akats bat izan zela Ezker Abertzaleak bake-prozesuan ahalegin guztiak jarri izana alde aurretik barne mailako egoera norabide sendo baterantz zuzendu gabe (E-6). Izan ere, berez, borroka armatuarekin amaitzeko erabakiarekin ezadostasunik adierazi ez arren, prozesua abiadura handiegiz eraman izana eta militantziarekin behar zen bezala eztabaidatu ez izana da elkarrizketatuen artean gehien errepikatzen diren kritikak (E-1, E-3, E-4, E-5, E-6, E-9). Barne mailan oso prozesu gatatzatsua izan zela diote. Ezker Abertzaleko sektore bat beste batzuen aurrean inposatu izana prozesuaren diseinuari eta haren denborei dagokienez kritikatzeko

dute, horrek Ezker Abertzalearekiko desafekzioa eta desmobilizazioa eragin zuela uste dutelarik:

“Aldatuko nuke momentu horretan eman zen prozesu hura, nire ustez askoz ere gardenagoa eta zintzoagoa izan behar zuena, gutxienez aurretik ematen zen bezalako. (...) Esan nahi dut, Ezker Abertzaleak funtzionatu du funtzionatu duen bezala, gerran geundelako eta gaudelako, eta zeuzkan bere markoak, eta marko horiek nire ustez errespetatu behar ziren, eta denborak esango zuen. (...) Nik gaur egun deskonfiantza dut nire egiturez, baina jarraitzen dut militarizatzen, baina zintzoki nik gaur egun deskonfiatu egiten dut gauza batzuez, eta lehen ez nuen egiten” E-1).

“Ir mucho más tranquilos. Antes de llegar a la rueda de prensa que se hizo habría que haber hablado con la organización, sobre todo con sus militantes. ¿Que tardas más tiempo,,? me da igual. Pero eso, haber hecho un proceso interno con todos o con la gran mayoría de los militantes. Pero un debate interno real” (E-3).

*“Nik uste dut borroka armatuaren fase historikoa amaitutzat ematearen inguruko oso iritzi ezberdinak zeudela, baina adostasun batekin. Mahai gainean zegoen borroka armatuaren fasea gainditu behar zela, baina zeuden posizio batzuk oso kontrajarriak zirenak nola egitearen inguruan eta ze nolako bide-orriren arabera egiten zen hori. Oso gatazkatsua izan zen eztabaida hori” (E-4).
“Nik uste dut oso inozoak izan ginela (...) ez genuen aurreikusi orain gertatu dena, eta nik uste dut hortik aurrera dena prefabrikatu zela bulegoetan, galdu zen herriarekiko kontaktu hori (...)beti borrokan egon den jendeak entzuten ditu gauza batzuk eta ados egin daiteke, baina jende horrekin hitz egin behar da eta azaldu behar zaio egiten dena, ze bestela desafekzioa sortzen da” (E-5).*

“Hasieratik zintzotasunez egin beharko zen prozesu hori barne mailan, tentsio guzti horiek ekiditeko. Nik uste dut jendea galdu dugula neurri handi batean horregatik. Nire ustez zintzotasun handiagoarekin egin izan behar zen” (E-6).

Aurretik aipatutako kritikez gain, prozesuaren diseinuan eta garapenean presoek auzia kontuan hartu ez izana oso hutsune handia da elkarrizketatu baten ustez (E-9):

“Prozesuak hutsegite handiak izan ditu, lehena Ezker Abertzaleak ETari bere borrokaren amaiera inposatu izana (...) Ezker Abertzaleak presa gehiegirekin jokatu zuen, larriduraz, eta beldurrez. Beldur zen, batetik, borroka armatuaren aldekoek eduki zezaketen indarrak, eta hasieratik lehentasun bezala markatu zuen balizko indar horiek neutralizatzea. (...) Inork ez zuen kalkulatu presoek auziak prozesuan izango zuen eragina. Noski, fase armatuari, gatazka armatuari, irtenbide bat eman behar zitzaion. Bukaera bat behar zen, historiaren atal hori itxi. Baina ez dago itxierarik presoek auziari konponbide bat eman gabe” (E-9).

Orokorrean, elkarrizketatuak kritikoak agertzen dira ETaren jardueraren amaiera ekarri zuen prozesuarekiko. Batez ere, Ezker Abertzaleko sektore batek prozesuak hartu beharreko norabidea eta jarraitu beharreko tempusak militantziarekin adostu gabe aurrera eramanez izana kritikatzeko dute. Hala ere, kritikotasun handiagoarekin edo txikiagoarekin bada ere,

elkarrizketatu guztiek bat egiten dute borroka armatuaren zikloa ixteko erabakiarekin.

IV.2.3.2 IRAko militante ohiak.

Elkarrizketatuetatik batek bakarrik esaten du pozik dagoela bake akordioekin lortutakoarekin (I-3). Gainontzekoek, batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago, bake akordioen eta haien ondorioz sorturiko egoera politikoaren eta sozialaren inguruko gogoeta kritikoak egiten dituzte. Halaber, bake akordioen inguruko zenbait gauza aldatuko luketela aitortzen dute. Hasteko, Ostiral Santuko Akordioa ez zela errepublikarren dokumentu bat izan, baizik eta Britainia Handiko eta Irlandako Gobernuen arteko akordio bat izan zela gogoratzen dute elkarrizketatu bik (I-1, I-2). Horrekin lotuta, batek Ostiral Santuko Akordioaren inplementaziorako beste akordiorik eza kritikatzeko du (I-2). Izan ere, akordioak sinatu zirenetik 20 urte baino gehiago pasa arren, orduan sortutako batzorde batzuek ez dutela beraien misioa bete gogoratzen du.

Halaber, batzuek preso ohien afera ere aipatzen dute (I-1, I-7, I-9). Izan ere, haien ustez preso ohiak gaur egun diskriminazioa jasaten dute lan batzuk lortu ahal izateko, zerbitzu batzuk jasotzeko edota nazioartera bidaiatzeko. Haietako batek (I-1) mugimendu errepublikarrak Ipar Irlandako zilegitasuna eta hango polizia eta justizia onartzea kritikatzeko du; bere ustez, horrek ezinegon sortu zuen aktibista errepublikar askoren artean:

“One of the big problems for republicans was their acceptance of the right of N.I. to exist until a majority there voted for unity. The illegitimacy of the state let was the justification for war in the first place from their perspective. For me, this was a mistake. (...) Supporting the judicial and policing institutions which enforced British law, which still continued to criminalise the republican military campaign, meant that de facto, they were supporting the right of the state to imprison republicans for engaging in republican activities (or simply being or having been members of the IRA) from 1969 until the IRA said its members had been stood down in 2005. A lot of activists had difficulties with that” (I-1).

Mugimendu errepublikarrak Ipar Irlandako polizia onartzea kritikatzeko beste elkarrizketatu batek (I-4). Horrez gain, bake prozesuaren garaian militanteekiko informazio eta gardentasun handiagoa egon ez izana akats bat izan zen bere ustez, horrek deskonfiantza sortu baitzuen militante batzuen aldetik. Beste baten iritziz Ostiral Santuko Akordioen gabeziarik handienetako bat izan zen egondako gatazka armatua gerra zibil moduan edo gatazka zibil moduan ez deskribatzea; hori dela eta, gaur egun ere zenbait aktibisten kontrako prozesu penalak aurrera eramaten direla salatzen du (I-6).

IV.2.4 Borroka armatuaren erabilerari, zilegitasunari eta eraginkortasunari buruzko gogoeta gaur egun.

Iritziak eta hausnarketak mantendu edo alda daitezke denborarekin. Batzuetan denborak balio izaten du ideiak indartzeko, eta beste batzuetan ideia eta iritzi berriak sortzeko. Zentzu horretan, baliteke militante ohien artean borroka armatuaren zilegitasunaren eta eraginkortasunaren inguruko iritziaren garapen pertsonalean ere ikuspegi ezberdinak topatzea. Horregatik, behin borroka armatuarekin amaitu zutenetik urte batzuk pasa direla, elkarrizketatuek, gaur egungo perspektibatik, borroka armatuaren eraginkortasunez eta zilegitasunez duten ikuspuntua ezagutu nahi genuen. Aurrean dugu jasotakoa.

IV.2.4.1 ETAko militante ohiak.

Gai hau jorratzean, elkarrizketatu askok borroka armatuaren zilegitasuna, eraginkortasuna eta ezinbestekotasuna ezberdintzen dute beraien hausnarketa plazaratzeko. Badaude batzuk funtsean borroka armatuarekiko iritzia aldatu ez dutenak, eta horrelaxe aldarrikatzen dute (E-1, E-2, E-6, E-7, E-9, E-10). Hortaz, lehen borroka armatuari ematen zioten zilegitasun eta eraginkortasun maila ez dela aldatu ondoriozta dezakegu.

Besteek, aldiz, ñabardura batzuekin, borroka armatuaren eraginkortasunaz eta ezinbestekotasunaz izan duten iritzi aldaketa aipatzen dute, batez ere, Euskal Herriko kasuari dagokionez. Hala ere, denek jarraitzen dute pentsatzen borroka armatua dela herriek duten aukera zilegia estatuen biolentziari erantzuteko. Horrez gain, gaur egungo perspektibatik begiratuta, haien ustez ETAren borroka armatua produktiboa edo positiboa izan ote zen galdetu diegunean, guztien ustez borroka armatuak ekarri ditu ondorio positibo batzuk, nahiz eta haietariko askok akatsak egin direla onartu eta autokritika egiten duten. Batek (E-1), adibidez, borroka armatuak ondorio positibo batzuk ekarri dituela uste du, eta, aldi berean, haren amaierak latente zeuden bestelako borroken indartzea etorri dela dio, hala nola, feminismoarena:

“Bai, ez daukat zalantzarik, bere fruituak eman ditu. Ezin da jakin nola eta non egongo ginatekeen borroka armatua existitu izan ez balitz, baina nire ustez borroka armaturik gabe ez ginateke egongo gaur egun erabakitzeko eskubideaz hitz egiten (...) garaipenak niretzat hor daude, asko ikusten ez direnak, baina hor daude. Eta gaur egun beharbada indartu dira borroka batzuk orain arte latente zeudenak, eta ziklo aldaketak ahalbidetu du borroka horiek indartzea, feminismoa adibidez” (E-1).

Beste elkarrizketatu bik (E-3, E-6), eraginkortasun puntu bat aitortzen diote borroka armatuari, burutu ziren akatsak aintzat hartzen dituztelarik:

“Creo que hoy tenemos unos mínimos que se consiguieron gracias a la lucha armada. ¿Qué se hicieron muchas cosas mal? Por supuesto, pero asumimos los errores” (E-3).

“Nire ustez eraginkortasun puntu bat izan du borroka armatuak. Nik uste dut produktiboa izan dela. Egia da gauza batzuk txarto egin direla, eta orain gauza horiek onartzen dira. Igual momentu hartan justifikatzen genuen, eta orain konturatzen gara ez zela justifikatu behar” (E-6).

Beste baten ustez (E-9) borroka armatua indarrean zegoen bitartean munduak gatazka politikoaren existentziaren berri zuen, eta haren emaitza zein izango zenaren inguruko ezjakintasuna oso nabaria zen bere ustez, aukera guztiak zabalik zeuden eta:

“Bakoitzak nahi duena pentsa dezake ETAren borroka armatuaz, baina hura zegoen bitartean inork ez zekien zein izango zen “gatazkaren” emaitza, aukera guztiak zabalik zeuden, baita ETAren “garaipenarena” ere (...), Borroka armatuak alde beligerante izatea ahalbidetzen zigun munduaren begietara, bi alde beligerante, espainiarrak eta euskaldunak (...) Gizadiaren historia gudez bete-betea dago, askapen guda eta kolonizazio guda. Eta jakina da guda galdu duena izaten dela azalpenak eman behar dituen, barkamena eskatu, edo autokritika egin. Baina funtsean ni ideia honekin geratzen naiz: Herri baten askapen borroka gauza ederra da” (E-9).

Beste elkarrizketatu biren ustez (E-4, E-5) borroka armatuak ondorio positiboak zein negatiboak ekarri zituen; ondorio positibo horiek garesti ordaindu direlakoan daude:

“Gure herriarentzat kontutan hartuta nola zegoen 1958an eta 60 urte beranduago, nik esango nuke borroka armatuak ekarri duela gauza positibo pila bat. Egia da negatibo asko ere eman dituela, hau da, holako lorpenak ez dira dohain jasotzen; estatuen biolentzia ez da geratu, hau da, oso garesti ordainduta lortu dira gauza positibo pila bat” (E-4).

“Ba nire erantzuna ez da ez bata ez bestea. Hau da, nik ez nuke inoiz esango ez duela ezertarako balio izan, ze ziur aski erakunderik gabe duela urte asko izango ginen beste autonomia arrunt bat” (E-5).

Hala ere, haien ustez borroka armatuak Euskal Herrian ondorio positibo batzuk utzi dituen arren, guztiek ziklo armatuaren amaiera aldarrikatzen dute, hortaz, gaur egungo Euskal Herriko testuinguruan ez dute borroka armatuaren erabilera bideragarri ikusten, hurrengo puntuan ikusiko dugunez.

IV.2.4.2 IRAko militante ohiak.

ETAko militante ohien kasuan gertatu bezala, elkarrizketatutako IRAko militante ohiek ez dute zalantzarik borroka armatuaren erabilera zilegia izan zela baieztatzeko orduan. Izan ere, denek diote ez zela mugimendu errepublikarra izan biolentziaren bidea hautatu zuena, baizik eta komunitate nazionalistaren kontrako diskriminazioaren eta biolentziaren ondorioz etorri zela Provisional IRA erakundearen sorrera eta urte luzeetako gatazka armatua:

“There was no seriousness taken, but not only that. Then there was a developing series of incidents which led to conflict, which led to streets being burned down, people being killed by the police before the IRA are shooting anybody (...) violence wasn't brought into the situation by republicans. Republicans decided initially to go on a defence strategy, and then they decided an offence strategy, because of the violence of the state, because they believed they had to oppose the violence of the state” (I-1).

“You had a state here, and there was a huge discrimination, inequality and everything else, and people wouldn't have rallied to arms... War came to us, we didn't go looking for it” (I-7).

Izan ere, elkarrizketatu batek IRAren estrategia armatua hasieran era defentsiboan planteatu zela azpimarratzen du, geroago ofentsibara igaro bazen ere:

“It was unavoidable. In the earliest faces of the armed struggle, it was purely defensive. (...) So, an armed defence was essential just to protect life and limb, and to protect the democratic movement” (I-6).

Beste batek (I-8) esaten du, bere kasuan behintzat, borroka armatua erabiltzeko erabakia hartzea ez zela batere atsegina izan, baina ez zuela inoiz pentsatu ez-legitimoa edo immorala zenik. Halaber, oro har IRAn militatutako jendea bere bizitza-proiektua zuen jende arrunta eta gaztea zela esaten du. Hortaz, uste du jende horrek pisuzko arrazoiak izan behar zituela borroka armatuaren bideari ekiteko eta bere bizitza-eredua guztiz aldatzeko, berak egin zuen moduan:

“The conditions were there for a starter. There wouldn't have been the literal thousands upon thousands of people joining the IRA if there wasn't a reason. What would you do? We're not insane; we're pretty decent people, the same as your own people. Why would intelligent young people learn how to use weapons and make bombs? It must be something pretty serious going on here” (I-8).

